NAFARROAKO
ESKOLA
KONTSEILUA
CONSEJO
ESCOLAR
DE NAVARRA

Txostena
Informe

2016
2017

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Nafarroako Eskola Kontseilua
Hezkuntzako Batzorde Nagusia
Consejo Escolar de Navarra
Junta Superior de Educación

Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko Txostena

2016-2017 ikasturtea

Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkurak onetsia
2017ko abenduaren 20an

NAFARROAKO HEZKUNTZA SISTEMARI BURUZKO TXOSTENA, 2016-2017 ikasturtea

Egilea
Nafarroako Eskola Kontseilua / Hezkuntzako Batzorde Nagusia.
Hezkuntza Departamentua. Nafarroako Gobernua

Idazkaritza
Mª Cruz Planchuelo Aranguren
Ana Reclusa Burgui
Oihane Valderrama Erburu

Lege-gordailua
LG NA 1662-2000

2016-2017ko NHSTko edukien aurkibidea

1.- SARRERA 9

2.- HEZKUNTZAREN TESTUINGURUA 13
2.1 Alderdi demografikoak 16
2.1.1 Biztanleria eta haren osaera 16
2.1.2 Hiri- eta landa-eremuetako biztanleria 24
2.1.3 Atzerritarrak 27
2.1.4 Familia-egitura 34
2.1.5 Eskola-adineko biztanleria 38
2.2 Alderdi sozioekonomikoak 40
2.2.1 Barne-produktu gordina 40
2.2.2 Sektore ekonomikoak 42
2.2.3 Lan-merkatua 44
2.2.4 Familien ekonomia 55
Familia-errenta 55
Desberdintasuna 56
Pobrezia eta gizarte-bazterketa 58
Hezkuntzan egindako gastua 67
2.2.5 Hezkuntza eta ekonomia 71
2.3 Alderdi soziokulturalak 72
2.3.1 Ezaugarri orokorrak 72
2.3.2 Nafarroako hizkuntzak 75
2.4 Hezkuntza-alderdiak 89
2.4.1 Biztanleria helduaren ikasketa-maila 89
2.4.2 Hezkuntzaren interesa alor instituzionalean 95
Nafarroako Parlamentua (1. eranskina) 95
Nafarroako Arartekoa (2. eranskina) 95
2.4.3 Hezkuntzaren interesa alor sozialean. 96
Komunikabideak (3. eranskina) 96
Komunikabide profesionalak (4. eranskina) 96

3.- HEZKUNTZAKO BALIABIDE MATERIALAK ETA LANGILEAK 97
3.1 Hezkuntzaren finantzaketa publikoa 97
3.1.1 Hezkuntza Departamentuaren aurrekontua 97
Hezkuntza Administrazioaren gastu komunak 101
Irakaskuntzako gastu komunen aurrekontuak 104
Sare publikoko gastuen aurrekontua 108
Sare pribatuko gastuen aurrekontua 113
Laburpena 116
3.1.2 Konparatzeko datu orokorrak 124

3.2 Baliabide materialak....130
3.2.1 Baliabideak 0-3 urteetan....130
3.2.2 Ikastetxe publikoak. Araubide orokorreko irakaskuntzak....134
Ikastetxe- eta unitate-kopuruaren oinarrizko datuak....134
Azpiegiturak hobetzeko programak....137
Ekipamenduak....146
3.2.3 Itunpeko ikastetxe pribatuak Araubide orokorreko irakaskuntzak....147
Ikastetxe- eta unitate-kopuruaren oinarrizko datuak....147
3.2.4 Ikastetxe pribatuak....149
3.2.5 Araubide bereziko irakaskuntzako ikastetxeak....150
Arte-irakaskuntzak....150
Hizkuntza-irakaskuntzako zentroak....151
3.2.6 Zerbitzu osagarriak....151
Eskola-garraioa....151
Eskola-jantokiak....155
3.3 Hezkuntza-arloko langileak....156
3.3.1 0-3 urtekoekin diharduten langileak....156
3.3.2 Ikastetxe publikoetako irakasleak....156
Plantillaren bilakaera. Datu orokorrak....156
Irakaskuntzako funtzio publikorako sarbidea, mugikortasuna eta espezialitate berriak eskuratzea....161
Irakasleen administrazio araubidepeko kontratazioak....162
Irakasleen ordainsarien bilakaera....165
Administrazioko eta zerbitzuetako langileak....166
Enpresa erakundeak eta sindikatuak....166
Lan-osasuna....167
3.3.3 Itunpeko ikastetxeetako irakasleak....170
Irakasle-plantillen bilakaera....170
Soldata-taulak....171
Enpresa erakundeak eta sindikatuak....172
3.3.4 Ikastetxe pribatuetako irakasleak....173
Irakasle-plantillen bilakaera....173
3.3.5 Irakasleei buruzko ezaugarri interesgarriak....173
Ikastetxeetako irakasleak....173
Araubide orokorreko irakaskuntzak....175
Araubide bereziko irakaskuntzak....177
Helduentzako heziketa....179
Irakasleen sexuaren aldagaia....181
Irakasleen adinaren aldagaia....185
3.3.6 Ikasle/talde ratioen bilakaera....191

4.- HEZKUNTZA-PROZESUAK ETA -POLITIKAK....197
4.1 Hezkuntza Administrazioaren antolamendua....197

4.2 Eskolako egutegia eta ordutegia 198
4.3 Hezkuntza-sistemetako aurreko ikasketen baliokidetasunak. 207
4.4 Irakaskuntzen antolamendua 211
Haur Hezkuntzako lehen zikloa 214
Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta Lehen Hezkuntza 214
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 215
Batxilergoa 215
Lanbide Heziketa. 215
Arte eta Musika ikasketak 215
Helduen irakaskuntza 216
Kirol ikasketak. 217
4.5 Hizkuntzak ikastea. 217
Euskara 217
Atzerriko hizkuntzak 221
4.6 Inklusioa eta aniztasuna 228
4.6.1 Aniztasunari Erantzuteko Plana 228
4.6.2 Hezkuntzako ekitatea 231
Atzerriko ikasleak eta/edo berandu txertatutakoak 231
Absentismoa eta ikasketak garaiz aurretik uztea 233
Errefortzua, orientazioa eta hezkuntza-laguntza 234
Adimen-gaitasun handiko ikasleak 235
Ospitaleratutako ikasleak eta etxeko arreta 236
Ikastetxe publiko eta itunduentzako laguntza ekonomikoak 236
Bekak eta ikasketa-laguntzak 237
4.7 Bizikidetza eta Baterako Hezkuntza... 240
4.7.1 Antolaketa 240
4.7.2 Araudia 241
4.7.3 Helburuak 243
4.7.4 Bizikidetza eta berdintasuna sustatzeko ekintzak 244
4.7.5 Baterako hezkuntzako plana 251
4.7.6 Departamentuen arteko lankidetza 255
4.8 Kalitatea eta hobekuntza..... 256
4.8.1 Eskola-zuzendaritza..... 256
4.8.2 Kalitatearen kudeaketa ikastetxeetan 265
Ikastetxe publikoak 265
Ikastetxe itunduak 276
4.8.3 Irakasleen etengabeko prestakuntza 276
4.8.4 Hezkuntza-berrikuntzako proiektuak 283
4.9 Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak 286
4.9.1 Hezkuntzako Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzua 286
4.9.2 Konektagarritasuna 287
4.9.3 Informatikako ekipamendua 288
4.9.4 IKTak curriculumean txertatzea 292

4.10 Lanbide Heziketaren Plan estrategikoa 293
4.11 Landa-eskola 296
Ezaugarriak 297
Etorkizunerako proposamenak 304
4.12 Udalak eta hezkuntza 306
4.13 Parte-hartzea 308
4.13.1 Nafarroako Eskola Kontseilua 309
4.13.2 Ikastetxeetako Eskola Kontseiluak. 311
4.13.3 Unibertsitatez kanpoko irakasleen Mahai Sektoriala. 313
4.13.4 Gurasoen Mahaia 314
4.13.5 Ikasleen gurasoen elkarteak eta konfederazioak 315
4.13.6 Eskolatze Batzorde Nagusia 318
4.14 Europar Batasuneko hezkuntza-programak. 319

5.- ESKOLA-SISTEMAREN EMAITZAK 323
5.1 Hezkuntza-sistemara heltzea 323
5.1.1 Eskolatze-prozesuaren emaitzak 323
Bilakaera orokorra 323
Prozesuaren arauketa 324
5.1.2 Araubide orokorreko ikasketetan eskolaturiko ikasleak 325
Zifra orokorrak 325
Hizkuntza-ereduak 329
Haur Hezkuntzako lehen zikloa 332
Batxilergoa 334
Lanbide Heziketa. 335
Hezkuntza arloko berariazko premiak dituzten ikasleak. 347
Atzerritar jatorriko ikasleak 354
Helduen Hezkuntza 356
5.1.3 Araubide bereziko ikasketetan eskolatutako ikasleak 361
Hizkuntza-irakaskuntzako ikasleak 361
Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) 365
5.1.4 Arte-irakaskuntzako ikasleak 366
Musika 366
Dantza 367
Arte Plastikoak eta Diseinua 367
Diseinuko Goi Mailako Arte Irakaskuntzak 367
5.2 Progresioa sistema arautuan 368
5.2.1 Lehen Hezkuntza 368
5.2.2 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 372
Ikastalde arruntak 373
Curriculum egokituko programak – Curriculum aniztasuna 378
5.2.3 Batxilergoa 380
5.2.4 Unibertsitaterako sarbide-probak 383

5.3 Errendimendu-emaitzak....387
5.3.1 Lehen Hezkuntzako 3. maila....387
5.3.2 Lehen Hezkuntzako 4. maila....388
5.3.3 Lehen Hezkuntzako 6. mailako etapa-amaierako ebaluazioa....407
5.3.4 IIP programaren ebaluazioa Lehen Hezkuntzako 6. mailan....410
5.3.5 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila....416
5.3.6 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako etapa-amaierako ebaluazioa....434
5.3.7 Ikastetxeak eta ISEC....437
5.4 Hezkuntza-sistemaren emaitza konparatiboak....443
Egokitasun-tasa....443
Errepikapen-tasa....444
Eskola-uzte goiztiarraren tasa....446
DBHko graduatze-tasa....448
Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako graduatze-tasa....449
5.5 Sariak eta sari bereziak....451

1. eranskina. Nafarroako Parlamentua....457
2. eranskina. Nafarroako Arartekoa....487
3. eranskina. Komunikabideak....495
4. eranskina. Baliabide profesionalak....499

I. SARRERA

Nafarroako Eskola Kontseiluak 2017ko abenduaren 22an izandako osoko bilkuran aho batez onetsi zuen 2016-2017 ikasturteko Nafarroako unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sistemari buruzko txosten hau. Horrela, bete egin du Nafarroako Eskola Kontseilua arautzen duen 12/1997 Foru Legean jasotako agindua, eta bere helburu nagusietako bat lortzen laguntzen du, gizarteari gure Foru Erkidegoko hezkuntzaren errealitatearen deskribapen oso, egiaztatu eta ordenatu bat eskainita.

Aurreko ikasturteetan bezala, txostenaren edizio honetan ikuspegi sistemikoa hartu da azalpenerako. Ikuspegi honek gure hezkuntza-sistemaren funtzionamendu konplexu eta dinamikoa hobeki ulertzen lagunduko du, sistemari egiten zaion ekarpen-multzo baten konbinazio gisa deskribatuz. Horiek, barneko prozesu jakin batzuen bidez, erdietsitako emaitza edo lorpen bihurtzen dira, eta errealitate sozial eta ekonomikoan eragiten dute. Hori guztia testuinguru jakin batean gertatzen da: ekarpenetan eragiten duen, prozesuei eragiten dien eta emaitzak baldintzatzen dituen testuinguruan, hain zuzen. Emaitzek, gainera, aldatu egiten dute testuingurua bera. Hezkuntza-sistema faktore anitzeko erlazio baten gisan aztertu behar da. Bertan, ekarpenak eraginkortasunez kudeatzen badira hezkuntza-prozesu eta -politika egoki eta iraunkorren bidez, eginahal horren emaitzak hobetu eginen dira eta horrek era berean bere eragina izanen du testuinguruaren baldintzak hobetuko dituelako eta, ondorioz, gizarte garapena eta aurrerabidea sortuko dituelako.

Ikuspuntu honen abantaila da bat egiten duela hezkuntzako adierazle-sistema gehienek hartutako oinarrizko eskemarekin. Beraz, errazago erka daitezke Nafarroako Foru Komunitateko datuak beste erkidego eta herrialde batzuetako hezkuntza-errealitateekin.

Hona, hurrengo taulan, txosten honen egitura, modu eskematikoan azalduta.

1. taula: Estructura del Informe del Sistema Educativo en Navarra 2016-2017



Iturria: Nafarroako Eskola Kontseilua

Nafarroako Eskola Kontseiluak gogoeta sakona egin du, 2016-2017 ikasturtean, txosten honen egiturari eta formari dagokionez. 2017ko urtarrilaren 10ean Batzorde Iraunkorraren bileran aurkeztu zen helburu horrekin Batzorde espezifiko bat sortzeko proposamena eta otsailaren 1eko osoko bilkuran berretsi zen. Otsailaren 15ean, Batzorde Iraunkorrak «NHST txostena lantzeko gida»ren lehen zirriborroa jorratu zuen. Eduki hauek zituen:

1. Informazioaren kudeaketa: datuak eskatzea, kapituluak egitea.
2. Idazketa-arauak: hizkuntza ulergarria eta inklusiboa, grafikoak, taulak, eranskin bereziak eta laburpenak egiteko irizpideak bateratzea.
3. Edukiak: ahalik eta gehien eguneratzea, datuak generoka bereiztea, denbora-segida luzeagoak.
4. Egitura: aldaketak egitea, eduki berri garrantzitsuenak sartu ahal izateko.
5. Prozesua kontrolatzea.
6. 16-17 NHST txostenaren kronograma.
7. Zuzenketa-eredua.

Martxoan eta apirilean zehar, hainbat bilera egin ziren Batzorde Iraunkorrean adostutako aditu-taldearekin. Hauek osatzen zuten taldea:

- Nerea Alvarez Arruti (Nafarroako Berdintasunerako Institutua)
- Pablo Cebrián Jiménez (Nastat)
- Pilar Mayo Falque (Hezkuntza Departamentua)
- José Mª Pérez-Agote (NUP. Soziologia)
- Ricardo Pita Macaya (Nafarroako Gobernuko Argitalpen Zerbitzua)
- Marina Sagaseta López (Nastat)
- Juan Mª Sánchez Prieto (NUP. Soziologia)
- Alfonso Carlos Vilches (NUP. Soziologia)

Horrez gain, Nafarroako Eskola Kontseiluko kide hauek osatzen zuten Batzordea:

- Santiago Álvarez Folgueras
- Miren Aranoa Astigarraga
- Pedro Mª Baile Torrea
- Fernando Mª Barainca Lagos
- Camino Bueno Zamarbide
- Sonia Cabrero del Amo
- Jesús Mª Ezponda Iradier
- Mª Soledad Garjón López
- Jorge Lanchas Rivero
- Nekane Oroz Bretón
- Roberto Pérez Elorza
- Amaia Zubieta Garciandía

Maiatzaren 10ean, Batzordeko kideek egindako ekarpenak jasotzen zituen txostena aurkeztu zen Batzorde Iraunkorrean. Maiatzaren 24an, osoko bilkurak NHST Batzordean landutako testua onartu zuen, eta ildo horri jarraikiz egina da honako txosten hau. Edonola ere, hobetu egin nahi da txostena, alderdi hauek aintzat hartuz, besteak beste:

- Arinago kudeatzea, horretarako, era mailakatuan eskatuko zaizkie datuak iturriei, eskura egon daitezkeen eran. Gainera, prozesuaren egutegi bat ezarri dugu, eraginkortasuna hobetzeko, eta epe batzuk zehaztu ditugu, hainbat kapitulu idazteko zein berrikusteko.

- Idazketa hobetzea, hizkuntza ulergarriagoa erabilita, inklusiboa generoaren ikuspuntutik, eta bateratua taulak lantzeko eta grafikoak aurkezteko irizpideetan, eta laburpen partzial motzak egiteko aukerarekin.

- Datuak ahalik eta gehien eguneratzea, –kontuan izanik datu estatistiko asko ez direla urtero egiten–, datu horiek bereiztea eta, beharrezkoa denean, denbora-segida luzeagoak sartzea.

- Edukien egitura orokorra mantentzea, aldaketa partzialekin, baina hezkuntza-testuinguruaren analisia (II. kapituluan dago) zabalduta eta IV. kapituluan Prozesuen eta Politiken gaiak berrantolatuta eta sakonduta.

Bestetik, nahiz eta txostenaren denborazkotasunak bat egiten duen 2016-2017 ikasturtearen hasiera eta amaiera formalki adierazten duten datekin, datu eta informazio batzuek, euren ezaugarri espezifikoengatik, gainditu egiten dituzte ikasturtearen erreferentzia edo adierazitako denbora-muga zehatzak.

Ohikoa den bezala, txostena aurreko urteetako erreferentzia eta alderaketekin osatuta dago. Hala, eskainitako datu segiden bidez, sistemaren askotariko adierazleen bilakaera konparatiboki azter daiteke. Bestetik, gerta daiteke testuko zati jakin batzuetan ematen diren irakasleen, ikasleen edo unitateen gaineko datuak bat ez etortzea, iturri desberdinetatik datozelako eta data desberdinetan erregistratu direlako.

Horrela, adibidez, Nafarroako edo Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako xedapen arauemaileetan 2015-2016 ikasturteari buruzko arauak egon daitezke, argitaratze-data lehenagokoa delako xedapen horiek eragiten duten ikasturtea baino.

Beste kasu batzuetan, informazioak lotura du informazio hori eman duen iturriak berak erabiltzen dituen erreferentzia tenporalekin. Hori da, hain zuzen ere, Hezkuntza Departamentuak gauzatutako gastuei buruzko atalarekin gertatzen dena, datu horiek Nafarroako kontu orokorretatik hartuak baitira eta kontu horien izaera urtekoa baita. Hala da Parlamentuaren eta Arartekoaren jarduerei dagokien atalean ere, bi erakunde horietako memorietatik jaso baitira datuak. Inguruabar berezi batzuk direla eta, mugatuta dago Hezkuntza Ministerioko estatistika eta adierazleetatik datorren informazioa; azken datuak, oro har, 2014-2015 ikasturteari dagozkio eta, kasu batzuetan, atzeragoko ikasturteei. Horrek zaildu egiten du Nafarroako erakundeek bertako lurraldeari dagokionez eskainitako datuak beste interes-iturri batzuekin erkatzea.

Duela hainbat urtetik hona, zabaldu egiten da Nafarroako ikasleek diagnostikorako ebaluazioetan lortutako emaitzak (bai Nafarroako hezkuntza-sistemak egindako ebaluazioetakoak, bai estatuko eta nazioarteko prozesuetakoak) era deskriptiboan azaltzen dituen atala. 2016-2017 ikasturteari dagokionez, besteak beste, Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 2. mailako ebaluazio diagnostikoaren inguruko informazioa dago. Hala ere, PISA ebaluazioa aldi horretan egin ez denez, ez dago horren inguruko informaziorik.

Ezinbestekoa da lan honen garrantzia ulertzen duten eta txostena prestatzen laguntzen duten pertsona eta erakunde orori aitorpena egin eta eskerrak ematea. Txostena egiteko datuak biltzen aritzeak ahalegin handia eskatzen du, eta eginkizun horretan behar-beharrezkoa izan da Hezkuntza Departamentuaren lankidetza, baita bere Zuzendaritza Nagusi, Zerbitzu, Atal eta Bulegoena ere. Bidezkoa da, halaber, hauei guztiei ere eskerrak ematea: Arartekoari, Nafarroako Gobernuko Argitalpen Atalari, Nafarroako Estatistika Institutuari, Nafarroako Enplegu Zerbitzuari, Nafarroako Berdintasunaren Institutuari, NUPeko Soziologia Sailari, gurasoen elkarteei, sindikatuei, Corellako arte-eskolari eta, bereziki, Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkura osatzen duten kideei.

Espero dugu txosten hau erabilgarria izatea gure hezkuntzaren errealitatea hobeki ezagutu nahi duten pertsona eta erakunde guztientzat, eta, berebat, ezagutza hori baliagarria izanen dela,

hezkuntza hobetzeko ideiak eta ekimenak sustatzeko partaidetza eta konpromisorako testuinguru batean.



Aitor Etxarte Berezibar

2.- HEZKUNTZAREN TESTUINGURUA

Testuinguruaren aldagaiek alda dezakete hezkuntzak pertsonengan duen inpaktua, hezkuntzaren azpiegiturei eta politikei eragiten diete, eta zerikusia daukate hezkuntzaren emaitzetan. Gogoeta hori egiteko, gainera, gero eta garrantzi handiagoa daukaten beste hainbat faktore ere hartu behar dira kontuan, hala nola migrazioak, populazioen joan-etorriak eta ezagutzak etengabe garatu eta aplikatzea, edota faktore ekonomikoak (esaterako, merkatuen globalizazioa edo krisialdi ekonomikoaren ondorioak). Begien bistakoa da, bestalde, esparru europarrean garrantzi handia dutela Europar Batasuneko kide diren herrialdeek hartzen dituzten erabakiek. Kapitulu honetan, hezkuntzaren testuinguruaren ikuspegi orokorra izateko parametroak aurkeztuko ditugu, hainbat mailatakoak. Lehenik eta behin, Europa 2020 Estrategia aurkeztuko dugu, eta, segidan, Nafarroako hezkuntza-sistema eta bere bilakaera interpretatzeko testuinguruaren faktoreen multzo bat aztertuko dugu. Multzo horretan, faktore esanguratsu asko hartuko ditugu kontuan, baina ez guztiak.

Europa 2020 Estrategia

Europa 2020 Estrategiak (ET2020) erantzun politiko bat eman nahi die Europar Batasuneko herrialdeetako arazo komunei, eta erantzun horrek hezkuntza-politikari buruzko erabakiei ere eragiten die, noski. Hezkuntza eta Prestakuntza 2020 (ET2020) hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloko europar lankidetzarako esparru estrategikoa da, eta bere aurrekarian (ET2010) oinarritzen da. Hori dela eta, Nafarroako Hezkuntza Sistemak azken urteotan plazaratu dituen txostenetan, Europako testuinguruari buruzko erreferentziak ere badira aztertutako parametroei dagokienez, Espainiakoekin eta Nafarroakoekin alderatuta.

Europako Kontseiluak ET2020ren helburuak zehaztu zituen. Helburu horiek EBko herrialde guztietarako erreferentzia-esparrua ezartzen dute, eta, ondorioz, baldintzatu egiten dituzte estatuetan eta horien barneko autonomia-erkidego eta eskualdeetako hezkuntza-administrazioetan garatzen diren hezkuntza-politikak.

Hauek dira Europako Kontseiluak zehaztu zituen ET2020ren lau hezkuntza-helburu estrategiko handiak:

1. Etengabeko ikaskuntza eta mugikortasuna egia bihurtzea.
2. Hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea.
3. Ekitatea, kohesio soziala eta herritartasun aktiboa sustatzea.
4. Hezkuntzaren eta prestakuntzaren maila guztietan sormena eta berrikuntza sustatzea, enpresa-espiritua barne.

Esparru estrategiko horrek hainbat printzipio ditu irizpide. Horietako bat hezkuntzaren eta prestakuntzaren alorreko europar lankidetza da, etengabeko ikaskuntzaren ikuspegi integratu batekin, horretarako koordinazio-metodo irekia erabiliz eta ukitutako sektoreen arteko sinergiak garatuz.

Estatu kideek eta Batzordeak lankidetzan aritu nahi dute prozesua zuzendu, bultzatu eta ebaluatzeko orduan, bai eta emaitzak aztertzean ere. Hezkuntza eta prestakuntzaren alorreko europar lankidetzak sektoreartekoa eta gardena nahi du izan, eta horrekin harremana duten esparru politiko eta alderdi interesdun guztiak bildu nahi ditu.

Hezkuntzaren alorreko europar lankidetzaren lan-metodoak eraginkorrak eta malguak izan daitezen, esparruak hainbat lan-ziklo ezartzen ditu, 2020ra arte. Ziklo bakoitzean, alor jakin batzuk lantzen dira, aipaturiko helburu estrategikoetan oinarrituta.

Aldi berean, estatu kideek neurriak hartu behar dituzte, helburu estrategikoak betetzeko eta Europako erreferentzia-balioak lortzen laguntzeko. Ziklo bakoitza amaitzean, Kontseiluak eta Batzordeak txosten bateratu bat idazten dute, helburu estrategikoak betetzeko bidean egindako aurrerapen orokorrak ebaluatzeko xedez. Txosten horiek egiteko oinarria estatu kideek prestatutako txosten nazionalak izaten dira, bai eta eskura dauden informazio eta datu estatistikoak ere. Gainera, hurrengo ziklorako lehentasunak ezartzeko ere balio dute.

ET2020 estrategiaren eguneratzea

ET2020 Esparruak Europa 2020 Estrategiaren helburuak lortzen lagundu nahi du 2012az geroztik; horregatik, eguneratu egin ditu haren laneko lehentasunak, tresnak eta egitura. ET2020 esparru estrategikoa 2015. urtean heldu da bere erdibidera. Hori horrela izanik, Kontseiluak eta Batzordeak ebaluatu egin dituzte helburu estrategiko orokorrak lortzeko aurrerapenak eta azken zikloan adostutako lehentasunak.

Estatuek beharrezkotzat jo dituzten neurriak Hezkuntza Batzordearen bidez bideratu dira. Kontseiluak 2015eko maiatzean egindako bileran, hezkuntzaren eta prestakuntzaren alorreko lankidetzaren arloan izandako lorpenak aztertu zituzten, eta, era berean, etorkizunerako jarraibideak erabaki zituzten. Honela laburbiltzen dira:

1. ET2020 esparru estrategikoaren lan-zikloa bost urtera luzatu behar da, Europa 2020 estrategia guztiarekin hobeto koordinatzeko.
2. Lehentasun gutxiagotan jarri behar da arreta, horrek balio erantsi handia emanen bailioke Europari.
3. EBn eskuragarri dauden finantza-tresnak (esaterako, Erasmus+ eta Gazte Bermea) eraginkortasun handiagoz erabili behar dira.
4. Indartu egin behar da hezkuntzaren eta prestakuntzaren sektorearen eta enplegu-politiken sektorearen arteko lankidetza.
5. Hezkuntza ez da lan-munduan sartzeko gaitasuna hobetzera mugatu behar; era berean, garapen pertsonala eta herritartasun aktiboa ere sustatu behar ditu.

Kontseiluak eta Batzordeak 2015eko azaroan argitaratu zuten beren txostena, eta hiru ondorio estrategiko nagusi aurkeztu zituzten:

1. Baliozkoa da maila guztietako hezkuntza eta prestakuntza biltzen dituen esparru bateratua, eta oraindik ere badago ikaskuntzaren esperientzien egungo malgutasun eta iragazkortasuna mantentzeko beharra.
2. 2009an formulatutako lau helburu estrategikoek baliozko izaten jarraitzen dute, baina jarduteko ikuspuntua birdefinitu beharra dago, premiazko erronka ekonomikoak eta enpleguarekin lotutakoak jasotzeko. Gainera, zehaztu egin behar da hezkuntzari zer egitea dagokion ekitatea eta integrazioa sustatzeko, eta, halaber, Europako balio komunak, kultura arteko gaitasunak eta herritartasun aktiboa transmititzeko.
3. ET2020 estrategiak ekarpen garrantzitsua egiten dio EBren estrategia orokorrari enpleguaren, hazkundearen eta inbertsioaren alorretan. Horren harira, proben oinarria eta erreformaren erronken inguruko elkarrekiko ikaskuntza indartu behar dira, bai eta esparruak herrialde bakoitzean duen garrantzi espezifikoa ere.

Hori guztia aintzat hartuta, 2020ra arteko lankidetza bideratzea erabaki zuten, lan-zikloa 3 urtetik 5 urtera luzatuta. Gai horren ikuspegi historikoa duzue taula honetan.

2. taula: ET2020ren lehentasunezko alor eta esparruak

ET2020ren Helburu estrategikoetan oinarritutako lehentasunezko alor eta esparruak lan zikloetan zehar			
Helburu estrategikoak	Lehentasunezko alorrak 2009/2011 zikloa	Lehentasunezko alorrak. 2012/2014 zikloa	Lehentasunezko esparruak* 2015/2020 zikloa
Etengabeko ikaskuntza eta mugikortasuna Egia bihurtzea	Etengabeko ikaskuntzari buruzko estrategiak	Etengabeko ikaskuntzari buruzko estrategiak	1.- Kalitate altuko ezagutza, gaitasun eta eskumen egokiak, etengabeko ikaskuntzaren bidez eskuratutakoak eta ikaskuntzaren emaitzetan ardaztulakoak, enplegarritasunaren, berrikuntzaren herritartasun aktiboaren eta ongizatearen alde 2.- Hezkuntza inklusiboa, berdintasuna, ekitatea, diskriminaziorik eza eta gaitasun zibikoen sustapena 3.- Hezkuntza eta prestakuntza irekiak eta berritzaileak, aro digitalean guztiz txertatutakoak 4.- Laguntza sendoa irakasleentzat, prestazaileentzat, ikastetxeko zuzendarientzat eta hezkuntzako gainerako langileentzat 5.- Gaitasun eta titulazioen gardentasuna eta onarpena, ikaskuntza eta laneko mugikortasuna errazteko 6.- Hezkuntza-eta prestakuntza-sistemen inbertsio jasangarria, kalitatea eta eraginkortasuna
	Kualifikazioen Eurpako esparrua	Europako erreferentzia-tresnak	
	Ikaskuntzako mugikortasuna zabaltzea	Mugikortasuna ikaskuntzan	
Hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea	Hizkuntzak ikaslea	Oinarrizko gaitasunak (irakurtzea eta idaztea, matematikak, zientzia eta teknologia) eta hizkuntzak	
	Irakasle eta hezitzaileen garapen profesionala	Irakasleen, hezitzaleen eta irakasleetako arduradunen garapen profesionala	
	Gobernamendua eta finantzaketa	Goi-mailako hezkuntza modernizatzea eta hirugarren mailako hezkuntzako titulazioen kopurua hanzditzea	
	Irakurketako, matematiketako eta zientzietako oinarrizko gaitasunak	Lanbide Heziketaren egokitasuna eta erakargarritasuna	
	Enplegu berrientzako kualifikazio berriak	Finantzaketa eraginkorra eta hezkuntza	
Ekitatea, kohesio soziala eta herritartasun aktiboa sustatzea	Hezkuntza eta prestakuntza behar baino lehenago uztea	Eskola uztea	
	Eskolaurreko hezkuntza	Lehen haurtzaroko hezkuntza eta zainketa	
	Migratzaileak		
	Hezkuntza-premia bereziko ikasleak	Ekitatea eta aniztasuna	
Somena eta berrikuntza sustatzea hezkuntzaren eta prestakuntzaren esparru guztietan, enpresa-espiritua barne	Zeharkako gaitasun giltzarriak	Akorkioak enpresekin, ikerketa-erakundeekin eta gizarte zibilarekin	
	Berikuntza sustatzen duten erakundeak	Zeharkako gaitasun giltzarriak, ekintzailetzari buruzko irakaskuntza, alfabetatze elektronikoa, alfabetatze mediatikoa eta ikskuntza-eremu berritzaileak	
	Enpresa-munduaren eta hezkuntza, prestakuntza eta ikerketaren mail aeta sektoreen arteko akordioak		

** Helburu estrategikoak egokitzat hartzen diren arren, lehentasunezko alorrak 6ra murriztu dira ziklo berri honetan. Hauetako bakoitza helburu estrategiko bat edo gehiago lortzen lagun dezake 2020. urtera arte. Estatu kideak dira, bere lehentasunen arabera, parte hartu nahi duten lan eta kooperazio alorrak hautatzen dituztenak.*
Iturria: Guk geuk egina Eurydice España-REDIEen datuekin.

Planteamendu estrategiko horren inplikazioek lehentasunezko jarduketen multzo berri baterantz bidera ditzakete hezkuntza-jarduerak. Argi dago etengabeko hobekuntzaren kultura, prestakuntza, ebaluazioa eta kontu-ematea, bai eta kudeaketaren eta emaitzen gardentasuna ere, besteak beste, lagungarri izan beharko liratekeela hezkuntzako eragile guztientzat, sistemaren kudeaketa orokorra hobeki koordinatzeko eta hobetzeko, eta eragina izanen dutela dagokion administrazioek (tartean, Nafarroako Foru Komunitateak) hezkuntza-politikaren arloan hartzen dituzten erabakietan.

2.1. Alderdi demografikoak

Biztanleriarekin harremana duten adierazleek oso garrantzi handia daukate irakaskuntza antolatzeko orduan; horregatik, behar-beharrezkoa da haien azterketa egitea.

2.1.1. Biztanleria eta haren osaera

Hezkuntza-politiketan garrantzi erabakigarria duten aldagaiak honako hauek dira: herrialde edo eskualde bateko biztanleria, horren guztizko kopurua, lurraldean duen banaketa geografikoa, adin-piramidea, epe jakin bateko migrazio-fluxuak eta datu horien ondorengo urteetako proiekzioak. Aldagai horiek zuzeneko eragina dute plangintzan, erabili beharreko baliabideetan eta horiek banatzeko moduan.

Biztanleriaren tamaina

2017ko urtarrilaren 1ean, 511,805 milioi biztanle bizi ziren EB-28n. Iazko datuekin alderatuz, 1,523 milioiko hazkundea egon da. Dinamika hori, baina, ez da berdina estatu eta eskualde guztietan; izan ere, badira hazkunde handia duten herrialde batzuk, egonkor mantentzen diren beste zenbait eta atzera egiten ari direnak ere. Gero eta biztanle gehiago dauzkaten herrialdeen artean, Alemania, Austria, Espainia, Frantzia, Suedia eta Erresuma Batua aipa ditzakegu. Aldiz, gero eta biztanle gutxiago dituzten herrialdeen artean, Bulgaria, Estonia, Kroazia, Grezia, Hungaria, Italia, Portugal eta Errumania daude.

1. grafikoa: EBko biztanleriaren bilakaera. 2007-2017



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

EBko aldaketa demografikoak nabarmenak izan daitezke datozen hamarkadetan; izan ere, etorkizunerako joerei buruzko eredu gehienen arabera, emankortasun-maila baxuen eta bizitza-luzera handiagoaren eraginez, EBko biztanleriak zahartzen jarraituko du. Nahiz eta migrazioak eragin handia duen EBko biztanleriaren dinamikan, herrialde askotako herritarrak zahartzeko joera migrazioak soilik aldatzea oso zaila izanen da.

Zahartzearekin loturiko ondorio ekonomiko eta sozialek ondorio larriak sor ditzakete Europan. Adibidez, emankortasun-tasa baxuak ikasle-kopurua murriztea eraginen du; era berean, gainontzeko biztanleria mantentzeko lanerako adinean dauden pertsona gutxiago izanen dira, bai eta adin aurreratuko pertsonen proportzio handiagoa ere. Aldaketa demografiko horiek gobernuen hainbat ahalmenetan eraginen dute, besteak beste, sarrera fiskalak areagotzeko ahalmenetan, baita beren finantzak orekatzeko eta pentsio nahiz zerbitzu egokiak eskaintzeko ahalmenetan ere.

Erronka demografiko handienei aurre egin beharko dieten eremuak, oro har, eskualde periferikoak, landa-eskualdeak eta eskualde postindustrialak izanen dira, bertako biztanleriak behera egin baitezake. Aldaketa demografikoaren lurralde-hedadura ondorengo arrazoien bidez ikus daiteke:

- ekialdetik mendebalderako efektua; horren eraginez, 2004az geroztik EBn sartu ziren estatu kide askok arazoak dituzte.
- Iparraldetik hegoalderako efektua; izan ere, askotan, desberdintasun nabarmenak daude Mediterraneoko arroko eskualdeen eta EBko iparralde eta mendebaldeko eskualdeen artean.
- Landa- eta hiri-eremuen arteko bereizketa; izan ere, hiri-eskualde gehienetako biztanleriak gora egiten jarraitzen du; landa-eremu askotako biztanle-kopurua, ordea, beherantz doa.
- Hiriburuaren eskualdearen efektua; hiriburuak eta inguratzen dituzten eskualdeak hazten ari dira, lan-aukera gehiago eskaintzen baitituzte.
- Nazio-mailako desberdintasunek eskualdeen lehiakortasunean eta kohesioan eragina izan dezakete; esaterako, Alemania eta Turkian (ekialdeko eta mendebaldeko eskualdeen artean), edo Frantzia, Italia eta Erresuma Batuan (iparraldeko eta hegoaldeko eskualdeen artean).

2. grafikoa: EBko biztanleria, adin-taldearen arabera. 2016ko abenduaren 31n



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Espainiako biztanleriak, 2011. urtetik lehendabiziko aldiz, gora egin zuen 2016an; eta 2017ko urtarrilaren 1ean, 46.528.966 biztanle zeuden; hau da, urte bete lehenago baino 88.867 biztanle gehiago.

3. grafikoa: Biztanleriaren bilakaera Espainian eta Nafarroan. 1997 - 2017



Iturria: Guk geuk egina, Nastaten datuekin

2016an zehar, biztanle-kopuruak behera egin zuen autonomia-erkidego hauetan: Gaztela eta Leonen, Gaztela-Mantxan, Extremaduran, Asturiasen, Aragoin, Kantabrian eta Errioxan. Beherakada handienak Gaztela eta Leonen (–%0,76), Extremaduran (–%0,67) eta Asturiasko Printzerrian (–%0,62) erregistratu ziren. Gainerako autonomia-erkidegoetan, ordea, gora egin zuen. Hala, Balear Uharteetan (%1,35), Kanarietan (%0,92) eta Madrilen (%0,80) erregistratu ziren biztanleriari loturiko igoera handienak.

Biztanleriaren igoera hori, nagusiki, Espainiako nazionalitatea duten biztanleria hazi zelako gertatu zen (81.975 pertsona). Bilakaera horretan, zerikusia izan zuen Espainiako nazionalitatea lortzeko prozesuak, 150.739 biztanleri eragin baitzien.

6.892 pertsona atzerritar gehiago zeuden (%0,16), eta, guztira, 4.424.409 izatera heldu ziren. Hazkunde hori immigrazioaren hazkundearen eta Espainiako nazionalitatea ematearen ondorioz gertatu zen. Hala, atzerritarrak murriztu ziren. Errumanian, Bolivian, Marokon eta Ekuadorren sorterria duten biztanleek izan zituzten beherakada handienak. Aldiz, Italia, Txina eta Ukrainako biztanleek izan zuten hazkunde nabarmenena.

Saldo begetatiboa (jaiotzak ken heriotzak) negatiboa izan zen 10 autonomia-erkidegotan; beste zazpitan eta Ceuta eta Melillako hiri autonomoetan, berriz, positiboa izan zen. Saldo begetatibo txikiena izan zuten autonomia-erkidegoak Galizia (–12.683), Gaztela eta Leon (–11.698) eta Asturias (–6.851) izan ziren. Bestalde, saldo handienak Madrilen (17.785), Andaluzian (9.820) eta Katalunian (5.148) erregistratu ziren.

Foru Komunitateak, 640.502 biztanlerekin, hazkunde txiki bat izan zuen 2016. urtean zehar (3.016 pertsona).

3. taula: Autonomia-erkidegoen bilakaera demografikoa. 2016

Autonomia-erkidegoa	Biztanleria 2015-1-1ean	Biztanleria 2016-1-1ean	2016eko saldoak		
			Begetatiboa	Kanpoko migrazioa	Barneko migrazioa
Guztira	46.528.966	46.440.099	-259	89.126	0
Andaluzia	8.409.657	8.403.774	9.820	6.228	-10.165
Aragoi	1.317.076	1.318.571	-2.541	1.915	-869
Asturias	1.034.449	1.040.925	-6.851	1.345	-970
Balear Uharteak	1.150.839	1.135.527	2.561	7.463	5.287
Ceuta	85.107	84.652	558	260	-363
Errioxa	312.647	312.810	-305	400	-258
Euskadi	2.167.707	2.164.066	-2.977	4.420	2.197
Extremadura	1.077.715	1.084.969	-2.417	-776	-4.061
Galizia	2.710.607	2.720.102	-12.683	4.772	-1.585
Gaztela eta Leon	2.435.797	2.454.454	-11.698	611	-7.569
Gaztela-Mantxa	2.040.379	2.048.900	-1.297	-1.564	-5.659
Kanariak	2.154.905	2.135.209	1.149	16.893	1.654
Kantabria	581.477	582.504	-1.702	441	234
Katalunia	7.441.176	7.408.290	5.148	24.431	3.306
Madril	6.475.872	6.424.275	17.785	17.292	16.519
Melilla	85.116	84.764	986	89	-723
Murtzia	1.472.949	1.466.474	4.705	1.039	731
Nafarroa	640.502	637.486	174	1.624	1.218
Valentziako E.	4.934.993	4.932.347	-674	2.243	1.077

Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Biztanleria, sexuaren eta adinaren arabera

Espainian, erroldan inskribatu diren pertsona guztietatik %50,9 emakumezkoak dira eta %49,1, gizonezkoak.

Adinari dagokionez, 2016an, biztanleriak gora egin zuen 40-74 adin-tartean, 10-19 adin-tartean eta 80 urte baino gehiagokoenean. Biztanleen %19,6k 20 urte baino gutxiago ditu; %34,3k, 20 eta 44 urte bitartean; %27,5ek, 45 eta 64 urte arteko adina, eta %18,6k, 65 urte edo gehiago.

Aitzitik, behera egin zuten 20 eta 39 urte bitarteko biztanleriak (337.221 pertsona gutxiago), 10 urte baino gutxiagokoak (73.175 gutxiago) eta 75 eta 79 urte bitartekoak (46.926 pertsona gutxiago). Horrek guztiak Europako beste herrialde batzuetako zahartze orokor komuna islatzen du.

4. taula: Biztanleria, adin-taldearen eta sexuaren arabera. Espainia. 2017ko urtarrilaren 1ean

	Biztanleria			Ehunekoa		
	Bi sexuak	Gizonak	Emakumeak	Bi sexuak	Gizonak	Emakumeak
Guztira	46.528.966	22.835.674	23.693.293	100	-49,1	50,9
0-4	2.148.383	1.106.455	1.041.928	4,6	-2,4	2,2
5-9	2.458.407	1.269.014	1.189.393	5,3	-2,7	2,6
10-14	2.395.667	1.233.270	1.162.397	5	-2,7	2,5
15-19	2.222.811	1.145.113	1.077.698	4,7	-2,5	2,3
20-24	2.261.020	1.153.509	1.107.511	5	-2,5	2,4

25-29	2.518.366	1.264.722	1.253.644	5,6	-2,7	2,7
30-34	2.961.043	1.476.327	1.484.715	6,8	-3,2	3,2
35-39	3.716.570	1.875.945	1.840.626	8,4	-4,0	4,0
40-44	3.960.335	2.013.125	1.947.210	8,5	-4,3	4,2
45-49	3.742.512	1.889.905	1.852.607	8	-4,1	4,0
50-54	3.524.707	1.758.266	1.766.441	7,4	-3,8	3,8
55-59	3.151.461	1.552.005	1.599.456	6,6	-3,3	3,4
60-64	2.636.543	1.281.128	1.355.415	5,5	-2,8	2,9
65-69	2.370.045	1.128.652	1.241.394	5	-2,4	2,7
70-74	2.058.779	952.251	1.106.528	4,2	-2,0	2,4
75-79	1.537.204	675.614	861.590	3,4	-1,5	1,9
80-84	1.450.915	586.843	864.072	3,1	-1,3	1,9
85 eta +	1.414.198	473.530	940.668	2,9	-1,0	2,0

Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Biztanleria adin-tartearen eta sexuaren arabera banatzean, oso antzekoak dira Nafarroako eta Espainiako datuak. Adinari dagokionez, biztanleriaren %20,6k 20 urte baino gutxiago ditu; %32,7k, 20 eta 44 urte bitartean; %27,6k, 45 eta 64 urte arteko adina, eta %19,1ek, 65 urte edo gehiago.

5. taula: Biztanleria, adin-taldearen eta sexuaren arabera. Nafarroa. 2017ko urtarrilaren 1ean

	Biztanleria			Ehunekoa		
	Bi sexuak	Gizonak	Emakumeak	Bi sexuak	Gizonak	Emakumeak
Guztira	642.797	318.445	324.352	100	-49,5	50,5
0-4	31.441	16.091	15.350	5	-2,5	2,4
5-9	35.224	18.122	17.102	5,5	-2,8	2,7
10-14	33.917	17.315	16.602	5,2	-2,7	2,6
15-19	32.178	16.431	15.747	4,9	-2,6	2,4
20-24	31.286	15.921	15.365	4,8	-2,5	2,4
25-29	32.426	16.338	16.088	5,1	-2,5	2,5
30-34	38.535	19.511	19.024	6,3	-3,0	3,0
35-39	49.921	25.385	24.536	8,1	-3,9	3,8
40-44	54.173	27.883	26.290	8,4	-4,3	4,1
45-49	51.404	26.475	24.929	8	-4,1	3,9
50-54	48.206	24.400	23.806	7,4	-3,8	3,7
55-59	42.991	21.634	21.357	6,6	-3,4	3,3
60-64	36.604	18.223	18.381	5,6	-2,8	2,9
65-69	33.049	16.134	16.915	5,1	-2,5	2,6
70-74	28.922	13.810	15.112	4,3	-2,1	2,4
75-79	20.582	9.238	11.344	3,3	-1,4	1,8
80-84	20.097	8.382	11.715	3,1	-1,3	1,8
85 eta +	21.841	7.152	14.689	3,3	-1,1	2,3

Iturria: Guk geuk egina, Nastaten datuekin

Biztanle gazteen kopurua nabarmen jaitsi da, 20 eta 60 urte arteko erdiko adin-taldeetan dauden biztanleekin alderatuta. Horrek ondorio ekonomiko eta sozial handiak ditu, hala hezkuntza-plangintzari dagokionez nola erabaki sozial guztien alorrean; izan ere, datozen

urteotan, 65 urtetik gorako pertsonen tasa altuenak dituzten munduko herrialdeen parean egonen da Nafarroa.

Aurkeztutako datuek erakusten digutenez, Espainian eta Nafarroan antzekoak dira biztanleriaren dinamikak; hori horrela, gizarterik gazteenetako piramideekin zerikusi txikia daukate bi lurralde-eremu horietako grafikoek, aurrez adierazi den moduan.

4. grafikoa: Biztanleria, adin-taldearen eta sexuaren arabera. Espainia eta Nafarroa. 2017ko urtarrilaren 1ean



1 *Iturria: Nastat* *Iturria: Nastat*

Nafarroan eta Espainian, jaiotza-kopuruaren bilakaerak eta 0-4, 5-9, 10-14, 15-19 adin-taldeen tamainak egonkortzeko edo murrizteko joera du.

Behin-behineko datuen arabera, 2016. urtean, 408.384 haur jaio ziren Espainian; hau da, duela urtebete baino 11.906 haur gutxiago (–%2,8). 2016. urtean zehar, jaiotza-kopuruak behera egin zuen autonomia-erkidego guztietan. 2015. urtearekin alderatuta, jaitsiera handienak Gaztela eta Leonen (–%4,3), Aragoin (–%3,8) eta Valentzian (–%3,7) izan ziren.

6. taula: Jaiotzak autonomia-erkidegoaren arabera, 2000-2016

Autonomia-erkidegoa	2000	2010	2014	2015	2016
Guztira	397.632	486.575	427.595	419.109	408.384
Andaluzia	80.579	92.201	82.195	80.523	78.955
Aragoi	9.921	12.940	11.602	11.330	10.924
Asturias	6.731	7.763	6.600	6.457	6.347
Balear Uharteak	9.502	11.967	10.673	10.580	10.564
Ceuta	996	1.192	1.202	1.093	1.067
Errioxa	2.346	3.374	2.834	2.734	2.661
Euskadi	17.316	21.170	19.379	18.840	18.243
Extremadura	10.133	10.128	9.167	8.854	8.755
Galizia	19.418	22.047	19.630	19.412	19.049
Gaztela eta Leon	17.874	20.486	17.886	17.366	16.636
Gaztela-Mantxa	16.723	21.998	18.392	18.175	17.727
Kanariak	18.981	18.305	16.398	16.161	16.138

Kantabria	4.341	5.575	4.565	4.368	4.235
Katalunia	63.807	84.368	71.589	69.902	67.909
Madril	56.623	73.878	65.505	64.681	62.686
Melilla	1.103	1.359	1.625	1.518	1.471
Murtzia	14.195	18.039	16.308	15.947	15.458
Nafarroa	5.262	6.778	6.183	6.013	5.895
Valentziako E.	40.775	51.684	44.343	43.311	41.836
Atzerrian bizi direnak	1.006	1.323	1.519	1.844	1.828

Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

7. taula: Espainiako biztanleriaren hazkundea, adin-taldearen arabera. 2016

Adin-taldeak	Biztanleria urtarrilaren 1ean		Urteko hazkundea	
	2017	2016	Absolutua	Erlatiboa (%)
Guztira	46.528.966	46.440.099	88.867	0,19
0-4 urte	2.148.383	2.202.761	-54.378	-2,47
5-9 urte	2.458.407	2.477.204	-18.797	-0,76
10-14 urte	2.395.667	2.345.436	50.231	2,14
15-19 urte	2.222.811	2.185.630	37.181	1,7
20-24 urte	2.261.020	2.280.631	-19.612	-0,86
25-29 urte	2.518.366	2.564.166	-45.800	-1,79
30-34 urte	2.961.043	3.100.404	-139.361	-4,49
35-39 urte	3.716.570	3.849.019	-132.448	-3,44
40-44 urte	3.960.335	3.924.814	35.521	0,91
45-49 urte	3.742.512	3.712.893	29.619	0,8
50-54 urte	3.524.707	3.461.060	63.647	1,84
55-59 urte	3.151.461	3.073.611	77.850	2,53
60-64 urte	2.636.543	2.568.305	68.238	2,66
65-69 urte	2.370.045	2.348.133	21.912	0,93
70-74 urte	2.058.779	1.975.727	83.052	4,2
75-79 urte	1.537.204	1.584.129	-46.926	-2,96
80-84 urte	1.450.915	1.430.780	20.135	1,41
85 a 89 años	918.984	889.323	29.661	3,34
90-94 urte	390.745	371.148	19.596	5,28
95 urte eta gehiago	104.469	94.924	9.546	10,06

Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Bilakaeraren aurreikuspenak

Nafarroan aurreikusitako bilakaera demografikoak erakusten du azken hamarkadan izandako %15eko hazkundetik biztanleriaren %0,2ko jaitsierara igaroko garela 2014-2029 epealdian.

Epealdi horretan, aurreikusitako jaiotzek behera egiteko joera izanen lukete. 2015ean, 5.593 jaiotza egon ziren eta, Nastaten datuen arabera, 2028an, 4.412 jaiotza egonen lirateke.

5. grafikoa: Nafarroako jaiotzak eta 2015-2028 aldirako proiekzioak



Iturria: Guk geuk egina, Nastaten datuekin

Urte horietan aurreikusten da Nafarroako biztanleria ez dela kopuruz handituko, eta erkidego gehienetan biztanleriak behera eginen duela. Beherakada erlatibo handienak Asturiasen (–%11,1), Gaztela eta Leonen (–%10,7) eta Galizian (–%8,5) erregistratuko lirateke. Aitzitik, biztanleriak gora eginen luke soilik Murtzian, Madrilen, Kanarietan, Balear Uharteetan, Katalunian eta Ceuta eta Melillako hiri autonomoetan.

6. grafikoa: 2016-2031 aldirako proiektatutako hazkunde erlatiboa, autonomia-erkidegoaren arabera

Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Epealdi horretan, Europako herrialde eta eskualdeetan, bi izanen dira joera nagusiak: egonkortasun demografikoa (Alemania, Espainia eta Italia) eta galera (Bulgaria, Polonia, Errumania...). Hazkunde demografikoa herrialde bakan batzuetan baino ez da aurreikusten (Danimarka, Frantzia, Irlanda, Suedia eta Erresuma Batua).

8. taula: Europar Batasuneko biztanleriaren proiekzioak 2015-2030 aldirako

	2015	2020	2025	2030
Alemania	80.689.000	80.392.000	79.960.000	79.294.000
Austria	8.545.000	8.656.000	8.763.000	8.844.000
Belgika	11.299.000	11.634.000	11.837.000	12.019.000
Bulgaria	7.150.000	6.884.000	6.603.000	6.300.000
Danimarka	5.669.000	5.776.000	5.892.000	6.003.000
Erresuma Batua	64.716.000	66.700.000	68.527.000	70.113.000
Errumania	19.511.000	18.848.000	18.229.000	17.639.000
Eslovakia	5.426.000	5.435.000	5.414.000	5.353.000
Eslovenia	2.068.000	2.075.000	2.070.000	2.054.000
Espainia	46.122.000	46.194.000	46.095.000	45.920.000
Estonia	1.313.000	1.295.000	1.272.000	1.243.000
Finlandia	5.503.000	5.585.000	5.656.000	5.706.000
Frantzia	64.395.000	65.720.000	66.896.000	68.007.000
Grezia	10.955.000	10.825.000	10.657.000	10.480.000
Herbehereak	16.925.000	17.185.000	17.419.000	17.605.000
Hungaria	9.855.000	9.685.000	9.492.000	9.275.000
Irlanda	4.688.000	4.874.000	5.048.000	5.204.000
Italia	59.798.000	59.741.000	59.486.000	59.100.000
Kroazia	4.240.000	4.163.000	4.072.000	3.977.000
Letonia	1.971.000	1.919.000	1.865.000	1.806.000
Lituania	2.878.000	2.795.000	2.725.000	2.655.000
Luxenburgo	567.000	605.000	644.000	678.000
Malta	419.000	423.000	426.000	428.000
Polonia	38.612.000	38.407.000	37.924.000	37.207.000
Portugal	10.350.000	10.161.000	9.991.000	9.845.000
Suedia	9.779.000	10.120.000	10.463.000	10.766.000
Txekiar Errepublika	10.543.000	10.573.000	10.550.000	10.461.000
Zipre	1.165.000	1.218.000	1.262.000	1.300.000

Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

2.1.2. Hiri- eta landa-eremuetako biztanleria

Biztanleria hirietan edo landa-eremuetan kokatua dagoen, oso ezberdinak izaten dira fenomenoak, beharrak, zerbitzuen egiturak eta kostuak.

Espainian, 50.000 biztanle baino gehiagoko 143 udalerri daude; 20.001 eta 50.000 biztanle arteko 259; 10.001 eta 20.000 biztanle arteko 347; 5.001 eta 10.000 biztanle arteko 551, eta 1.001 eta 5.000 biztanle arteko 1.870. Gainontzeko 4.955 udalerrietan, mila biztanle baino gutxiago daude erroldatuta.

Espainian erroldatutako pertsonen %39,4 100.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi dira. Autonomia-erkidegoaren arabera, Madrilen (%72,0) eta Aragoin (%50,6) daude ehunekorik altuenak. Txikienak, ordea, Gaztela-Mantxakoak (%8,4) eta Extremadurakoak (%13,8) dira. Bestalde, 10.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi da biztanleriaren %20,8. Ehunekorik altuenak Extremadura (%51,2) eta Nafarroari (%45,4) dagozkio, eta txikienak, berriz, Murtzian (%4,5) eta Madrilen (%5,8) jaso ditugu.

Biztanle gehien galdu dituzten eremuak landa-eremuak dira, bereziki, duela urte batzuetatik despopulazio-prozesuen eraginez kaltetutako udalerriak. Lan-merkatuaren eta despopulazioaren artean erlazio zuzena dago, eta hori udalerri txikietan gertatzen denaren adierazgarri da; izan ere, lan-aukera faltak biztanleen galera progresiboa eragiten du.

Espainian, guztira, 8.125 udalerri daude; horietatik, 4.995etan, mila biztanle baino gutxiago daude erroldatuta. Eta mila biztanle baino gutxiagoko udalerri horiek, guztira, doi-doi milioi eta erdi bizilagun dituzte. Hamalau probintziatan, udalerri guztien %80 baino gehiagotan, 1.000 biztanle baino gutxiago daude. Udalerrien %61ean, biztanleriaren %3,15 baino ez da bizi. 2015. eta 2016. urteen artean, Espainiako lurraldeen arteko desoreka demografikoak okerrera egin zuen. Biztanleak galtzearen ondorioz, gero eta udalerri gehiagok dituzte mila biztanle baino gutxiago. Hala eta guztiz ere, udalerri horietako biztanleriaren pisua, Espainiako mapa osoarekin alderatuta, gero eta txikiagoa da.

Aldea handiagoa da ehun erroldatu baino gutxiagoko udalerrietan. Espainian, gaur egun, 1.286 udalerri daude egoera horretan. Beraz, guztizkoaren %16 dira; hala ere, guztira, 74.943 pertsona besterik ez dira. Alegia, biztanleria osoaren %0,16 baino ez.

Landatasun-indizea

Landatasun-indizea 2.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren biztanleen ehunekoa da. Espainia osorik hartuz gero, biztanleria osoaren %6 bizi da landa-eremuan. Nabarmentzekoak dira, beren indize altua dela eta, Gaztela eta Leon (%25,5), Extremadura (%20,4) eta Aragoi (%16). Nafarroa, %13,3rekin, bosgarren postuan dago. Beste muturrean, Murtzia, Madril eta Kanariak daude, %1etik beherako datuekin.

7. grafikoa: Landa-eremuko biztanleen ehunekoa, autonomia-erkidegoetan. 2016



Oharra: 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi den biztanleriari landa-eremuko biztanleria deritzo.
Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Nafarroan, 2002-2016 aldian, bilakaera negatibo motela izan du 2.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren biztanleen ehunekoak. Alabaina, udalerri horietako 17 urtetik beherako biztanleriak eutsi egin dio lehendik zeukan mailari (13.000 gazte inguru), eta, ehunekoei dagokienez, haien proportzioa zertxobait handiagoa da biztanle gehiago dituzten udalerrietakoa baino. Errealitate horrek garrantzi handia du landa-eremuko hezkuntza-zerbitzuen etorkizuna erabakitzeko orduan.

9. taula: Udalerriaren tamainaren araberako biztanleria. (2.000 biztanle arteko eta gorako udalerrietako biztanleria). Nafarroa

	Biztanleria, guztira			17 urtetik beherakoak			17 urtetik beherakoak (%)		
	Guztira	2.000 biztanle arteko udalerriak	2.000 biztanletik gorako udalerriak	Guztira	2.000 biztanle arteko udalerriak	2.000 biztanletik gorako udalerriak	Guztira	2.000 biztanle arteko udalerriak	2.000 biztanletik gorako udalerriak
2002	569.628	98.230	471.398	87.422	12.471	74.951	15,3	12,7	15,9
2003	578.210	96.791	481.419	90.119	12.572	77.547	15,6	13,0	16,1
2004	584.734	97.320	487.414	92.274	12.775	79.499	15,8	13,1	16,3
2005	593.472	94.566	498.906	94.833	12.539	82.294	16,0	13,3	16,5
2006	601.874	91.426	510.448	97.044	12.145	84.899	16,1	13,3	16,6
2007	605.876	92.072	513.804	98.964	12.472	86.492	16,3	13,5	16,8
2008	620.377	91.157	529.220	102.649	12.511	90.138	16,5	13,7	17,0
2009	630.578	91.642	538.936	105.982	12.856	93.126	16,8	14,0	17,3
2010	636.924	92.361	544.563	108.704	13.206	95.498	17,1	14,3	17,5
2011	642.051	92.805	549.246	110.771	13.433	97.338	17,3	14,5	17,7
2012	644.566	90.696	553.870	112.152	13.162	98.990	17,4	14,5	17,9
2013	644.477	90.186	554.291	113.013	13.299	99.714	17,5	14,7	18,0
2014	640.790	86.995	553.795	112.894	12.809	100.085	17,6	14,7	18,1
2015	640.476	86.250	554.226	113.163	12.720	100.443	17,7	14,7	18,1
2016	640.647	87.871	552.776	113.272	13.109	100.163	17,7	14,9	18,1

** Aurreko urteetan Iruñeko biztanleria 2.000 biztanletik gorako udalerrietatik kanpo zegoen.*
Iturria: Guk geuk egina, Nastaten datuekin

8. grafikoa: Hiri- eta landa-eremuetako biztanleen ehunekoa. Nafarroa



Iturria: Guk geuk egina, Nastaten datuekin

9. grafikoa: Landa- eta hiri-eremuetako 17 urtez beherako biztanleriaren ehunekoa. Nafarroa



Iturria: Guk geuk egina, Nastaten datuekin

2.1.3. Atzerritarrak

Hezkuntza-sisteman, azken urteotan, faktore zehatz batzuek eragin handia izan dute; faktore horietako bat jatorriz atzerritarrak diren biztanleak dira. 2017ko urtarrilaren 1ean, Espainian inskribatutako biztanleriaren %9,78 atzerritarrak ziren. Nafarroan, ordea, biztanleria guztiaren %8,47 ziren.

Espainiako Etengabeko Erroldan, 2017ko urtarrilaren 1ean, 46.539.026 biztanle zeuden inskribatuta; hau da, 2016ko urtarrilaren 1ean baino 17.982 gutxiago. Horietatik, 41.989.168k Espainiako nazionalitatea dute, eta 4.549.858 atzerritarrak dira.

2016an, inskribatutako pertsonak 50.741 gehiago izan ziren (%0,1); atzerritarrak, berriz, 68.723 gutxiago (–%1,5). EB-28ko estatuetako biztanleriak 80.978 pertsona gutxiago ditu (–%4,4); Europako Erkidegotik kanpoko biztanleak, ordea, 12.255 pertsona gehiago dira (%0,4).

Biztanleen %86,8 Espainian jaioa da, eta %13,2, atzerrian. Nazionalitateari dagokionez, Espainiako nazionalitatea daukatenen %95,1 Espainian jaio dira. Atzerritarren kasuan, %10,2koa da zifra hori.

2017ko urtarrilaren 1ean, Espainian inskribatutako biztanleria guztiaren %9,78 atzerritarrak ziren. Atzerritar gehien dituzten autonomia-erkidegoak Balear Uharteak (%16,7), Katalunia (%13,8) eta Murtzia (%13,5) dira. Ostera, Extremadurak (%2,9), Galiziak (%3,2) eta Asturiasek (%3,7) dute atzerritarren proportziorik txikiena.

10. taula: Biztanleria, nazionalitatearen eta sexuaren arabera. Behin-behineko erroldako datuak. 2017ko urtarrilaren 1ean

		Espainia			Nafarroa		
		Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Guztira		46.539.026	22.817.410	23.721.616	642.797	318.445	324.352
Espainiar nazionalitatea	Guztira	41.989.168	20.522.824	21.466.344	588.366	290.496	297.870
	%	90,22	44,10	46,13	91,53	45,19	46,34
Atzerriko nazionalitatea	Guztira	4.549.858	2.294.586	2.255.272	54.431	27.949	26.482
	%	9,78	4,93	4,85	8,47	4,35	4,12

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala

10. grafikoa: Biztanleriaren jatorria autonomia-erkidegoetan eta hiri autonomoetan. 2017



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

11. grafikoa: Atzerriko biztanleria Espainian. 2017



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Espainiarren eta Espainian bizi diren atzerritarren biztanleria-piramideak adin-taldeen arabera alderatuta, ikusiko dugu txikiagoa dela atzerritarren adinaren batezbestekoa. 20tik 44 urte bitarteko biztanleak, zehazki, atzerritar guztien %50 baino gehiago dira, eta biztanleria autoktonoaren artean, berriz, %32.

Nazionalitatearen arabera, nabarmentzekoa da 16 eta 44 urte artekoen adin-taldea, hortxe ageri baitira espainiar nazionalitateko biztanleen eta atzerriko nazionalitateak dituztenen arteko alderik handienak; gainera, handiagoa da atzerritarren ehunekoa, espainiarrena baino. Izan ere, espainiarren %35,9 da adin-talde horretakoa; atzerritarren kasuan, berriz, %56,6raino heltzen da ehuneko hori.

12. grafikoa: Espainiako biztanleriaren piramidea. 2017ko urtarrilaren 1ean



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala

Atzerritarren ehunekoa, Nafarroako biztanleria osoarekin alderatuta (%8,47), batezbestekoaren azpitik dago (%9,78). Atzerritar gehien dituzten autonomia-erkidegoak Balear Uharteak (%16,7), Katalunia (%13,75) eta Murtzia (%13,45) dira. Ostera, Extremadurak (%2,91), Galiziak (%3,21) eta Asturiasek (%3,75) dute atzerritarren proportziorik txikiena.

13. grafikoa: Atzerritarren ehunekoa etengabeko erroldan, autonomia-erkidegoaren arabera. 2017



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

2016an, atzerritar-kopurua ia autonomia-erkidego guztietan jaitsi zen. Nafarroak ere joera horri jarraitu zion, 395 atzerritar galdu baitzituen.

2016an, atzerritar-kopurua ia autonomia-erkidego guztietan jaitsi zen; hala ere, gora egin zuen autonomia-erkidego batzuetan: Katalunian (15.057 gehiago), Euskadin (2.967) eta Madrilen (886).

Atzerritar gehien galdu zituzten autonomia-erkidegoak Valentzia (–35.784), Andaluzia (–20.127) eta Gaztela-Mantxa (–7.297) izan ziren. Bestalde, jaitsierarik txikienak Nafarroan (–395), Aragoin (–679) eta Errioxan (–837) erregistratu ziren. Termino erlatiboetan, atzerritarren jaitsiera handienak Extremaduran (–%6,9), Gaztela eta Leonen (–%5,5) eta Valentzian (–%5,3) izan ziren.

14. grafikoa: Atzerritarren ehunekoaren bilakaera. Espainia eta Nafarroa. 1998-2017



	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Espainia	1,6	1,9	2,3	3,3	4,7	6,2	7	8,5	9,3	10	11,3	12	12,2	12,2	12,1	11,8	10,7	10,1	9,9	9,8
Nafarroa	0,8	1,1	1,7	3,5	5,4	6,7	7,4	8,4	9,4	9,2	10,4	11,1	11,2	11,1	10,8	10,5	9,3	8,7	8,5	8,5

Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Etengabeko Erroldan inskribatutako atzerritarren artean, EB-28ko 1.763.614 biztanle daude. Horietatik, gehiengoa errumaniarrak dira (684.532), eta atzetik, britainiarrak (236.669) eta italiarrak (189.005) daude.

Europako Erkidegokoak ez diren atzerritarren artean, marokoarrak (747.872), txinatarrak (207.593) eta ekuadortarrak (145.055) nabarmentzen dira. 2016an, nabarmentzekoa zen herrialde hauetako biztanle-kopuruaren hazkundea: Venezuela (14.238 gehiago), Txina (7.446) eta Italia (6.736). Jaitsiera absoluturik handienak, berriz, Errumaniako (–32.930), Erresuma Batuko (–19.832) eta Ekuadorko (–16.703) biztanleek izan zuten.

Termino erlatiboetan, eta atzerritar-kopuru handieneko nazionalitateen artean, 2016ko biztanle-jaitsiera handienak Boliviako (–%11,5), Ekuadorko (–%10,6) eta Alemaniako (–%7,9) biztanleenak izan ziren. Aitzitik, hazkunde handienak Venezuelako (%26,2), Ukrainako (%3,8), Txinako eta Italiako (biek, %3,7) biztanleenak izan ziren.

Herrialde-taldeei erreparatuz, gehiengoak EB-28ko biztanleak dira: atzerritar guztien %38,8. Ondoren, Afrikakoak daude: guztizkoaren %22,8.

Udalerrien tamainari erreparatuz, biztanleria horren banaketak pauta egonkorra jarraitzen du. 1.000 biztanletik beherako udalerrietan, biztanleriaren %5,7 da atzerritarra. 100.000 biztanletik gorako udalerrietan, berriz, biztanleriaren %10,2 da. Atzerritarren ehunekorik handiena 50.001 eta 100.000 biztanle arteko udalerrietan erregistratu da (%11,6).

Espainiari dagokionez, 187 udalerritan dira atzerritarrak biztanleriaren %25,0 baino gehiago, eta 14 udalerritan, %50,0 baino gehiago. Bestalde, udalerrien erdiek baino gehiagok (4.739) %5,0tik behera dute atzerritarren ehunekoa, beren guztizko biztanleriarekiko.

Atzerriko biztanleria Nafarroan

Nafarroako atzerritarren kopuruak behera egin du azken urteotan; gehienbat bi arrazoirengatik: batzuek Espainiako nazionalitatea eskuratu dutelako eta beste batzuk beren sorlekura itzuli direlako.

Lehenengo arrazoia dela eta (espainiar nazionalitatea eskuratzea, alegia), biztanleriaren osaerak aniztasun handiagoa dauka, eta zailagoa egiten da nazionalitateari buruzko estatistiken bidez aniztasun hori identifikatzea. Horregatik, udalerrietako aniztasunaren inguruan gehiago jakiteko, beste informazio batzuez baliatu behar dugu, esaterako, jaiolekuaz.

11. taula: Nafarroan bizi diren biztanleak, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean, nazionalitatearen eta jaiolekuaren arabera

	Nazionalitatea - Datu absolutuak				Nazionalitatea - Ehunekoak			
	Espainiarrak		Atzerritarrak		Espainiarrak		Atzerritarrak	
	Espainian jaioak	Atzerrian jaioak	Espainian jaioak	Atzerrian jaioak	Espainian jaioak	Atzerrian jaioak	Espainian jaioak	Atzerrian jaioak
2002	532.015	6.938	910	29.765	98,7	1,3	3,0	97,0
2003	532.442	7.027	1.150	37.591	98,7	1,3	3,0	97,0
2004	533.947	7.411	1.385	41.991	98,6	1,4	3,2	96,8
2005	535.826	7.764	1.708	48.174	98,6	1,4	3,4	96,6
2006	537.564	8.866	1.982	53.462	98,4	1,6	3,6	96,4

2007	539.161	10.794	2.458	53.463	98,0	2,0	4,4	95,6
2008	541.147	14.185	3.054	61.991	97,4	2,6	4,7	95,3
2009	543.023	16.928	3.725	66.902	97,0	3,0	5,3	94,7
2010	545.162	20.393	4.447	66.922	96,4	3,6	6,2	93,8
2011	547.044	23.407	5.187	66.413	95,9	4,1	7,2	92,8
2012	548.063	26.880	5.676	63.947	95,3	4,7	8,2	91,8
2013	548.189	28.396	6.215	61.677	95,1	4,9	9,2	90,8
2014	548.392	32.848	5.994	53.556	94,3	5,7	10,1	89,9
2015	549.064	35.519	5.792	50.101	93,9	6,1	10,4	89,6
2016	549.173.	36.648.	5.867	48.959	93,7	6,3	10,7	89,3

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala

Jatorriari dagokionez, Nafarroako migrazioa aldatzen joan da. Behera egin du Iberoamerikatik etorritakoen kopuruak; batik bat, Ekuadortik etorritakoenak. Aitzitik, nabarmentzekoa da Europa ekialdeko herrialde batzuetatik (Errumania eta Bulgaria) etorritako pertsonen kopuruak izandako gorakada, bai eta Marokotik etorritakoenak izandakoa ere.

Datu horiek berebiziko garrantzia dute hezkuntzaren plangintzan; etorkinen kolektibo bakoitzaren ezaugarri sozial, kultural eta linguistikoengatik, bereziki.

12. taula: Nafarroako nazionalitate atzerritar nagusien aldaketak. 2.000-2016. Urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean

	2000	2005	2010	2015	2016	% 2000-2016	% 2005-2016	% 2010- 2016
Maroko	1.300	5.121	9.694	10.081	10.467	705,15	104,39	7,97
Errumania	193	1.969	6.599	7.571	7.445	3.757,51	278,11	12,82
Bulgaria	82	2.768	6.492	6.308	5.949	7.154,88	114,92	-8,36
Portugal	1.597	2.588	5.912	3.777	3.380	111,65	30,60	-42,83
Ekuador	643	14.011	9.494	3.253	2.838	341,37	-79,74	-70,11
Aljeria	640	2.774	3.141	2.467	2.266	254,06	-18,31	-27,86
Kolonbia	530	4.825	4.384	1.938	1.835	246,23	-61,97	-58,14
Bolivia	8	1.049	3.227	1.570	1.434	17.825	36,70	-55,56
Txina	300	501	871	1.424	1.541	413,67	207,58	76,92
Brasil	229	883	1.876	1.389	1.413	517,03	60,02	-24,68
Aurreko herrialdeen batura	5.522	36.489	51.690	39.778	38.568	598,44	5,70	-25,39
Gainerako herrialdeak	3.666	13.393	19.679	16.115	16.258	343,48	21,39	-17,38

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala

15. grafikoa: Nafarroan bizi diren atzerritarren nazionalitate nagusiak. 2000-2016. Urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean



Iturria: Guk geuk egina, Nastaten datuekin

Aipatutakoez gain, badira Nafarroan kopuru esanguratsua duten eta jatorriz atzerrikoak diren beste komunitate batzuk; esate baterako, sorterria Perun (3.428), Dominikar Errepublikan (3.086), Frantzian (2.295) eta Argentinan (2.087) dutenak. Bestalde, atzerritarrak jatorri geografikoaren arabera taldekatuz gero, talderik ugarienak EBtik, Afrikatik eta Hego Amerikatik etorritakoak dira. Talderik txikienak, berriz, Ipar Amerikatik eta Ozeaniatik etorritakoak dira.

13. taula: Nafarroan bizi diren atzerritarrak, jatorriaren arabera multzokatuta. 2017ko urtarrilaren 1ean

Jatorria	Pertsona kopurua
Europar Batasuna (Espainia kanpo)	20.178
Europako gainerako herrialdeak	2.905
Afrika	16.145
Ipar Amerika	359
Erdialdeko Amerika eta Karibea	2.946
Hego Amerika	9.723
Asia	2.483
Ozeania	32
Aberrigabeak	2

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala

2.1.4. Familia-egitura

Azken urteotan, familia-egiturek funtsezko aldaketak jasan dituzte, Europar Batasunaren testuinguruan ikus daitezkeen mundu-mailako gertakariekin bat etorriz.

Europarren bizimoduan izandako aldaketa nabarmenetako bat hauxe da: bakarrik bizi diren pertsonen kopuruak izandako gorakada. Hein batean, hala hautatu dutelako bizi dira pertsona asko bakarrik. Alabaina, badaude beste arrazoi batzuk ere: batetik, gero eta dibortzio eta banaketa gehiago gertatzen dira; bestetik, biztanleria gero eta denbora gehiago bizi da –batik bat emakumeak–, eta, horren ondorioz, adineko pertsona askok alargunduta eta bakardadean ematen dituzte beren bizitzako azken urteak.

Europako etxebizitzak

Hori dela eta, EB-28ko etxebizitzen ia heren batean (%31,4) pertsona bakarra bizi da. Proportzio hori handiagoa da hirietan eta hiriburuetan, herrialdeetako batezbestekoaren gainetik egoten baita.

Bakarrik bizi direnen talde garrantzitsu bat alargunek eta dibortziatuek osatzen dute, berriz ezkondu ez direnak edo izatezko bikote bezala berriz erregistratu ez direnak. EB-28ko biztanleriaren %12,9 bizi da egoera horretan. Zehatzago aztertuta, ikusiko dugu EB-28ko biztanleriaren %7,0 alargunduta dagoela, berriz ezkondu gabe edo izatezko bikote bezala berriz erregistratu gabe, eta biztanleriaren %5,9 dibortziatuta dagoela, berriz ezkondu gabe edo izatezko bikote bezala berriz erregistratu gabe.

Ezkondutako bikoteek osatzen dute familia-egitura ohikoena. Horrez gain, ikus daiteke dibortzio-kopurua hazi egin dela, ezkontzeko batez besteko adina atzeratu egin dela eta gero eta gazte gehiagok aukeratzen dutela bakarrik edo bikotean bizitzea. 2011n, EB-28ko familia guztien %71,2 ezkondutako bikoteek osatzen zuten. Izatezko bikoteek, ezkondu gabe batera bizi diren bikoteek eta guraso bakarreko familiek familien %28,8 osatzen zuten.

Gutxienez ondorengo bat zeukaten ezkondutako bikoteak familia guztien %33,2 ziren, eta haien ehunekoa askoz handiagoa zen ezkondu gabe elkarrekin bizi eta gutxienez haur bat zuten bikoteen ehunekoa baino (familia guztien %5,6, hain zuzen). Familia-egiturarik ohikoena ezkondutako bikotearena izanik ere, gero eta pertsona gutxiago bizi dira senar-emazteek eta haien seme-alabek osatutako familia nuklear tradizionaletan, gero eta gehiago direlako erregistratutako izatezko bikoteak, ezkondu gabe elkarrekin bizi diren bikoteak eta guraso bakarreko familiak.

Horrela, aitarekin edo amarekin bizi zen 25 urtetik beherako haur bat edo gehiago zuten guraso bakarreko 15,5 milioi familia zeuden 2011n (familia guztien %11,0). EBko hiriburu askotan eta hiri garrantzitsu batzuetan, nahiko altua da guraso bakarreko familien proportzioa; familia horien ehunekoa baxuagoa izan ohi da landa-eremuan eta biztanleriaren dentsitate txikiagoa duten eskualdeetan. Laburbilduz, banaketa geografikoa ez da homogeneoa Europako eremu guztietan.

16. grafikoa: mendekotasun egoeran dauden seme-alabak dituzten etxebizitzen tipologia Europar Batasunean. 2015



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Espainiako familia-motak

Espainiako familia-kopuruak gora egin zuen, berriro ere, 2016an, eta, batez beste,18.406.100 etxebizitzetara heldu zen; hau da, duela urtebete baino %0,3 gehiago (59.900 etxebizitza gehiago). 2016an, familia-etxebizitzan bizi zen biztanleria %0,1 hazi zen; etxebizitzetako batez besteko tamaina, berriz, etxebizitzako 2,50 pertsonara jaitsi zen.

Etxebizitzarik ohikoenak bi pertsonak osatutakoak izan ziren 2016an; aurreko urteetan bezalaxe (guztizko kopuruaren %30,5). Pertsona bakarreko etxebizitzak zetozen ondoren (%25,2). Hala eta guztiz ere, kasu horietan bizi diren pertsonak biztanleriaren %10,1 baino ez dira. Halaber, bost pertsona edo gehiagoko etxebizitzak etxebizitza guztien %5,7 ziren. Batez besteko tamaina 5,3 pertsonakoa zen, eta biztanleriaren %12,1 horrelako etxebizitzetan bizi zen.

Zuzenbideko edo izatezko bikoteen inguruan osatutako etxebizitzen kopurua izan zen ugariena 2016an: 10,1 milioi etxebizitza, seme-alabak dituzten edo ez dituzten bikoteez osatuak.

Bikotearekin bizi diren seme-alabei erreparatuz, Espainian seme-alabarik gabeko bikoteek osatutako 3,86 milioi etxebizitza zeuden, 2015ean baino %0,3 gutxiago.

Bestalde, 2,88 milioi etxebizitza seme edo alaba bateko bikoteek osatzen zuten (duela urtebete baino %0,9 gutxiago); 2,78 milioi, ordea, bi seme-alabako bikoteek. Bestalde, 2016an, hiru seme-alabarekin edo gehiagorekin bizi ziren bikoteek osatutako etxebizitzak 569.400 izan ziren (%0,1 gehiago); hau da, etxebizitza guztien %3,1.

Bikoteaz gain beste kide batzuk bizi diren etxebizitzei erreparatuz, 2016an, bikote bat bizi zen 10,7 milioi etxebizitza zeuden. Eta, bikote bat baino gehiago bizi diren etxebizitzei erreparatuz, 11,1 milioi bikote zeuden.

Guraso bakarreko etxebizitzei dagokienez, alegia, seme-alabak dituen guraso bakar batek osatutako etxebizitzak, gehienak amak eta seme-alabek osatzen zituzten 2016an (1.591.200; guztizkoaren %81,0, alegia; aitak eta seme-alabek osatutako 373.700 etxebizitzekin alderatuta). Guraso bakarreko hiru etxebizitzatik bitan (%66,1), seme edo alaba bakarrarekin bizi zen gurasoa. Amak eta seme-alabek osatutako etxebizitzen kopurua %3,2 hazi zen 2015eko datuekin alderatuta; aitak eta seme-alabek osatutakoena, berriz, %5,1. Guztira, %3,6 egin zuen gora etxebizitza-mota horrek.

Amak eta seme-alabek osatutako etxebizitzen %40,6tan, alarguna zen ama; %35,3tan, banandua edo dibortziatua zegoen; %12,1etan, ezkongabea zen, eta %11,9tan, ezkondua zegoen. Adinari erreparatuz, ezkondu gabeko amak eta seme-alabek osatutako etxebizitzen %78,0tan emakumeak 35 urte edo gehiago zituen.

Guraso bakarreko familien heren batean (%34,4), aitak edo amak 65 urte edo gehiago zituen. 35 urtetik beherako gurasoen etxebizitzak, berriz, ez ziren %5,0ra iristen. Aitak eta seme-alabek osatutako etxebizitzen %18,4tan, gurasoak 45 urte baino gutxiago zituen. Amak eta seme-alabek osatutako etxebizitzen kasuan, berriz, ehuneko hori %24,1ekoa zen.

14. taula: Familia-kopurua, tipologiaren arabera. Espainia eta Nafarroa. 2016

	Espainia	Nafarroa
Guztira	18.406.100	254.300
Pertsona bakarreko etxebizitza	4.638.300	68.400
Guraso bakarreko etxebizitza, seme-alabekin	1.964.900	26.500
Bikotea, seme-alabarik gabe	3.861.900	52.300
Bikotea, seme-alabekin	6.228.800	85.400
Familia eta familiatik kanpoko pertsonak	793.00	9.900
Elkarrekin familia bat osatzen ez duten pertsonak	567.400	9.000
Bi familia edo gehiago	351.800	2.800

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala

17. grafikoa: Espainiako familia-motak. 2016



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

18. grafikoa: Nafarroako familia-motak. 2016



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

25 urtetik beherako seme-alabak dituzten familiak aztertuz gero, ikusten da bikoteak askoz gehiago direla guraso bakarreko familiak baino, eta autonomia-erkidegoen arteko banaketa oso heterogeneoa dela.

19. grafikoa: 25 urtetik beherako seme-alabak dituzten familiak, familia-motaren eta autonomia-erkidegoaren arabera. 2016



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

2.1.5. Eskola-adineko biztanleria

Eskola-adineko biztanleria 0 eta 24 urte arteko pertsonek osatzen dute. Garrantzi gehien duen demografia-adierazleetako bat da, adin-tarte horretan sartzen baitira hezkuntza-zerbitzuak eskura ditzaketen pertsonak.

EBn, aniztasun handia dago guztizko biztanleriaren bilakaeraren eta adin-tarte horretako biztanleen arteko proportzioari dagokionez. Batez besteko balioa %26,7koa da, baina badira %30etik gorako ehunekoak dauzkaten herrialde batzuk, askoz ere gazteagoak, hala nola Irlanda, Zipre, Frantzia eta Erresuma Batua. Espainia maila txikiena duten herrialdeen artean dago (%24,7).

20. grafikoa: 24 urtetik beherako biztanleak EBn. 2017ko urtarrilaren 1ean



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

2017an, Espainiako biztanleriaren %24,7 zegoen 0-24 urte arteko adin-tartean. Adierazle horren baliorik txikienak Asturiasen (%18,4) eta Galizian (%20) jaso ditugu; handienak, berriz, Murtzian (%28,6) eta Andaluzian (%26,8). Nafarroan, eskola-adinean dagoen biztanleriaren ehunekoa, zentzu zabalean ulertuta, %25,5ekoa da.

21. grafikoa: 0 eta 24 urte arteko biztanleriaren ehunekoa, autonomia-erkidegoaren arabera. 2017ko urtarrilaren 1ean



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Dagoeneko esan den gisan, hezkuntza-sistemen plangintzan ezinbestekoa da datozen urteetan eskolatze-adineko biztanleriak izanen duen bilakaeraren datuen proiekzioa aztertzea. EB-28n, oro har, agertoki posibleak oso egonkorrak dira, grafiko honetan ikus daitekeenez. Oro har, biztanleria gazteenaren bilakaeraren aurreikuspenak (2017-2027), 2006-2016 epealdikoekin alderatuta, txikiagoak dira. Hauek dira salbuespenak: Eslovenia, Estonia, Letonia, Txekiar Errepublika eta Suedia.

22. grafikoa: 14 urtetik beherako biztanleriaren hazkundearen bilakaera EBn. 2017-2027



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Biztanleria gazteenaren bilakaerak ez du dinamika berdina jarraitzen autonomia-erkidego guztietan. 2017-2027 epealdian, beherakada erlatibo handienak Asturiasen (–%11,1), Gaztela eta Leonen (–%10,7) eta Galizian (–%8,5) erregistratuko lirateke.
Aitzitik, biztanleriak gora eginen luke soilik Murtzian, Madrilen, Kanarietan, Balear Uharteetan, Katalunian eta Ceuta eta Melillako hiri autonomoetan. Nafarroan, 25 urtetik beherakoen biztanleriak behera eginen du; 2001-2016 epealdian %25,22 izatetik, 2027an %24,03 izanen litzateke.

23. grafikoa: 25 urtetik beherako biztanleriaren hazkunde erlatiboaren bilakaera. 2006-2027



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Nolanahi ere, aipatu behar dugu hezkuntza bizitza guztian zehar jasotzen den prestakuntza gisa ulertzen duen ikuspuntua ari dela gailentzen. Ikuspegi hori eredu tradizionala baino malguagoa da, eta beste hezkuntza-behar batzuk azpimarratzen ditu; besteak beste, honako hauek: pertsona guztien etengabeko prestakuntza, batik bat lanean ari direnena; eguneratze zientifiko eta teknikoa; hezkuntza-sistema behar baino lehenago utzi zutenentzako bigarren aukerak; eta modu informalean edo laneko esperientziaren bidez lortutako kualifikazio profesionalak egiaztatzea. Gauzak horrela, nabarmen zabaltzen da prestakuntza jasotzeko adinean dagoen biztanleria.

Ildo horretan, txosten honetan, helduen prestakuntzari buruzko atalean, Lanbide Heziketako ikastetxe bateratuetan eta beste zentro edo programetan emandako lanerako eta etengabeko prestakuntzaren inguruko datuak ere jaso ditugu.

2.2.- Alderdi sozioekonomikoak

Alderdi sozioekonomikoak funtsezkoak dira hezkuntzaren testuingurua definitzeko orduan, haiek konfiguratzen eta lehenesten dituztelako jarduerak etengabe aldatzen ari diren gizartearen eta lan-munduaren beharren arabera, eta hezkuntzaren arloko inbertsioa modu egokiagoan egiteko aukera ematen dutelako.

2.2.1. Barne-produktu gordina

Barne-produktu gordina (BPGd) adierazle makroekonomiko nagusietako bat da. Herrialde edo eskualde batek epe zehatz batean (normalean, urtebeteko epean) ekoizten dituen ondasun eta zerbitzuen diru-balioa neurtzen du. Gizarte baten ongizatea eta garapen materiala neurtzeko erabiltzen da barne-produktu gordina, beste adierazle batzuekin batera.

2016-2017ko ikasturteari dagokion epealdian zehar, Nafarroan, BPGd-k hazkunde moderatua izan zuen. Datu hori Espainian epe horretan bertan erregistratutakoaren antzekoa da.

Espainiako ekonomiaren bolumenak 2016ko hiru lauhilekoetan izan zuen hazkundea %3,3koa izan zen. Eskualdeei erreparatuz, bolumena gehien hazi zen autonomia-erkidegoa Balear Uharteak (%3,8) izan zen, eta ondoren, Madril (%3,7), Kanariak eta Katalunia (biek, %3,5).

Halaber, bolumenari dagokionez, BPGd-ren hazkunde txikienak Errioxan (%1,5), Asturiasen (%1,9) eta Extremaduran (%2,0) izan ziren.

15. taula: Espainiako eta Nafarroako BPGd

Aldia		Nafarroa				Espainia			
		Indizea	Aurreko aldiarekiko aldakuntza (%)	Aurreko urteko aldi berberarekiko aldakuntza (%)	Urteko batezbesteko higikorra (aurreko 4 hiruhilekoak)	Indizea	Aurreko aldiarekiko aldakuntza (%)	Aurreko urteko aldi berberarekiko aldakuntza (%)	Urteko batezbesteko higikorra (aurreko 4 hiruhilekoak)
2014	I	98,13	0,4	0,6	0,6	95,02	0,4	0,6	-0,8
	II	98,59	0,5	1,6	1,1	95,40	0,4	1,0	0,0
	III	99,03	0,5	1,8	1,3	95,96	0,6	1,7	0,8
	IV	99,81	0,8	2,1	1,5	96,67	0,7	2,2	1,4
2015	I	100,48	0,7	2,4	2,4	97,60	1,0	2,7	1,9
	II	101,31	0,8	2,8	2,6	98,35	0,8	3,1	2,4
	III	102,10	0,8	3,1	2,8	99,27	0,9	3,4	2,9
	IV	103,06	0,9	3,3	2,9	100,10	0,8	3,6	3,2
2016	I	103,63	0,6	3,1	3,1	100,87	0,8	3,4	3,4
	II	104,37	0,7	3,0	3,1	101,71	0,8	3,4	3,4
	III	105,06	0,7	2,9	3,1	102,41	0,7	3,2	3,4
	IV	105,86	0,8	2,7	2,9	103,12	0,7	3,0	3,2
2017	I	106,84	0,9	3,1	2,9	103,93	0,8	3,0	3,2

Iturria: Nastat

24. grafikoa: BPGd-ren bilakaera Europar Batasunean, Espainian eta Nafarroan. 2001-2016



Iturria: Guk geuk egina, Nastaten datuekin

2.2.2. Sektore ekonomikoak

Jardueraren indize orokorraren bilakaera adierazle nagusietan ere erregistratzen da; esate baterako, etxebizitzen gastuan, barne-eskarian eta esportazioetan.

16. taula: Espainiako jarduera ekonomikoaren adierazleak. Urte arteko aldaketaren tasak. Bolumen metatua, erreferentzia-urtea: 2010. 2017ko 1. hiruhilekoa

	2015	2016	2017ko 1H
Azken kontsumoko gastua	2,6	2,6	2
Kapital finkoaren eraketa gordina	6	3,1	3,9
Ondasun eta zerbitzuen esportazioak	4,9	4,4	7,3
Ondasun eta zerbitzuen inportazioak	5,6	3,3	5,7
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta	-2,9	3,4	4,4
Industria	5,5	2,4	2,8
Eraikuntza	0,2	2,5	4,4
Zerbitzuak	2,6	3,4	2,8
BARNE-PRODUKTU GORDINA, merkatuko	3,2	3,2	3

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala

Ondoko taulan ikus daiteke Foru Komunitateko adierazleen bilakaera.

17. taula: Nafarroako hiruhileko kontabilitatea. Eskaintza eta eskaria. Barne-produktu gordinaren bilakaera. Bolumen metatuko indizeak, erreferentzia-urtea: 2008

Osagaiak	2015				2016				2017
	1 T	2 T	3 T	4 T	1 T	2 T	3 T	4 T	1 T
Azken kontsumoko gastua	2,8	2,9	3,3	3,4	3,6	3,4	3,1	2,9	3,0
Etxebizitzen eta EZIAGEen* azken kontsumoko gastua	3,1	3,0	3,4	3,3	3,5	3,6	3,1	2,9	3,0
APen** azken kontsumoko gastua	1,7	2,4	2,8	3,6	3,8	2,7	3,2	2,9	3,1
Kapitalaren eraketa gordina	0,5	1,2	1,8	1,5	0,9	1,0	0,4	-0,1	-0,1
Kapital-ondasunak eta beste produktu batzuk	1,4	1,5	1,8	1,3	0,5	1,5	0,8	-0,2	-0,4
Eraikuntza	-0,4	0,9	1,8	1,8	1,5	0,3	0,0	0,0	0,3
Izakinen aldakuntza	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
BARNE-ESKARIA	2,3	2,5	2,9	2,9	3,0	2,9	2,6	2,2	2,2
Ondasun eta zerbitzuen esportazioak	1,9	2,3	2,8	2,4	1,4	1,8	1,6	1,3	2,0
Ondasun eta zerbitzuen inportazioak	1,7	2,0	2,5	2,0	1,0	1,5	1,0	0,5	0,9
KANPO-ESKARIA	0,1	0,3	0,2	0,4	0,1	0,1	0,3	0,5	0,9
Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako BEM op***	2,4	2,8	2,2	2,4	2,0	2,2	2,4	2,1	2,4
Industria-sektoreko BEM op	2,4	3,1	3,3	2,9	2,2	2,3	2,4	2,1	2,7
Eraikuntzako BEM op	-0,2	1,2	1,9	1,9	1,6	0,4	0,2	0,2	0,6
Zerbitzuetako BEM op	2,9	3,1	3,2	3,5	3,8	3,7	3,5	3,3	3,7
Merkatu-zerbitzuen BEM op	3,3	3,4	3,5	4,0	4,2	4,2	3,8	3,5	3,9
Merkatuz kanpoko zerbitzuen BEM op	1,6	1,8	2,0	2,4	2,3	2,0	2,2	2,5	2,8
Produktuen gaineko zerga garbiak	0,7	2,8	3,0	3,2	3,2	3,4	3,5	3,3	3,2
Guztizko BPGd mp	2,4	2,8	3,1	3,3	3,1	3,0	2,9	2,7	3,1

**EZIAGE: Etxebizitzen zerbitzura dauden irabazi-asmorrik gabeko erakundeak*
*** AP: Administrazioa Publikoak*
****BEM op: Balio erantsi metatua oinarrizko prezioetan; BPGd mp: Barne-produktu gordina, merkatuko prezioetan*
Iturria: Nastat

Nafarroako egitura ekonomikoak ezaugarri espezifikoak ditu, beste autonomia-erkidegoekin alderatzen dugunean. Nabarmentzekoa da industriaren pisu erlatiboa, barne-produktu gordinaren %28,6 sortu baitzuen 2015ean. Hori horrela, Nafarroak du, arlo horretan, ehunekorik handiena, atzetik Errioxa eta Euskadi dituela, eta Espainiako tasa (%15,5) ia bikoiztu egiten duela. Garrantziari dagokionez, sektore horren ondoren ageri zaizkigu gainerako zerbitzuak (%20,3), merkataritza eta ostalaritza (%17,5), sektore publikoa (%16,6), eraikuntza (%4,8) eta lehen sektorea (%2,9). Nabarmentzekoa da, bestalde, sektoreen garrantzi erlatiboaren egonkortasuna.

18. taula: Nafarroako ekoizpen-sektoreen bilakaera. 2013-2015

Sektoreak	2013	2014	2015
Lehen sektorea	2,5	3,2	2,9
Industria	28,6	28,9	28,6
Merkataritza eta ostalaritza	18,8	17,1	17,5
Eraikuntza	6,5	4,8	4,8
Gainerako zerbitzuak	18,9	20,2	20,3
Sektore publikoa	16	17,1	16,6

Nafarroako guztizko BPGd-ren gaineko pisua, ehunekotan
Iturria: Guk geuk Egina, Estatuko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren datuekin

25. grafikoa: Nafarroako ekoizpen-sektoreen bilakaera. 2013-2015



**Nafarroako guztizko BPGd-ren gaineko pisua, ehunekotan*
Iturria: Guk geuk Egina, Estatuko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren datuekin

Egitura ekonomikoaren ezaugarriak direla eta, okupazioa, Espainiarekin alderatuta, bestelakoa da Nafarroan; alde batetik, industria-enpleguaren garrantziagatik, eta bestetik, gure komunitateko zerbitzuek duten pisuagatik.

26. grafikoa: Okupazioaren banaketa Nafarroan eta Espainian. 2017ko 1. hiruhilekoa



It urria: Guk geuk egina, Nastaten datuekin

2.2.3. Lan-merkatua

Agerikoa da herrialde bateko egitura ekonomikoa garrantzitsua dela hezkuntza eskaintzaren plangintzarako, testuinguruko elementu gisa, besteak beste, gizarte sistemari eta ekoizpen sistemari loturik dagoenez, hezkuntza-eskaintza baldintzatzen duelako.

Okupazioa eta langabezia

Lan-merkatuaren adierazleetan oinarrizkoenetako bat enpleguari eta langabeziari dagokiona da. Aurreko urtean, autonomia-erkidego guztietan egin zuen gora okupazioak. Hazkunde handienak Andaluzian (129.200 gehiago), Katalunian (89.200) eta Madrilgo Autonomia Erkidegoan (71.200) erregistratu ziren.

Termino erlatiboetan, urteko enplegu-bariazio handienak dituzten autonomia-erkidegoak Nafarroa (%8,16), Asturias (%5,20) eta Andaluzia (%4,56) dira. Azken 12 hilabeteotan, Nafarroan eta Murtzian, aktibo-kopuruaren hazkunde handienak erregistratu dira (14.500 eta 8.300 gehiago, hurrenez hurren).

Aitzitik, beherakada handienak Madrilen (–42.800 aktibo), Andaluzian (–31.600) eta Valentzian (–20.900) izan dira.

27. grafikoa: Gizarte Segurantzako afiliatuak Nafarroan, sektorearen arabera. 2012-2016



Iturria: Guk geuk Egina, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren eta Nastat datuekin

EBko enpleguak jardueraz jarduera duen banaketak garbi erakusten digu zer-nolako aniztasuna dagoen Europar Batasuna bera osatzen duten estatuen egitura ekonomikoan. Herrialde batzuetan, pisu benetan handia du nekazaritzak (Bulgaria, Grezia); beste batzuetan, berriz, oso txikia (Belgika, Alemania). Badira oso industrializatuta dauden herrialdeak (Eslovakia, Estonia, Eslovenia, Alemania, Austria), eta industria txikiagoa dutenak (Grezia, Irlanda, Espainia); zerbitzuen sektorea oso dimentsionatuta dutenak (Belgika, Zipre, Danimarka) eta txikiagoa dutenak (Bulgaria, Eslovenia, Eslovakia).

19. taula: Europar Batasuneko enpleguaren datuak, jardueraren arabera. 2016

	Nekazaritza	Industria	Erainkuntza	Zerbitzuak
EB	4,48	29,16	6,3	73,92
Alemania	1,43	35,83	5,6	74,44
Austria	3,95	30,91	6,88	73,07
Belgika	1,3	11,93	5,78	81,11
Bulgaria	18	37,85	5,08	56,75
Danimarka	2,35	21,06	6,23	80,46
Erresuma Batua	1,2	16,86	6,98	82,83
Errumania	24,23	40,05	7,65	46,74
Eslovakia	3,13	45,91	7,28	65,62
Eslovenia	7,78	43,21	6,45	63,17
Espainia	4	22,56	5,55	78,62
Estonia	3,9	40	7,28	67,87
Finlandia	4,15	27,78	7,95	73,34
Frantzia	2,7	20,16	6,33	80,41
Grezia	11,45	18,56	4,53	74,14
Herbehereak	2,2	18,01	5,18	83,28

Hungaria	6,15	38,08	6,05	67,83
Irlanda	5,53	21,76	7,25	75,73
Italia	3,7	32,43	6,05	73,39
Kroazia	7,58	36,85	7,05	65,56
Letonia	8,33	28,78	7,78	68,32
Lituania	7,98	32,98	7,63	66,93
Luxenburgo	0,9	16,63	10,28	80,01
Malta	1,5	22,93	5,83	80,72
Polonia	10,58	43,93	7,25	58,51
Portugal	9,48	32,53	6,13	67,58
Suedia	2,18	24,88	7,23	77,51
Txekiar Errep.	3,1	55,65	7,75	60,12
Zipre	3,98	16,75	6,9	80,14

Iturria: Eurostat

Lehen esan dugun bezala, biztanleriaren lan-jarduerak oso eragin handia dauka hezkuntzan, eta hezkuntzak, era berean, eragina du lan-jardueran. Ziklo ekonomiko honetan, bestalde, bada arreta berezia merezi duen faktore bat: langabezia. Langabeziari buruzko datuetan alde handiak daude EBn eta Europako beste herrialde batzuetan, herrialde batetik bestera. Batezbestekoa %8koa bada ere, herrialde batzuetan %5etik beherakoa da (Alemania, Hungaria, Malta, Txekiar Errepublika), eta beste batzuetan, %15tik gorakoa (Grezia eta Espainia).

28. grafikoa: Langabeziaren ehunekoa EBn eta Europako beste herrialde batzuetan. 2017ko 1. hiruhilekoa



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Lan-merkatua definitzen duten datuak jarduerari, okupazioari, langabeziari eta enpleguaren kalitateari buruzkoak dira, eta datu horiek, Nafarroan, krisi ekonomikoa gertatu baino lehenagoko mailetatik urrun daude oraindik. Hala, esaterako, 2017ko lehen hiruhilekoko

langabezia-tasa %10,3koa zen, autonomia-erkidego guztiekin alderatuta, baxuena. Espainian, langabezia-tasa %18,8koa zen.

20. taula: Okupazioaren eta langabeziaren datuak, autonomia-erkidegoaren arabera. 2017ko 1. hiruhilekoa

	Lana duten pertsonak	Langabeak
Guztira	18.438.300	4.255.000
Andaluzia	2.908.400	1.072.400
Aragoi	557.600	85.700
Asturias	394.100	65.400
Balear Uharteak	489.500	98.500
Ceuta	28.700	8.700
Errioxa	134.300	19.900
Euskadi	894.400	120.400
Extremadura	351.400	145.200
Galizia	1.033.600	217.100
Gaztela eta Leon	959.100	171.000
Gaztela-Mantxa	770.800	223.500
Kanariak	809.700	279.800
Kantabria	235.100	38.500
Katalunia	3.197.900	576.700
Madril	2.856.600	474.100
Melilla	25.400	10.600
Murtzia	570.800	136.900
Nafarroa	276.000	31.500
Valentziako E.	1.944.600	479.200

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala

29. grafikoa: Langabezia-tasa, autonomia-erkidegoaren arabera. 2017ko 1. hiruhilekoa



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Azken 12 hilabeteotan, 512.300 pertsona gehiago hasi dira lanean (285.800 gizon eta 226.600 emakume). Azken urtean, enplegua sektore guztietan hazi da: Zerbitzuetan, 244.100 okupatu

gehiago daude; Industrian, 139.500; Nekazaritzan, 72.400, eta Eraikuntzan, 56.300. Hori dela eta, azken 12 hilabeteotan, langabezia-tasa 2,78 puntu jaitsi da. Langabetu guztien eta langabetu-tasaren balioak, 2008ko laugarren hiruhilekotik, erregistratu diren baxuenak dira.

Urteko bariazioan, langabeziaren bilakaera –%14,44koa da. Urte batean 660.400 langabetu gutxiago daude: 348.300 gizon eta 312.100 emakume gutxiago.

Adinari erreparatuz gero, adin-tarte guztietan erregistratu da langabeziaren urteko beherakada. Beherakada handiena 25-54 urte bitarteko taldean erregistratu da (516.900 langabetu gutxiago).

Azken 12 hilabeteotan, langabeziak behera egin du sektore guztietan; bereziki, Zerbitzuetan (78.100 langabetu gutxiago), Nekazaritzan (45.700) eta Eraikuntzan (41.500). Bestalde, enplegua duela urtebete galdu duten 426.100 langabetu gutxiago daude, eta lehen enplegua bilatzen ari diren 59.000 pertsona gutxiago.

Urteko terminoetan, biztanleria aktiboak 148.000 pertsona gutxiago ditu, eta lan egiteko adina duten (16-64 urte) 32.100 pertsona gutxiago daude.

Urteko bariazioan, autonomia-erkidego guztietan egin du gora okupazioak. Hazkunde handienak Andaluzian (129.200 gehiago), Katalunian (89.200) eta Madrilen (71.200) erregistratu dira. Termino erlatiboetan, enpleguaren urteko bariazio handienak Nafarroak (%8,16), Asturiasek (%5,20) eta Andaluziak (%4,56) izan dituzte.

Urteko bariazioan, autonomia-erkidego guztietan egin du behera langabeziak. Beherakada handienak Andaluzian (–160.800), Madrilen (–114.100) eta Katalunian (–106.200) izan dira. Hiruhileko horretan, Nafarroak (%10,55), Errioxak (%10,92) eta Euskadik (%11,23) izan dituzte langabezia-tasarik baxuenak. Guztiz bestelako egoeran, tasarik altuenak Extremaduran (%25,76), Andaluzian (%25,24) eta Kanarietan (%24,30) erregistratutakoak dira.

Azken 12 hilabeteotan, Nafarroan eta Murtzian erregistratu dira aktibo-kopuruaren hazkunde handienak (14.500 eta 8.300 gehiago, hurrenez hurren). Aitzitik, beherakada handienak Madrilen (–42.800 aktibo), Andaluzian (–31.600) eta Valentzian (–20.900) erregistratu dira.

Nafarroako egoera Estatuko gainerakoarekin konparatuz gero, bilakaera, ukitutako sektoreak eta enplegu tasetan gizonen eta emakumeen artean dauden desberdintasunak ikus ditzakegu.

30. grafikoa: Espainian eta Nafarroan erregistratutako langabeziaren ehunekoa, adin-taldearen eta sexuaren arabera. 2016



Iturria: Guk geuk egina, Nastaten datuekin

2017ko lehen hiruhilekoko datuek xehetasun handiagoa erakusten digute, ondorengo grafikoetan, Espainiako eta Nafarroako errealitatea.

31. grafikoa: Espainian erregistratutako langabezia, adinaren eta sexuaren arabera. 2017ko 1. hiruhilekoa



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

32. grafikoa: Nafarroan erregistratutako langabezia, adinaren eta sexuaren arabera. 2017ko 1. hiruhilekoa



Iturria: Guk geuk egina, Nastaten datuekin

Espainian nahiz Nafarroan, nabarmentzekoa da biztanleriaren sektore gazteenak pairatzen duen langabezia-bolumena. Hezkuntza-maila altuena duen biztanleriaren sektoreari eragiten dio batez ere, eta EBko batez besteko balioetatik oso urrun gaude, gai horri dagokionez. Horrela, EBn, Bigarren Hezkuntza gainditu dutenen %4,7 eta goi-mailako hezkuntza dutenen %6,8 daude langabezian. Espainian, berriz, %10,9 eta %17koak dira datu horiek.

21. taula: EBn erregistratutako langabeziaren ehunekoak, ikasketa-mailaren arabera. 2016

	Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa baino gutxiago (0-2. maila)	Bigarren Hezkuntza (3-4. maila)	Goi-mailako hezkuntza (5-8. maila)
EB	15,1	6,8	4,7
Alemania	10	3,7	2,2
Austria	11,7	5,2	3,4
Belgika	14,5	7	3,7
Bulgaria	21,9	6,2	3,3
Danimarka	6,6	4,4	4,8
Erresuma Batua	6,2	3,8	2,6
Errumania	7,3	5,1	2,7
Eslovakia	29,4	8,4	5,1
Eslovenia	14	7,6	6
Espainia	26,1	17	10,9
Estonia	11,5	7,6	3,7
Finlandia	11,8	8,2	5,8
Frantzia	15,9	9	5,1
Grezia	26,2	24,2	17,2
Herbehereak	7,6	5,7	3,4
Hungaria	11,8	4,2	1,7
Irlanda	13,8	7,7	4,5
Italia	14,3	8,8	6,5
Kroazia	16,8	12,2	7,4
Letonia	19,8	11,3	4
Lituania	26,2	10,1	2,7
Luxenburgo	7	5,7	3,8
Malta	6,4	2,2	1
Polonia	13	5,8	3
Portugal	11,6	10,5	7,4
Suedia	14,4	4,5	3,8
Txekiar Errep.	19,2	3,2	1,8
Zipre	15,7	12,4	9,6

Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

33. grafikoa: EBn erregistratutako langabeziaren ehunekoak, ikasketa-mailaren arabera. 2016



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Soldatak

2017ko urtarrilean, EBko hogeita zortzi estatu kideetatik hogeita bik ez ezik (Danimarka, Italia, Zipre, Austria, Finlandia eta Suedia izan ziren salbuespenak), EBko estatu kide izateko hautagaiek ere (Montenegro, Mazedoniako Errepublika, Albania, Serbia eta Turkia) gutxieneko soldata nazionala zuten. 2017ko urtarrilaren 1ean, hileko gutxieneko soldatak oso bestelakoak ziren estatu kideen artean; esaterako, Bulgarian, 235 eurokoa zen, eta Luxenburgon, 1.999 eurokoa.

Hileko gutxieneko soldata gordinetan oinarrituta (eurotan adierazita), hiru taldetan sailka daitezke EBko estatu kideak.

- 1. taldea: 2017ko urtarrilean, gutxieneko soldata nazionalak hileko 500 euro baino gutxiagokoak zituzten estatuak. Hauek dira talde honetan sartzen diren EBko estatu kideak: Bulgaria, Errumania, Letonia, Lituania, Txekiar Errepublika, Hungaria, Kroazia, Eslovakia, Polonia eta Estonia. Gutxieneko soldata nazionalak 235 euro (Bulgaria) eta 470 euro (Estonia) artekoak ziren.
- 2. taldea: 2017ko urtarrilean, gutxieneko soldata nazionalak hileko 500 euro baino gehiagokoak eta 1.000 euro baino gutxiagokoak zituzten estatuak. Hauek dira talde honetan sartzen diren EBko estatu kideak: Portugal, Grezia, Malta, Eslovenia eta Espainia. Gutxieneko soldata nazionalak 650 euro (Portugal) eta 826 euro (Espainia) artekoak ziren.
- 3. taldea: 2017ko urtarrilean, gutxieneko soldata nazionalak hileko 1.000 euro baino gehiagokoak zituzten estatuak. Hauek dira talde honetan sartzen diren EBko estatu kideak: Erresuma Batua, Frantzia, Alemania, Belgika, Herbehereak, Irlanda eta Luxenburgo. Gutxieneko soldata nazionalak 1.397 euro (Erresuma Batua) eta 1.999 euro (Luxenburgo) artekoak ziren.
- EBko estatu kide izateko hautagai guztiek 1. taldearen antzeko gutxieneko soldata nazionalak dituzte: 155 euro (Albania) eta 479 euro (Turkia) artekoak.

Batez besteko soldatari dagokionez, alde handia dago EB-28 barruan, soldatarik altuenak dituzten herrialdeen eta soldatarik txikienak dituztenen artean. Soldatarik altuenak dituztenak Luxenburgo, Belgika, Herbehereak, Alemania, Frantzia, Irlanda eta Erresuma Batua dira; beste muturrean, berriz, soldata txikienekoak, Bulgaria, Hungaria, Lituania, Txekiar Errepublika eta Errumania. Espainia EB-28ren batezbestekoaren azpitik dago.

34. grafikoa: Europar Batasuneko hilabeteko batez besteko soldata. 2016*



* *2015ean, ez zegoen gutxieneko soldata nazionalik Austrian, Zipren, Danimarkan, Finlandian, Italian eta Suedian. Zipren, Gobernuak ezartzen du lanbide zehatz batzuetarako gutxieneko soldata. Austrian, Danimarkan, Finlandian,*

Italian eta Suedian, sektore zehatzei eragiten dieten hitzarmen kolektiboen bidez ezartzen da gutxieneko soldata. Europar Batasuneko batez besteko soldata informazio hori eskuragarri duten herrialdeen datuak erabilita kalkulatu dugu
Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Aipatu beharra dago, sektore ekonomikoaren eta langileen adinaren arabera, urteko batez besteko soldatek –2015eko datuekin– ezaugarri bereziak dituztela Espainian. Urteko batez besteko soldata 23.698 eurokoa da, baina aldeak daude ekoizpen-sektorearen arabera. Industrian daude batez besteko soldata handienak (28.639 euro), eta zerbitzuetan, berriz, txikienak (21.698 euro).

35. grafikoa: Espainiako batez besteko urteko soldata, sektore ekonomikoaren arabera. 2015



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Nastat datuekin

Adinaren arabera, azpimarragarriak dira 45-54 urteko pertsonen diru-sarrerak, haiek baitute urteko batez besteko soldatarik altuena (26.720 euro). Bestalde, askoz ere soldata txikiagoak dituzte 35 urtetik beherakoek (21.516 euro) eta, bereziki, 25 urtetik beherakoek (11.560 euro).

36. grafikoa: Espainiako urteko batez besteko soldata gordina, adinaren arabera. 2015



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Nastaten datuekin

Oro har, zenbat eta handiagoa izan laneko antzinatasuna eta esperientzia, orduan eta altuagoa izaten da soldata. Hala erakutsi zuen Nastatek 2014an soldaten egiturari buruz egindako inkestak, beste hainbat ondorioren artean. Batez besteko soldatatik beherakoa dute 25 urtetik beherakoek eta 25 eta 34 urte artekoek (soldata %40,4 txikiagoa da lehen taldearen kasuan, eta %12,9 txikiagoa bigarrenean). 35-44 urte artekoen, 45-54 din-taldekoen eta 54 urtetik gorakoen soldata, berriz, batez besteko urteko soldata gordina baino %3,1, %8,2 eta %5,5 handiagoa da, hurrenez hurren.

Nabarmena den beste gauza bat honako hau da: kontratu finkoa dutenek batez beste diru gehiago irabazten dute urtean, aldi baterako kontratua dutenek baino. Iraupen jakin bateko kontratua zuten pertsonek batez besteko soldata baino %31,2 txikiagoa zen soldata jaso zuten urtean batez beste; kontratu mugagabea zutenek, berriz, batezbestekoa baino %7,5 gehiago irabazi zuten.

Sexuaren arabera, alde hori handiagoa da gizonen kasuan (%36,9 eta %8,3, hurrenez hurren), emakumeenean baino (%21,2 eta %5,5). Aurreko urtearekiko igoerari dagokionez, kontratu mugagabea zuten gizonen soldata %1,8 igo zen aurreko urteko soldatarekiko, eta %4,9 emakumeena. Iraupen jakineko lan-kontratua zuten langileen kasuan, berriz, urteko irabaziak %8 igo ziren gizonen kasuan, eta %1,7 emakumeen kasuan.

Errenten arteko desberdintasuna

Desberdintasun ekonomikoa soldatek eragiten dute hein batean, eta horren inguruko datuak oso garrantzitsuak dira pobrezia erlatiboa estimatzeko. Izan ere, baliabide ekonomikoen banaketak zuzeneko eragina izan dezake pobreziaren norainokoan eta garrantzian.

Errentei dagokienez, EBn desberdintasun handiak daudela ikus dezakegu. Horrela, 2014ko datuei erreparatuz, errenta erabilgarri baliokide handiena zuen biztanleriaren %20k errenta erabilgarri baliokide txikiena zuen %20k baino 5,2 aldiz errenta handiagoa jaso zuen, grafikoan ikus daitekeen bezala. Proportzio horretan ere aldeak izan ziren herrialdeen artean. Txekiar Errepublikan 3,5ekoa izan zen; Lituanian, Portugalen, Letonian, Grezian, Estonian, Espainian eta Bulgarian 6,0koa, eta baliorik handiena Errumanian erregistratu zen: 7,2.

37. grafikoa: Errentaren banaketako desberdintasunak Europar Batasunean, 2015an (diru-sarrerak kintiletan banatuta*)



** Kintila: herrialde edo eskualde bateko biztanteria txiroenetik aberatsenera ordenatzen da, eta gero pertsona-kopuru bera duten bost taldetan zatitzen. Zati bakoitza kintil bat da*
Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Enpleguaren kalitateak eta langabeziak Nafarroan ere areagotu egin dituzte soldata-errenten arteko desberdintasunak, beste faktore batzuen artean, eta desberdintasun horiek azken sei urteetako mailarik altuenean daude. Horrela, 2008 eta 2015 arteko epean gehien irabazi zutenak gutxien irabazten zutenek baino 8 aldiz diru-sarrera gehiago izatetik 11 aldiz diru-sarrera gehiago izatera pasatu dira. Tarterik baxuenetako hileroko diru-sarrerak %14,4 jaitsi dira, eta tarterik altuenetakoak %13,1 handitu.

38. grafikoa: Nafarroako soldata altuenen eta baxuenen bilakaera. 2008-2015



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Gizonen eta emakumeen arteko soldata-arraildura

Nahiz eta apur bat bateratu den, oraindik desberdintasun handia dago EBn gizonek eta emakumeek irabazten dituzten soldaten artean. 2014an, EB-28 osoa hartuta, emakumeen soldata gizonena baino %16,1 txikiagoa izan zen, batez beste. Gizonen eta emakumeen batez besteko ordainsarien artean diferentziarik txikienak izan zituzten herrialdeak Eslovenia, Malta, Italia, Polonia, Luxenburgo eta Belgika izan ziren (%10,0 baino gutxiago). Gizonen eta emakumeen arteko soldata-arraildura handieneko herrialdeak, berriz, Estonia (%28,3), Austria (%22,9), Txekiar Errepublika (%22,1), Alemania (%21,6) eta Eslovakia (%21,1) izan ziren.

Soldata-arraildura horiek areagotu ditzaketen hainbat eragile daude, konparazio batera: biztanleria aktiboko parte-hartze indizeetan dauden diferentziak; nagusiki gizonek edo nagusiki emakumeek bete ohi dituzten lanbide eta jardueren artean dauden diferentziak; lanaldi partzialean diharduten emakumeen eta gizonen ehunekoen artean dauden diferentziak; eta, orobat, erakunde publiko eta pribatuetan langileria departamentuek dituzten jarrerak, lanbide-karreraren garapenari, soldatarik gabeko baimenei eta amatasun-lizentziei dagokienez.

Zati batean behintzat gizonen eta emakumeen arteko soldata-arraildurak azal ditzaketen sakoneko faktoreak dira, besteak beste, sektore eta lanbideetako segregazioa, hezkuntza eta prestakuntza, sentsibilizazioa eta gardentasuna, bai eta zuzeneko diskriminazioa ere. Era berean, soldata-arraildurak bestelako desberdintasunen isla dira. Esaterako, familiako erantzukizunen banaketa neurrigabeak, emakumeen gain izaten baitira, eta lana bizitza pribatuarekin bateratzeko arazoak. Emakume askok lanaldi partzialean egiten dute lan, edota ezohiko kontratuekin. Nahiz eta horrek aukera ematen dien lan-merkatuan segitzeko familiako erantzukizunez arduratzen diren bitartean, kaltegarria da beren soldata-mailarako, karreraren bilakaerarako, gora egiteko itxaropenetarako eta pentsioetarako.

Nafarroan, 2014ko datuen arabera, gizonen eta emakumeen arteko soldata-arraildurak aurreko urteetako joerari jarraitzen dio, emakumeen soldaten balioa 0,70ekoa baita, soldatapeko guztien batez besteko irabazi gordinarekin (1eko balioa) alderatuta.

2.2.4. Familien ekonomia

- **Familia-errenta**

Hona zer den herritar bakoitzaren familia-errenta erabilgarria: herritar bakoitzak, batez beste, zergak ordaindu ondoren, bizitzeko, aurrezteko eta inbertitzeko jasotzen dituen urteko diru-sarrerak. Familien testuinguru ekonomikoa irudikatzeko adierazlerik esanguratsuenetakoa da. Enplegutik eta bestelako iturrietatik etorritako diru-sarrerak hartzen ditu kontuan. Ez dator bat biztanleko BPGd-rekin; izan ere, azken horrek ez ditu aintzat hartzen subsidioak edo laguntzak, eta, aldiz, kontabilizatu egiten ditu enpresetan gelditzen diren irabaziak, ez direnak familientzako errenta eskuragarria. Alabaina, eta alderaketak egiteko aukera emateko, azken zortzi urteetako EBko, Espainiako eta Nafarroako biztanle bakoitzeko barne-produktu gordina jaso dugu.

22. taula: Per capita BPGd. 2009-2016

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
EB-28	24.340	25.329	26.034	26.472	26.652	27.394	28.700	29.000
Espainia	23.271	23.214	22.903	22.300	22.134	22.412	23.290	23.970
Nafarroa	28.892	28.752	28.533	27.437	27.399	27.709	28.682	29.807
% Nafarroa/Espainia	124,2	123,9	124,6	123,0	123,8	123,6	123,2	124,35
% Nafarroa/EB-28	118,7	113,5	109,6	103,6	102,8	101,1	99,9	102,78

Iturria: Guk geuk egina, Nastat eta Eurostaten datuekin

39. grafikoa: Per capita BPGd. 2009-2016



Iturria: Guk geuk egina, Nastat eta Eurostaten datuekin

Per capita BPGd-k etengabeko beherakada izan zuen 2009-2014 epealdian, nola Nafarroan hala Espainian. Dena den, txosten honi dagokion aldian (2015-2016) hazi egin dela ikusi da.

- **Desberdintasuna**

Diru-sarrerak eta banaketa

Pertsona bakoitzeko urteko diru-sarrera garbietan, alde handiak izan ziren autonomia-erkidegoen artean, 2016ko INEren datuen arabera: Euskadiko batezbestekoa 14.345 eurokoa izan zen; Murtziakoa, berriz, 8.273 eurokoa. Nafarroak bigarren postua zuen autonomia-erkidegoen artean pertsona bakoitzeko diru-sarrera garbiari dagokionez, 13.408 eurokoa baitzen balio hori.

40. grafikoa: Pertsona bakoitzeko urteko diru-sarrera garbiak, autonomia-erkidegoaren arabera. 2016



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Diru-sarrerek banaketa desberdina izan zuten. Giniren koefizientea edo indizea erabiliz azter daiteke hori. Giniren koefizientea 0 eta 1 arteko zenbaki bat da, non 0k berdintasun perfektua adierazten duen (pertsona guztiek diru-sarrera berdinak dituzte) eta 1ek desberdintasun perfektua adierazten duen (pertsona batek diru-sarrera guztiak ditu eta besteek ez dute ezer ez). Datu hori bera Giniren indizearen bidez adieraz daiteke. Kasu horretan, gehieneko balioa 100 izanen da, 1 beharrean, eta, datua lortzeko, 100ekin biderkatu behar da Giniren koefizientea.

EB-28ren esparruan, Giniren indizeak ez du 2009-2015 aldian aldaketa handirik izan, eta 30,5 eta 31 arteko balioak izan ditu. Desberdintasun handienak dituzten herrialdeak Estonia (35,6), Espainia eta Errumania (34,7) eta Grezia (34,5) dira. Kontrako egoeran, berriz, indize baxuenak Eslovenian (24,5) eta Txekiar Errepublikan (25) erregistratu dira. Denbora-tarte horretan, Espainiako balioa 32,9tik 34,7ra pasatu da; hau da, krisialdi ekonomikoaren urteetan, areagotu egin da desberdintasuna. Zifra hori oso altua da, Europako batezbestekoa baino 3,7 puntu altuagoa baita; eta herrialde hauek bakarrik daude gainetik: Serbia, Estonia, Letonia, Lituania, Bulgaria eta Zipre.

23. taula: EBko Giniren koefizientea. 2009. eta 2015. urteen arteko bilakaera

	2009	2014	2015
EB	30,5	30,9	31
Alemania	29,1	30,7	30,7
Austria	27,5	27,6	27,2

Belgika	26,4	25,9	26,2
Bulgaria	33,4	35,4	37
Danimarka	26,9	27,7	27,7
Erresuma Batua	32,4	31,6	32,4
Errumania	34,5	34,7	37,4
Eslovakia	24,8	26,1	23,7
Eslovenia	22,7	25	24,5
Espainia	32,9	34,7	34,7
Estonia	31,4	35,6	35,6
Finlandia	25,9	25,6	25,2
Frantzia	29,9	29,2	29,2
Grezia	33,1	34,5	34,5
Herbehereak	27,2	26,2	26,7
Hungaria	24,7	28,6	28,2
Irlanda	28,8	30,8	31,1
Italia	31,8	32,4	32,4
Kroazia		30,2	30,2
Letonia	37,5	35,5	35,4
Lituania	35,9	35	37,9
Luxenburgo	29,2	28,7	28,5
Malta	27,4	27,7	28,1
Polonia	31,4	30,8	30,6
Portugal	35,4	34,5	34
Suedia	24,8	25,4	25,2
Txekiar Errep.	25,1	25,1	25,1
Zipre	29,5	34,8	33,6

Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

41. grafikoa: Giniren koefizientea EBn. 2009. eta 2015. urteen arteko bilakaera



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Espainian, oro har, desberdintasuna %5,6 hazi zen 2009 eta 2014 urteen artean, 32 puntutik 34ra igota. Nafarroa da Giniren indizerik txikiena duen autonomia-erkidegoa (27,98); Kantabria (28,38) eta Euskadi (28,48) ditu atzetik. Indizerik altuenak, berriz, Balear Uharteetan (33,13), Murtzian (33,39) eta Andaluzian (34,69) jaso ditugu.

Adierazle hori gehien hazi den autonomia-erkidegoa Aragoi izan da (%18,5eko igoera, 27,03 puntutik 32,03 puntura), eta bigarren postuan Gaztela-Mantxa dago (%10,9ko igoera, 29,26 puntutik 32,46 puntura). Beste autonomia-erkidego batzuetan, berriz, errenten arteko desberdintasuna txikitu egin da; esate baterako, Kantabrian, Euskadin, Kanariar Uharteetan, Extremaduran edo Errioxan. Nafarroan, epe horretan, %0,6ko igoera erregistratu da (%27,8tik %27,98ra).

42. grafikoa: Giniren indizea, autonomia-erkidegoei aplikatuta. 2009. eta 2014. urteen arteko bilakaera



Iturria: Estatistika Institutu Nazionala

2015ean, biztanleriaren %7,6, hots, 3,5 milioi pertsona baino gehiago, muturreko pobrezian bizi ziren. Azken urtean, 0,7 puntu hazi da; alegia, 326.000 pertsona gehiago bizi da egoera horretan. Muturreko pobreziaren ehunekoak, eskualdeka, asko aldatzen dira: Nafarroan %2,3koa da, Andaluzian, berriz, %12koa.

Biztanleriaren %20 aberatsenaren errenta, gaur egun, %20 behartsuenaren errenta baino ia zazpi aldiz handiagoa da. Biztanleriaren %10 aberatsenak biztanleria erdiak eskuratzen duen errenta osoaren berdina eskuratzen du, gutxi gorabehera.

Errentak hazi diren heinean, taldeek krisiaren eragina mugatzeko duten gaitasuna handiagoa izan da. Erdi-mailako klasearentzat eta talde behartsuenentzat, diru-sarreren murrizketa askoz handiagoa izan da. Hori dela eta, 2015ean, biztanleriaren %30 aberatsenak 2009an irabazten zuena baino %7,5 gutxiago irabazi zuen. Biztanleriaren hurrengo %40ren diru-sarrerak, edo bestela esanda, erdi-mailako klasearen diru-sarrerak, 2009. urtetik, %9 eta %13 artean murriztu dira; eta biztanleriaren %30 behartsuen diru-sarrerak, %14 eta %25 artean.

- **Pobrezia eta gizarte-bazterketa**

Eurostaten irizpideei jarraituz, pobrezia-arriskuaren atalasea pertsonen kontsumo-unitateko diru-sarreren medianaren %60n kokatzen da. Hortaz, diru-sarreren mediana hazi edo murrizten den heinean, pobrezia-arriskua ere hazi edo murriztu egiten da. Pertsonako diru-sarrerak hazten diren heinean, pobrezia-arriskuaren atalasea hazi egiten da baita ere. Desberdintasuna

neurtzen duen adierazle erlatiboa da pobrezia-arriskuan dagoen biztanleria. Ez du erabateko pobrezia neurtzen, biztanleria osoarekin alderatuta diru-sarrera baxuak dituzten pertsona-kopurua baizik.

Pobrezia-arriskuaren tasak ia ez zuen aldaketarik izan EB-28n, 2011 eta 2015 artean; oro har, biztanleriaren %23,8ri eragin zion arrisku horrek. Bost estatu kidetan, biztanleria osoaren %30 baino gehiago zegoen pobrezia-arriskuan: Bulgarian (%41,3), Errumanian (%37,4), Grezian (%35,7) eta Letonian (%30,9). Aitzitik, pobrezia-arriskuaren maila baxuena zuten herrialdeak hauek izan ziren: Txekiar Errepublika, (%14), Herbehereak (%16,4), Suedia (%16), Finlandia (%16,8) eta Danimarka (%17,7). Espainia lehen taldetik gertuago dago bigarrenetik baino, pobrezia-maila altuarekin (%28,6).

2016an, pertsona bakar batez osatutako familiak pobrezian erortzeko arriskuaren muga (2015eko diru-sarreren datuen arabera kalkulatuta) 8.209 eurotan kokatu zen, aurreko urtean baino %2,5 gutxiago. Bi helduz eta 14 urtetik beherako bi adingabez osatutako familietan muga hori 17.238 eurotan kokatu zen.

Desberdintasuna neurtzen duen adierazle erlatiboa da pobrezia-arriskuan dagoen biztanleria. Ez du erabateko pobrezia neurtzen, biztanleria osoarekin alderatuta diru-sarrera baxuak dituzten pertsona-kopurua baizik.

Aipatu beharra dago 65 urtetik gorakoen tasa hazi egin dela (0,7 puntu). Bestalde, 16 urtetik beherakoek pobrezian erortzeko zuten arrisku-tasa %28,9koa izan zen, biztanleria orokorrarena baino 6,6 puntu altuagoa.

43. grafikoa: Pobrezia-arriskuaren tasa eta atalasea, EB-28n. 2015



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Pobrezia edo gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonen batezbestekoa %27,9 da Espainian. Balio bereziki altuak jaso dira Kanarietan (%44,6), Ceutan (%41,9), Andaluzian (%41,7), Gaztela-Mantxan (%37,9), Extremaduran (%35,8) eta Murtzian (%34,8). Pobrezia-arrisku txikiena zuten autonomia-erkidegoak Nafarroa (%13), Euskadi (%15,9), Errioxa (%17,4) eta Katalunia (%17,9) izan ziren, aurrekoetatik urrun geratzen diren datuekin.

44. grafikoa: Pobrezia-arriskuan edo gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonen ehunekoa, autonomia-erkidegoaren arabera. 2016



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Pobrezia-arriskuaren edo gizarte-bazterketa arriskuaren beste adierazle bat AROPE (At Risk of Poverty and Exclusion) da; pobrezia-arriskuan dauden, material-gabezia duten edo intentsitate baxuko enplegua duten biztanleriarekin osatzen da. Adierazle horren bidez, hiru egoera hauetatik gutxienez batean dagoen biztanleria egonen da pobrezia-arriskuan edo gizarte-bazterketarako arriskuan:

-Pobrezia-arriskuan (medianaren %60ren azpiko kontsumo-unitateko diru-sarrerak). Aurreko urteko diru-sarrerekin osatzen da.
-Enplegurik gabeko edo intentsitate baxuko enpleguetako etxeetan (diru-sarreren erreferentzia-urtean zehar, alegia, elkarrizketa baino urtebete lehenago, lan egiteko adinean dauden eta lan egiteko ahalmen osoaren %20 baino gutxiago aritu diren kideek osatutako etxeak).
-Material-gabezia larrian (inkestan galdetzen diren ondorengo zerrendako bederatzi kontzeptuetatik, gutxienez, lau falta badituzte). Bederatzi kontzeptu hauetan, izan ditzaketen gabeziak adierazten dira:

1. Oporretan, gutxienez, urtean behin joatea.
2. Gutxienez bi egunean behin haragia, oilaskoa edo arraina jatea.
3. Etxebizitza tenperatura egokian mantentzea.
4. Ezusteko gastuak ordaintzea (650 euro).
5. Azken 12 hilabeteotan etxebizitza nagusiarekin loturiko gastuak edo epekako erosketak ordaintzea.
6. Automobil bat izatea.
7. Telefonoa izatea.
8. Telebista izatea.
9. Garbigailua izatea.

Bederatzi kontzeptu horien emaitzen bidez, bizitza-baldintza materialen egoeraren arabera banatzen da biztanleria. 2016an, biztanleriaren %49,5ek ez zuen kontzeptu horietako bat bera ere falta; biztanleriaren %5,8, aldiz, material-gabezia latzeko egoeran zegoen (bederatzi kontzeptu horietatik, ez zituen, gutxienez, lau betetzen).

2016ko inkestan, pobrezia-arriskua eta gizarte-bazterkeria arriskuaren AROPE adierazle erantsia Espainiako biztanleriaren %27,9koa zen; urtebete lehenago, ordea, %28,6koa.

Pobreziaren aldagaiak: sexua, adina, lanbidea, etxebizitza, ikasketak

Pobrezia-arriskua ez da talde sozial guztietan berdina. 2014an, alde txikia egon zen EB-28n gizonen eta emakumeen artean, pobrezia-arriskuaren tasari dagokionez: %16,7koa izan zen gizonentzat, eta %17,7koa emakumeentzat. Urte hartan, sexuen arteko alderik handiena (%3,2) Estonian erregistratu zen. Era berean, emakumeen pobrezia-arriskuaren tasa gizonezkoa baino %2,0 handiagoa izan zen Letonian, Zipren, Lituanian, Suedian eta Italian. Bestalde, Europako herrialde batzuetan, pobrezia-arriskuaren tasa zertxobait handiagoa izan zen gizonen artean, emakumeen artean baino: Danimarkan, Hungarian, Polonian, Errumanian, Espainian, Grezian eta Eslovakia gertatu zen hori, baita Serbian, Islandian eta Mazedonian ere.

Adinari dagokionez, pobrezia edo gizarte-bazterketa arrisku handiena zutenak 6 eta 17 urte arteko pertsonak ziren. Espainian, 2013ko datuen arabera, 12 eta 17 urte arteko pertsona bat pobrezia edo gizarte-bazterketa arriskuan egoteko probabilitatea %37,6koa zen. Ehuneko hori EBri dagokion datuaren gainetik dago (%30,2). EBko sei herrialdetan, Espainian baino balio handiagoa erregistratu da adin-talde horren kasuan; zehazki, Lituanian (%40,3), Grezian (%43,6), Hungarian (%44,1), Letonian (%47,7), Bulgarian (%51,3) eta Errumanian (%52,1).

6 eta 11 urte arteko adin-taldeari erreparatzen badiogu, Espainiako tasa (%28,2) altuagoa da EBko batez betekoa baino (%27,1). Adin-talde horri dagokionez, EBko herrialde hauetan dago pobrezia edo gizarte-bazterketa arrisku handiena: Lituanian (%28,7), Letonian (%29,5), Irlandan (%31,4), Grezian (%32,7), Erresuma Batuan (%33,8), Hungarian (%42,4), Errumanian (%43,0) eta Bulgarian (%50,8).

Nafarroan, adina da pobreziaren arrisku-faktore bat , eta gazteen artean du eragin handiena; alegia, eskola-adinean dagoen biztanleriak du pobrezia pairatzeko arrisku handiena.

Egoera horretan egoteko arriskuan dauden 16 urtetik beherakoen proportzioa %30,1ekoa da; 45-64 (%19,4) urte artekoen eta 65 urte edo gehiagokoen (%18,1) proportziotik urrun. Hori guztia biztanleriaren %23,2ko batezbestekoan sartzen da.

Europako joera orokorrarekin bat, sexua ez da funtsezko desberdintasun-iturri, 65 urtetik gorakoen artean izan ezik. Talde horretan, hala ere, hemen kontuan izan ez ditugun beste faktore batzuek dute eragina.

45. grafikoa: Pobrezia-arriskuaren tasa Nafarroan, adinaren eta sexuaren arabera. 2015



Iturria: Guk geuk egina, Nastaten datuekin

Pobrezia-tasen arteko aldeak aldatu egiten dira biztanleria jarduera profesionalaren arabera sailkatzean. Langabeen egoera oso ahula da arrisku horren aurrean. EB-28ko langabeen ia erdiak (%47,2) pobrezia-arriskuan zeuden 2014an. Mailarik altuena Alemanian erregistratu zen (%67,4), eta beste zortzi estatu kidetan (Estonia, Letonia, Lituania, Erresuma Batua, Hungaria, Errumania, Bulgaria eta Luxenburgo), langabeen erdia baino gehiago zegoen pobrezia-arriskuan.

46. grafikoa: Gizarte-transferentzien osteko pobrezia-arriskuaren tasa, egoera profesional ohikoenaren arabera. 2015 *



** 16 urte gorako pertsonak*
Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Pobrezia-arriskuaren tasek ez dute banaketa bera helduek eta beren kargura dituzten adingabeek osatutako etxebizitzen osaera guztietan. Kargupeko adingaberik ez duten etxebizitzen kasuan, ondoko taulan ikus daitekeen bezala, bakarrik bizi diren pertsonek pobrezia-arriskuan egoteko probabilitate handiagoa dute. Egoera horretan zeuden, 2015ean, beren kargura seme-alabarik ez zuten etxebizitzen %14,8, EBn. Aitzitik, pobrezia-arriskuaren tasa txikiagoa da heldu bakar batek eta bere kargura dituen seme-alabek osatutako etxebizitzetan (%13,5) edo bi helduk edo gehiagok eta beren kargupeko adingabeek osatutako etxebizitzetan (%7,3). Espainiaren datuak bereziki altuak dira heldu bakar batek eta bere kargura dituen seme-alabek osatutako etxebizitzetan (%18,9) eta seme-alabak dituzten bi edo gehiago helduko etxebizitzetan (%9,8).

24. taula: Pobrezia-arriskuan dauden etxebizitza-motak Europar Batasunean. 2015

Herrialdea	Kargupeko seme-alabarik gabeko etxebizitzak	Heldu bakarra eta bere kargupeko seme-alabak	Bi heldu edo gehiago eta beren kargupeko seme-alabak
EB	14,8	13,5	7,3
Alemania	18,4	17,1	8,3
Austria	13,9	16,6	6,4
Belgika	9,6	9,2	6,8
Bulgaria	8,7	9,0	4,3
Danimarka	16,2	7,5	4,3
Erresuma Batua	15,5	8,0	9,9
Errumania	14,6	17,1	6,7
Eslovakia	6,7	10,6	3,2

Eslovenia	23,2	15,9	4,9
Espainia	10,8	18,9	9,8
Estonia	39,1	21,2	8,3
Finlandia	19,4	6,0	4,4
Frantzia	10,5	15,5	5,3
Grezia	9,2	8,3	5,5
Herbehereak	11,6	9,2	4,6
Hungaria	5,2	7,4	4,3
Irlanda	19,8	8,9	6,0
Italia	15,3	16,6	6,9
Kroazia	20,0	6,2	8,0
Letonia	31,3	16,4	7,8
Lituania	21,5	19,9	6,0
Luxenburgo	13,9	28,8	4,8
Malta	13,3	11,8	8,8
Polonia	11,9	11,0	6,3
Portugal	16,6	12,2	8,9
Suedia	28,5	17,0	6,3
Txekiar	11,3	12,1	2,6
Zipre	15,0	4,9	10,0

Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

EBko estatu guztietan, pobrezia-arriskurik txikiena zeukaten etxebizitzak hauek ziren: bi helduk eta beren kargurako adingabeko bakar batek osatutakoak. Orokorrean, pobrezia-arriskuaren tasa handiagoa zen beren kargura adingabeak zituzten ezkongabeen kasuan.

47. grafikoa: Pobrezia-arriskua familia-motaren arabera, kargupean adingabeak dituzten etxebizitzetan. 2015



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

18 urtetik beherakoen pobrezia-arriskuan edo gizarte-bazterketa arriskuan eragina duen beste faktore bat gurasoen ikasketa-maila da. EBko herrialde guztietan, 18 urtetik beherakoen artean pobrezia-arriskuan daudenen proportzioak korrelazio negatiboa du beren gurasoen ikasketa-maila altuenarekin; hau da, gurasoek zenbat eta ikasketa-maila altuagoa izan, orduan eta txikiagoa izaten da pobrezian egoteko arriskua.

EBn, 18 urtetik beherakoen pobrezia-arriskuaren batez besteko ehunekoa, haien gurasoek, gehienez, oinarrizko ikasketak badituzte, %65,6koa da. Bigarren Hezkuntzako ikasketak dituzten horientzat, batez besteko balioa %30,4koa da. Goi Mailako ikasketak dituzten gurasoen kasuan, batezbestekoa %10,7 da.

Espainiaren kasuan, gurasoek Bigarren Hezkuntza baino gutxiagoko ikasketak badituzte, balioa %64,1ekoa da; Bigarren Hezkuntzako ikasketak badituzte, %39,5ekoa, eta Goi Mailako ikasketak badituzte, %14,7koa.

25. taula: EBn 18 urtetik beherakoen pobrezia-arriskuaren ehunekoa, gurasoen ikasketa-mailaren arabera. 2015

	Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa baino gutxiago (0-2. maila).	Bigarren Hezkuntza (3-4. maila)	Goi-mailako hezkuntza (5-8. maila)
EB	65,6	30,4	10,7
Alemania	68,4	23,7	8,1
Austria	65,4	21,0	14,4
Belgika	64,3	29,5	9,9
Bulgaria	89,2	36,1	10,1
Danimarka	50,6	18,4	7,2
Erresuma Batua	59,0	39,3	15,3
Errumania	91,0	49,3	7,0
Eslovakia	93,5	26,2	11,0
Eslovenia	45,7	24,2	7,5
Espainia	64,1	39,5	14,7
Estonia	57,2	33,6	11,4
Finlandia	58,3	23,3	7,5
Frantzia	60,8	28,5	7,9
Grezia	68,9	45,3	19,3
Herbehereak	42,8	19,9	5,2
Hungaria	89,9	37,7	8,5
Irlanda	64,3	44,3	15,3
Italia	58,5	30,0	11,6
Kroazia	77,7	28,5	9,6
Letonia	71,7	42,2	12,0
Lituania	68,6	34,6	7,8
Luxenburgo	53,1	20,8	9,2
Malta	55,1	12,5	7,3
Polonia	68,8	38,3	8,7
Portugal	48,1	23,5	6,1
Suedia	71,4	17,7	11,2
Txekiar Errepublika	85,9	21,0	3,7
Zipre	53,1	37,6	13,8

Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

48. grafikoa: EBn 18 urtetik beherakoen pobrezia-arriskuaren ehunekoa, gurasoen ikasketa-mailaren arabera. 2015



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Horrek adierazten du harreman zuzena dagoela gurasoen prestakuntza-mailaren eta pobrezia-arriskuaren artean; hau da, ikasketek babes handia ematen dutela pobrezia eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuen aurrean.

Pobrezia eta eskola uztea

Lehen esan dugun bezala, Europa 2020 Estrategiaren ardatzetako bat da hezkuntza. EBren aurrerapena neurtzeko helburuetatik biren arabera, ikasketak behar baino lehenago uzten duten pertsonen kopuruak %10etik beherakoa izan behar du 2020an, eta, horrez gain, 30 eta 34 urte arteko pertsonen %40k gutxienez hirugarren mailako hezkuntza edo horren baliokidea egina behar du izan urte horretarako.

Bi helburu horiek EB guztirako ezarri diren arren, ez dira herrialde- edo eskualde-mailan espezifikoki aplikatzen. Izatez, ET2020ren erreferentzia-puntu bakoitza herrialde eta, kasu batzuetan, eskualde bakoitzean lortu beharreko helburuekin osatu da. Horiek egiterakoan, estatu bakoitzaren egoera eta ezaugarriak izaten dira kontuan. Espainian, esaterako, altua denez eskola uzten dutenen tasa, kopuru hori %15etik jaistea litzateke asmoa.

2016an, eskola uzteko joerak beherantz egin du, Txekiar Errepublikan, Errumanian eta Eslovakian izan ezik. Europa 2020ko helburu hori lortzeko, beheranzko joerari eutsi zitzaion, bada; 2002an erregistratutako %17,0tik hona, hamabi urtez egon da adierazle hori behera egiten.

EBn, hezkuntza edo prestakuntza behar baino lehenago uzteko probabilitatea handiagoa izaten da gizonen artean (%12,7, 2014an) emakumeen artean baino (%9,5). Probabilitate hori handiagoa da, halaber, atzerrian jaiotakoen taldean (%20,1) edo desgaitasun fisikoren bat dutenen artean (%25,1).

Hezkuntza eta prestakuntza behar baino lehenago uzten dutenen proportziorik txikiena EBko ekialdean erregistratu zen, batik bat: Kroazia (%2,8), Lituania (%4,8), Eslovenia (%4,9), Polonia (%5,2), Luxenburgo (%5,5), Txekiar Errepublika (%6,6). Aldiz, ehuneko altuenak estatu hauetan erregistratu ziren: Malta (%19,6), Espainia (%19), Errumania (%18,5), Italia (%13,8) eta Bulgaria (%13,8). EBko herrialde guztietan, gizonek baino emakume gutxiagok utzi dute eskola. Salbuespenak Bulgaria, Txekiar Errepublika eta Errumania dira.

49. grafikoa: Hezkuntza behar baino lehenago uztearen eta pobrezia-arriskuaren edo gizarte-bazterketaren tasaren arteko harremana EBn. 2016



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Aurreko erreferentziak betez, pobrezia-arriskuaren eta hezkuntza behar baino lehenago uztearen arteko harremanean alde handiak daude autonomia-erkidego batzuetatik besteetara. Bi faktore horien kasuan, Nafarroa egoera askoz ere hobean ageri zaigu.

50. grafikoa: Hezkuntza behar baino lehenago uztearen eta pobrezia-arriskuaren edo gizarte-bazterketaren tasaren arteko harremana, autonomia-erkidegoaren arabera. 2016



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Bestalde, 2008-2015 epealdian, gazteen langabeziak oso azkar egin zuen gora, eta, horren eraginez, gazte batzuek ikasten eta prestakuntza jasotzen jarraitzea erabaki zuten, lan-aukerarik ez zutelako. Urte horietan EB-28n hezkuntza eta prestakuntza behar baino lehenago utzi zutenen kopuruak behera egin zuen. Beheranzko joera nahiko orokorra da, datu zehatzak bildu zituzten 256 eskualdeen lau bostenetan baino gehiagotan (%82,8) erregistratu baitzen. Izatez, hezkuntza eta prestakuntza behar baino lehenago uzten duen 18 eta 24 urte arteko pertsonen kopuruaren jaitsiera aipagarrienak alderdi horretan ehuneko altuenak zituzten eskualdeetan eman ziren, 2008 eta 2014 artean. Hain zuzen ere, Espainian eta Portugalen gertatu zen hori.

Gizarte-babesa eta pobrezia

Azpimarratu behar da gizarte-babeseko neurriak funtsezko tresna direla pobrezia eta gizarte-bazterketa murrizteko eta horiekin lotutako fenomenoak gutxitzeko. Gizarte-babeseko neurrien arrakasta ebaluatzeko moduetako bat hauxe da: gizarte-transferentzien aurreko eta ondorengo pobrezia-arriskuaren adierazleak alderatzea. 2015ean, gizarte-transferentziek %26tik (transferentzien aurretik) %17ra jaitsi zuten (transferentzien ondoren) EB-28n pobrezia-arriskuaren tasa.

Gizarte-babeserako programak egoteak eragin nabarmena du pobreziak sortzen duen arrakalaren tamainan eta sakontasunean. Gizarte-transferentzien aurreko eta ondoko pobrezia-arriskuaren tasak aztertuta, ikus genezake gizarte-prestazioen eragina txikia izan zela Errumanian, Grezian, Italian, Bulgarian, Letonian, Polonian eta Estonian. Irlandan, Danimarkan, Finlandian, Islandian eta Norvegian, ordea, pobrezia-arriskuan zeuden pertsonen erdiak baino gehiago gizarte-laguntzei esker geratu ziren arrisku horretatik salbu.

51. grafikoa: Pobrezia-arriskuaren tasak, gizarte-transferentzien aurretik eta ondoren. 2015



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Hezkuntzan egindako gastua

Hezkuntzan gehien erabiltzen den adierazleetako bat, eta esanguratsua dena oso, barne-produktu gordinarekin alderaturik hezkuntzara bideraturiko gastu publikoaren bolumena

neurtzen duena da. Hori guztia, gastu publikoko partida guztiak zehazteko zailtasuna kontuan izanik. 2015ean, Europar Batasuneko estatuen batez besteko gastua %5 zen. Estatu bakoitzaren ehunekoaren bilakaerari erreparatuz gero, denetarik ikusiko dugu: herrialde batzuetan, handitzen ari da (Eslovenian, Finlandian, Letonian, Portugalen); beste batzuetan, berriz, behera egiten ari da (Eslovakian, Espainian, Estonian, Grezian, Polonian).

26. taula: Hezkuntzan egindako gastu publikoaren bilakaera BPGd-rekiko, EBn

	2002	2005	2008	2011	2014	2015
EB	5	5,1	5,1	5,2	4,9	5
Alemania			4,4	4,8	4,3	4,2
Austria	5,5	5,3	5,3	5,6	5	5
Belgika	6	5,8	6,3	6,4	6,3	6,3
Bulgaria	3,4	4,2	4,3	3,7	4,1	4,1
Danimarka	8,2	8,1	7,5	8,5	7,2	7,1
Erresuma Batua	5	5,2	5,1	5,8	4,1	5,4
Errumania	3,5	3,5		3,1	3	3
Eslovakia	4,2	3,8	3,5	4	5,9	4,1
Eslovenia	5,7	5,6	5,1	5,6	4,1	6
Espainia	4,1	4,1	4,5	4,8	5,6	4,1
Estonia	5,5	4,8	5,5	5,1	6,4	5,7
Finlandia	6	6	5,8	6,5	5,5	6,4
Frantzia	5,4	5,5	5,4	5,5	4,4	5,5
Grezia	3,4	4			5,2	4,4
Herbehereak	4,9	5,2	5,1	5,5	5,3	5,4
Hungaria	5,2	5,4	5	4,6	4,3	5,1
Irlanda	4,1	4,5	5,5	5,9	4,1	4,8
Italia	4,4	4,2	4,4	4,1	5,9	4
Kroazia	3,8		4,3	4,2	4,7	4,7
Letonia	3,3		3,8	3,5	5,4	5,9
Lituania		16,8	16,7	17,7	5,2	5,4
Luxenburgo					5,8	5,3
Malta	4,3		5,8	8	5,4	5,6
Polonia	5,4	5,5	5,1	4,9	6,2	5,3
Portugal	5,3	5,1	4,7	5,1	5,2	6,1
Suedia	7	6,6	6,4	6,5	6,6	6,6
Txekiar Errep.	4	3,9	3,8	4,3	5,2	5,1
Zipre	5,6	6,3	6,8	6,6	5,8	5,7

Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Herrialde batzuk nabarmentzekoak dira, hezkuntzan BPGd-ren %5 baino gehiago inbertitzen baitute: Danimarka (%7,1), Suedia (%6,6), Finlandia (%6,4), Belgika (%6,3) eta Portugal (%6,1). Espainia, proportzioan, gastu txikiena egiten dutenen artean dago (%4,1); zehazki, Bulgariaren, Italiaren eta Eslovakiaren maila berean, eta atzetik Errumania (%3) baino ez duela.

52. grafikoa: Guztizko barne-gastua BPGd-rekiko Europan. 2015



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Etxebizitza bakoitzak hezkuntzan egiten duen gastua

Etxebizitza bakoitzak hezkuntzan batez beste gastatzen duena –zehazten zaila den adierazlea da– guztizko gastuaren %1,1 eta %1,2 artekoa da EB-28n. Aldagai horrek denboran zehar izan duen bilakaera ondoko taulan jaso dugu, estatu bakoitzari dagozkion datuekin. Espainian, balio horiek %1,5 eta %1,8 artekoak izan ziren 2010-2015 aldian.

27. taula: Etxebizitzek hezkuntzan egindako batez besteko gastua EBn. Guztizkoaren %

	2010	2011	2012	2013	2014	2015
EB	1,1	1,1,	1,1	1,1	1,2	1,2
Alemania	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8
Austria	0,7	0,7	0,7	0,8	0,8	0,8
Belgika	0,4	0,4	0,4	0,4	0,4	0,4
Bulgaria	0,8	0,9	0,9	0,9	0,9	0,9
Danimarka	0,8	0,7	0,7	0,8	0,8	0,8
Erresuma Batua	1,6	1,5	1,6	1,7	1,8	1,8
Errumania	1,1	2,3	2,1	2,1	2	2
Eslovakia	1,5	1,5	1,6	1,6	1,6	1,6
Eslovenia	1,2	1,2	1,3	1,4	1,3	1,3
Espainia	1,5	1,5	1,6	1,8	1,8	1,8
Estonia	0,8	0,7	0,6	0,5	0,4	0,4
Finlandia	0,4	0,4	0,4	0,4	0,4	0,4
Frantzia	0,9	0,9	0,9	0,9	0,9	0,9
Grezia	2,4	2,4	2,4	2,2	2,3	2,1
Herbehereak	0,7	0,7	0,7	0,8	0,8	0,8

Hungaria	1,5	1,4	1,5	1,6	1,7	1,7
Irlanda	3,5	3,3	3,5	3,4	3,3	2,6
Italia	1	1	1	1	1	1
Letonia	1,9	2,1	2	2,1	2,1	1,7
Lituania	0,7	0,6	0,6	0,5	0,5	0,5
Luxenburgo	0,8	0,9	0,9	1		1,1
Malta	1,4	1,3	1,5	1,6	1,6	1,6
Polonia	1,2	1,2	1,1	1,1	1	1
Portugal	1,3	1,4	1,4	1,3	1,3	1,3
Suedia	0,3	0,3	0,3	0,3	0,3	0,3
Txekiar Errepublika	0,6	0,6	0,6	0,5	0,5	0,5
Zipre	2,6	2,6	2,6	2,7	2,6	2,7

Iturria: Eurostat

53. grafikoa: Etxebizitzek hezkuntzan egindako batez besteko gastua EBn. Guztizkoaren %. 2015



** Daturik ez zeukaten herrialdeak ezabatu egin ditugu*
Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

2016an irakaskuntzan gehien gastatu zuten etxebizitzak Madril, Katalunia, Euskadi eta Nafarroakoak izan ziren: batez beste, %1,5etik gorako gastua egin dute.

54. grafikoa: Etxebizitzek hezkuntzan egindako batez besteko gastua, autonomia-erkidegoaren arabera. 2016



** 2006tik 2010era 'Ceuta eta Melilla' batera publikatzen dira. 2011tik aurrera bereizita publikatzen dira, honek bi kategorietan laginketa akatsak eragiten dituelarik.*
Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

2.2.5. Hezkuntza eta ekonomia

Ezagutzan oinarritutako ekonomia mundu guztian ari da indarra hartzen. Adostasun handiz onartzen da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) daudela ekonomian gaur egun gertatzen ari diren aldaketaren muinean.

Baina ekonomia-mota horren garapena IKTen aurrerapen soiletik harago doa. Izan ere, aldaketak sartzen ditu eskariaren eta eskaintzaren nolakotasunean, eta ezagutzari eta berrikuntzari balio berria ematen die, baliabide nagusi gisa. Ikusmolde horren erdigunean hezkuntza, berrikuntza eta ikerketa daude. Elementu horiek elkarri eragiten badiote ere, hezkuntza da, bizitza osoko ikaskuntzaren ikuspuntutik ulertuta, beste bien euskarri-lanak egiten dituen elementuetan funtsezkoena.

Berrikuntza eta ikerketa

Berrikuntzak eta ikerketak garrantzi handia dute ET2020ren barruan, hazkunde adimendun, jasangarri eta integratzaile baten alde formulatutako estrategiaren oinarria bera osatzen dutelako. Estrategia horren helburuen artean dago I+G gastua barne-produktu gordinaren %3raino igotzea 2020rako (inbertsio publikoko BPGd-ren %1 eta inbertsio pribatuko %2).

ET2020k zera proposatzen du: barne-produktu gordinaren %3 inbertitzea I+G gastuan. 2015ean, herrialde batzuek dagoeneko hori betetzen zuten: Austria (%3,1), Danimarka (%3) eta Suedia (%3,3). Suediak eta Finlandiak, hortaz, barne-produktu gordinaren %4ko inbertsioa gainditzea ezarri dute 2020rako helburu gisa. Espainian, %1,2koa zen I+Gn egindako gastua.

Nafarroan, berriz, %1,75ekoa zen barne-gastu hori. Inbertsio altuenak egiten dituzten herrialdeen ehunekoen azpitik dago, beraz, Nafarroa, bai eta EBko batezbestekoaren azpitik ere (%2), baina Espainiako balioaren gainetik (%1,2).

55. grafikoa: Guztizko barne-gastua BPGd-rekiko Europan, 2015ean*



** Daturik ez zeukaten herrialdeak ezabatu egin ditugu*
Iturria: Eurostat

2.3.- Alderdi soziokulturalak

2.3.1. Ezaugarri orokorrak

Alderdi soziokultural ugarik dute eragina hezkuntzaren arloan. Horien artean dauzkagu etxean irakurtzeko ohitura, musika edo antzerkigintzarekin lotutako kultura gertukoa izatea edo eduki kulturala duten esperientzietan parte hartzea. Halakoen garrantzia gutxietsi gabe, esanguratsuak dira, gaur egun, konektibitatea eta Interneten erabilera, eta nazioartean oso zabaldua dauden adierazle bilakatu dira.

Europar Batasunean, Interneterako sarbideari buruzko datuak asko aldatzen dira herrialdetik herrialdera, baina, betiere, goranzko bilakaera antzematen da haietan guztietan. Herrialde batzuetan, Interneterako sarbidea duten etxeen ehunekoa oso handia da; zehazki, %90etik gorakoa (Alemania, Danimarka, Finlandia, Luxenburgo, Herbehereak, Erresuma Batua, Suedia). Beste batzuetan, aldiz, konexio horrek ez du %70eko langa gainditzen (Bulgaria, Grezia).

28. taula: Interneterako sarbidea duten etxebizitzen ehunekoa EBn. 2017ko urtarrilaren 1ean

	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Alemania	83	85	88	89	90	92
Austria	75	79	81	81	82	85
Belgika	77	78	80	83	82	85
Bulgaria	45	51	54	57	59	64
Danimarka	90	92	93	93	92	94
Erresuma Batua	83	87	88	90	91	93
Errumania	47	54	58	61	68	72
Eslovakia	71	75	78	78	79	81

Eslovenia	73	74	76	77	78	78
Espainia	63	67	70	74	79	82
Estonia	69	74	79	83	88	86
Finlandia	84	87	89	90	90	92
Frantzia	76	80	82	83	83	86
Grezia	50	54	56	66	68	69
Herbehereak	94	94	95	96	96	97
Hungaria	63	67	70	73	76	79
Irlanda	78	81	82	82	85	87
Italia	62	63	69	73	75	79
Kroazia	61	66	65	68	77	77
Letonia	64	69	72	73	76	77
Lituania	60	60	65	66	68	72
Luxenburgo	91	93	94	96	97	97
Malta	75	77	79	81	82	82
Polonia	67	70	72	75	76	80
Portugal	58	61	62	65	70	74
Suedia	91	92	93	90	91	94
Txekiar Errepublika	67	65	73	78	79	82
Zipre	57	62	65	69	71	74

Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Espainian, 12,6 milioi familiak dute etxean Interneterako sarbidea. Horrek esan nahi du etxebizitza guztien ia %79k izan duela sarerako sarbidea 2015ean, aurreko urteko %74,4ren aldean.

Interneterako sarbideari dagokionez, 13 milioi etxebizitzak (etxebizitzen %81,2) banda zabala erabiltzen dute (ADSL, kable bidezko sarea...); aurreko urtean baino milioi erdi gehiagok. Halaber, banda estua ez da oso erabilia. Banda zabaleko Interneterako sarbide-mota nagusia eskuko gailu baten bidezkoa da (azken belaunaldiko telefono mugikorra –3G, gutxienez–, etab.). Etxebizitzen %80,1ek dute hori.

Horren atzetik ditugu ADSL lineak (etxebizitzen %48,3tan), kable edo zuntz optiko bidezko sarea (%37,5), banda zabaleko beste konexio finko batzuk –satelite, WiFi publiko edo WiMax bidezkoak– (%8,1) eta banda zabaleko konexio mugikorrak, txartel edo USB modem bidezkoak (%6,6). Aipatu beharra dago ADSL konexioa, aurreko urtearekin alderatuta, 10 puntuan jaitsi dela, eta kable bidezko sareak edo zuntz optikoak eta eskuko gailuek gora egin dutela (9,6 puntu eta 3,0 puntu, hurrenez hurren).

Interneterako sarbiderik ez duten etxebizitzek, bestalde, hainbat arrazoi ematen dituzte egoera hori azaltzeko, hala nola Interneten beharrik ez dutela (%67,4), Internet erabiltzeko nahikoa ezagutza ez dutela (%41,3), eta arrazoi ekonomikoak: ekipamenduaren kostuak handiegiak direla (%25,6) eta konexioaren kostuak altuegiak direla (%20,7). Dena den, bi arrazoi ekonomiko horiek, aurten, Internetera sarbidea ez izateko garrantzia galdu dute (2015ean baino 3,5 eta 6,0 puntu gutxiago dituzte, hurrenez hurren).

56. grafikoa: IKT ekipamenduen bilakaera Espainiako etxebizitzetan. 2006-2016 seriea



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Espainian, IKTak etxean erabiltzen dituzten haurren (10-15 urte) ehunekoa oso altua da. Hala, ia-ia adingabe guztiek erabiltzen dute ordenagailua (%94,9), eta %95,2k Internet erabiltzen dute. Jarduera horiek ere oso zabalduta daude 10 urtetik beherakoen artean. Horrek guztiak agerian uzten du gero eta zabalduagoa dagoela aplikazio eta erabilera horietako sarbidea. Aldi berean, ordea, indartu egin da erabiltzaile adingabeen mugei eta teknologia digitalen erabilerarekin lotutako gatazkei buruzko eztabaida.

Internet ordenagailuarekin alderatuta, lehendabiziko aldiz, erabiltzaile gehiago ditu Internetek. Sexuen arabera, ordenagailua eta Internet erabiltzen dutenen arteko desberdintasunak ez dira esanguratsuak, aurreko urteetan bezalaxe. 2015ean, mugikorra zuten neskatoen ehunekoa mutikoen ehunekoa baino bost puntu altuagoa zen. 2016an, 2,1 puntuan murriztu zen. Halaber, 10 urtetik aurrera, gero eta haur gehiagok dute telefono mugikorra; eta 15 urteko biztanleriaren %93,9k du mugikorra.

29. taula: IKT erabiltzen duten adingabeen ehunekoa Espainian, sexuaren eta adinaren arabera. 2016

	Ordenagailuaren erabilera	Interneten erabilera	Mugikorraren erabilera
Guztira	94,9	95,2	69,8
Gizonak	95,6	95,7	68,8
Emakumeak	94,2	94,7	70,9
Adina			
10	92.6	90,6	25,4
11	92,6	93,1	50,9
12	94,8	95,9	72,7
13	96,7	95,4	86,0
14	95,7	98,2	90,1
15	97,1	98,0	93,9

Iturria: Estatistikako Insitutu Nazionala

2.3.2. Nafarroako hizkuntzak

Nafarroako hizkuntzen errealitatea aberatsa eta konplexua da. Garai historikoetan hiztun-komunitateak sortu zituzten hizkuntzen garapenak ez du etenik izan, eta oraindik ere irauten dute berezko hizkuntza gisa gaztelania edota euskara duten bi komunitateak. Sakontasunez aztertu diren arrazoi soziolinguistiko eta historikoak direla medio, komunitateko biztanle ia guztiek dakite gaztelaniaz gaur egun. Euskal hiztunak elebidunak dira gutxienez, eta gaztelania ere menderatzen dute. Badira, gainera, beste hizkuntzen hiztunek osaturiko komunitate batzuk, nazioarteko migrazioen, gizarte-fluxuen edo ikaskuntzaren ondorioz sortuak. Horiek beste hizkuntza batzuk erabiltzen dituzte, baina fenomeno hori ez da nahikoa ikertu orain arte.

Nafarroako datu eguneratuenak 2016an egindako VI. Inkesta Soziolinguistikoari dagozkio. Inkestaren datu orokorrenek adierazten dute Nafarroako 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %12,9 euskaldunak direla; %10,3, euskaldun pasiboak, eta %76,7, ez direla euskaldunak. Hortaz, Nafarroan, 16 urte edo gehiago dituzten biztanleen artean, 69.000 euskaldunak dira; 55.000, euskaldun pasiboak, eta 410.000, ez dira euskaldunak.

57. grafikoa: 16 urteko edo gehiagoko biztanleria eta hizkuntza-profila. 2016



Iturria: Euskarabidea

Eremu euskalduna da euskaldun-portzentaje handiena duen eremua (%61,1). Eremu mistoan, elebidun-portzentajea %11,3koa da. Euskaldun-portzentaje baxuena eremu ez-euskaldunekoa da (%2,7). Hori guztia, 2016ko zonifikazioa kontuan izanik.

58. grafikoa: Gaitasun linguistikoa eremuka. 2016



Iturria: Euskarabidea

Hiriburuari dagokionez, Iruñeari, alegia, 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %10,5 da euskalduna; %11,4, euskaldun pasiboa, eta %78,1, ez da euskalduna.

59. grafikoa: Gaitasun linguistikoa Iruñeko 16 urte edo gorako biztanlerian. 2016



Iturria: Euskarabidea

Azken 25 urteotan, euskaldunen ehunekoa 3,4 puntu hazi da. Nafarroan, 1991n, euskaldunak %9,5 ziren, eta egun, %12,9 dira. Halaber, euskaldun pasiboen kopurua ere hazi egin da: biztanleriaren %4,6tik %10,3ra.

60. grafikoa: Biztanleria euskaldunaren bilakaera Nafarroan. 1991-2016



Iturria: Euskarabidea

Eremu mistoan hazi da gehien euskaldun-kopurua (%5,2tik %11,3ra). Eremu ez-euskaldunean, 2016an, %2,7koa da ehunekoa; duela 25 urte %0,6koa zen. Azkenik, eremu euskaldunean, euskaldun-kopuruak ez du aldaketa handirik jasan: %60-61 inguruan mantentzen da.

Hizkuntza-gaitasunak, adin-taldeen arabera

Euskaldun gehien dituen adin-taldea 35 urtetik beherakoena da; bereziki, 16-24 urte bitarteko taldea. Gaur egun, Nafarroako 16-24 urte bitarteko biztanleriaren %25,8 euskalduna da; 25 eta 34 urte bitarteko biztanleriaren ordea, %18,8.

Adinak aurrera egin ahala, euskaldun-kopuruak behera egiten du. 65 urte edo gehiagoko biztanleriaren artean dago euskaldun-kopururik txikiena (%8,3). 35 urte edo gehiagoko adin-talde guztietan, elebidunen ehunekoa Nafarroako batezbestekoa baino baxuagoa da, (%9 eta %10en artekoa).

Azken 25 urteotako bilakaera aztertuz gero, elebidun-kopurua hazten ari da gazteenen artean. 1991n, 16 eta 24 urte bitarteko biztanleriaren %10 euskalduna zen; gaur egun, ia 16 puntu hazi da (%25,8). Era berean, 25 eta 34 urte bitarteko biztanleriaren artean ere hazi egin da:1991n, %7koa zen, eta 2016an, %18,8koa. Gainontzeko adin-taldeetan ez da aldaketa handirik izan; puntu bat edo bi besterik ez dira aldatu.

61. grafikoa: Biztanleria euskaldunaren bilakaera Nafarroan, adin-taldearen arabera. 1991-2016



Iturria: Euskarabidea

Adin-taldeei dagokien bilakaera hiru hizkuntza-eremuetan egon da; nahiz eta errealitateak oso bestelakoak diren.

Eremu euskaldunean, euskaldunen ehuneko altuenak 16 eta 24 urte bitarteko biztanleria gazteak osatzen dute (%89,6). Adinak aurrera egin ahala, euskaldun-kopuruak behera egiten du. Hala, euskaldun gutxien dituen adin-taldea 50 eta 64 urte bitartekoa da (%51,1). 65 urteko edo gehiagokoen adin-taldean, euskaldunen ehunekoa hazi egin da berriro ere: %58,4.

Eremu mistoan, euskaldunen ehuneko handiena gazteen artean dago (%27,3); txikiena, ordea, nagusienen artean (%4,1). Iruñeko datuak ere antzekoak dira: 16 eta 24 urte bitarteko biztanleriaren %25,1 eta 65 urte baino gehiagokoen %4,1 da euskalduna.

Eremu ez-euskaldunean, elebidunen ehuneko handiena gazteen artean erregistratu da: 16-24 urte bitartekoen %8,6 eta 25-34 urte bitartekoen %4,1. Gainontzeko adin-taldeen ehunekoak oso txikiak dira.

Euskaldunek euskaraz adierazteko duten gaitasuna

Euskaraz edo gaztelaniaz hitz egiteko erraztasunaren arabera, hiru taldetan bereiz daitezke euskaldunak.

62. grafikoa: Biztanleria euskalduna, hizkuntza-erraztasunaren arabera. 2016



Iturria: Euskarabidea

Lehenengo taldean, euskara gehiago hitz egiten duten elebidunak daude. Horiek gaztelaniaz baino hobeto moldatzen dira euskaraz. Euskaldunen %23,2 dira. Euskara da euskaldun elebidun ia guztien lehen hizkuntza (%95), eta gehiengoa eremu euskaldunean bizi da (%81).

Bigarren taldean, euskaraz nahiz gaztelaniaz berdin moldatzen diren elebidunak daude. Euskaldunen %25,7 dira. Erdia baino gehiago eremu euskaldunean bizi da (%58), eta herena baino gehiago, eremu mistoan (%38). Euskara da elebidun orekatuen gehiengoaren lehen hizkuntza (%74).

Azken taldean, euskaraz baino hobeto gaztelaniaz moldatzen diren elebidunak daude. Euskaldun-talde handiena da (%51,1). Gehienak eremu mistoan bizi dira (%71), eta gaztelania dute lehen hizkuntza (%75).

63. grafikoa: Biztanleria euskaldunaren erraztasuna euskaraz adierazteko, eremuka. 2016



Iturria: Euskarabidea

Hizkuntza-eremuei erreparatuz, nabarmenak dira erraztasun-mailen desberdintasunak. Eremu euskaldunean, euskaldunen %43,4k erraztasun handiagoa dute gaztelaniaz baino euskaraz adierazteko. Herenak erraztasun berdina du euskaraz zein gaztelaniaz (%34,1), eta bosten batek (%22,5), gaztelaniaz du erraztasun handiagoa.

Eremu mistoan, ordea, euskaldunen gehiengoak gaztelaniaz adierazteko erraztasun handiagoa du (%71,9). Elebidun orekatuak bosten bat dira (%19,6), eta elebidun euskaldunak, %8,4.

Eremu ez-euskaldunean, euskaldunen %80,2k gaztelania erabiltzen dute gehiago; %17,1 elebidun orekatuak dira, eta %2,7k euskara erabiltzen dute gehiago.

64. grafikoa: Biztanleria euskaldunaren erraztasuna euskaraz adierazteko, adin-taldearen arabera. 2016



Iturria: Euskarabidea

Adin-taldearen araberako aldeak ere nabarmenak dira. Euskara gehiago erabiltzen duten elebidunak 65 urte baino gehiagokoen taldekoak dira (%37,7); eta gero eta gazteagoak izan, orduan eta txikiagoa da ehunekoa. Hala, 16 eta 24 urte bitarteko euskaldunen %16,9, gaztelaniaz baino, hobeto aritzen da euskaraz.

Elebidun orekatuen ehuneko handiena 35 eta 49 urte arteko euskaldunena da (%28,5); eta txikiena, 16 eta 24 urte artekoena (%20,6).

Adinak behera egin ahala, gaztelania gehiago erabiltzen duten elebidunen ehunekoak gora egiten du. 16-24 urte, 25-34 urte eta 35-49 urte bitarteko euskaldunen erdia baino gehiago hobeto aritzen da gaztelaniaz (%62,6, %56,4 eta %50,1, hurrenez hurren).

65. grafikoa: Biztanleria euskaldunaren erraztasunaren garapena euskaraz adierazteko. 1991-2016



Iturria: Euskarabidea

Azken 25 urteetako bilakaerari dagokionez, nabarmentzekoa da aldaketa esanguratsua egon dela euskaldunen hizkuntza-erraztasunean. 1991n, euskaldunen %40,6 aritzen zen hobeto euskaraz, baina, gaur egun, %23,2 dira. Euskaraz zein gaztelaniaz berdin aritzen diren pertsonen ehunekoa ez da nabarmen aldatu (1991n %26,6 ziren, eta, gaur egun, %25,7). Dena dela, gaztelaniaz hobeto aritzen diren euskaldunen ehunekoak nabarmen egin du gora. Izan ere, 1991n, %32,8 ziren, eta, gaur egun, %51,1.

Euskararen transmisioa

Lehen hizkuntzaz ari garenean, haur batek 3 urte bete arte familian ikasi duen hizkuntzari egiten diogu erreferentzia. Euskara da Nafarroako 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %9,3ren lehen hizkuntza. Etxean euskara bakarrik eskuratu dutenak %6,2 dira, eta euskara eta gaztelania eskuratu dutenak, %3,1. Nafarroan bizi diren hamar pertsonatik bederatzik gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat eskuratu dute etxean (%90,8). Aipatu beharra dago gero eta nafar gehiagoren lehen hizkuntza errumaniera, portugesa, errusiera edo beste hizkuntza batzuk direla.

66. grafikoa: Lehen hizkuntza Nafarroan. 2016



Iturria: Euskarabidea

67. grafikoa: Lehen hizkuntza eremuaren arabera. 1986. 2016



Iturria: Euskarabidea

Hizkuntza-eremuen araberako aldeak nabarmenak dira. Eremu euskaldunean, euskara da biztanleriaren erdia baino gehiagoren lehen hizkuntza (%55,3): %45,4k euskara bakarrik eskuratu du etxean, eta %9,9k, euskara zein gaztelania.

Gaztelania lehen hizkuntzatzat dutenak gehiengoa dira, bai eremu mistoan (%93,8) bai eremu ez-euskaldunean (%98,1). Iruñeko datuak eremu mistoko datuen oso antzekoak dira. Hala, 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %3,1ek euskara besterik ez dute eskuratu etxean, eta %2,7k, euskara zein gaztelania. Hortaz, gaztelania da Iruñeko hamar biztanletik bederatziren lehen hizkuntza (%94,2).

Euskara lehen hizkuntzatzat duten pertsonen gehiengoa 65 urte edo gehiagokoen taldekoa da (%8,5). Adinak behera egin ahala, ehunekoa ere jaitsi egiten da, 16-24 urte bitarteko taldera heldu arte. Talde horretan aldaketa bat gertatu da: etxean euskara bakarrik eskuratu duten pertsonen ehunekoa handiagoa da 16-24 urte arteko taldean, 25-34 urte artekoan baino (%5,9 versus %5).

Gazteenak dira euskara nahiz gaztelania eskuratzen dutenak (%4,9).

68. grafikoa: Lehen hizkuntzaren garapena adin-taldearen arabera. 1991-2016



Iturria: Euskarabidea

Eremu euskaldunean, adin-talde guztietan, pertsonen erdiak baino gehiagok du lehen hizkuntzatzat euskara edo euskara eta gaztelania. Hala eta guztiz ere, lehen hizkuntzatzat euskara baino ez duten hiztunen ehunekoa aztertuz gero, ikusiko dugu, adinak behera egin ahala, ehunekoak ere behera egiten duela (%52,7, 65 urte edo gehiagokoen taldean, eta %40-%45, 50 urte baino gazteagoen artean).

Lehen hizkuntzatzat euskara nahiz gaztelania dutenen ehunekoak, berriz, adinak behera egin ahala, gora egiten du. Hala, nagusienen artean, %7,7 dira, eta gazteenen artean, %17,7. Gaztelania lehen hizkuntzatzat duten biztanleriaren ehuneko handienak 35-49 eta 50-64 urte artekoen taldeenak dira (%49,7 eta %45,3, hurrenez hurren), eta baxuenak, 65 urte edo gehiagokoen eta 16 eta 24 urte bitartekoen taldearenak (%39,5 eta %40,7, hurrenez hurren).

Eremu mistoan, lehen hizkuntzatzat gaztelania duten pertsonak gehiengoa dira adin-talde guztietan: hamarretik, bederatzi baino gehiago dira. Euskara lehen hizkuntzatzat izan dutenen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagoko taldean erregistratu da (%6,7), eta adinak behera egin ahala, ehunekoak ere behera egiten du, gazteenetara heldu arte. Azken adin-talde horretan, lehen hizkuntzatzat euskara izan duten pertsonak aurreko adin-taldekoak baino gehiago dira (%2,3).

Hala ere, kontrakoa gertatzen da euskara eta gaztelania aldi berean eskuratzen dutenekin, adinak behera egin ahala, ehunekoak gora egiten baitu ia adin-talde guztietan. Gazteen adin-taldean, gehiago dira euskara eta gaztelania aldi berean eskuratzen dutenak (%6,2), euskara bakarrik eskuratzen dutenak baino (%2,3). Eta berdina gertatzen da Iruñean.

Eremu ez-euskaldunean, datuak ez dira esanguratsuak, beraz, lehen hizkuntza ez dugu adin-taldeka sailkatuko. Hala eta guztiz ere, aipatu behar dugu, adin-talde guztiak kontua izanik,

gaztelania (edo euskara ez den beste hizkuntza bat) dela biztanleriaren %98,5en lehen hizkuntza.

Lehen hizkuntzaren bilakaera adin-taldeka aztertuz, duela 25 urte, lehen hizkuntzatzat euskara eta gaztelania zituzten pertsonak 65 urte edo gehiagokoen taldekoak ziren (%13,8), eta adinak behera egin ahala, ehunekoak ere behera egiten zuen; 25 eta 34 urte bitarteko gazteen artean erregistratu zen ehuneko baxuena (%5,4). Gaur egun, ehuneko esanguratsuenak 16 eta 24 urte bitarteko eta 65 urte edo gehiagokoen taldeetan aurkitzen ditugu (%10,9 eta %10,5, hurrenez hurren). Ehunekorik baxuena 35 eta 49 urte bitarteko biztanleen artean erregistratu da (%7,4).

Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera sailkatuta

Bestalde, Nafarroako 16 urte edo gehiagoko euskaldunen %40,7k euskara baino ez dute eskuratu etxean; alegia, jatorriz dira euskaldunak. Euskaldunen %13,4k euskara nahiz gaztelania eskuratu dute etxean, beraz, jatorriz dira elebidunak. Azkenik, ia erdiak dira euskaldun berriak, alegia, ez dute euskara etxean eskuratu (%45,9). Pertsona horiek eskolan, euskaltegian edo helduentzako euskara-eskoletan ikasi dute euskara.

69. grafikoa: Biztanleria euskaldunaren garapena, lehen hizkuntzaren arabera. 1991-2016



Iturria: Euskarabidea

Duela 25 urte, lau euskaldunetik hiru ziren jatorriz euskaldunak (%76,6). Egun ez bezala, jatorrizko elebidunen eta euskaldun berrien ehunekoa baxua zen (%7,4 eta %16, hurrenez hurren).

Datuak hizkuntza-eremuka aztertuz gero, aldeak nabarmenak dira. Eremu euskaldunean, hamar euskaldunetik zazpi dira jatorrizkoak (%71,3); hamarretik bat, jatorrizko elebidunak (%11), eta hamarretik bi, euskaldun berriak (%17,6).

Eremu mistoan, hamar elebidunetik sei baino gehiago dira euskaldun berriak (%65,8), eta jatorrizko euskaldun eta elebidunen ehunekoak antzekoak dira (%18,1 eta %16,1, hurrenez hurren).
Azkenik, eremu ez-euskaldunean, hamar elebidunetik zortzi dira euskaldun berriak (%80); hamar euskaldunetik bat, jatorrizkoak (%11,7), eta ia hamarretik bat, jatorrizko elebidunak (%8,3).

70. grafikoa: Biztanleria euskaldunaren garapena, lehen hizkuntza eta adin-taldearen arabera. 2016



Iturria: Euskarabidea

Adinaren araberako bilakaerari dagokionez, azken 25 urteotan, aldaketa asko izan dira elebidunen taldean. Egun ez bezala, 1991n, jatorrizko euskaldunak gehiengoa ziren adin-talde guztietan. Gaur egun, ordea, 16 eta 24 urte bitarteko eta 25 eta 34 urte bitarteko euskaldunen erdia baino gehiago da euskaldun berria (%58 eta %57,9, hurrenez hurren). 1991n, adin-talde horietan, euskaldun berriak %25,5 eta %30,2 ziren, hurrenez hurren.

Euskararen erabilera

Nafarroan, 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %12,2k euskara erabiltzen du, neurri handiagoan edo txikiagoan: %6,6k era intentsiboan erabiltzen du; hau da, egunerokotasunean, gaztelania bezainbeste edo gehiago erabiltzen du. Aldi berean, %5,6k euskara erabiltzen du, baina gaztelania baino gutxiago.

Gainontzeko biztanleek (%87,8) beti edo ia beti erabiltzen dute gaztelania. Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da, noizean behin izan arren, euskara ere erabiltzen duen talde txiki bat dagoela (%2,5).

71. grafikoa: Euskararen erabileraren tipologia. 2016



Iturria: Euskarabidea

Hizkuntza-eremua zein den, erabilerari dagozkion datuak nabarmen aldatzen dira. Hala, euskara gaztelania bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenak, alegia, euskara era intentsiboan erabiltzen dutenak %50,7 dira eremu euskaldunean; %3,2, eremu mistoan, eta %0,2, eremu ez-euskaldunean. Horiekin batera, euskara gaztelania baino gutxiago erabiltzen dutenak daude: %11,9, eremu euskaldunean, %10,8, eremu mistoan, eta %2,5, eremu ez-euskaldunean.

Azken 25 urteetako bilakaera aztertuz gero, ikusten dugu euskararen erabileraren bariazioak txikiak izan direla; batez beste, 0,6 puntu hazi da. Dena den, aipatu beharra dago, lehen hogei urteetako beherako joera txiki baten ostean, azken bost urteotan, 1,1 puntu hazi dela. Ikusteko dago joera-aldaketa hori hurrengo urteetan egonkortzen den. Euskararen erabilera areagotu egin da eremu euskaldunean nahiz eremu mistoan. 1991. eta 2016. urteen artean, euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen zuten pertsonen ehunekoa 3,9 puntu hazi zen eremu euskaldunean, eta 1,5 puntu, eremu mistoan. Eremu ez-euskaldunean, euskararen erabilera aldaketarik gabe mantendu zen.

72. grafikoa: Euskararen erabileraren garapena. 1991-2016



Iturria: Euskarabidea

Euskararen erabileraren hazkundea, beraz, eremu euskaldunean eta mistoan izan da. Aipatu dugun bezala, azken 25 urteotan, euskara gaztelania bezainbeste edo gehiago erabiltzen duen biztanleriaren ehunekoa 3,9 puntu hazi da eremu euskaldunean. Hala ere, nabarmentzekoa da hazkunde handiena azken bost urteetan izan dela (2,1 puntu). Eremu mistoan, 1,5 puntuko hazkunde osoa azken bost urteotan izan da.

73. grafikoa: Euskara gaztelania bezainbeste edo gehiago erabiltzen duen biztanleriaren garapena, eremuka. 1991-2016.



Iturria: Euskarabidea

Azken 25 urteetako bilakaera aztertuz gero, nabarmentzekoa da familiaren barruko euskararen erabilera murriztu egin dela, eta inguru hurbilean nahiz eremu formalean hazi egin dela. Dena den, Nafarroan, erabilera-eremu guztietan areagotu da euskararen erabilera azken bost urteotan, neurri handiagoan edo txikiagoan.

Familiaren barruko euskararen erabilera 1991. eta 2011. urte bitartean murriztu zen arren, azken bost urteotan 0,8 puntu hazi da. Bikotearekin, gurasoekin eta neba-arrebekin euskara erabiltzeagatik egon da hazkunde hori. Hala eta guztiz ere, seme-alabekin euskara erabiltzearen ehunekoa duela bost urteko ehunekoaren berdina da (%8).

74. grafikoa: Etxean euskara gaztelania bezainbeste edo gehiago erabiltzen duen biztanleriaren garapena. 1991-2016



Iturria: Euskarabidea

Inguru hurbilean eta eremu formalean, areagotu egin da euskararen erabilera, azken 25 nahiz bost urteotan. 2011 eta 2016. urte bitartean, euskara gaztelania bezainbeste erabiltzen zutenen ehunekoa eremu guztietan hazi zen: 0,6 puntu, lagunekin; 0,8 puntu, bankuen sektoreko eta osasun-zerbitzuetako langileekin; 1,3 puntu, dendariekin; 1,4 puntu, lankideekin; eta 2,5 puntu, udal-zerbitzuetako langileekin.

75. grafikoa: Inguru hurbiletan eta eremu formalean euskara gaztelania bezainbeste edo gehiago erabiltzen duen biztanleriaren garapena. 1991-2016



Iturria: Euskarabidea

Euskararen erabilera adinaren arabera aztertuz gero, euskara gaztelania bezainbeste edo gehiago erabiltzen duten pertsonen ehunekoa gero eta txikiagoa da 65 urte baino gehiagokoen artean; 35 urte baino gutxiagokoen artean, ordea, gero eta handiagoa da. 35 eta 50 urte arteko pertsonen artean, euskararen erabilerak behera egin zuen 1991. eta 2011. urteen artean. Hala ere, azken bost urteotan ikusitako joera-aldaketa talde horren barruan gertatu da baita ere. Hala, erabileraren ehunekoa 0,9 puntu hazi da 50 eta 64 urte bitarteko hiztunen artean, eta 1,3 puntu 35 eta 49 urte bitartekoen artean.

76. grafikoa: Euskara gaztelania bezainbeste edo gehiago erabiltzen duen biztanleriaren garapena, adin-taldearen arabera. 1991-2016



Iturria: Euskarabidea

Hortaz, orain arte aztertutako datuak kontuan izanik, esan daiteke, Nafarroan, gero eta pertsona gehiagok erabiltzen duela euskara, eta gero eta gutxiagok erabiltzen dutela gaztelania bakar-bakarrik. Hau da, euskararen ahozko erabilera gero eta handiagoa da familia barruan, inguru hurbilean eta eremu formalean.

Inkestatu guztien %77k sare sozialak erabiltzen dituzte; gehiengoak, egunero (%68,7). Erabiltzaileen adinari dagokionez, 65 urte baino gutxiagoko adin-talde guztietan, gehiengoak erabiltzen ditu sare sozialak egunero (%74,3, 50 eta 64 urte artekoen artean, eta %98,2, 16 eta 24 urte artekoen artean). Erabiltzaileen adinak behera egin ahala, erabilera hazi egiten da.

Gaztelania da sare sozialetan gehien erabiltzen den hizkuntza; baita gazteenen artean ere. Hori bai, erabiltzaileen %6,5ek oso maiz erabiltzen du euskara (hots, euskararen erabileraren ehunekoa %50 baino handiagoa da). Gazteenen artean (16 eta 24 urte bitartekoak), euskara oso maiz erabiltzen dutenak %13 dira. Gaztelania eta euskaraz gain, erabiltzaileek beste hizkuntza batzuk ere erabiltzen dituzte Interneten; bereziki, ingelesa (%3,3).

Euskararen erabilera sustatzearekiko jarrera

Euskararen erabilera sustatzearekiko jarrera ezagutzeko helburuarekin, 16 urte edo gehiagoko biztanleriak erakutsitako iritziak hainbat eremutako sustapenaren aldekoen edo kontrakoen arabera sailkatu ditugu.

Nafarroako 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %33,3 euskara sustatzearen alde dago; %27,6 ez dago ez alde ez kontra, eta %39,1 kontra dago.

Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin. Euskaldunen %82,3 euskararen erabilera sustatzearen alde dagoen arren, euskaldun pasiboen %51,1 eta gaztelaniadunen %22,7 baino ez dago euskararen erabilera sustatzearen alde.

Era berean, euskara sustatzearekiko aldeko jarrera handiagoa da eremu euskaldunean (%68,1), eremu mistoan (%36,3) eta eremu ez-euskaldunean baino (%19,1). Iruñean, biztanleriaren %37,6 euskararen erabilera sustatzearen alde dago; %32,7, berriz, kontra.

Adin-taldeei erreparatuz, euskararen erabilera sustatzearen aldeko adin-taldeak 50 eta 64 urte artekoak eta 25 eta 34 artekoak dira (%37,6 eta %34,8, hurrenez hurren). Euskararen erabilera sustatzearen kontra dauden adin-taldeak 65 urte edo gehiagokoak eta 35 eta 49 urte artekoak dira (%41,3 eta %40,7, hurrenez hurren).

77. grafikoa: Euskararen erabilera sustatzearekiko jarreraren garapena. 1991-2016



Iturria: Euskarabidea

Lege horrek, 15. artikuluan, administrazio publikoak premiatzen ditu poliki-poliki lehen zikloko ikaspostuen eskaintza handitzera, administrazioen artean koordinatzera, eta ezartzera zein baldintzatan egin daitezkeen hitzarmenak toki entitateekin, beste administrazioekin eta irabazi asmorik gabeko entitate pribatuekin. Halaber, hezkuntza-administrazioek Haur Hezkuntzako lehen zikloko hezkuntza-edukiak zehaztu behar dituzte eta ziklo hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak arautu, irakasleko ikasle-kopuruari, instalazioei eta ikaspostu-kopuruari dagokienez.

Nafarroan, martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuak arautzen du Haur Hezkuntzako lehen zikloa, eta hori eskaintzen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak zehazten ditu, bai eta ziklo horren hezkuntzako edukiak ere.

Foru Dekretu horrekin eta horren ondorengo aldaketekin, Nafarroako Gobernuak zera lortu nahi du: Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeak kalitateko hezkuntza-zentroak izatea, hiru urtetik beherakoei, familiekin lankidetzan arituz, beren izaera eta gaitasun guztiak garatzeko prozesu ezin hobe bat eskain diezaieten, ongizatea eta segurtasuna bermatzen dituen inguru batean.

Horrekin batera, Nafarroako Gobernuaren nahia da ikastetxeak Foru Komunitateko aniztasun geografiko, kultural eta linguistikoari egokitutako zerbitzua izatea, antolaketa malgua izanen duena, familiei erantzuteko gai izanen dena, familiako eta laneko eginbeharrak bateratzeko erraztasunak emanez.

Aipatutako Foru Dekretuak, hezkuntzako edukiez gain, Haur Hezkuntzako zikloa ematen duten zentroek bete beharreko baldintzak ezartzen ditu, ikasleen eta irakasleen arteko ratioari, instalazioei eta eskola-postuen kopuruari dagokienez. Gainera, haur-eskola publikoak sortzeko prozedura ezartzen da, eta Haur Hezkuntzako ikastetxe pribatuak baimentzeko prozedura.

- ***Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta Lehen Hezkuntza***

Haur Hezkuntzako bigarren zikloaren xedea da haurren garapen fisikoan, afektiboan, sozialean eta intelektualean laguntzea. Ziklo horretan, hauek landuko dira era mailakatuan: garapen afektiboa, mugimendua eta gorputza kontrolatzeko ohiturak, komunikatzeko adierazpenak eta mintzamena, bizikidetzako eta gizarte-harremanetako oinarrizko jarraibideak eta ingurunearen ezaugarri fisikoak eta sozialak aurkitzea. Gainera, haurrei beren buruaren irudi positibo eta orekatua sortzen eta beren adinarentzako egokia den norberaren autonomia-maila lortzen lagunduko zaie.

Lehen Hezkuntzaren helburua, bestalde, ikasleei honako hauek irakastea da: ahozko adierazpena eta ulermena, irakurketa, idazketa, kalkulua, kulturaren oinarrizko ideiak, elkarrekin bizitzeko ohitura, ikasten eta lan egiten, zentzu artistikoa, eta sormena eta afektibitatea. Horren guztiaren helburua ikasleen nortasuna garatzen lagunduko duen prestakuntza integrala bermatzea eta haiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari etekina ateratzeko moduan prestatzea da. Etapa honetan, hezkuntza-jardueraren bidez ikasleen esperientziak eta ikaskuntzak bateratzeko ahalegina eginen da, eta hezkuntza-jarduera hori ikasleen lan-erritmoetara egokituko da.

- ***Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)***

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren xedea da ikasleek kulturaren oinarrizko elementuak eskuratzea ahalbidetzea, batez ere haien alderdi humanistiko, artistiko, zientifiko eta teknologikoak; ikasteko eta lan egiteko ohiturak garatzea eta sendotzea; ondoko ikasketak egiteko eta lan-munduan sartzeko prestatzea; eta herritar bezala dituen eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko prestatzea.

- ***Batxilergoa***

Batxilergoaren helburua ikasleei prestakuntza, heldutasun intelektuala eta gizatiarra, ezagutzak eta gaitasunak ematea da, gizarte-funtzioak betetzeko gauza izan daitezen eta bizitza aktiboari arduraz eta gaitasun egokiekin ekiteko gai izan daitezen. Era berean, ikasleak goi mailako ikasketetan sartzeko gaituko ditu.

- ***Lanbide Heziketa***

Lanbide Heziketaren lehentasun espezifikoak dira laneko ikaskuntza sustatzea dituen forma guztietan, gaitasun giltzarriak indartzea ikasketa-planetan, kualifikazioetarako sarbidea hobetzea pertsona guztientzat bai eta irakasleen hasierako eta etengabeko garapen profesionalerako aukerak txertatzea ere.

Nafarroako Lanbide Heziketako Plan estrategikoa Lanbide Heziketaren Zerbitzuak landu eta garatu du 2016-2017 ikasturtean. Haren xedea da irakaskuntza hauen egoera orokorra hobetzea eta berariaz azaltzen da ondorengo epigrafe batean.

- ***Arte eta Musika Ikasketak***

Arte-ikasketen helburua da ikasleei kalitatezko prestakuntza artistikoa ematea eta musikaren, dantzaren, arte plastikoen eta diseinuaren etorkizuneko profesionalen kualifikazioa bermatzea.

Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan, Arte Ikasketetarako Atala arduratzen da musika-hezkuntzaren garapena sustatzeaz araubide orokorreko irakaskuntzako etapetan eta, era berean, arte-ikasketei dagozkien berrikuntza programak eta hezkuntza-esperimentazioko proiektuak planifikatzeaz, sustatzeaz, koordinatzeaz eta horien jarraipena egiteaz.

Musika-ikasketak hiru etapatan antolatzen dira:

- Hezkuntza ez-arautuak. Nafarroan, hastapeneko prestakuntza berariazko musika-eskoletan ematen da. Horiek Erkidego guztian zehar barreiatuta daude, eta gehienen titulartasuna udalena da.

- Musikako lanbide-ikasketak. Kontserbatorio profesionaletan egiten dira. Sei ikasturteko iraupena dute, eta irakasgaiak espezialitateko instrumentuaren araberakoak dira.

- Goi mailako musika-ikasketak**.** Lau ikasturtetan antolatzen dira, eta bakoitzak 60 ECTS kreditu ditu. Amaitzerakoan musikako goi mailako titulua lortzen dute ikasleek, dagokien espezialitatean. Graduaren baliokidea da titulu hori.

Dantzaren sustapena dantza-eskoletan emandako ikasketen bidez egiten da. Horien iraupena ez dago finkatua, eta eskola bakoitzak berea ezartzen du bere plan pedagogikoan. Ez dago adin mugarik ikasketa hauek egiteko eta ez daude bideratuak balio akademiko eta profesionaleko tituluak erdiestera.

Arte plastikoei eta diseinuari buruzko arte-ikasketak hainbat mailatan antolatuta daude:

- Erdi mailako gradua**.** Lanbide jakin baterako prestakuntza eskaintzen duten ikasketak dira. Ikasketa hauek amaitutakoan, teknikari-titulua lortzen da.

- Goi mailako gradua**.** 3. mailako kualifikazioa duten profesionalak prestatzen dituzte ikasketa horiek. Bukatzean, goi mailako teknikari titulua lortzen da.

- Diseinuko goi mailako ikasketak. Lau ikasturtetan antolatzen dira, eta bakoitzak 60 ECTS kreditu ditu. Bukatzean, Diseinuko goi mailako titulua lortzen da, dagokion espezialitatean.

- ***Helduen irakaskuntza***

Helduen irakaskuntzaren xedea da hemezortzi urte baino gehiago dituztenei beren garapen pertsonal eta profesionalerako ezagutzak eta gaitasunak lortu, eguneratu, osatu eta zabaltzeko aukera ematea.

Hezkuntza horrek honako helburu hauek ditu:

- Oinarrizko prestakuntza bat lortzea; ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak modu jarraituan zabaldu eta berritzea; eta hezkuntza-sistemako gainerako irakaskuntzetarako sarbidea erraztea.

- Kualifikazio profesionala hobetzea edo beste lanbide batzuetan aritzeko prestakuntza lortzea.

- Gaitasun pertsonalak garatzea, espresioaren, komunikazioaren, pertsonen arteko harremanen eta ezagutzaren eraikuntzaren arloetan.

- Bizitza sozial, kultural, politiko eta ekonomikoan parte hartzeko gaitasuna garatzea eta herritartasun demokratikoaren eskubidea gauzatzea.

- Gizarte-bazterkeriaren arriskuak (sektorerik ahulenenak bereziki) zuzentzea.

- Zaharrenei beren gaitasunak gehitzeko eta eguneratzeko aukera ziurtatzea.

- Gatazka pertsonalak, familiakoak eta sozialak aurreikustea eta modu baketsuan konpontzea. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra sustatzea eta horien arteko desberdintasunak kritikoki aztertzea eta balioestea.

Atentzio berezia ematen zaie gizarteratzeko eta laneratzeko aukera berriak behar dituzten eta kualifikaziorik ez duten edo oso kualifikazio txikia duten kolektiboei, batik bat honako hauei:

- nahitaezko hezkuntzaren baliokideak diren oinarrizko gaitasunak ez dituzten helduei;

- laneratzea eta gizarteratzea lortzeko beren gaitasunak hobetu behar dituzten gizarte-egoera ahuleko taldeei, etorkinei eta desgaitasuna duten pertsonei;

- beren kualifikazio profesionalaren ziurtagiririk ez duten herritar aktiboei, edo hori hobetu nahi dutenei;

- nahitaezko eskolatzea DBHko titulua lortu gabe amaitzen duten gazteei edo ikasketak behar baino lehen utzi dituzten gazteei.

- ***Kirol-ikasketak***

Araubide bereziko kirol-ikasketek kirol-sisteman lanbide-jarduera batean aritzeko prestakuntza ematen diete ikasleei, kirol-modalitate edo -espezialitate bati loturik, eta enplegurako sarbidea izateko gaitzen dituzte.

Bi mailako kirol-zikloetan antolatzen dira: Erdi maila eta goi maila. Nafarroan ikasketa horiek arautzen dituen abenduaren 28ko 248/2011 Foru Dekretuan ezarritakoa betez, ikasketa horien plangintza eta eskaintza hezkuntza eta kirolaren eskumena duten Nafarroako Gobernuko Departamentuen eta Nafarroako kirol-federazioen arteko lankidetzan oinarritzen da. Bi aldagai nagusiren arabera antolatzen da eredua, malgutasunaren eta eskaintzaren behin-behinekotasunaren arabera, hain zuzen, kirol-sektorearen beharrei erantzuna emateko xedearekin. Zentzu horretan, 2016-2017 ikasturtean honako kirol-modalitate eta -espezialitate hauei dagozkien ikasketak eskaini dira:

Ikastetxe publikoak:

- Mendi-kirolak eta eskalada:
  - Mendi ertainetako kirol-teknikaria
  - Eskaladako kirol-teknikaria

- Neguko kirolak:
  - Iraupen-eskiko kirol-teknikaria

- Hipika-diziplinak:
  - Jauzia, heziera eta lehiaketa osoa diziplina hipikoetako kirol-teknikaria

Ikastetxe pribatuak:

- Futbola:
  - Futboleko kirol-teknikaria

4.5 Hizkuntzak ikastea

Hizkuntzak eta hizkuntzetan ikastea Nafarroako hezkuntza-sisteman garrantzi berezia duen ezaugarria da. Atal honetan horren garrantziaren eta dinamismoaren adierazle batzuk bildu dira.

- ***Euskara***

Nafarroako irakaskuntza ez-unibertsitarioan euskararen sartzea eta erabiltzea arautzen duen maiatzaren 19ko 159/1988 Foru Dekretuak, Euskarari buruzko Foru Legea garatuz, A, B eta D hizkuntza-ereduak definitzen ditu.

A hizkuntza-ereduan gaztelaniaz ematen da irakaskuntza eta euskara irakasgai bezala izaten da, maila, etapa eta modalitate guztietan. B hizkuntza-ereduan euskaraz ematen da irakaskuntza eta gaztelania irakasgai bezala eta irakaskuntza-hizkuntza bezala erabiltzen da

irakasgai batean edo batzuetan, irakaskuntzaren, zikloaren edo etaparen arabera. D hizkuntza-ereduan euskaraz ematen da irakaskuntza, gaztelaniako irakasgaia izan ezik. Aurrekoez gain, hizkuntza eremuaren arabera, bada G izeneko beste eredu bat, non ez dagoen ez euskarazko ez euskararen irakaskuntzarik.

Aipatutako Foru Dekretuan A, B eta D ereduak onartzen dira eremu euskaldunean (euskara irakastea nahitaezkoa da, beraz); A, B, D eta G ereduak onartzen dira eremu mistoan eta A, G eta, 2015-2016 ikasturtetik aurrera, D eredua onartzen dira eremu ez-euskaldunean.

125. taula: A, B eta D euskara duten ereduen eta euskararik gabeko G ereduaren eskolatze-datuak. 2016-2017

	G eredua		A eredua		B eredua		D eredua		Ikasleak guztira
	Ikasl.	%	Ikasl.	%	Ikasl.	%	Ikasl.	%	
Haur Hezkuntza	9.837	50,38	4.166	21,33	62	0,32	5.462	27,97	19.527
Lehen Hezkuntza	21.889	53,04	8.242	19,97	106	0,26	11.029	26,73	41.266
DBH	17.406	65,56	2.386	8,99	35	0,13	6.722	25,32	26.549
Batxilergoa	6.515	72,85	327	3,66			2.101	23,49	8.943
Heziketa-zikloak	6.853	96,41					255	3,59	7.108
Oinarrizko LH	940	100,00							940
Guztira	63.440	60,81	15.121	14,49	203	0,19	25.569	24,51	104.333

Iturria: Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoa

132. grafikoa: A, B eta D euskara duten ereduen eskolatze-datuak. 2016-2017



Iturria: Guk geuk egina, Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoaren datuekin

126. taula: D ereduko ikastetxe publikoetako eskolatze-datuak, Haur Hezkuntzako 2. zikloan eta Lehen Hezkuntzan. 2016-2017

Ikastetxea	Herria
Abarzuza HLHIP	Abartzuza
Almandoz HLHIP	Almandoz

Zelandi HLHIP	Altsasu
Amaiur/Maya HLHIP	Amaiur
Ezkaba HLHIP	Antsoain
San Miguel HLHIP	Agoitz
Arantza HLHIP	Arantza
Arbizu HLHIP	Arbizu
Nazabal HLHIP	Areso
Arizkun HLHIP	Arizkun
Arraioz HLHIP	Arraioz
Auritz/Burguete HLHIP	Auritz
Auzperri/Espinal HLHIP	Aurizberri
Azpilkueta HLHIP	Azpilkueta
Alaiz HLHIP	Barañain
Beintza-Labaien HLHIP	Beintza-Labaien
Ricardo Baroja HLHIP	Bera
Mendialdea II HLHIP	Berriozar
Araxes HLHIP	Betelu
Ermitaberri HLHIP	Burlata
Virgen del Soto HLHIP	Caparroso
San Miguel HLHIP	Doneztebe
Elizondo HLHIP	Elizondo
Erratzu HLHIP	Erratzu
San Esteban HLHIP	Erro
Remontival HLHIP	Lizarra
Landagain HLHIP	Etxalar
San Donato HLHIP	Etxarri Aranatz
Nª Sra. de Orreaga HLHIP	Garralda
Gartzain HLHIP	Gartzain
Andrés Narbarte Xalto HLHIP	Goizueta
Virgen Blanca HLHIP	Uharte
Igantzi HLHIP	Igantzi
Irurita HLHIP	Irurita
Atakondoa HLHIP	Irurtzun
Pulunpa HLHIP	Ituren
Arrano Beltza HLHIP	Iturmendi
Oihanzabal HLHIP	Jauntsarats
Luis Fuentes HLHIP	Lakuntza
Larraintzar HLHIP	Larraintzar
Legasa HLHIP	Legasa
Erleta HLHIP	Leitza
Lekaroz HLHIP	Lekaroz
Ibarberri HLHIP	Lekunberri
Irain HLHIP	Lesaka
Lezaun HLHIP	Lezaun
Luzaide-Valcarlos HLHIP	Luzaide
San Pedro HLHIP	Mutiloa
Arotzenea HLHIP	Narbarte

San Miguel HLHIP	Noain
Ochagavía HLHIP	Otsagabia
Domingo Bados HLHIP	Olazti
Auzalar HLHIP	Orkoien
Oronoz HLHIP	Oronoz
Bernart Etxepare HLHIP	Iruña
Amaiur Ikastola HLHIP	Iruña
Hegoalde Ikastola HLHIP	Iruña
Elorri HLHIP	Iruña
Patxi Larrainzar HLHIP	Iruña
San Francisco HLHIP	Iruña
Sanduzelai HLHIP	Iruña
Mendigoiti HLHIP	Iruña
Puente la Reina-Gares HLHIP	Gares
Julián Gayarre HLHIP	Erronkari
Saldías HLHIP	Saldias
Joakin Lizarraga HLHIP	Sarriguren
Sunbilla HLHIP	Sunbilla
San Miguel HLHIP	Uharte Arakil
Urdiain HLHIP	Urdiain
Atargi HLHIP	Atarrabia
Ziga HLHIP	Ziga
Erreniega HLHIP	Zizur Nagusia
Gloria Larrainzar Eugi HLHIP	Zubiri
Las Amescoas HLHIP	Zudaire
Zugarramurdi HLHIP	Zugarramurdi

Iturria: Guk geuk egina, Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoaren datuekin

127. taula: D ereduko ikastetxe publikoetako eskolatze-datuak, DBHn. 2016-2017

Ikastetxea	Herria
Altsasu BHI	Altsasu/Alsasua
Aoiz DBHI	Aoiz
Arantza HLHIP	Arantza
Alaiz BHI	Barañain
Toki-Ona BHI	Bera
Berriozar DBHI	Berriozar
Araxes HLHIP	Betelu
Askatasuna BHI	Burlata
Mendaur DBHI	Doneztebe
Tierra Estella BHI	Lizarra
Garralda DBHI	Garralda
Andrés Narbarte Xalto HLHIP	Goizueta
Atakondoa HLHIP	Irurtzun
Larraintzar DBHI	Larraintzar
Amazabal BHI	Leitza
Lekaroz BHI	Lekaroz

Ibarberri HLHIP	Lekunberri
Ochagabia DBHI	Otsaagabia
Biurdana BHI	Iruña
Eunate BHI	Iruña
Iturrama BHI	Iruña
Mendillorri BHI	Iruña
Iñaki Ochoa de Olza DBHI	Iruña
Roncal DBHI	Erronkari
Pedro de Atarrabia DBHI	Atarrabia
Zizur BHI	Zizur Nagusia
Zugarramurdi HLHIP	Zugarramurdi

Iturria: Guk geuk egina, Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoaren datuekin

128. taula: D ereduko ikastetxe pribatuetako eskolatze-datuak. 2016-2017

Ikastetxea	Herria	Irakaskuntza
Altsasu Iñigo Aritza Ik	Altsasu	Haur H. 2. zikloa eta Lehen H.
Sakana Ik	Altsasu	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Andra Mari Ik	Arbizu	Haur H. 2. zikloa eta Lehen H.
Labiaga Ik	Bera	Haur H. 2. zikloa, Lehen H. eta DBH
Ik San Fermin Ik	Zizur Txikia	Haur H. 2. zikloa, Lehen H. eta DBH
Baztan Ik	Elizondo	Haur H. 2. zikloa eta Lehen H.
Lizarra Ik	Lizarra	Haur H. 2. zikloa, Lehen H. eta DBH
Andra Mari Ik	Etxarri Aranatz	Haur H. 2. zikloa eta Lehen H.
Ar. Sakana Ik	Etxarri Aranatz	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Argia Ik	Fontellas	Haur H. 2. zikloa, Lehen H. eta DBH
Tantirumairu Ik	Lesaka	Haur H. 2. zikloa eta Lehen H.
Ibaialde Ik	Lodosa	Haur H. 2. zikloa eta Lehen H.
Arangoiti Ik	Irunberri	Haur H. 2. zikloa eta Lehen H.
Jaso Ik	Iruña	Haur H. 2. zikloa, Lehen H. eta DBH
Zangozako Ik	Zangoza	Haur H. 2. zikloa, Lehen H. eta DBH
Garcés Fayos Ik	Tafalla	Haur H. 2. zikloa, Lehen H. eta DBH
Erentzun Ik	Viana	Haur H. 2. zikloa eta Lehen H.
Paz de Ziganda Ik	Atarrabia	Haur H. 2. zikloa, Lehen H. eta DBH

Iturria: Guk geuk egina, Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoaren datuekin

- ***Atzerriko hizkuntzak***

Programa eleaniztunetan indarreko curriculuma bi hizkuntzatan edo gehiagotan koordinaturik ematen da.

- Haur eta Lehen Hezkuntzan: Atzerriko Hizkuntzak Ikasteko Programak (Ingelesa-Alemana-Frantsesa), MECD-British Council ikastetxeak barne.
- Bigarren Hezkuntzan: Ingeleseko eta frantseseko atal elebidunak, Bigarren Hezkuntza Elebiduna / MECD-BC Bigarren Hezkuntza, bai eta Batxilergoko titulazio bikoitzeko Bachibac programa.

Puntu hauek nabarmendu behar dira:

- Haur eta Lehen Hezkuntzan Atzerriko Hizkuntzak Ikasteko Programetan (IIP/FIP/AIP) igo egiten dira ingelesez, frantsesez edo alemanez emandako eskolak (astean 12 saiora arte A/G ereduan eta astean 8 saiora arte D ereduan).
- IIPko A ereduko ikasleek, gainera, euskara ere ematen dute.

Ondoko hauek dira Bigarren Hezkuntzako programa eleaniztunak:

- Bigarren Hezkuntza Eleaniztuna, jarraipen gisa IIP/FIP/AIP ikastetxeetako ikasleentzat.
- MECD-BC Bigarren Hezkuntza, jarraipen gisa MECD-BC ikastetxeetako ikasleentzat.
- Ingeleseko eta frantseseko atal elebidunak.

Bigarren Hezkuntza Eleaniztunean, MECD-BC Bigarren Hezkuntzan eta ingeleseko eta frantseseko atal elebidunetan, hizkuntzakoak ez diren hainbat irakasgai ingelesez edo frantsesez ematen dira.

Frantseseko ataletan, atzerriko bigarren hizkuntza denez, programan Frantsesa irakasgaia sendotzen da DBHko 1. eta 2. mailetan, ordu gehiagorekin. DBHko 3. eta 4. mailetan irakasgai bat edo batzuk ematen dira frantsesez.

129-1. taula: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan programa eleanitzak ematen dituzten ikastetxeak

Ikastetxea Lehen Hezkuntza	Programan ari diren ikasle kopurua			Zein mailara arte ematen den
	Haur H.	LH	Guztira	
Elvira España IP (Tutera)	169	438	607	6. LH
Cardenal Ilundáin IP (Iruña)	263	461	724	6. LH
Azpilagaña IP (Iruña)	129	263	392	6. LH
Añorbe IP (Añorbe)	16	40	56	6. LH
Lorenzo Goikoa IP (Atarrabia)	128	331	459	6. LH
José M.ª de Huarte IP (Iruña)	95	171	266	6. LH
Catalina de Foix IP (Zizur Nagusia)	120	353	473	6. LH
Camino de Santiago IP (Zizur Nagusia)	168	296	464	6. LH
Doña Mayor de Navarra IP (Iruña)	186	430	616	6. LH
Hilarión Eslava IP (Burlata)	109	241	350	6. LH
Beriaingo IP	104	222	326	6. LH
San Miguel IP (Noain)	286	431	717	LH 2. (D) LH 6. (A/G)
Otero de Navascués IP (Cintruénigo)	279	617	896	6. LH
Remontival IP (Lizarra)	129	328	457	6. LH
Huertas Mayores IP (Tutera)	141	298	439	5. LH
Ermitagaña IP (Iruña)	120	241	361	5. LH
San Francisco Javier IP (Elizondo)	62	139	201	5. LH
Buztintxuri IP (Iruña)	332	462	794	5. LH
Hermanas Uriz IP (Sarriguren)	262	242	504	5. LH
Joakin Lizarraga IP (Sarriguren)	368	323	691	5. LH
San Juan IP (Irunberri)	16	31	47	5. LH
Rochapea IP (Iruña)	120	178	298	4. LH
Griseras IP (Tutera)	147	194	341	4. LH
Monte San Julián IP (Tutera)	123	173	296	4. LH
Santa Bárbara IP (Monreal)	13	22	35	4. LH

Mendillorri IP (Iruña)	110	168	278	3. LH
Iturrama IP (Iruña)	67	75	142	3. LH
Los Sauces-Sahats IP (Barañain)	67	84	151	3. LH
Luis Gil IP (Zangoza)	124	128	252	3. LH
Mendialdea I IP (Berriozar)	152	187	339	3. LH
San Juan de la Cadena IP (Iruña)	141	96	237	2. LH
El Lago de Mendillorri IP (Iruña)	71	48	119	2. LH
Eulza IP (Barañain)	81	71	152	2. LH
Urraca Reina IP (Artaxoa)	30	27	57	2. LH
Félix Zapatero IP (Valtierra)	54	36	90	2. LH
Blanca de Navarra IP (Lerin)	37	23	60	2. LH
Virgen del Soto IP (Caparroso)	90	68	158	2. LH
Alfonso X El Sabio IP (San Adrián)	198	126	324	2. LH
Juan de Palafox IP (Fitero)	49	53	102	2. LH
Cerro de la Cruz IP (Cortes)	82	60	142	2. LH
Nuestra Señora del Rosario IP (Sartaguda)	29	18	47	2. LH
San Juan de Jerusalén IP (Cabanillas)	36	15	51	2. LH
Santa María IP (Los Arcos)	29	24	53	2. LH
Obanosko IP	12	7	19	2. LH
Raimundo Lanas IP (Murillo el Fruto)	4	6	10	2. LH
Beireko IP	6	4	10	2. LH
San Babil IP (Ablitas)	60	28	88	1. LH
Teresa Bertrán de Lis IP (Cadreita)	44	15	59	1. LH
Virgen de La Oliva IP (Zarrakaztelu)	55	36	91	1. LH
Santa Vicenta María IP (Cascante)	115	37	152	1. LH
Ciudad de Corella IP (Corella)	223	81	304	1. LH
Doña Álvara Álvarez IP (Faltzes)	60	19	79	1. LH
Ángel Martínez Baigorri IP (Lodosa)	65	28	93	4 urte (D) 1. LH (A/G)
San Francisco Javier IP (Mendabia)	0	44	44	1. LH
San Pedro IP (Mutiloa)	127	45	172	1. LH
Juan Bautista Irurzun IP (Azkoien)	173	76	249	1. LH
Garesko IP	123	40	163	1. LH
Virgen de las Nieves IP (Sesma)	18	13	31	1. LH
Marqués Real de la Defensa IP (Tafalla)	95	33	128	3 urte (D) 1. LH (A/G)
Ricardo Campano IP (Viana)	96	33	129	1. LH
El Castellar IP (Alesbes)	92	36	128	1. LH
San Veremundo IP (Villatuerta)	28	10	38	1. LH
San Bartolomé IP (Martzilla)	82	35	117	1. LH
V. Pradera-Paderborn IP (Iruña) PAAL	92	16	108	1. LH
Virgen de Gracia IP (Cárcar)	20	6	26	1. LH
Elías Teres IP (Funes)	82	22	104	1. LH
Virgen Blanca IP (Uharte)	74	31	105	1. LH
Santa Ana IP (Mélida)	13	11	24	1. LH
Ximénez de Rada IP (Arrada)	20	5	25	1. LH
Ntra. Sra. de la Asunción IP (Santakara)	12	7	19	1. LH
Ntra. Sra. del Patrocinio IP (Milagro)	103	0	103	5 urte
Honorio Galilea IP (Monteagudo)	17	0	17	5 urte

Príncipe de Viana IP (Erriberri)	105	0	105	5 urte
Virgen de la Cerca IP (Andosilla)	50	0	50	5 urte
Francisco Arbeloa IP (Azagra)	124	0	124	5 urte
Santos Justo y Pastor IP (Fustiñana)	62	0	62	5 urte
Pitillasko IP	7	0	7	5 urte
La balsa de Arróniz IP (Arroitz)	16	0	16	5 urte
Virgen del Rosario IP (Fontellas)	11	0	11	4 urte
Dos de mayo IP (Castejón)	87	0	87	4 urte
San Bartolomé IP (Ribaforada)	69	0	69	4 urte
Mardones y Magaña IP (Murchante)	76	0	76	4 urte
Sancho Ramírez IP (Arguedas)	34	0	34	4 urte
V. de Mella Bayonne IP (Iruña) PAF	47	0	47	4 urte
Ntra Sra de los Dolores (Mendabia)	87	0	87	5 urte
Amor de Dios (Burlata)	57	0	57	5 urte
Calasanz Escolapios (Iruña)	162	0	162	5 urte
Compañía de María (Tutera)	269	0	269	5 urte
Esclavas del Sagrado Corazón (Iruña)	121	0	121	5 urte
Hijas de Jesús (Iruña)	157	0	157	5 urte
Irabia-Izaga (Iruña)	396	0	396	5 urte
La Milagrosa (Lodosa)	74	0	74	5 urte
La Presentación (Atarrabia)	72	0	72	5 urte
Liceo Monjardín (Iruña)	334	0	334	5 urte
Luis Amigó (Mutiloa)	331	0	331	5 urte
Mater Dei (Aiegi)	140	0	140	5 urte
Miravalles-El Redín	334	0	334	5 urte
Regina Pacis (Burlata)	61	0	61	5 urte
San Cernin (Iruña)	324	0	324	5 urte
Sta. Catalina Labouré (Iruña)	69	0	69	5 urte
Sta María la Real - Maristas (Sarriguren)	336	0	336	5 urte
Vedruna (Iruña)	165	0	165	5 urte
Santísimo Sacramento (Iruña)	100	0	100	4 urte
Anunciata (Tutera)	152	0	152	4 urte
Claret Larraona (Iruña)	109	0	109	4 urte
Santa Teresa de Jesús (Iruña)	112	0	112	4 urte
Nuestra Señora del Huerto (Iruña)	167	0	167	4 urte
Sagrado Corazón (Altsasu)	27	0	27	4 urte
Santa Ana (Lizarra)	58	0	58	4 urte
Santo Tomás (Iruña)	100	0	100	4 urte
Guztira	12.245	8.956	21.201	

Iturria: Ingelesaren eta Atzerriko Beste Hizkuntza Batzuen Atala

129-2. taula: Programa eleanitzak ematen dituzten Haur, Lehen eta Bigarren hezkuntzako ikastetxeak. 2016-2017

Bigarren Hezkuntza, Ingelesa		
Ikastetxea	Ikasle-kopurua	Ezarpen maila
Arantza IP	10	2. DBH
Reyno de Navarra DBHI (Azagra)	45	4. DBH

Barañain BHI	90	4. DBH
Toki Ona BHI (Bera)	225	4. DBH
Ibaialde BHI (Burlata)	50	4. DBH
Valle del Aragón DBHI (Zarrakaztelu)	53	3. DBH
La Paz DBHI (Cintruénigo)	62	4. DBH
Alhama BHI (Corella)	87	4. DBH
Bardenas Reales DBHI (Cortes)	56	4. DBH
Tierra Estella (Lizarra) BHI	25	1. DBH
Pablo Sarasate BHI (Lodosa)	90	4. DBH
M. de Villena BHI (Martzilla)	185	4. DBH
Elortzibar BHI (Noain)	55	4. DBH
Plaza de la Cruz BHI (Iruña)	214	1. BATX
Basoko BHI (Iruña)	186	4. DBH
Navarro-Villoslada BHI (Iruña)	225	4. DBH
Julio Caro Baroja BHI (Iruña)	107	4. DBH
Eunate BHI (Iruña)	127	4. DBH
Iñaki Ochoa de Olza DBHI (Iruña)	17	1. DBH
Padre Moret-Irubide BHI (Iruña)	321	4. DBH
Mendillorri BHI (Iruña)	33	2. DBH
Ribera del Arga BHI (Azkoien)	104	4. DBH
Río Ega BHI (San Adrián)	101	4. DBH
Benjamín de Tudela BHI (Tutera)	240	4. DBH
Valle del Ebro BHI (Tutera)	181	4. DBH
Pedro de Atarrabia BHI (Atarrabia)	39	1. DBH
Zizur BHI	300	4. DBH
San Francisco Javier Ikastetxea (Tutera)	241	4. DBH
Calasanz-Escolapios Ikastetxea	141	3. DBH
Miravalles-El Redín Ikastetxea	215	3. DBH
Vedruna Ikastetxea (Iruña)	189	3. DBH
Irabia-Izaga Ikastetxea (Iruña)	328	3. DBH
Nuestra Señora del Huerto Ikastetxea (Iruña)	272	3. DBH
La Compasión Escolapios Ikastetxea (Iruña)	178	2. DBH
Liceo Monjardín Ikastetxea (Iruña)	155	2. DBH
Guztira	4.947	

Iturria: Atzerriko Hizkuntzen Atala

129-3. taula: Programa eleanitzak ematen dituzten Haur, Lehen eta Bigarren hezkuntzako ikastetxeak. 2016-2017

Bigarren Hezkuntza, Frantsesa		
Ikastetxea	Ikasle-kopurua	Ezarpen maila
Arantza IP	10	2. DBH
Toki Ona BHI (Bera)	34	3. DBH
Alhama BHI (Corella)	52	4. DBH
Mendaur DBHI (Doneztebe)	100	4. DBH

Eunate BHI (Iruña)	69	4. DBH
Benjamín de Tudela BHI	80	2. BATX
Valle del Ebro BHI (Tutera)	95	4. DBH
Zizur BHI	69	4. DBH
Guztira	505	

Iturria: Atzerriko Hizkuntzen Atala

Frantziarekin eskola-trukea egiteko programa

Programa hau martxoaren 10eko 68/2016 ebazpenak arautzen du. Trukearen iraupena 4 hilabetekoa da eta ikasturteko lehen hiruhilekoan egiten da, ikasleak DBHko 3. mailan daudenean. Ikasle nafarrek 2 hilabete ematen dituzte Frantzian (iraila eta urria), eta ikasle frantsesek beste 2 hilabete ematen dituzte Nafarroan (azaroa eta abendua).

Orain arte, gaztelaniazko A eta G ereduetako ikasleentzako plazak bakarrik eskaini ziren. Oraingo honetan, euskarazko D eredurako plazak ere eskaini ziren deialdian.

130. taula: Frantziarekin eskola-trukea egiteko programan parte hartzen duten ikasleen bilakaera. 2014-2017

	2014-2015 (DBHko 3. mailako ikasleak)	2015-2016 (DBHko 3. mailako ikasleak)	2016/2017 (DBHko 3. mailako ikasleak)
Parte hartu duten ikasleak	47	51	54 (A eta G ereduak) 3 (D eredua)
Eskaerak guztira	85	82	74 (A eta G ereduak) 8 (D eredua)
Esleitutako gastua	Programak honek ez dio inolako gasturik eragiten Hezkuntza Departamentuari		

Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua.

Frantzian ikasturte osoa egiteko programa akademikoa

Programa hau martxoaren 3ko 56/2016 ebazpenak arautzen du. Parte-hartzearen bilakaera azpiko taulan laburbildu dugu:

131. taula: Frantzian ikasturte osoa egiteko programan parte hartzen duten ikasleen bilakaera. 2014-2017

	2014-2015 (DBHko 1. eta 4. mailen arteko ikasleak)	2015/2016 (DBHko 1. eta 4. mailen arteko ikasleak)	2016/2017 (DBHko 1. eta 4. mailen arteko ikasleak)
Parte hartu duten ikasleak	82	124	138
Eskaerak guztira	152	138	222
Esleitutako gastua	Programak honek ez dio inolako gasturik eragiten Hezkuntza Departamentuari		

Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua.

Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasle-taldeentzako ingelesezko English Week murgiltze-programa, ikasturtean zehar

Programa hau abenduaren 22ko 564/2016 ebazpenak eta abenduaren 30eko 582/2016 enkarguak arautzen dute. Izandako bilakaera erantsitako ondoko taulan jaso da.

132. taula: Ikasle parte-hartzaileen guztizkoaren eta aurrekontu globalaren bilakaera. WEEK. 2008-2017

	2008/09 (L H 5.a eta 6.a)	2009/10 (L H 4.a eta 5.a)	2010/11	2011/12	2012/13	2013/14 (L H 5.a eta 6.a)	2014/15 (L H 5.a)	2015/16 (L H 5.a)	2016/17 (L H 5.a)
Eskaerak guztira	2.100	2.300	2.697	2.425	2.772	2.557	2.350	3.645	3.645
Parte hartu duten ikasleak	1.300	1.450	2.175	1.950	2.025	2.557	2.350	2.500	2.500
Esleitutako gastua	217.500	216.000	337.125	272.991	272.991	272.000	244.770	297.400	297.400

Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua.

133. grafikoa: Ikasle parte-hartzaileen eta aurrekontu globalaren bilakaera. WEEK. 2008-2017



Iturria: Guk geuk egina, Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuaren datuekin

Atzerriko hizkuntzetako elkarrizketako laguntzaileak ikastetxe publikoetan

2016-2017 urtean ez da elkarrizketako laguntzaileentzako deialdirik egin.

Borders Down nazioarteko boluntariotza-programa

2016-2017 ikasturtean ez da programaren deialdirik egin.

Atzerriko hizkuntzetako irakasleentzako udako laguntzak

133. taula: Atzerriko hizkuntzetako irakasleentzako laguntzak. 2012-2017

Irakasleak	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Haur Hezkuntza	10		15	11	11	8
Lehen Hezkuntza	23		18	18	15	10
Bigarren Hezkuntza	28		22	10	11	14
Hizkuntza Eskola Ofizialak	3			1	3	2
Guztira	64		55	40	40	34

Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua.

Atzerriko hizkuntzen irakasleentzako CLIL metodologiaren udako ikastaroak.

134. taula: Atzerriko hizkuntzetako irakasleentzako ikastaroak. 2012-2017

Irakasleak	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Haur Hezkuntza		14	9		9	18
Lehen Hezkuntza		16	10	12	15	33
Bigarren Hezkuntza		16	13	6		22
Guztira	55	46	22	18	24	73

Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua.

4.6 Inklusioa eta aniztasuna

4.6.1 Aniztasunari Erantzuteko Plana

Aniztasunari erantzuteari buruzko Nafarroako araudi esparrua Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduan jasotzen da. Foru agindu horrek Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan aniztasunari nola erantzun arautzen du.

Aniztasunari Erantzuteko Planak ikasleen aniztasunari erantzuteko neurriak hartzen ditu barnean. Batik bat, kontuan izan behar dira arrazoi askorengatik irakaskuntza-ikaskuntzan aurrera egiteko arazoak dituzten ikasleak. Hezkuntza-erantzun irekiak eta malguak beharko dituzte, eta horretarako baliabide egokiak antolatu beharko dira.

Aniztasunari erantzuteko planak xede hauek ditu:

- Ikasle guztien beharrei erantzuna emateko plangintza eta antolakuntza erraztea ikastetxeei, eta erabilgarri dauden baliabide pertsonalak lehenestea, ikasleen taldeko eta/edo banako beharren arabera.

- Hezkuntzak aniztasunari ikasgelan erantzun diezaion, lehentasunak ezartzeko irizpideen zehaztapena gidatzea; hezkuntza erantzun hori hainbat ekintza

koordinatuz emanen da (orientazioa, tutoretza, irakasleen, tutoreen eta arloetako irakasleen jarduna, eta irakasle arrunten eta espezializatuen laguntza).

- Atzerritar jatorriko ikasleen eta egoera soziokultural ahulean dauden ikasleen harrerarako eta inklusiorako neurriak eta jarraibideak ezartzea, irakasle taldeak adostutako Harrera Planaren barruan.

- Ikasturtean zehar agertu daitezkeen premia berriei erantzuteko, aldaketak sartzea ahalbidetzen duen planifikazioa aurreikustea, antolaketa neurri malguak sartuta, irakasle arrunten eta espezialisten esku-hartzeak unean uneko beharren arabera moldatu daitezen.

- Aniztasunari erantzutearen eraginkortasunaren barneko ebaluazioa gidatzea, eta hobetu beharreko alderdiak identifikatzea.

Ikasle horien artean daude hezkuntza-premia bereziak (iraunkorrak zein iragankorrak) dituztenak.

135. taula: Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleen eta ikasle kopuru osoaren arteko erlazioa

	2000	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Ikasle kopuru osoa	80.098	99.053	100.610	106.462	103.400	106.387	115.402	116.674
HPBak dituzten ikasleen kopuru osoa	191	633	1.436	1.691	1.738	1.799	2.099	2.789*
Ikasle guztien artean HPBak dituzten ikasleen ehunekoa	0,24	0,64	1,42	1,59	1,68	1,69	1,82	2,39

** Datu hauek LOMCEren arabera hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei dagozkie.*
Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala

134. grafikoa: Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleen eta ikasle kopuru osoaren arteko erlazioa ehunekotan. 2000-2016



Iturria: Guk geuk egina, Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atalaren datuekin

Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzea[1].

Ikasle horiek nola eskolatu zehazteko, erabakiak hartzeko prozesu jakin bat jarraitu behar da, bermatu dadin ikasle bakoitzaren ezaugarrientzat egokiena den hezkuntza-erantzuna emanen dela, betiere, testuinguru ahalik eta normalizatuenean.

Oro har, ikaslea ikastetxe arruntean eskolatzea proposatuko da ikaslearen hezkuntza-premia bereziei (HPB) ikastetxeetako ohiko baliabideekin erantzuten ahal bazaie (eskolako orientatzailea, Pedagogia Terapeutikoko irakasleak, Entzumeneko eta Hizkuntzako irakasleak eta, hala dagokionean, zaintzailea, fisioterapeuta eta NHBBZko kanpoko laguntzak).

Aldiz, ikaslearen HPBei erantzuteko eta etengabeko banakako laguntza-baldintzak eta ikastetxe arrunt batek ezin eskaini dituen ekintza bereziak behar direnean, ikaslea Hezkuntza Bereziko ikastetxe batean eskolatzea proposatuko da. Hori gertatzen da ikasleak egokitzapen oso esanguratsuak behar dituenean bere adinaren arabera dagokion curriculum ofizialeko arloetan eta, beraz, uste denean ikastetxe arrunt batean bere gizarte-integrazioa eta ikasketetako lorpenak minimoak izanen direla.

Eskolatze-modalitateak. Antolakuntzako aukerak

Bi modalitate daude. Modalitate horiek curriculumaren egokitze-maila desberdinei dagozkie, ikasle bakoitzak behar dituen laguntza mota eta mailaren arabera:

- Ohiko ikastetxeko eskolatzearen modalitatea/antolakuntzako aukerak:
    - Lehentasunezko ikastetxeak.
    - Garapenaren nahasmendu orokorrak dituzten ikasleentzako berariazko ikasgelak.
    - Haur eta gazteen eguneko ospitaleko terapia- eta hezkuntza-programa.
    - Curriculum bereziko unitateak (CBU).
    - Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programa Bereziak ikastetxe arruntean (HLKPB).

- Hezkuntza bereziko ikastetxeko eskolatzearen modalitatea/antolakuntzako aukerak:
    - Hezkuntza Bereziko ikasgela, landa-eskualdeetan.
    - Hasierako Lanbide Kualifikaziorako Programa Bereziak (HLKPB) Hezkuntza Bereziko ikastetxean.
    - Helduarora Igarotzeko Hezkuntza Programak (HIHP).

Eskolatze-modalitatea erabakitzeko irizpideak

Ikastetxeetako orientazioko langileek identifikatu eta baloratuko dituzte HPBak. Ondoren, eskolatze-modalitatea eta jarduketa-planik egokienak proposatuko dituzte.

Ebaluazio psikopedagogikoaren bidez erabakitzen ahalko dira kasuan-kasuan beharrezkoak diren egokitzapenen mota eta maila, baldintzak eta laguntzak. Balorazio hori erabakigarria izanen da eskolatze-modalitate bat ala beste, eta modalitate horren barruan antolaketa-mota bat ala beste, proposatzeko.

Aniztasunari erantzuteko baliabide arruntak Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan.

- Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza

[1] "Ikasteko eta parte hartzeko eragozpenak edo oztopoak kentzeko neurriak" ere esaten zaio ("inklusiorako index").

Ikasleak ohiko ikasgeletan hasten dira, eta bertan ematen dute eskolaldi osoa ohiko baldintzetan. Lehen Hezkuntzan, arau orokor gisa eta hasierako ebaluazioa ikusirik, ikasturte bateko atzerapen orokorra duten ikasle sartu berriak adinagatik dagokien mailan sartu ordez, urtebete gazteagoen mailan sartuko dira. Curriculumeko atzerapena bi ikasturtetik gorakoa balitz, beheragoko maila batera bidaliko lirateke ikasleak, eta egokitutako hezkuntza-erantzun bat antolatuko litzateke.

- Bigarren Hezkuntza

Ikastetxeek, lehenik eta behin, etapa horretan aniztasunari erantzuteko baliabide eta neurri orokor arruntak izanen dituzte. Zuzendaritza taldeek zainduko dute horren premia duten atzerritar jatorriko ikasleei eta egoera ahulean dauden ikasleei erantzuteko programak ezarriko direla. Behar duten ikasleak aurreikusitako neurri espezifikoez baliatu ahal izanen dira (ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak, curriculum egokituko programak, oinarrizko lanbide heziketako programak).

4.6.2 Hezkuntzako ekitatea

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak atarikoan ezartzen du aniztasunari arreta ematearen printzipioak oinarrizko hezkuntza guztia gidatu behar duela. Horrela, ikasle guztiei beren ezaugarriei eta beharrei egokitutako hezkuntza emanen zaie.

Ikastetxeetan aniztasunari nola erantzun arautzen duen Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduak ezartzen duenez, hezkuntza jasotzeko eskubidea gauzatzerakoan berdintasuna bermatze aldera, hezkuntza-administrazioek konpentsazio-izaera duten jarduerak garatuko dituzte egoera ahulean dauden pertsona, talde eta lurralde-eremuei dagokienez, eta horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak eta laguntzak emanen dituzte.

LOMCEk, 1. artikuluan, honako hau ezartzen du bere printzipioen artean: «Ekitatea, hezkuntzaren bidez nortasuna erabat garatzeko aukera-berdintasuna bermatuko duena; hezkuntzan txertatzeko aukera, bazterkeria gainditzen laguntzen duten eskubide- eta aukera-berdintasuna eta hezkuntzarako irisgarritasun unibertsala bermatuko ditu, eta desberdintasun pertsonalak, kulturalak, ekonomikoak eta sozialak (urritasunen ondoriozkoak bereziki) konpentsatzeko tresna izanen da.»

- ***Atzerriko ikasleak eta/edo berandu txertatutakoak***

Ikasle etorkinak hezkuntza-sisteman txertatzeko prozesuan hainbat zailtasun egon daitezke, hala nola:

Ikasle etorkinek hainbat arazo izan ditzakete gure hezkuntza-sisteman txertatzerakoan, besteak beste:

- Ama-hizkuntza ez den hizkuntza bat ikasi eta egunero erabili beharra ikasketa prozesu osoan.
- Hainbat erreferente kultural izatea: eskolak eskaintzen duena eta etxean daukana. Izan ere, horiek bizitzeko eta jarduteko ikusmolde desberdinak izan ditzakete.
- Maila akademiko desberdinak: batzuetan ikasturte bateko edo batzuetako atzerapena dute curriculumean, beren adin bereko ikasleen aldean.
- Bizi diren auzo edo herrira moldatzeko zailtasunak, sozializazioa baldintzatu dezaketenak: batzuetan ez dute lagunik, edo beti beren nazionalitate bereko pertsonekin ibiltzen dira.

- Beren erreferentzia sozial eta afektibo gehienak galtzea, horrek dakarren desoreka emozionalarekin.
- Prekarietate ekonomikoaren, langabeziaren, etxebizitza baldintzen eta abarren eragina.

Ikasle Etorkinentzako Harrera Programaren (IEHP) lehentasunezko helburua ikasle guztien inklusioa lortzea da, ikastetxe bateko hezkuntza-lanean esku hartzen duten guztien parte-hartzearen eta konpromisoaren bitartez. Hezkuntza-sisteman lehenbizikoz sartzen diren ikasleei harrera egokia egitea da ikasle horiei garapen pertsonalerako, kulturalerako eta sozialerako espazio bat eskaintzea, ikastetxeek emandako balioen trukearen eta balioen bultzadaren bidez.

Harrera Programak orientazioa ematen die irakasleei programa bera egin edo eguneratzeko, arduradunak eta inplikatutako pertsonak zehazteko eta helburuak zedarritzeko. Proposamen hori Aniztasunari Erantzuteko Planean sartu behar da.

Programak ondoko alderdiak garatzen ditu:

- Hezkuntza-komunitatea kultura arteko hezkuntzan sentsibilizatzea.
- Ikastetxean familiari harrera egiteko orientabideak.
- Hasierako ebaluazioa egiteko eta ikaslea talde bati atxikitzeko orientabideak.
- Ikasgelan harrera egitea.
- Curriculumean sartzea.
- Antolakuntza eta funtzionamendua.
- Kulturen arteko gaitasunak garatzea.
- Estrategia metodologikoak.
- Harrera Programaren autoebaluazioa.

Harrera-programa, «ikasle etorkinentzako informazio-gida» bezalaxe, Hezkuntza Departamentuko webgunean eskuratu daiteke ikastetxeek erabil dezaten, eta horiek aukera dute dokumentuan aldaketak egiteko, gidak egin edo berrikusteaz arduratzen den irakasle-taldearen irizpideei jarraikiz. Gida hainbat hizkuntzatan dago argitaratua (gaztelaniaz, euskaraz, frantsesez, ingelesez, errusieraz, errumanieraz, bulgarieraz, arabieraz) eta familiei ikastetxeetan lehen harrera egiteko erabilgarria izan daiteke, hezkuntza-sistema eta horren ezaugarriak deskribatzen dituelako eta ikastetxeen antolakuntzari buruzko alderdi batzuk azaltzen dituelako.

Lehen Hezkuntzako ikastetxeak laguntzeko berariazko programa, egoera soziokultural ahulean dauden ikasleei eta atzerritar jatorriko ikasleei hezkuntza erantzuna emateko

Egoera soziokultural ahulean dauden ikasleentzako eta atzerritar jatorriko ikasleentzako laguntza neurriak aniztasunari erantzuteko neurri arrunten osagarriak dira, eta haien berariazko premietan dute jatorria.

Neurri horiek Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduan jasotzen dira. Foru agindu horrek Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan aniztasunari nola erantzun arautzen du.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe jakin batzuek atzerritar jatorriko eta egoera ahuleko ikasleen kopuru esanguratsu bati erantzun behar izaten diotenez, Hezkuntza Departamentuak ikastetxe horiek laguntzako irakasleez hornitzen ditu. Laguntzako irakasleek irakasle arruntei laguntzen diete curriculumeko atzerapen handia duten ikasleei eta gaztelania ez dakiten ikasleei erantzun egokia ematen.

Gaztelania (edo euskara) irakas-hizkuntza bezala irakastea Lehen Hezkuntzan

Laguntzako irakasleak dituzten Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan horiek arduratzen dira atzerritar jatorriko ikasleei irakas-hizkuntza erakusteaz, Nafarroako hezkuntza sisteman hura jakin gabe sartzen badira.

Irakasle hauen lanak etapak berezko dituen curriculumeko alderdien irakaskuntzarekin ez ezik irakas-hizkuntzaren ikaskuntzaren jarraipenarekin ere badu zerikusia. Irakasle laguntzaileek parte hartzen dute curriculumeko atzerapena duten ikasleei hezkuntza-erantzuna ematen Gaztelania eta Matematikako irakasgai instrumentaletan, horrekin tutorearen lana osatuz.

- ***Absentismoa eta ikasketak garaiz aurretik uztea***

Aukera-berdintasuna bermatzea xede duen ikuspegi batek hezkuntza-sistemako arazo nabarmenen artean ikusi behar ditu absentismoa eta eskola-uzte goiztiarra.

Absentismoaren eta eskola-uztearen kontrako departamentu arteko batzordea osatzen dute Foru Komunitateko Goi Fiskaltzak, Hezkuntza eta Gizarte Politiketako Departamentuak, Ijitoen Elkarteak eta FAIN Etorkinen Elkarteen Federazioak, eta aldian behin biltzen da helburu hauekin:

- Absentismoaren aurkako protokoloaren jarraipena eta hedapena egitea.
- Batera diharduten zerbitzuen koordinazio sistemikoa errazten duten departamentu arteko jarduketak egitea, baliabideak optimizatzeko eta eraginkortasuna irabazteko.
- Toki-mailako jardunbide egokiak hedatzea eta sustatzea. Horiek hainbat erakunderen artean egindakoak dira: ikastetxeak, oinarrizko gizarte-zerbitzuak, Osasun Departamentua, udalak, etab.
- Absentismoaren gaia lantzeko esku-hartzeak handitzea, arazo hori hobeto hautemateko.
- Nafarroako absentismoari buruzko datu-bilketa hobetzea Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn.

Protokolotik lortutako datuak EDUCAri eginiko kontsulta batekin osatzen dira, Haur eta Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikastetxeetako ikasleen asistentzia-falten berri izateko (ikastetxe publiko zein itunduetan). Eskola-ordutegiko % 25era baino gehiagora joan ez diren ikasleen datuak lortzen dira (100 falta baino gehiago).

136. taula: Absentismo-batzordean jasotako protokoloak. 2016-2017

Ikasturtea	1. hiruhilekoa	Ikasturte osoa
2015 - 2016	44	191
2016 - 2017	122	126

Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala

Lehen hiruhileko absentismo-datuak jaso dira ondoko taulan, hezkuntza-etaparen arabera.

137. taula: EDUCAko absentismoaren banaketa, etapen eta mailen arabera. 2016-2017

	Ikastetxe publikoa	Ikastetxe itundua
Haur Hezkuntza	181	2
Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. maila	87	1
Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. maila	47	0
Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila	55	1
1. DBH	78	2
2. DBH	65	7
3. eta 4. DBH	84	2
Guztira	597	15

Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala

Bestalde, hauek dira EDUCAn falta bakar bat ere ez daukaten ikastetxeak, hots, falta-indizean 0 dutenak:

138. taula: 0 falta-indizea. 2016-2017

EDUCA – 0 falta-indizea:		
	Ikastetxe publikoa	Ikastetxe itundua
Haur eta Lehen H.	171tik 25	72tik 54
DBH	47tik 0	

Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala

Horrela, bada, EDUCAn asistentzia-faltarik gabeko ikastetxeen ehuneko handi bat jasotzen da. Badirudi beharrezkoa dela gertakari honen erregistroa hobetzea haren intzidentziaren datu zehatzagoak izateko.

- ***Errefortzua, orientazioa eta hezkuntzako laguntza***

Honako hau ezartzen du ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduak 8. artikuluan: «Ikastetxeak ikasle guztien hezkuntza premia orokorrei eta ikasle bakoitzaren premiei ahalik eta ongien erantzuteko diseinatzen, aukeratzen eta gauzatzen dituen neurriak (curriculum egokitzapenak, antolaketa neurriak, laguntzak eta indartze neurriak) Aniztasunari Erantzuteko Plana izeneko agirian biltzen dira.»

Foru Agindu horren 7.artikuluan, bestalde, honako hauek sailkatzen dira hezkuntza-arretako neurrien artean: «Hezkuntza-laguntza eta indartze programak: taldekatze desberdinak, taldeen banaketak, talde malguak, arlo edo irakasgaien indartzea, eta ezagutzak handitu edo sakontzeko neurriak.»

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren atariko tituluan jasotzen denez, ikasleen hezkuntza- eta lanbide-orientazioa eskubide aitortua da, beharrezkoa baita banakako prestakuntza eta hezkuntza integrala lortzeko, eta ezartzen du kalitate faktorea ere badela, botere publikoen arreta berezia jasoko duena.

Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan Hezkuntza eta Lanbide Orientazioa arautzen dituen urriaren 29ko 66/2010 Foru Dekretuak honako hau xedatzen du 1. artikuluan: «Foru Dekretu honen xedea da hezkuntza-orientazioa arautzea Nafarroako Foru Komunitatean funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeetan, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan, Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide-ikasketetan eta Helduen Hezkuntzan ikasketak ematen dituztenetan.»

Era berean, zera esaten da 2. artikuluan: "Hezkuntza-orientazioa kalitate- eta hobekuntza-elementua da eskola-erakundean, eta bere helburua da ikasleen hezkuntza integrala eta banakakoa bultzatzea, haien aniztasunari erreparatuz, aholkularitza eta laguntza teknikoa emanez ikasleei, gurasoei edo legezko tutoreei, hezitzaile lehen eta nagusi direnez, ikastetxeei eta irakasleei."

LOMCEk, 80 artikuluan, zera ezartzen du: «Hezkuntzarako eskubidea erabiltzean berdintasun-printzipioa gauzatzeko, administrazio publikoek konpentsazio-ekintzak eginen dituzte egoera txarrean dauden pertsonentzat, taldeentzat eta lurralde-eremuentzat.»

Hezkuntzako kontseilariaren urtarrilaren 20ko 4/2017 FORU AGINDUAK (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan diharduten ikasleak ebaluatu, mailaz igo eta haiei tituluak emateko era arautzen duena) honako hau xedatzen du 5.5 artikuluan: Matrikulazioaren ikasmailako curriculum arrunta egiten duten, baina ikasketa-prozesuan aurrera egiteko, hezkuntza-arreta arruntaz kanpokoa behar duten ikasleei aplikatuko zaie irakasgai batean hezkuntzaren sostengua edo errefortzua emateko neurria. Hezkuntzaren errefortzuan, besteak beste, sartzeko curriculum-egokitzapenak egin daitezke baliabide material eta sartzeko baliabide arruntez kanpokoak behar dituzten ikasleentzat, bai eta curriculuma aberastekoak ere, adimen-gaitasun handiko ikasleentzat, haiek ahalik eta gehien garatzeko.

Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 19ko 50/2017 FORU AGINDUAK (horren bidez arautzen da Batxilergoan diharduten ikasleak ebaluatu, mailaz igo eta haiei tituluak emateko era) honako hau xedatzen du 5.5 artikuluan: Hezkuntzako neurri gisa, aintzat har daiteke Hezkuntza Errefortzua. Horrek sartzeko curriculum-egokitzapenak izan ditzake baliabide materialak eta sartzeko baliabide arruntez kanpokoak behar dituzten ikasleentzat, bai eta curriculuma aberasteko curriculum-egokitzapenak ere, adimen-gaitasun handiko ikasleentzat, haiek ahalik eta gehien garatzeko.

- ***Adimen-gaitasun handiko ikasleak***

Ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduak honela definitzen ditu gaitasun handiko ikasleak 16. artikuluan: «Ikasle hauentzat ez dira egokiak adinkideen kurtsoko helburuak eta edukiak eta hezkuntza-premia bereziak dituzte beren adimen-gaitasun handiagatik, edo zenbait ikasgai goiz ikasi dituztelako, edo trebetasun bereziak nahiz sormen handia dutelako zenbait arlotan (artea, musika, matematika, hizkuntza etab.), ikasteko motibazio handiarekin batera, batzuetan.»

LOMCEk, 71. artikuluaren 2. lerrokadan, zera ezartzen du: «Halaber, hezkuntza-administrazioek beharrezko diren baliabide guztiak ziurtatu behar dituzte, hezkuntza-premia bereziak izateagatik, ikasteko aparteko zailtasunak izateagatik, ADNH izateagatik, adimen-gaitasun handiak izateagatik, hezkuntza-sisteman berandu sartzeagatik, egoera pertsonalak edo eskolako historialak hala eskatzeagatik, arruntaz bestelako hezkuntza-arreta behar duten ikasleek euren gaitasun pertsonalak ahalik eta gehien garatu ahal izan ditzaten eta, nolanahi ere, ikasle guztientzat ezarritako helburu orokorrak lortu ahal izan ditzaten.»

Hezkuntzako kontseilariaren urtarrilaren 20ko 4/2017 FORU AGINDUAK (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan diharduten ikasleak ebaluatu, mailaz igo eta haiei tituluak emateko era arautzen duena) honako hau xedatzen du 5.5 artikuluan: «Matrikulazioaren ikasmailako curriculum arrunta egiten duten, baina ikasketa-prozesuan aurrera egiteko, arruntaz kanpokoa den hezkuntza-arreta behar duten ikasleei aplikatuko zaie irakasgai batean hezkuntzaren sostengua edo errefortzua emateko neurria. Hezkuntzaren errefortzuan, besteak beste,

sartzeko curriculum egokitzapenak egin daitezke baliabide material eta sartzeko baliabide arruntez kanpokoak behar dituzten ikasleentzat, bai eta curriculuma aberastekoak ere, adimen-gaitasun handiko ikasleentzat, haiek ahalik eta gehien garatzeko».

Azkenik, Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 19ko 50/2017 FORU AGINDUAK (horren bidez arautzen da Batxilergoan diharduten ikasleak ebaluatu, mailaz igo eta haiei tituluak emateko era) honako hau xedatzen du 5.5 artikuluan: «Hezkuntzako neurri gisa, aintzat har daiteke Hezkuntza Errefortzua. Horrek sartzeko curriculum-egokitzapenak izan ditzake baliabide materialak eta sartzeko baliabide arruntez kanpokoak behar dituzten ikasleentzat, bai eta curriculuma aberasteko egokitzapenak ere, adimen gaitasun handiko ikasleentzat, haiek ahalik eta gehien garatzeko».

- ***Ospitaleratutako ikasleak eta etxeko arreta***

139. taula: Ospitaleratutako ikasleak. 2016-2017

	Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	DBH	Derrigorrezko Hezkuntzaren ondokoa	Guztira
Bideko Birjina ospitaleko arretak	112	144	39	0	295
Haur eta gazteentzako eguneko ospitaleko eta ospitaleko unitate psikiatrikoko arreta-emateak:	0	16	61	6	83
Etxeko arretak	Ez da etxeko arretan sartzen	15	31	Ez da etxeko arretan sartzen	46
Guztira	112	175	131	6	424

Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala

- ***Ikastetxe publiko eta itunduentzako laguntza ekonomikoak***

Egoera ahulean dauden ikasleei arreta emateko laguntza ekonomikoetan ikastetxe publiko eta itunduek 1.212.123,92 euroko zenbatekoa jaso zuten 2016-2017 ikasturtean.

140. taula: Egoera ahulean dauden ikasleei arreta emateko laguntza ekonomikoak. 2016-2017

Xedapenaren epealdia / Ebazpena	Ikastetxe onuradunak		Ikasle onuradunak		Guztira
	Haur eta Lehen H.	Bigarren Hezkuntza	Haur eta Lehen H.	Bigarren Hezkuntza	
493/2016 ebazpena Ikastetxe publikoak*	137	52	7.609	3.179	139.920,36
493/2016 ebazpena Ikastetxe tunduak**	350 ordu 58 ikastetxe				645.004,66
328/2016 ebazpena Ikastetxe tunduak***	55		1.647		409.198,90
Sinatu gabe Secretariado Gitano Fundazioa					18.000
Guztira					1.212.123,92

** Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleei laguntzeko, ikastetxe publikoei esleituriko diru-laguntzak (jangelarako laguntzak kontuan hartu gabe)*
*** Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleei laguntzeko profesionalen orduak kontratatzeko esleipena, dela hezkuntza-premia bereziak dituztelako edo gizarte-egoera ahulean daudelako*
**** Ikastetxe itunduei esleitutako laguntza ekonomikoak, egoera ahulean dauden eskolatutako ikasleen ekipamendurako eta jantokirako.*
Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala

- ***Bekak eta ikasketa-laguntzak***

Nafarroako Gobernuko laguntza osagarri orokorrak

725/2016 ebazpena, urriaren 20koa, Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emana, unibertsitateko ikasketak eta derrigorrezko ikasketen ondoko unibertsitatez kanpoko ikasketak eta unibertsitate-ikasketak egiten dituzten ikasleendako beken deialdi orokorra onesten duena, 2016-2017 ikasturterako; apirilaren 24ko 371/2017 ebazpenaren bidez aldatua.

Nafarroako Gobernuaren erdi eta goi mailako ikasketetarako laguntza osagarriak jaso dituzte 4.543 ikaslek, 6.973 (mila euroko) guztizko zenbatekoarekin. Aurreko ikasturtekoaren antzeko balioak dira.

141. taula: Erdi eta goi mailako ikasketetarako Nafarroako Gobernuaren deialdi orokorreko bekak. 2011-2017

	2011/12	2012/13	2013/14	2014/15	2015/16	2016/17
1. ESKARIAK, GUZTIRA (Ikasleak)	12.889	7.589	8.287	8.513	9.321	9.321
2. EMANDAKO BEKAK, GUZTIRA	3.331	3.756	4.295	4.384	4.548	4.543
2.1 Unibertsitatez kanpoko mailetan	1.441	1.383	1.591	1.577	1.713	1.725
2.2 Unibertsitateko mailetan	2.147	2.284	2.585	2.697	2.683	2.666
2.3. Master ikasketetan	73	89	119	110	152	152
3. EMANDAKO ZENBATEKOA, GUZTIRA	6.175.045	6.496.589	6.323.331	6.761.538	6.992.257	6.973.314
3.1 Unibertsitatez kanpoko mailetan	1.078.180	1.003.574	1.023.339	1.050.414	1.165.556	1.168.900
3.2 Unibertsitateko mailetan	4.941.700	5.216.967	4.961.232	5.401.531	5.461.191	5.440.234
3.3. Master ikasketetan	155.165	276.048	338.760	309.593	365.509	364.180
4. ORDAINDUTAKO ZENBATEKOA, GUZTIRA	2.928.240	3.208.153	2.902.253	3.060.256	3.314.214	3.245.337
4.1 Unibertsitatez kanpoko mailetan	398.228	394.841	378.714	395.161	497.437	478.224
4.2 Unibertsitateko mailetan	2.483.721	2.724.982	2.374.064	2.581.377	2.689.659	2.641.325
4.3. Master ikasketetan	46.291	88.330	149.475	83.716	127.118	125.788
5. BEKA KOPURUA UNIBERTSITATEZ KANPOKO MAILETAN						
5.1 IRAKASKUNTZA						
Beka kopurua	158	154	262	178	187	203
Zenbatekoa	49.814	47.971	102.302	60.173	54.161	60.888
5.2 GARRAIOA						
Beka kopurua	1.147	1.058	1.173	1.222	1.335	1.347
Zenbatekoa	530.042	477.308	502.416	559.024	642.507	643.533

3 JANTOKIA						
Beka kopurua	40	26	32	20	24	24
Zenbatekoa	18.102	10.898	10.795	7.913	9.858	9.858
5.4 EGOITZA						
Beka kopurua	222	208	241	200	175	176
Zenbatekoa	456.411	431.188	360.705	337.606	296.600	298.090
5.5 APARTEKOA						
Beka kopurua	27	43	66	91	164	163
Zenbatekoa	23.811	36.209	47.121	85.697	162.430	161.480
UNIBERTSITATEKOEZ KANPOKO ZENBATEKOAK GUZTIRA	1.078.180	1.003.574	1.023.339	1.050.414	1.165.556	1.168.900
6. BEKA KOPURUA UNIBERTSITATEKO MAILETAN, KONTZEPTUKA						
6.1 IRAKASKUNTZA						
Beka kopurua	2.012	2167	2.471	2.595	2.582	2.566
Zenbatekoa	2.814.464	3.004.195	3.051.253	3.380.981	3.516.939	3.509.226
.2 GARRAIOA						
Beka kopurua	435	457	449	466	455	443
Zenbatekoa	253.128	266.024	237.709	268.840	251.857	249.306
6.3 JANTOKIA						
Beka kopurua	244	158	145	132	119	120
Zenbatekoa	97.823	61.579	54.137	53.151	49.960	50.426
6.4 EGOITZA						
Beka kopurua	898	954	1.087	1.050	982	977
Zenbatekoa	1.752.032	1.866.058	1.604.625	1.662.762	1.564.675	1.557.116
6.5 APARTEKOA						
Beka kopurua	17	13	10	23	45	43
Zenbatekoa	24.253	19.111	13.508	35.796	77.760	74.160
ZENBATEKOA UNIBERTSITATEKO IKASKETETAN, GUZTIRA	4.941.700	5.216.967	4.961.232	5.401.531	5.461.191	5.440.234
7. BEKA KOPURUA MASTER IKASKETETAN						
7.1 IRAKASKUNTZA						
Beka kopurua	72	83	117	109	149	148
Zenbatekoa	91.160	176.428	239.923	223.641	248.436	247.106
7.2. GARRAIOA						
Beka kopurua	17	16	26	14	17	17
Zenbatekoa	14.843	12.919	20.503	10.365	8.787	8.787
7.3. JANTOKIA						
Beka kopurua	8	1	12	4	8	8
Zenbatekoa	3.294	665	5.448	1.452	3.443	3.443
7.4. EGOITZA						
Beka kopurua	24	42	42	42	64	64
Zenbatekoa	45.868	86.036	66.746	72.494	103.045	103.045
7.5 APARTEKOA						
Beka kopurua				1	1	1
Zenbatekoa				1.642	1.800	1.800
ZENBATEKOA MASTER IKASKETETAN, GUZTIRA	155.165	276.048	338.760	309.593	365.509	364.180

Iturria: Baliabide Ekonomikoen Zerbitzua

135. grafikoa: Erdi eta goi mailako ikasketetarako Nafarroako Gobernuaren deialdi orokorreko beken bilakaera. 2011-2017



Iturria: Guk geuk egina, Baliabide Ekonomikoen Zerbitzuaren datuekin

Hezkuntza Berezirako berariazko laguntzak

Hezkuntza Ministerioaren laguntzak

142. taula: Hezkuntza-premia berezietarako Hezkuntza Ministerioaren laguntzak. 2011-2017

	2011/12	2012/13	2013/14	2014/15	2015/16	2016/17
Eskaera-kopurua	702	835	882	977	1052	1113
Emandako diru-laguntzen kopurua	467	581	619	654	657	720
Laguntzen zenbatekoa	525.883,65	668.316,51	719.285,40	754.554,56	632.977,82	631.535,76

Iturria: Ikastetxeen, Finantzaketaren eta Ikasketetarako Laguntzen Atala

143. taula: Hezkuntza Ministerioaren beken eta ikasketarako laguntzen bilakaera. 2001-2016

Ikasturtea	Ikasleak	Beka eta laguntza kopurua	Zenbatekoa
2001/02	1.268.922	1.828.893	717.922
2002/03	1.264.510	1.758.629	714.914
2003/04	1.269.783	1.745.525	728.739
2004/05	1.200.188	1.689.833	773.665
2005/06	1.263.006	1.734.814	803.004
2006/07	1.364.395	1.833.535	889.507
2007/08	1.407.596	1.948.907	991.084

2008-09	1.388.575	1.992.673	1.221.534
2009/10	1.517.340	2.187.462	1.354.424
2010/11	1.744.121	2.453.645	1.548.570
2011/12	1.867.590	2.754.018	1.702.632
2012/13	944.290	1.808.199	1.534.013
2013/14	642.028	1.764.557	1.444.536
2014/15	895.980	1.721.235	1.457.064
2015/16	920.355	1.777.194	1.484.988

Iturria: Beken eta Ikasketetarako Laguntzen Estatistika. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa

Hezkuntza berezirako laguntza espezifikoak

144. taula: Hezkuntza berezirako Nafarroako Gobernuaren bekak eta laguntzak. 2016-2017

	Eskaerak		Emandako dirulaguntzen kopurua		Emandako zenbatekoa, guztira (eurotan)
	G	E	G	E	
Haur Hezkuntza	122	58	42	18	42.061,04
Lehen Hezkuntza	216	110	70	43	62.523,03
Hezkuntza Berezia	65	49	32	16	23.951,03
DBH	70	35	24	9	15.403,46
GMHZ	0	0	0	0	0,00
EMHZ	4	4	2	1	1.303,73
Batxilergoa	6	4	2	1	1.971,00
HLKP	23	17	9	9	11.369,47
BCU	8	6	4	1	3.719,63
Garapenaren erabateko nahasmenduak	7	2	3	1	3.994,72
Guztira	521	285	188	99	166.297,11

Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala

4.7 Bizikidetza eta Baterako Hezkuntza

Hezkuntza Departamentuko Baterako Hezkuntzaren Taldeak (Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atalaren mendekoa da) unibertsitatez kanpoko ikastetxeetarako eta irakasleentzako prestakuntza diseinatzen eta garatzen du, etapa eta maila guztietako ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuetan zein ikastetxeen antolakuntzan eta ikastetxeen eta hezkuntza-komunitatearen arteko harremanetan berdintasuna txertatzeko. Gainera, baterako hezkuntzako proiektu eta jarduerak ezagutzera eman eta dinamizatzen ditu eta, azkenik, behar duten ikastetxe eta pertsonei aholkularitza ematen die.

4.7.1 Antolaketa

Hezkuntza Departamentuak Berdintasun Unitatearen bidez hartzen du parte Nafarroako Gobernuak ezarritako eta NABI Nafarroako Berdintasunerako Institutuak koordinatutako transbertsalitate-estrategian.

Unitate horretako kide dira bi Zuzendaritza Nagusiek osatutako Transbertsalitate Batzordea, Berdintasuneko Mahai Teknikoa (bi Zerbitzu Zuzendaritzek osatua) eta bi burutzen parte-hartzea duen Berdintasun Batzorde Teknikoa. Departamendu bakoitzeko kide guztiek osatzen dute NABIk koordinatutako Nafarroako Gobernuaren Berdintasun Talde Teknikoa.

Batzorde horiek parte hartzen dute, hainbat momentutan, gobernuak genero-berdintasunaren alorrean sustatutako plan eta programa transbertsalen informazioa ematen, prestatzen, proposamenak eta jarraipena egiten, eta bitartekaritza-lanak egiten dituzte berdintasun-organismoaren eta gobernuko departamentuen artean.

Departamentuen arteko lankidetza eta lan-esparru jorretan, Berdintasun eta Transbertsalitate Plana proposatzen da urtero, Nafarroako Gobernuak onartzen duena. Bertan, sektorekako ekintzak proposatzen dira, bai eta departamentu guztientzako ekintza komunak ere.

- Proiektu eta programetan genero-ikuspegia sartzea.

Proiektu hau Nafarroako Gobernuko departamentu guztietan egiten da modu paralelo eta bateratuan, Lantalde Teknikoaren bidez. Prestakuntza eta lan praktikoko ekintzak egin dira; horietan, departamentu bakoitzak programa bat hautatu eta aztertu du. Hezkuntza Departamentuak eskola-jazarpena prebenitu eta lantzeko helburua duen «Laguntza» programa hautatu du, hobetzeko ekintzak proposatzeko eta horrela bermatzeko programak proposatutako esku-hartzeetan genero-ikuspuntua txertatzen dela.

- Aurrekontuetan genero-ikuspegia sartzea.

Unibertsitateen programa aztertzeari ekin zaio, 2018ko aurrekontuetan hobekuntzak txertatze aldera. Honako hauek aztertu dira: programa, helburuak eta irismena, bai eta emakumezko irakasle, ikertzaile, zerbitzuetako langile eta ikasleen egoerari buruzko datuak ere.

Analisi hori oinarri hartuta, programa honen 2018ko aurrekontuetarako hobekuntza egokiak proposatuko dira, administrazioaren jarduna desberdintasunak deuseztatzera bideratu dadin, bai eta identifikatutako desparekotasunak hobetzera ere. Lan hau NABIrekin elkarlanean egiten ari gara, prestakuntza eta laguntza tekniko adituaren bitartez.

- Sektorekako ekintzak

Bi plan hauek daude transbertsalitate-estrategiaren barruan, eta horiek sustatzea Berdintasun Unitateei dagokie:

- Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Hezkuntzako Sektore Plana.
- Indarkeriari aurre egiteko Sektore Planeko neurriak egituratzen dituen Baterako Hezkuntzaren Plana.

4.7.2 Araudia

- ***Bizikidetza***

Eskolako bizikidetza azpimarratzearen garrantzia eta egokitasuna jasota dago hainbat esparru arautzailetan. Hauek dira esanguratsuenak:

- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa.

- 8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, Hezkuntza Kalitatea Hobetzeari buruzkoa.

- 204/2010 Foru Agindua, abenduaren 16koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako eta pribatu itunduetako bizikidetza arautzen duena.
- 47/2010 Foru Dekretua, abuztuaren 23koa, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa.
- 57/2014 Foru Dekretua, uztailaren 2koa, abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretua aldatzen duena. Dekretu hori Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa da.

Lege-arau horietan jasota dauden jarraibideek garrantzi berezia ematen diote bizikidetza prestakuntzaren, prebentzioaren eta esku-hartzearen bidez ikasteari, eta nabarmendu egiten dute oso garrantzitsua dela gatazkak modu baketsuan ebaztea eta eskola-jazarpenaren alorreko ekintzak garatzea. Aipatutako arauen multzoan, intereseko alderdiak jasotzen dira eskolako bizikidetzaren inguruan, hala nola bizikidetza-araudia, arduradunak, bizikidetza-batzordea edo bizikidetza-planak.

Guzti horretan pisu garrantzitsua dute ikastetxeen barneko egiturek eta kanpokoek. Zehazkiago, Hezkuntza Departamentuaren esparruan, nabarmentzekoa da Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren Bizikidetza Atalak eginiko lana, bai eta Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoarena ere. Ikastetxeen esparruan, berebiziko garrantzia dute Bizikidetza Batzordeak eta Bizikidetza Planak, eskolako bizikidetza garatu eta hobetzeko jardueren plangintza egin eta horiek sustatzeko elementuak baitira.

- ***Baterako hezkuntza***

Arau, plan eta bestelako dokumentu ugaritan jasota dauden obligazio eta gomendioek eskatu egiten diete Hezkuntza Departamentuari, ikastetxeei eta hezkuntza-komunitateari modu aktiboan lan egiteko baterako hezkuntzaren eskola-eredua lortu ahal izateko. Honako hauek aipa ditzakegu Baterako Hezkuntzaren Planaren lege-esparrua osatzeagatik duten garrantzia dela eta:

- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren kontrako babes integralerako neurriei buruzkoa.
- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eraginkorra izatekoa.
- 204/2010 Foru Agindua, abenduaren 16koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako eta pribatu itunduetako bizikidetza arautzen duena.
- 14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitekoa
- 103/2016 Foru Dekretua, azaroaren 16koa, sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazioak ezartzen dituena.
- 8/2017 Foru Legea, ekainaren 19koa, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa.

Hala berdintasunaren alorreko araudia nola hezkuntzako berariazko araudia bat datoz esaterakoan beharrezkoak eta garrantzitsuak direla hezkuntza-sistemako esku-hartzeak emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunean aurrera egiteko.

Arau horietan aupatutako alderdien artean daude honako hauek: curriculumaren edukia, material didaktikoak, egiturekin eta pertsonekin lotutako neurriak, hezkuntza-sistemako langileen gaikuntza, ikuskaritza-lana, berdintasuneko arduradunaren figura ordezkaritza

goreneko organoetan, genero-indarkeriari aurre egiteko neurriak eta politikak eta eskola-komunitateari, zerbitzuetako langileei eta gurasoen elkarteei zuzendutako neurriak.

4.7.3 Helburuak

2016-2017 ikasturtean Bizikidetza Atala berregituratu da, eta orain Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atala izena hartu du, Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urtarrilaren 11ko 5/2017 Foru Dekretuan jasotzen den moduan. Era berean, Atalaren burutzaren profila aldatu da, eta orain berdintasun-politiken kudeaketari buruzko ezagutza duen berdintasuneko teknikari bat da atalburua, eta ez irakasle bat, lehen bezala. Bestalde, Bizikidetza Atalak bulego bakarra zuen, Bizikidetza Bulegoa, hain zuzen. Berregituraketaren ondoren, bi bulego ditu atalak: Baterako Hezkuntzaren Bulegoa eta Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoa. Lehenak, gainera, baterako hezkuntzako irakasle aholkulari bat du, eta bigarrenean bi irakasle aholkulari daude, orain bulegoa lau pertsonako diziplina arteko lantalde batek osatzen baitu. Horiei, gainera, atal osoaren prestakuntza-ekintzak kudeatzen dituen irakasle aholkulari bat gehitu behar zaie.

Baterako Hezkuntzaren Bulegoaren eta Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoaren jardunaren xedea da helburu komun batzuk lortzea, hala nola eskolan indarkeria-mota oro prebenitzea, arreta berezia emanez prebentzio espezifikoari eta eskola-jazarpenaren arazoari aurre egiteari; ikasle eta irakasleen arteko tratu onen esperientziari eta balioari; hezkuntza emozionalari, banako eta taldeko garapenaren oinarri bezala; eta berdintasunerako hezkuntzari, horren bidez bermatuko baita neska-mutilek beharrezko banako eta taldeko gaitasunak ikasten dituztela beren bizi-proiektuak berdintasunean eta indarkeriarik gabe garatzeko, beren ingurunean dauden desparekotasunak identifikatzeko eta eraldatzeko gaitasunarekin, edozein delarik ere beren jatorria, kultura, erlijioa, sexu-orientazioa, egoera funtzionala, etab.

- ***Bizikidetza. Helburuak***

Bulego hau arduratzen da, funtsean, hezkuntza-komunitateari prestakuntza eta aholkularitza eskaintzeaz hala bizikidetza-plana ezartzeko nola ikastetxeetako ongizate psikosozialean eragin negatiboa duten egoerei aurre egiteko (horien artean bereziki aipatzekoa da eskola-jazarpena).

Bizikidetza Atalaren lanak ikuspegi proaktibo bat du oinarri. Horren bidez, bizikidetzarako hezkuntzaren arretan ipintzen da fokua eta, ondorioz, baita parte-hartzea, adostasuna, errespetua eta gatazken konponketa baketsua sustatzeko ekintzen hezkuntzako potentzialtasunean ere, hezkuntzaren testuinguruan. Horrekin guztiarekin bat etorriz, helburu hauek lortu nahi dira:

- Nabarmentzea zer indar duen eskolako bizikidetzak hezkuntza-komunitatean ongizatea sortzeko, ikasleen hezkuntza-emaitzen eta harremanen kalitatea hobetzeko elementu bezala.

- Ikastetxeetako bizikidetza-planen garapenean laguntzea, eta horien eraginkortasuna sustatzea.

- Bizikidetza ikastearen garrantzia nabarmentzea, ikasleek gaitasunek garapen oso eta zabala lor dezaten.

- Hezkuntza-komunitateari laguntza ematea, gatazkak modu baketsuan konpontzeko eta eskolako indarkeria prebenitzeko egiturak eta estrategiak martxan jartzeko.

- Ikastetxeetan bultzatzea indarkeria-egoeren prebentzioa xede duten ekintzak eta bizikidetzako zailtasunei aurre egiteko hezkuntzako erantzunen dibertsifikazioa.

- Koordinazioa eta sareko lana sustatzea departamentuen barruan eta horien artean, eskolako bizikidetza benetan sustatu eta hobetuko duten ekintzei ekiteko.

- Prestakuntza-ekintzak diseinatzea eta sustatzea, irakasleei eskolako bizikidetzaren arloko prestakuntza emateko.

- ***Baterako hezkuntza. Helburuak***

2017ko otsailaren 3ko 9/2017 Foru Aginduarekin bat etorriz, hauexek izan dira aurtengo helburuak:

- Baterako Hezkuntzaren Plana egiteko estrategia proposatzea eta kudeatzea.

- Baterako Hezkuntzaren Plana Nafarroako ikastetxeetan modu progresiboan ezartzeko modua diseinatzea eta proposatzea.

- Ikastetxeekin zehaztea zein diren beharrezko prestakuntza-, orientazio- eta langileria-premiak baterako hezkuntzaren helburuak behar bezala betetzeko eta identifikatutako beharrei erantzunen dieten prestakuntza-ekintza egokiak badaudela bermatzeko.

- Orientaziorako irizpide eta material pedagogikoak garatu eta hedatzea, ikastetxeek errazago izan dezaten baterako hezkuntzaren printzipioak aplikatzea hezkuntza-sistemako etapa eta maila guztietan.

- Baterako hezkuntzari buruzko sentsibilizazioa, prestakuntza eta informazioa ematea ikastetxeetako irakasleei eta zuzendaritzako kideei, sareko lana sustatuz eta baterako hezkuntzaren ikasketen, esperientzien eta materialen trukaketa erraztuz.

- Baterako hezkuntzaren baliabide pedagogikoen funtsa kudeatu eta eguneratzea eta ikastetxeei eta familiei ezagutaraztea eta erabilaraztea.

4.7.4 Bizikidetza eta berdintasuna sustatzeko ekintzak

Helburu horiek lortzeko tresna garrantzitsuenetako bat irakasleen prestakuntza da, bere bi alderdietan: alde batetik, bizikidetza hobetzeko eta eskola-jazarpena prebenitzeko, identifikatzeko eta konpontzeko gaikuntza eta, bestetik, baterako hezkuntzako ekintzak gauzatzeko gaikuntza, eskolako etapa guztietan.

- ***Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoa: prestakuntza-ekintzak***

Gizartearen zati handi batek gizarte-kohesio eta -integrazioko tresna bezala ikusten du hezkuntzako testuingurua, bere baitan alderdi ugari lantzen dituena, besteak beste, gizarteratze-prozesua, errespetuzko balioen sustapena eta mota guztietako indarkeriazko jarrerak murrizteko edo deuseztatzeko gaitasuna.

Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoak ikastetxeei laguntzeko ekintzak garatu ditu, ikasleei hainbat arlotako prestakuntza emateko (hezkuntza sozioemozionala, gatazkak

konpontzea eta eskola-jazarpenaren prebentzioa) bai eta bitartekaritza edo berdinen arteko laguntza bezalako egiturak sortzen laguntzeko ere.

Horrekin guztiarekin bat etorriz, irakasleentzako prestakuntza-programa zabal bat antolatzen du, eskolako bizikidetzaren arloko lan hezitzailea bultzatzeko asmoz, hainbat prestakuntza-modalitateren bitartez: jardunaldiak, mintegiak, ikastaroak, tailerrak eta baita ikastetxeen arteko ikastaroak ere. Azken horien bidez prestakuntza eta elkarlana sustatu nahi dira elkarrengandik hurbil dauden eta prestakuntzaren arloan interes bateratua duten ikastetxeen arloan.

Zehazkiago, 2016-2017 ikasturtean gai hauei heldu zaie:

- Eskolako bizikidetza-plana ikastetxeko bizikidetzaren pizgarri bezala.
- Gatazkak modu baketsuan konpontzeko komunikazio-trebetasunak.
- Eskola-bitartekaritza.
- Klaseko etenaldiak eta ikasgelaren kudeaketa.
- Hezkuntza emozionala eta psikologia positiboa, irakasleentzat eta ikasleentzat.
- Zuzendari- eta irakasle-taldeen gainbegiratzea eta coaching-prozesuak.
- Eskola-jazarpenaren prebentzioa eta horren aurreko esku-hartzea.

Aurrekoaren ildo berean, esfortzu handia egin da LAGUNTZA programa zazpi ikastetxe pilotutan ezartzeko.

145. taula: 2016-2017 ikasturtean LAGUNTZA programa aplikatu duten ikastetxe pilotuak

Ikastetxe pilotuak	Herria
Altsasu BHI	Altsasu
Regina Pacis Ikastetxea	Burlata
Amor de Dios Ikastetxea	Burlata
Virgen Blanca HLHIP	Uharte-Iruña
San Cernin Ikastetxea	Iruña
Padre Moret-Irubide BHI	Iruña
Félix Zaptero HLHIP	Valtierra

Iturria: Bizikidetzaren eta Baterako Hezkuntzaren Atala

LAGUNTZA irakasleentzako prestakuntza-programa espezifiko bat da, eta haren xedea da irakasleei prestakuntza-ibilbide bat eskaintzea, bizikidetza sustatzeko eta berdinen arteko tratu txarrak prebenitzeko jarduketak martxan jar ditzaten. Programaren helburua da, beraz, ikastetxeak jazarpen-egoerei tratamendu espezifikoa ematetik haratago joatea eta berdinen arteko partaidetza, lankidetza, errespetua eta laguntza ekarriko duten ekintzak abiaraztea.

LAGUNTZA programak, gainera, baditu ikasleekin ikasgelan garatzeko jarduerak, zehazki Lehen Hezkuntzako 4. urteko eta DBHko 1. mailako ikasleei zuzenduak, jazarpen-kasu larrienei aurrea hartzeko. Edonola ere, ondorengo ikasturteetarako material osagarriak ere eskaintzen ditu programak.

Prestakuntza ekintzen balorazioa

Prestakuntza-programak garrantzi handia du eta begi onez ikusten dute irakasleek. Horren adierazle dira egindako jardueren balorazio positiboak eta jarduera horietako irakasleen bertaratze- eta partaidetza-tasa handiak.

Ikasturte honetan 45 prestakuntza-ekintza baino gehiago antolatu dira etapa guztietan. Horrek esan nahi du irakasle ugarik jaso dutela bizikidetzaren inguruko prestakuntza, jardunaldien, mintegi orokorren, ikastaroen, informazio-saio orokorren, ikastetxeko informazio-saioen, ikastetxeko mintegien eta tailerren bidez.

Aurten prestakuntza hori LAGUNTZA programako prestakuntza espezifikoarekin osatu da, eta oso balorazio positiboa eman diote esperientziari ezarri den ikastetxeetan. Hori dela eta, ikastetxe horietako irakasleen prestakuntza indartzeaz gain, programa beste 15 ikastetxetan ezartzeko erabakia hartu da, gainbegiratzeko eta laguntzeko saioak gehituz.

Gainera, eta prestakuntza-ekintza horien osagarri bezala, promozio- eta orientazio-lanak egin dira ikastetxeetan bizikidetza-planak aplikatzeko, horien zehaztapenak eta urteko memoriak egiteko eta aurrez aurreko, telefono edo email bidezko aholkularitza eskaintzeko, hala zuzendaritza-taldeei nola bizikidetza-batzordeei eta/edo bizikidetzako arduradunei.

146. taula: Irakasleentzako prestakuntza-jarduerak, berdintasunaren alorrean. 2016-2017

Izena	Orduak osotara	Jarduerak	G	E	Guztira
Prevención, detección e intervención en casos de abuso sexual infantil	2	Hitzaldia	6	94	100
Cambios sociales y de género	2	On-line hitzaldia	2	23	25
Centros coeducativos por la coeducación	37	Mintegia ikastetxean	1	7	8
Club lectura por la igualdad I y II	35	Mintegia	3	35	38
Educando la afectividad y la sexualidad. Vivencias subjetivas del placer	12	Ikastaroa	5	15	20
Educando la afectividad y la sexualidad. El hecho sexual humano	12	Ikastaroa	3	27	30
Medidas de Adopción y acogimiento familiar	2	Hitzaldia	2	44	46
Introducción a la Coeducación: ¿Qué es y por qué coeducar?	2	Informazio-saioa	6	60	66
La educación afectivo-sexual. Abordaje desde la coeducación	12	On-line ikastaroa	4	41	45
Haur eta gazte literatura Berdintasunerako hezkuntzan	12	Informazio-saioa	2	25	27
Prevención de las violencias hacia las mujeres	12	Informazio-saioa	2	22	24
Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa	12	Informazio-saioa	3	11	14
Sensibilización y diagnóstico inicial para integrar la coeducación en los centros	20	Mintegia	2	16	18
Transexualidad y población infanto-juvenil	12	Ikastaroa	9	42	51
Violencia de género y sexual en la adolescencia	2	On-line hitzaldia	3	33	36
Y nosotros qué-Y ellos qué. Masculinidades para una igualdad	2	On-line hitzaldia	3	30	33
Prevención de violencias sexistas en entornos festivos	5	Ikastaroa	18	50	68
Acoso escolar en el centro y en la red. Prevención y actuación	12	Ikastaroa	6	14	20
Relaciona	12	Ikastaroa	1	9	10
Osotara	217		81	598	679

Iturria: Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atala

- ***Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoa: aholkularitza eta esku-hartzea***

Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoak aholkularitza-lan garrantzitsu bat egiten du hezkuntza-komunitateari eskola-bizikidetzako aholkularitza emanez, batik bat irakasleak, ikasleak eta familiak kezkatzen dituzten gaietan (adibidez, indarkeria-egoerak edo eskola-jazarpena).

Horretarako, hezkuntzako kudeaketaren esparruko ekintzak egiten ditu eta, horrez gain eta bereziki, berariazko aholkularitza ematen die Nafarroako ikastetxeei, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuarekin elkarlanean, eta askotan, beste departamentu batzuekin eta kanpoko baliabideekin koordinatuta (Haur eta Gazteen Osasun Mentala, Gizarte Zerbitzuak, tokiko erakundeak...).

Landutako kasuen kopurua eta tipologia

Egoera ugari eta askotarikoek eragiten dute Bulegoaren esku-hartzea eta aholkularitza. Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoaren esku-hartzea zuzendaritza-taldeko kideek edo hezkuntza-orientazioko profesionalek eskatzen dute hezkuntza-komunitateko beste pertsonek baino gehiago (esaterako, familiek eta ikasleek berek).

147. taula: Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoak landutako kasuen kopurua. 2016-2017

Kasuen jatorria	Kasu kopurua
Ikasleak	3
Ikastetxea	232
Familia	128
Bestelakoak	59
Osotara	422

Iturria: Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoa

148. taula: Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoak landutako kasuen tipologia. 2016-2017

Artatutako kasuen tipologia	G	E	Ikastetxeak
Absentismoa	2	1	
Absentismoa-ihesa	1		
Sexu-abusua	2	3	
Jazarpenak	118	127	
Menpekotasunak / Nahasmenduak	1	4	
Irakasleen aurkako erasoak	5	10	
Ikastetxe aldaketak	6	3	
Familia-ikastetxea gatazka	12	12	8
Irakasle gatazka	3		
Babesik gabeko haurrak	5	3	
Disrupzioa	2	15	
Dolua	2		
Disziplina espedientea	3	2	

Artatutako kasuen tipologia	G	E	Ikastetxeak
Suizidio saiakera	15	4	
Bitartekaritza	1		
Bestelakoak	2	2	
Borrokak / Indarkeria	6	11	
Informazio eskaera	6	7	4
Transexualitatea	6	7	
Genero indarkeria		1	
Osotara	198	212	12
Artatutako kasuak osotara	422		

Iturria: Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoa

136. grafikoa: Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoak landutako kasuen tipologia. 2016-2017



Iturria: Guk geuk egina, Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoak emandako datuekin

Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoak badu doako telefono-zenbaki bat (900 841 551) hezkuntza-komunitateko edozein kidek laguntza eskatu ahal izan dezan. Badu, halaber, helbide elektroniko bat: convive@navarra.es eta webgune bat, hainbat material eta informaziorekin, bai eta esku hartzeko eta laguntzeko eskatzeko eskabideekin eta harremanetarako sistema batekin ere.

- ***Baterako hezkuntza: prestakuntza-ekintzak***

Baterako Hezkuntzaren Bulegoak, baterako hezkuntzaren plana egitearekin batera, hainbat prestakuntza- eta hezkuntza-ekintza proposatu ditu, irakasleei zein ikasleei zuzenduta. Horietan, gai hauek landu dira:

- **Berdintasunerako hezkuntza**: Berdintasunean eta elkarrekiko errespetuan hezteak genero-indarkeriari aurrea hartzen dio eta, halaber, neska eta mutilen arteko harremanak, emaitza akademikoen hobekuntza eta pertsonaren garapen osoa ahalbidetzen ditu. Horretarako, garrantzitsua da irakaskuntza ulertzeko moduei buruz hausnartzea, eta presente izatea zein garrantzitsua den hezkuntza gazteen garapen integralerantz bideratzea, eta ikasleak zein irakasleak gauza izatea desparekotasunak eta estereotipoak hautemateko, eta irakasle-taldea animatzea prestakuntza hartzera edo baterako hezkuntzaren inguruko proiektu komun bat lantzera.

- **Tratu onak ikastea**: Ikasturte honetan DBHko ikasleentzako bi proiektu berri egin dira, «Amildegi Antzerkia» eta «TDiferencia» antzerki-konpainiekin. Bi jardueretan ikasgelako hausnarketa eta antzezlana uztartzen dira, eta horien bidez tratu onak lantzen hasten dira. «Amildegi Antzerkia»ren kasuan, DBHko 1. eta 2. mailako ikasleei zuzendutako jarduera bat izan da, helburu hauekin:

    - Nortasunaren eraikuntzarekin baino sozializazioarekin lotura estuagoa duten genero-estereotipoak onartzea eta horiei buruz hausnartzea.
    - Elkarri laguntzeko balioak sustatzea (berdinen arteko harremanak, balioetako adiskidetasuna), eraikuntza pertsonal bereiziaren onarpen soziala indartuko dutenak.
    - Nortasunaren eraikuntzarekin baino sozializazioarekin lotura estuagoa duten genero-estereotipoak onartzea eta horiei buruz hausnartzea.
    - Elkarri laguntzeko balioak sustatzea (berdinen arteko harremanak, balioetako adiskidetasuna), eraikuntza pertsonal bereiziaren onarpen soziala indartuko dutenak.

  Proiektu honetan «Izaro» antzezlanaren emanaldi bat eman da, eta aktoreek ikasleekin batera hausnartu egin dute tratu onen eta estereotipoen inguruan. 777 pertsonak hartu dute parte guztira, eta ikastetxe guztien balorazioak positiboak izan dira, hala ikasleen nola irakasleen aldetik.

  «Tdiferencia»ren kasuan, DBHko 3. eta 4. mailako ikasleei zuzendutako jarduera bat izan da, helburu hauekin:

    - Bikotekidea kontrolatzeko jarrerak hautematea gazteen artean, batik bat teknologia berriekin lotutakoak.
    - Nerabeen arteko genero-indarkeriari eta horren ondorioei buruz kontzientziatzea.
    - Lagun-taldean tratu txarren kasu posibleak maneiatzeko jarraibideak ikastea.

  Proiektu honetarako honako hauek erabili dira: Nafarroako Unibertsitateko berdintasun-unitateak egindako klasean lantzeko fitxa didaktiko batzuk, «Con fajas y a lo loco» antzezlanaren emanaldi bat eta ikasleen solasaldi bat psikologiako profesionalen kabinete batekin (PSIMAE kabinetea).

  2.009 ikaslek hartu dute parte guztira, eta ikastetxe guztien balorazioak positiboak izan dira, hala ikasleen nola irakasleen aldetik.

- **Sexu-nortasunen aniztasuna**: Genero-nortasuna bizitzan zehar eraikitzen da; oro har gaztetatik identifikatzen da, autokontzeptuaren eta inguruko pertsonen pertzepzioaren bidez eratuz. Horregatik, beharrezkoa da neurri batzuk ezartzea ikasleen integrazioa errazteko eta hezkuntza-komunitateko kide guztien arreta egokia bermatzeko adingabe bat transexualitate-egoera batean dagoenean. Horregatik, ikastaro honetan «Transexualitate-kasuetarako hezkuntza-protokoloa» aurkeztu da, transexualitate-egoeran dauden adingabeekin hezkuntzaren alorrean esku hartzen duten eragileei laguntzeko. Protokolo horrek atal hauek ditu:

- Transexualitate-egoera komunikatu eta identifikatzea.
- Ikastetxean hartu beharreko antolaketa-neurriak.
- Hezkuntza-komunitate osorako prestakuntza plan integrala.
- Eskolan diskriminazio eta jazarpeneko balizko kasuak daudenean hartu beharreko neurriak.

Protokoloaz gain, hainbat ikastaro ere egin dira transexualitate-egoeran dauden adingabeen gizarteratzeari buruzko erantzun bat emateko, informazioaren eta prestakuntzaren bidez, horretarako ezagutzak, tresnak eta estrategiak eskainiz, prozesu horietan modu ezin hobean lagundu ahal izateko.

- **Indarkeria guztien prebentzioa**: Ikasleak sentsibilizatzeko eta hezteko lana funtsezkoa da festa-giroko eremuak seguruak izan daitezen, bai neskentzat bai mutilentzat. Zentzu horretan, eta udako oporraldia gertu zegoela baliatuz, «Festa-giroko indarkeria sexistaren prebentzioa»ri buruzko ikastaro bat eskaini zen, Lehen Hezkuntzako 3. zikloko eta Bigarren Hezkuntzako irakasleei zuzenduta, festa-giroko eta aisialdiko indarkeriaren prebentzioa lantzeko asmoz, neska-mutilak ingurune horietan agertzen diren desparekotasunak eta erreproduzitzen diren indarkeriak identifikatu eta gerarazteko gauza izan zitezen.

- **Ikasketa teknologiak hautatzeko orientazioa**: DIANA programa Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuaren ekimen bat da, eta haren xedea da neskak eta emakume gazteak ikasketa teknologikoetara bideratzea, ikastetxeetan esku hartuz eta autonomia-erkidegoekin elkarlanean arituz.

Jarduerak Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako eta DBHko 1. mailako ikasleei zuzentzen zaizkie. Laneko metodologia bezala hainbat elementu uztartzen dira: konputazio-zientzien garrantziaren berri emateko azalpen teoriko labur bat, SCRATCH tresnaren erabilera ikasleen aldetik eta teknologiaren alorreko emakumezko profesional baten partaidetza, bere esperientzia kontatuz.

149. taula: DIANA programan parte hartu duten ikastetxeak. 2016-2017

Ikastetxea	Herria	Maila	Emaku.	Gizon.	Guztira
Xabier de Zubiri	Zubiri	6. Lehen H.	13	12	25
Argia Ikastola	Fontellas	3. Lehen H.	10	10	20
San Bartolomé IP	Martzilla	5. Lehen H.	13	15	28
Izaga IP	Cordovilla	1. DBH	30	0	30

Iturria: Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atala

2017-2018 ikasturtean ikastetxe horietako hiruk helburu eta metodologia bera darabilen eta adin bereko ikasleei zuzentzen zaien ADA programan hartuko dute parte.

Ikasturte honetan egin diren irakasleentzako prestakuntza-ekintzak taula honetan jaso dira.

150. taula: Irakasleentzako prestakuntza. 2016-17

Izena	Orduak osotara	Jarduerak	G	E	Guztira
Prevención, detección e intervención en casos de abuso sexual infantil	2	Hitzaldia	6	94	100
Cambios sociales y de género	2	On-line hitzaldia	2	23	25
Centros coeducativos por la coeducación	37	Mintegia ikastetxean	1	7	8
Club lectura por la igualdad I y II	35	Mintegia	3	35	38
Educando la afectividad y la sexualidad. Vivencias subjetivas del placer	12	Ikastaroa	5	15	20
Educando la afectividad y la sexualidad. El hecho sexual humano	12	Ikastaroa	3	27	30
Medidas de Adopción y acogimiento familiar	2	Hitzaldia	2	44	46
Introducción a la Coeducación: ¿Qué es y por qué coeducar?	2	Informazio-saioa	6	60	66
La educación afectivo-sexual. Abordaje desde la coeducación	12	On-line ikastaroa	4	41	45
Haur eta gazte literatura Berdintasunerako hezkuntzan	12	Informazio-saioa	2	25	27
Prevención de las violencias hacia las mujeres	12	Informazio-saioa	2	22	24
Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa	12	Informazio-saioa	3	11	14
Sensibilización y diagnóstico inicial para integrar la coeducación en los centros	20	Mintegia	2	16	18
Transexualidad y población infanto-juvenil	12	Ikastaroa	9	42	51
Violencia de género y sexual en la adolescencia	2	On-line hitzaldia	3	33	36
Y nosotros qué-Y ellos qué. Masculinidades para una igualdad	2	On-line hitzaldia	3	30	33
Prevención de violencias sexistas en entornos festivos	5	Ikastaroa	18	50	68
Acoso escolar en el centro y en la red. Prevención y actuación	12	Ikastaroa	6	14	20
Relaciona	12	Ikastaroa	1	9	10
Osotara	217		81	598	679

Iturria: Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atala

4.7.5 Baterako hezkuntzako plana

Hezkuntza Departamentuak Baterako Hezkuntzako Plana prestatu du 2016-2017 ikasturtean. Bertan, baterako hezkuntzarako jardunaren helburu eta edukien progresioa ezartzen da Nafarroako ikastetxe guztietarako, 2017-2021 aldirako.

Hasierako fasea diseinatu eta garatzeko Hezkuntza Departamentuak partaidetza-prozesu bat koordinatu du, Nafarroako Eskola Kontseilua, irakasleak eta, Osasun Publikoko Institutuaren bidez, Osasun Departamentua inplikatuta eta berdintasunean eta baterako hezkuntzak adituak diren pertsonen laguntza teknikoarekin.

Hasierako prozesuan 17 ikastetxetako 72 irakaslek hartu dute parte, ondoren ezarpeneko esperientzia pilotuan parte hartzeko konpromisoarekin. Parte-hartze horrekin batera, prestakuntza-ekintzak ere egin dira, hobeto uler daitezen Plana eta haren helburuak, ereduaren analisia eta edukirako proposamenak.

Ikastetxeak hautatzeko kontuan izan da zer ibilbide izan duten baterako hezkuntzarekin lotutako proiektu eta jardueretan, proiektuen araberako lanean eta sareko lanean eta zuzendaritza-taldeak zer konpromiso duen baterako hezkuntzarekin.

151. taula: Hezkidetza Planeko fase pilotuko ikastetxe parte-hartzaileak

Ikastetxea	Herria	Ikastetxe-mota
Sta. Teresa 0-3 Txantrea	Iruña	Haur Hezkuntza 0-3
Ostadar 0-3	Orkoien	Haur Hezkuntza 0-3
Amalur 0-3	Atarrabia	Haur Hezkuntza 0-3
Hegoalde	Iruña	Haur eta Lehen Hezkuntza
Ermitaberri	Burlata	Haur eta Lehen Hezkuntza
Mendialdea II	Berriozar	Haur eta Lehen Hezkuntza
Gloria Larrainzar	Zubiri	Haur eta Lehen Hezkuntza
San Benito	Miranda de Arga	Haur eta Lehen Hezkuntza
Iturrama BHI	Iruña	DBH-Batxilergoa
Zizur BHI	Zizur	DBH-Batxilergoa
Marqués de Villena BHI	Martzilla	DBH-Batxilergoa
Benjamín de Tudela BHI	Tutera	DBH-Batxilergoa
Burlada LH	Burlata	Lanbide Heziketa
Sakana LH IIP	Altsasu	Lanbide Heziketa
Hezitzaile Eskola	Iruña	Lanbide Heziketa
Huarte BHI	Uharte	Lanbide Heziketa

Iturria: Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atala

2017-2018 ikasturtean partaidetza-prozesu horrekin aurrera jarraitzea aurreikusten da, Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuekin, tokiko erakundeetako teknikariekin, eskola-kontseiluekin, gurasoen elkarteekin, aisialdiko elkarteekin eta zuzenean ala zeharka hezkuntza-munduarekin lotura duten beste erakunde batzuekin koordinatuta.

Plan honen helburua da ikasketa-ibilbide bat garatzea, bai eta hura ikasgeletan zuzenean aplikatzeko jarraibideak ere, hezkuntzaren etapa guztietan. Horixe da «SKOLAE Berdin bidean Creciendo en igualdad» programaren jatorria., Nafarroako ikastetxeei eta hezkuntza-komunitateei zuzendutako programa bat da.

SKOLAEren xedea da eskola-komunitate bakoitzaren ondoan egotea neska-mutilen ikaskuntza-prozesu osoan laguntzeko, jaiotzen direnetik eta hezkuntzako etapa guztietan zehar, beren bizi-proiektua garatzea ahalbidetuko dieten gaitasunak eskuratzeko bidean, askatasuna eta aukera-aniztasuna oinarri hartuta, eta laguntza emanez desparekotasunak identifikatzeko, horiei aurre egiteko eta berdintasunerako duten eskubidea gauzatzeko beren kulturaren, erlijioaren, klase sozialaren edo egoera funtzionalaren eremuan.

Programaren barnean daude, baterako hezkuntzako ibilbideaz gain, ekintza-plan bat, prestakuntza-plan zabal bat eta tokiko eragileen aniztasuna koordinatzeko konpromisoa, ikasgeletatik haratago adin guztietako ikasleen familienganaino eta gertuko inguruneko pertsonenganaino heltzeko. Ibilbide guztian zeharka presente dauden hainbat kontzepturen inguruan egituratzen da: emakume eta nesken kontrako indarkeriaren prebentzioa; emakumeen ikusgarritasuna eta haiek egindako ekarpenak; nortasun, kultura eta sexualitateekin eta horien aniztasunarekiko errespetua; eta berdintasuna errealitate bihurtzeko konpromiso partekatua.

SKOLAEk, askotariko ibilbide baten bidez, sortu egiten du ikastetxe bakoitzean baterako hezkuntzaren aldeko konpromisoa eta esku hartzea kudeatzeko eta zehazteko erreferentzia-esparrua. Edukien eta taldeko zein banako ikaskuntzako esperientzien progresio arautu bat ezartzen du, hezkuntza-prozesu guztirako.

Ibilbide hori 4 ikaskuntzaren inguruan egituratzen da, ikasleek 4 gaitasun garatu ditzaten:

152. taula: SKOLAEko ikaskuntzak eta gaitasunak

Ikaskuntzak	Gaitasunak
Kritika berdintasunika ezaren aruka eta aldaketarako gaitasuna	Identifikatu eta aztertzea generoaren arloan dagoen berdintasunik eza zein hari aurre egiteko eta eraldatzeko ardura gain hartzea.
Autonomia, independentzia pertsonala eta enpleguaren zentraltasuna	Zainketaren eta enpleguaren lanak autonomia eta independentziarako oinarri gisa hartzea bizitza-proiektu igualitarioetan.
Lidergoa, ahalduntzea eta partaidetza soziala	Erabakiak hartzeko norberak duen gaitasuna aitortze a eta jokabide partekatua sustatzea, helburu komunak lortze aldera.
Sexualitatea, bizikidetza eta indarkeriaren prebentzioa	Errespetua eta berdintasunezko hazkunde pertsonala errazten dituzten harreman afektibo, sexual eta bizikidetzakoak adierazteko eta ezartzeko gaitasun pertsonala ezagutzea eta onartzea.

Iturria: Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atala

Etapen arabera ez ezik, hiru eremuren inguruan ere garatu dira ibilbideko edukiak. Horietako bakoitzarentzat, programak gomendio praktikoak eta ikasgelako lanerako orientazioak ematen ditu.

- Pertsonala: ikasle bakoitzaren nortasunaren eraikuntzari, beren bizi-proiektuaren inguruko erabakiei eta norbere burua ezagutzeko prozesuari buruzko edukiak.
- Harremanak: gainerakoekin harremanak ezartzeko moduei eta edozein interakziotan guztiok ditugun betebehar eta eskubideei buruzko edukiak.
- Soziala: gure inguruan zein gizartean oro har dagoen egoerari eta eskaintzen zaizkigun eredu eta erreferenteei buruzko edukiak.

- ***Ekintza Plana***

SKOLAE programa bereizitako bi fasetan hedatuko da:

1. Pilotatzea. 2017-2018 ikasturtean eginen da, ibilbidea aipatutako 16 ikastetxeetan ezarrita. Unibertsitatez kanpoko Nafarroako hezkuntza-etapa, hizkuntza-eredu eta eremu geografiko guztiak ordezkatzen dituzte zentro horiek.

Ikastetxeek baldintza hauek bete behar dituzte esperientzia pilotuan parte hartzeko:

- Prestakuntza-planean parte hartzea eta aholkularitza semipresentziala jasotzea ikasturte guztian zehar.
- Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak konpromiso aktiboa espresuki adieraztea.
- Baterako hezkuntzarekiko konpromiso hori ikastetxeko dokumentazioan txertatzea.

- Koordinatzaile bat izendatzea.
- Talde sustatzaile bat sortzea.
- Irakasle-taldeko kopuru esanguratsu batek parte hartzea prestakuntza-prozesuan eta programaren ebaluazioan.
- Informazioa eta jarraipena ematea Eskola Kontseiluari.
- Familien inplikazioa lortzea, bai eta prestakuntza- edo sentsibilizazio-ekintzetako parte-hartzea ere.
- Tokiko ingurunearekin koordinatzea.

Era berean, Hezkuntza Departamentuak konpromiso hauek hartzen ditu bere gain lehen ikasturte pilotu honetan eta hurrengoetan:

- Berdintasuneko, Hezkuntzako Ikuskaritzako, Hezkuntza Antolamenduko eta Ebaluazioko Atalek osatutako barneko taldea koordinatzea.
- Ikastetxeen jarraipena egitea eta sostengua ematea.
- Prestakuntzarako eduki berriak, orientaziorako materialak eta ikasgelarako aplikazioak garatzea.
- Tokiko erakundeekin, beste departamentu batzuekin eta zuzendaritza nagusiekin koordinatzea hezkuntza-komunitateari eta, bereziki, familiei eta aisialdi eta denbora libreko gazteei zuzendutako baterako proiektu koordinatuak garatzeko.
- Programa ebaluatzea eta edukiak eta prozesuak doitzea.
- Jarraipen- eta ebaluazio-plana diseinatzea.
- Orokortzeko fasearen plangintza egitea.
- Esperientzia pilotua eta ondoren egin beharreko orokortzea gauzatzeko beharrezko baliabideak esleitzea.

2. Modu mailakatuan esperientzia orokortzea. Ekintza plana Nafarroako ikastetxe guztietara zabaltzeko bigarren fase bat ere aurreikusten da. Estimazioen arabera, fase horrek hiru ikasturteko iraupena izanen du (2018-2019, 2019-2020 eta 2020-2021), gutxi gorabehera beste 150 ikastetxetara zabalduz urtero, horrela ikastetxe guztiei emanez planaren ezarpenerako prestakuntza, gaikuntza eta aholkularitza jasotzeko aukera.

2017-2021 aldirako ekintza-planaren ebaluazio eta jarraipena eginen dira fase guztietan, posible izan dadin epe ertainera Nafarroako ikasleen artean izan duen eraginaren bilakaera egiaztatzea, berdintasunerako joerak identifikatzea eta beharrezko zuzenketak egitea, joera horiek indartu eta sendotzeko.

- ***Prestakuntza Plana***

SKOLAE programan jasotako baterako hezkuntzako progresioaren garapenerako beharrezkoa da modu mailakatuan prestakuntza eta akonpainamendua ematea irakasle guztiei eta ikastetxeko bizitzan parte hartzen duten langileei. Bestalde, familien prestakuntza diseinatzeko ikastetxeen gertueneko inguruneko eragileekin elkarlanean eginen da lan.

Prestakuntza-ibilbideak erantzuna ematen die eredua prestatzerakoan irakasleek formulatu dituzten eskariei. Oinarrizko ezagutza teoriko komun batzuk ditu oinarri, eta horiek ikasturtean zehar aplikatu beharreko proposamen didaktiko zehatzekin osatzen dira, ikaskuntza bakoitzaren edukietarako. Hezkuntzaren arloko administrazioak eta esperientzia pilotuan parte hartzen duten ikastetxeek adostu dituzte ikasturte osoan zehar modu semipresentzialean garatuko den ibilbidearen terminoak eta baldintzak. Programa zabaldu eta sendotu eginen da ezarpena gauzatzeko aurreikusten diren hiru ikasturteetako bakoitzean.

Hona hemen prestakuntza-planaren helburuak:

- Gizarteko sexismoaren kausa nagusiak aztertzea.
- Irakasleen hausnarketa sustatzea, ikasleek beren berdintasunerako eskubidea eremu publikoan zein pribatuan gauzatzeko gaikuntza emateko hezkuntzak duen gaitasunaren inguruan.
- Irakasleei, gaitasunak, trebetasunak eta baliabideak ematea, gauza izan daitezen ikasleei honako hauek transmititzeko: garapen pertsonaleko eta pertsonen arteko harremanetako berdintasuneko ereduak eta bizitzako proiekzioak mugatzen dituzten estereotipoen kritika.
- Baterako hezkuntzako ikaskuntzen eta jardunbide egokien trukea erraztuko duen sareko lan bat garatzea.
- Feminitatearen eta maskulinitatearen inguruko hausnarketa kritikoa egiteko aukera metodologikoak ebaluatzea, berdintasunezko nortasun pertsonal berriak eratzeko oinarri bezala.
- Gatazken konponbide baketsua integratzearen egokitasuna defendatzea eta horretarako jarraibideak ematea bizitza pertsonal, familiar eta sozialaren eremu guztietan.
- Ibilbidearen ardatzen araberako egituratik eratorritako oinarrizko kontzeptuak ezagutzea eta programazioak horiek integratzeko gauza izatea.
- SKOLAE programako baterako hezkuntzako sekuentziaren edukiak ulertzea eta horiei buruzko hausnarketa egitea, ebaluatzea eta hobekuntzak identifikatzea pilotatze-prozesua abiaraztean eta sendotzean.

SKOLAE prestakuntza-ibilbidea urrats hauen arabera ezarri da:

1. Ikasturte hasierako jardunaldiak
2. Prestakuntza ikastetxean bertan
3. Baterako hezkuntzari buruzko oinarrizko prestakuntza
4. Talde sustatzailearentzako prestakuntza
5. Baterako hezkuntzarako ibilbideak
6. Proiektuak eta jarduerak
7. Ikasturte amaierako jardunaldiak

Azkenik, eta kontuan izanik ikaskuntza bizitza guztian zehar garatzen doan prozesua dela, SKOLAE programako espazio presentzial eta birtual guztietan funtsezko bi erronka planteatzen dira: familiak eta tokiko inguruneko eragileak txertatzea baterako hezkuntzarako konpromisoan eta ikasleak bere gertueneko ingurune sozialean eginiko ekarpenen bidez ikastea, partaidetza sozialeko, lidergoko eta taldeko zein banako ahalduntzeko ikaskuntza ikasgelatik kanpora ere atereaz.

4.7.6 Departamentuen arteko lankidetza

Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atalak departamentuen arteko ekintza hauetan parte hartu du aurten:

- ***Bakearen eta Bizikidetzaren Batzordea***

Departamentu arteko mahai hau Nafarroako Unibertsitateko Soziologia Fakultatearen «Gazteak eta Indarkeria» ikerketa-proiektuaren esparruan sortu zen. Indarkeriari buruzko datu kuantitatiboak eskaini dira, eta 16-18 urteko gazteak dituzten ikastetxeei luzatu zaie ikerketa-proiektuan parte hartzeko gonbita.

- ***2017-2020 aldirako Ekonomia Sozialeko Plan Integralaren jarraipen-batzordea***

Hezkuntza Departamentuari dagokionez, Planak bi jarduketa zehazten ditu:

- Gobernamendu parte-hartzailea: Parte-hartzea (4.2 helburu estrategikoa). Proiektu pilotua (ekonomia solidarioa) ikastetxeekin (3. jarduketa).
- Garapen sektoriala: Ekonomia sozialaren ikusgarritasuna (5.2 helburu estrategikoa). Ekonomia solidarioaren unitate didaktikoen erabilera (4. jarduketa).

Zentzu horretan, Departamentu honek ekintza hauek gauzatu ditu beste erakunde batzuekin elkarlanean (besteak beste, GGKEen koordinadora, REAS eta Eskubide Sozialetako Departamentua):

- Informazio-saio bat jarduera-liburuari buruz Iruñeko ILZen 2016ko azaroan.
- Webgunearen bidez zabaltzea eskola solidarioen proiektuekin lotutako erakundeei buruzko informazioa: GGKEen koordinadora, REAS, Eskubide Sozialetako Departamentua.
- Ekonomia solidarioaren jarduera-liburua euskaratzea 2017-2018 ikastaroan ikastetxeetan zabaltzeko.

- ***Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren Batzordea***

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak adierazten duenez, etengabeko prestakuntza irakasle guztien eskubidea eta betebeharra da, baita hezkuntzako administrazioen eta ikastetxeen beren erantzukizuna ere. Bestetik, aditzera ematen du hezkuntzako administrazioei dagokiela etengabeko prestakuntzako berrikuntza-programak sustatzea, eta ezagutzek eta metodoek, programa horietan, zientzien bilakaerari eta didaktika berariazkoei egokituta egon behar dutela.

Betebehar legal hori betetzeko, Hezkuntza Departamentuak hezkuntza berritzeko hainbat programa bultzatu ditu, berrikuntza-proiektuak sustatzeko deialdien bidez, etengabeko prestakuntzarako.

Horrela egituratzen da 88/2016 Ebazpena, martxoaren 22koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2016-2017 ikasturtean irakasleen etengabeko prestakuntza programan hezkuntza berritzeko proiektuetarako deialdia erregulatuko duten arauak onesten dituena.

Deialdi honek lagungarria izan nahi du hezkuntza berritzeko proiektuak ikastetxeen eguneroko jardunean eta urteko programazio orokorrean sar daitezen. Lagungarria izan nahi du, bestalde, irakasleen etengabeko prestakuntzarako hezkuntzako material eta baliabide berritzaileak sor daitezen.

Hezkuntza-berriztapeneko esperientzia horiek Nafarroako Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxeetan egin daitezke, publikoak zein pribatuak izan.

Deialdiaren helburuak hauek dira:

- Irakasleen prestakuntza bultzatzea, eta haien ezagutzak eta metodoak zientzien eta didaktika berariazkoen bilakaerara egokitu daitezen laguntzea.
- Gaitasun giltzarriak curriculumean txertatzeko lan egitea, proposamen errealistak eta bideragarriak baliatuta.
- Irakasleei jardunbide onetarako pizgarriak ematea, eta haien lan onaren berri ematea.
- Ikasgelako eta ikastetxeko eguneroko zereginetan irakasleek egiten duten lan berritzailea aintzat hartzea.

Eskatzaileek Berrikuntza Proiektu bat aurkeztu beharko dute, eta hori hezkuntza-berriztapeneko ildo hauetako batean garatu beharko da:

- Funtsezko gaitasunak curriculumean sartzea unitate didaktiko integratuen elaborazioaren bidez.
- Ebaluatzeko zenbait teknika eta tresna erabiltzea, funtsezko gaitasunak zenbateraino eskuratu diren modu egokian adierazten dutenak.
- Funtsezko gaitasunak garatzea:
    - Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna
    - Matematika-gaitasuna eta zientziako eta teknologiako oinarrizko gaitasunak
    - Gaitasun digitala
    - Ikasten ikasteko gaitasuna
    - Gaitasun sozial eta zibikoak
    - Ekimena eta ekintzailetza
    - Kontzientzia eta adierazpen kulturalak
- Zenbait arlotako hezkuntza-esperientziak garatzea (bizikidetza, berdintasuna, dibertsitatea, kultura-aniztasuna, orientazioa eta beste batzuk).
- Hezkuntza esperientziak garatzea: ikasketa-komunitateak, lana proiektuka egitea, adimen anizkoitzak, hezkuntza emozionala, flipped classroom-a eta beste batzuk.
- Berrikuntza-proiektuak, kalitatea kudeatzeko sistemetan.

- Hezkuntza-berrikuntza, gaitasun, motibazio edo espektatiba akademiko handiagatik nabarmentzen diren ikasleen talentuaren garapenean laguntzeko.

Hautapen-batzorde batek aztertuko ditu aurkeztutako proiektuak eta Nafarroako Gobernuaren Zerbitzuen Katalogoan argitaratuko ditu proiektu onartuen zerrenda eta horiek lortutako behin-behineko puntuazioa.

Elaborazio-prozesu hori amaitzean, proiektuaren koordinatzaileak azken memoriaren kopia bat bidali behar du Prestakuntza Atalera. Une horretatik aurrera, Hezkuntza Departamentuak hautatu diren lanak jendaurrean jartzen ahalko ditu, osorik edo zati bat.

180. taula: Onartutako berrikuntza-proiektuak. 2016-2017

Proiektua	Ikastetxea
CA/AC: Una puerta abierta a la solidaridad, la ayuda mutua, el respeto a las diferencias y la convivencia	Amor de Dios ikastetxea, Burlata
La Musicoterapia como novedad educativa: Práctica de la musicoterapia para estimular y mejorar el desarrollo motriz, cognitivo, social y emocional de los niños y niñas	Amor de Dios ikastetxea, Burlata
Podcasting en la escuela	San Bartolome HLHIP, Martzilla
Aulas - no aulas. Integrar espacios educativos.	Hegoalde Ikastola, Iruña
I+D+E+A+L 2.0	García Galdeano HLHIP, Iruña
El aprendizaje a través de dispositivos móviles	Teresa Bertrán de Lis HLHIP, Cadreita
Conoce tu río	Lumbier BHI LH, Irunberri
Ambientes educativos de juego libre en Educación Infantil	San Francisco HLHIP, Iruña
DUMAS	Arbizuko HLHIP
Aniztasunarekin eskola eraikiz	Domingo Bados HLHIP, Olazti
El e-portfolio de la EOIDNA para B2	NUHEO, Iruña
Nuestro huerto escolar	Santa Vicenta María HLHIP, Cascante
Aprendizaje servicio, potenciando las zonas verdes de los centros	Sakana IBP LH y Zelandi HLHIP, Altsasu
Laborategia, arlo ezberdinen topagune	Amazabal BHI, Leitza
Dando la lata	Benjamín de Tudela BHI, Tutera
No es secundaria la igualdad	Benjamín de Tudela BHI, Tutera
Elkartrukean	Patxi Larrainzar HLHIP, Iruña
Aula inclusiva	San Miguel IP, Noain
Giroak Haur Hezkuntzan	Mendigoiti HLHIP, Iruña
REYNO TOUR: Turismo, ocio y tiempo libre	Reyno de Navarra DBHI, Azagra
Conoce Estella Lizarra	Santa Ana ikastetxea, Lizarra
ACTIUM	Barañain BHI
Rizoma III: Trabajo en red y voluntariado	Marqués de Villena BHI, Martzilla
Usar la Rasperry Pi 2 como hardware de bajo coste en la enseñanza de la asignatura TIC II	Ibaialde BHI, Burlata
Trans - Formación - Es	Zubiri HLHIP
2BOT; kodea eskuetan	Amaiur HLHIP
Red Navarra de Escuelas Inclusivas en Educación Física	Santo Tomás, Iruña
Robotak gure munduan	San Miguel HLHIP, Doneztebe
Gu herriko eta herriaren informatzaile!	Toki Ona BHI, Bera
Sillas para el escenario del festival Flamenco On Fire	Tierra Estella BHI/ Marqués de Villena BHI / Donibane IB
Descubrimos a fondo la radio en Educación Especial	Torre Monreal HBIP, Tutera

Mejoro el acceso a la pantalla con la mirada	Torre Monreal HBIP, Tutera
Proyecto Magnet Fase II	José María de Huarte HLHIP, Iruña
Robo - Tiza 2	Monte San Julián HLHIP, Tutera
Vivero intergeneracional / Gure baratza	Otsagabia HLHIP-DBHI
Askatasuna, ibai bazterreko tximeleta	Askatasuna BHI, Burlata
Modelo Educativo de Acompañamiento Personal (MEDAP)	Hijas de Jesús, Iruña
El bosque de las emociones	El Molino ikastetxea- Fundación Ciganda Ferrer, Iruña
Iturrama BHI Jasangarria	Iturrama BHI, Iruña
El alfabeto de la ciencia	San Francisco HLHIP, Iruña
Radio escolar. Sanfranirratia	CSan Francisco HLHIP, Iruña
Plan de Educación afectivo-sexual (ESO)	Marqués de Villena BHI / Príncipe de Viana HLHIP; Marcilla-Erriberri
Grupos reducidos (de minimos) y por ambitos em primer ciclo de ESO	Ribera del Arga BHI, Peralta
Start children Up	Tafalla IBP
En equipo aprendemos más	Martín de Azpilicueta HLHIP, Barasoain
La huerta abierta	Andrés Muñoz Garde HBIP, Iruña
Matemáticas manipulativas	San Miguel HLHIP, Uharte
Barruko patioarekin ametsetan	San Miguel HLHIP, Huarte
Escuela inclusiva, participativa y dialógica	Doña Mayor, Iruña
Investigación en Bachillerato	Azkoien BHI

Iturria: Irakasleentzako Laguntza Zentroen eta Berriztapen Proiektuen Bulegoa

Proiektuen berariazko hedapena egiten da 2016-2017 ikasturtetik, Nafarroako Eskola Kontseiluaren bidez. Horrek, udazkenean antolatzen dituen Berrikuntza Jardunaldietan, aukera ematen du:

- Proiektuetako batzuen aurez aurreko komunikazioak egiteko, Tuteran eta Iruñean antolatzen diren saio batzuetan.
- IDEA aldizkari digitalaren ale monografiko bat idazteko (bertan, jaso diren proiektuen komunikazio guztiak aurkezten dira).
- Papereko argitalpenen bilduman ale monografiko bat argitaratzeko, jasotako komunikazioekin.

181. taula: Nafarroako Eskola Kontseiluaren Jardunaldietan 2016-2017an aurkeztutako berrikuntza-proiektuak

Proiektua	Ikastetxea
Conoce tu río	Lumbier BHI LH
Ambiente educativos de juego libre en Educación Infantil	San Francisco HLHIP, Iruña
Robotak gure munduan	San Miguel HLHIP, Doneztebe
Vivero intergeneracional/Gure baratza	Otsagabia HLHIP-DBHI
Askatasuna, ibai bazterreko tximeleta	Askatasuna BHI, Burlata

Modelo Educativo de Acompañamiento Personal (MEDAP)	Hijas de Jesús, Iruña
Plan de Educación afectivo sexual (ESO)	Marqués de Villena BHI / Príncipe de Viana HLHIP; Martzilla-Erriberri
Escuela inclusiva, participativa y dialógica	Doña Mayor, Iruña

Iturria: Irakasleentzako Laguntza Zentroen eta Berriztapen Proiektuen Bulegoa

4.9 Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak

4.9.1 Hezkuntzako Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzua

Hezkuntzako Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzuan integratzen dira Teknologia Berriak eta Hezkuntza Programa (PNTE) eta departamentu zein ikastetxeen informazio-sistemak.

Hezkuntzako Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzuan biltzen dira Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) esparruan garatzen dituen helburu, jarduera, baliabide eta zerbitzu guztiak. Hiru atalek osatzen dute: Hezkuntzako Sistemen, Sareen eta Euskarrien Atala, Hezkuntza Teknologiaren Integrazio eta Ustiapen Atala eta Informazio Sistemen Eboluzioaren eta Kudeaketaren Atala.

Sortu zenetik, PNTE ekimen berezia da Nafarroako Gobernuaren baitan, eta modu transbertsalean garatzen da Zerbitzua osatzen dute hiru ataletan. Bere jarduera-esparruaren barruan sartzen dira sare, ekipamendu eta baliabide informatikoen kudeaketa korporatiboan integraturik ez dauden hainbat baliabide. Ekimen honen ezaugarri bereizgarriak hauek dira:

- Atalaren eskumeneko alorretan berariazko prestakuntza duten irakaskuntzako eta irakaskuntzatik kanpoko langileen jarduerak: zerbitzarien administrazioa eta kudeaketa, sareen kudeaketa, aplikazioen garapena, hezkuntza-zerbitzuak instalatzea eta kudeatzea, ikastetxe eta irakasleendako laguntza, sareen eta ekipamendu informatikoen mantentze-lanak, eta abar.

- Ikastetxeetako komunikazio-sarearen planifikazioa, kudeaketa eta mantentze-lanak, Nafarroako Gobernuko sare korporatibotik kanpo, eta baita hainbat zerbitzurenak ere: DNS, posta elektronikoaren zerbitzaria, web zerbitzariak, aplikazioen eta datu-baseen zerbitzariak eta abar.

- Datu lanketarako bi zentro berezitu administratzea.

- IKTak curriculumean integratzeko programak, proiektuak eta prestakuntza garatzea

- IKTak irakaskuntzako curriculumean integratzeko ildo eta programa espezifikoak diseinatzea eta garatzea: IKTen gaineko eta bidezko urrutiko prestakuntza-programa, Prestakuntzaren koordinazioa eta plangintza IKT aholkularien bidez, Teknologia berrien proiektuak, Integra IKT-Eskola 2.0, Código21, Etorkizuneko Ikasgela, Digital-Puntu Neutroa ikasgela, PNTE Apps, web tresnen, esperientzien eta berrien hedapena, etab.

- Hezkuntza Departamentuaren ordezkaritza IKTen eta Hezkuntzaren inguruko alderdien gainean eta abarretan hezkuntza-administrazio publiko eta pribatuen artean antolatzen diren proiektuetan, batzordeetan eta foroetan.

- Software librearen eta teknologia irekien lehentasunezko erabilera bere ardurapeko esparru guztietan. Horrekin kostuak asko aurrezten dira eta gure interesen eta beharren arabera hornitzaileak aukeratzeko askatasun teknologikoa dago.

Departamentua lanean ari da asmo handiko eraldaketa digitaleko proiektu batean, EDUCAk hezkuntza-kudeaketa eta baliabideen plataforma integral bihurtzeko bilakaeran aurrera jarrai dezan, erabilera didaktikoko, ikasgelarako edo ikastetxeko kudeaketarako modulu eta funtzionaltasun berriekin eta departamentuetako kudeaketarako aplikazioekin guztiz integratuta.

Jarraian Hezkuntzako Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzuaren jarduerako lan-ildo edo esparru nagusiak aipatzen dira.

4.9.2 Konektagarritasuna

Konektagarritasuna funtsezko garrantzia duen faktorea da ikastetxeak, irakasleak, ikasleak eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideak Informazioaren Gizartean sartzeko eta eskaintzen dituen produktu eta zerbitzuak eskura izan ditzaten. Konektagarritasun egokirako ezinbestekoa da behar bezala diseinatzea sareen azpiegitura eta topologia, banda-zabalera ongi kalkulatzea, konexio-lineen mantentze eraginkorra, eta esparru honetan gertatu daitezkeen arazoen gainean azkar eta eraginkortasunez esku hartzeko aukera ematen duen sistema. Horregatik ematen dio hain garrantzi handia PNTEk lan-ildo horri, jarraian azalduko diren ekimenen eta jarduera ildoen bitartez.

Ikastetxeen egoera

Ia ikastetxe publiko guztiek dute Interneteko banda zabala, teknologia desberdinetako konexio berezituekin:

- ADSL bidezko konexioak
- 4G/5G irratia.
- Zuntz optiko bidezko konexioak (kanpoko operatzailearen titulartasuna).
- Zuntz optiko korporatiboaren bidezko konexioak (Nafarroako Gobernuaren titulartasuna).

Halaber, instalazio hori teknikoki bideragarria den egoitzetan zuntz optiko bidezko konexioak zabaltzen joan dira 2008. urtetik aurrera. Espero dugu telekomunikazioen lehiaketa berriak egoera hori aldatzea, eta banda zabal ultralasterreko konektagarritasuna ahalik eta ikastetxe gehienetara zabaltzea.

Kableen sarea eta WiFi sareak.

Hezkuntzako Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzuaren epe luzerako helburua ikastetxeen konektagarritasun unibertsala da; hau da, irakaskuntzarako edo kudeaketarako edozein espaziok izan dezala sarerako eta Interneterako konexioa.

Helburu hori lortzeko tresna nagusia kableatu egituratuko Trenza proiektua izenekoa izan zen. Proiektu horren bidez, sare kableatuaren azpiegitura zentralizatua eman zitzaien ikastetxeei: komunikazio-armairua, urrunetik kudeatu daitekeen elektronika, segmentazioa azpisareetan, proxy-suebaki zerbitzaria eta, zenbait kasutan, zerbitzari bereziak (aplikazioetarako, fitxategietarako, segurtasun kopietarako, etab.). Kableatu egituratuko proiektu hori zabaltzearen ondorioz, 2013ko irailaren 1erako ia guztiz osaturik gelditu zen instalazio-mota hori gomendagarria zen ikastetxeen katalogoa (100 ikasletik gorako ikastetxeak). Salbuespenak oso gutxi izan ziren, eta horretarako arrazoiak ere bereziak; esate baterako, zaharberritzeko lanak behar zituzten ikastetxeak edo beste egoitza berri batzuek ordezkatuko zituzten ikastetxeak izatea.

182. taula: Unibertsitatez kanpoko 244 ikastetxe publikoetako datu sareen profila. 2016-2017

Instalazio mota	Instalazio mota
Kableatu egituratuko Trenza proiektua komunikazio armairuarekin, elektronika kudeagarriarekin, sare segmentazioarekin eta suebakiarekin	184*
Trenza proiektuaren estandarrarekin bat ez datozen sare kableatuak	64*
(*) Kontuan izan behar da instalazioen eta ikastetxeen kopuruak ez dutela guztiz bat egiten, hainbat egoera direla eta ezinezkoa baita zenbaitetan baliokidetasun hori ezartzea: egoitza bakar batean kableatu egituratu komuna duten eskola publiko bat eta DBHI bat egotea, elkarrekin konektatuta ez dauden bi zentro dituzten eskolak egotea, bakoitza bere instalazioarekin, etab.	

Iturria: Hezkuntzako Sistemen, Sareen eta Euskarrien Atala.

Gainera, gero eta handiagoa da konektagarritasunaren eskaria, bai ikastetxeen bai irakasleen aldetik, eta horrek bultzatuta WiFi konexioa instalatu da ikastetxeetako kableatu egituratuko proiektuetan integraturik, base kontrolatzaileen bidez kudeatzen diren haririk gabeko sarbide puntu-multzoen bitartez. Azken urteotan instalazioak egiteaz gainera jadanik daudenak handitu eta hobetu egin dira; ia ehun ikastetxetan Wifi konexioa dute irakasleek eta ikasleek.

Jakin badakigu WiFi sistema ia guztiek faltan dutela erabilera didaktikorako gaitasuna (konektatutako pertsonen kopurua eta bandaren zabalera). Hori dela eta, WiFi sistema ez duten ikastetxeetan sistema horren ordez erabilera didaktikorako aldi bereko dentsitate-gaitasun nahikoa eta errendimendu egokia duen teknologia bat instalatzen joatea da asmoa.

WiFi sare berri horretara sartzeko autentifikatze pertsonala erabili beharko da, EDUCAren egiaztagiriekin. Horrela, modu pertsonalean identifikatuta sartu ahal izanen dira pertsona guztiak Nafarroako Gobernuak eskainitako internetera eta zerbitzu guztietara.

Sarearen gaineko jarduerak

Hezkuntzako Sistemen, Sareen eta Euskarrien Atalaren lanik handienetako bat ikastetxeek egindako eskaerei erantzutea da, ikastetxeen konektagarritasuna hobetzearekin eta sareak handitzearekin eta modernizatzearekin loturik. Eskaerak dira:

- ikastetxe sortu berrietan edo jadanik existitzen diren ikastetxeen egoitza berrietan kableatu egituratu integrala zerbitzuan jartzea (Trenza proiektua),
- sare-handitzeak, WIFI instalazioen handitzeak edo hobekuntzak barne,
- konektagarritasuna handitzea ikastetxeetan,
- sareko sarguneen aktibazioak,
- sareko sarguneen esleipen-aldaketak,
- sareko osagarri elektronikoen konponketak edo ordezkapenak,
- suebaki/proxyen instalazioak edo ordezkapenak,
- hainbat konponketa, etab.

4.9.3 Informatikako ekipamendua

Ikastetxeen ekipamendu informatikoari buruzko eskumena Hezkuntza Azpiegituren Zerbitzuaren mendeko Erosketa Bulegoarena da. Testuinguru horretan, datu batzuk emanen ditugu, dotazioak hainbat autonomia-erkidegotan eta Nafarroan zer egoeratan dauden ikusteko, eskura dauden azkeneko datu orokorrekin.

183. taula: Batez besteko ikasle kopurua irakaskuntza/ikaskuntza lanetara bideraturiko ordenagailu bakoitzeko, autonomia-erkidegoaren eta ikastetxearen titulartasunaren/motaren arabera. 2014-2015

	Guztira	Ikastetxe publikoak Guztira	Ikastetxe publikoak - Lehen Hezkuntzako ikastetxeak	Ikastetxe publikoak - Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide-Heziketako ikastetxeak	Ikastetxe pribatuak
GUZTIRA	3	2,8	3	2,6	3,9
Andaluzia	2,3	2,1	3,2	1,6	3,4
Aragoi	2,5	2,3	2,5	2,2	2,9
Asturias	2,4	2,1	2,2	2	3,5
Balear Uharteak	2	1,8	1,9	1,8	2,4
Ceuta	2,5	2,4	2,1	2,9	2,9
Errioxa	2,9	2,6	2,6	2,5	3,9
Euskadi	1,7	1,6	1,7	1,5	1,8
Extremadura	1,6	1,4	2,4	1	6,8
Galizia	2,5	2,3	2,5	2,1	3,4
Gaztela eta Leon	3,5	3	2,4	4	5
Gaztela-Mantxa	2,5	2,3	1,8	3	3,5
Kanariak	3,8	3,4	2,5	4,8	6,3
Kantabria	2,8	2,3	1,9	3	5
Katalunia	3,7	3,4	3,2	3,6	4,4
Madril	5,2	5,5	6,2	5	4,9
Melilla	2,9	2,9	2,2	3,9	3
Murtzia	5,6	5,2	5,9	4,7	7,2
Nafarroa	4,4	4,1	4,9	3,6	5
Valentziako E.	5	4,5	4,5	4,6	6,3

** Irakasleendako eta ikasleei irakasteko erabiltzen diren ordenagailuak hartu dira kontuan batez ere.*
Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko Estatistikako Zuzendariordetza Nagusia

184. taula: Batez besteko ordenagailu kopurua unitate/talde* bakoitzeko, autonomia-erkidegoaren eta ikastetxearen titulartasunaren/motaren arabera. 2014-2015

	Guztira	Ikastetxe publikoak Guztira	Ikastetxe publikoak - Lehen Hezkuntzako ikastetxeak	Ikastetxe publikoak - Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxeak	Ikastetxe pribatuak
GUZTIRA	6,4	6,9	5,8	8	5,3
Andaluzia	9,3	9,9	5,8	14,7	7
Aragoi	6,7	6,9	6	7,8	6,2
Asturias	7,7	8,4	7,5	9,4	5,7
Balear Uharteak	10,9	11,4	11,2	11,6	9,8
Ceuta	8	7,8	9,9	6,3	8,7
Errioxa	6	6,4	9,6	7,2	5,1
Euskadi	11,5	11,1	10,56	12,2	12
Extremadura	9,5	10,8	5,6	15,5	2,5
Galizia	7,2	7,7	6,5	8,8	5,8
Gaztela eta Leon	4,8	5,2	6,1	4,2	3,7
Gaztela-Mantxa	6,1	6,1	7,8	4,5	6
Kanariak	5,1	5,7	7,5	3,9	3

Kantabria	6,4	7,6	9,1	5,7	3,8
Katalunia	5,8	6,2	6,2	6,3	5
Madril	3,7	3,5	2,7	4,3	3,9
Melilla	7,4	7,3	0	5,2	8
Murtzia	3,3	3,7	3	4,4	2,3
Nafarroa	3,9	3,8	3,1	4,8	4,1
Valentziako E.	3,9	4,3	3,9	4,7	3,2

** Ikasleei irakasteko erabiltzen diren ordenagailuak hartu dira kontuan batez ere.*
Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko Estatistikako Zuzendariordetza Nagusia

147. grafikoa: Ordenagailu bakoitzeko ikasleen batez besteko kopurua* ikastetxe publikoetan, autonomia-erkidegoaren arabera. 2014-2015



** Irakasleendako eta ikasleei irakasteko erabiltzen diren ordenagailuak hartu dira kontuan batez ere.*
Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren datuekin

185. taula: Ordenagailu bakoitzeko batez besteko irakasleen kopurua, autonomia-erkidegoaren eta ikastetxearen titulartasunaren/motaren arabera. 2014-2015

	Guztira	Ikastetxe publikoak Guztira	Ikastetxe publikoak - Lehen Hezkuntzako ikastetxeak	Ikastetxe publikoak - Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxeak	Ikastetxe pribatuak
GUZTIRA	2	1,9	2,2	1,6	2,2
Andaluzia	1,9	1,9	2,4	1,5	2,2
Aragoi	1,6	1,5	1,7	1,3	1,9
Asturias	2,2	2,1	2,2	2	2,4
Balear Uharteak	3,2	3,1	4,1	2,4	3,5
Ceuta	1,2	1,1	0,9	1,3	2,2
Errioxa	1,4	1,3	1,3	1,4	1,8
Euskadi	1,9	1,9	2,6	1,5	1,8
Extremadura	1	1	1,4	0,7	1,8
Galizia	2,5	2,4	2,9	2,1	2,9
Gaztela eta Leon	2,1	2	2,1	1,9	2,2
Gaztela-Mantxa	0,9	0,8	0,9	0,7	2
Kanariak	2,1	2,1	2,1	2,1	2,2

Kantabria	2,3	2	2,5	1,7	3,2
Katalunia	2,3	2,3	3,1	1,7	2,4
Madril	2	2	2,2	1,9	1,9
Melilla	1,3	1,2	1,1	1,3	2,2
Murtzia	2,9	3,4	5,4	2,3	2
Nafarroa	2,5	2,7	4,1	1,9	2,2
Valentziako E.	2,7	2,7	2,6	2,7	2,6

** Irakasleen eginbeharretarako erabiltzen diren ordenagailuak hartu dira kontuan batez ere.*
Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko Estatistikako Zuzendariordetza Nagusia.

186. taula: Internet-konexioa* duten ikastetxeen ehunekoa, ikastetxearen titulartasunaren/motaren, autonomia erkidegoaren eta konexio motaren arabera. 2014-2015

	Internet-konexioa		RDSI		ADSL		TV - kablea		Beste konexio mota bat	
	Ikastetxe publikoak	Ikastetxe pribatuak	Ikastetxe publikoak	Ikastetxe pribatuak	Ikastetxe publikoak	Ikastetxe pribatuak	Ikastetxe publikoak	Ikastetxe pribatuak	Ikastetxe publikoak	Ikastetxe pribatuak
GUZTIRA	99,9	99,6	4,7	4	77,3	80,6	4,1	6,7	23	20,5
Andaluzia	99,9	99,7	4,8	1,7	84,2	88,8	1,8	2,8	9,3	6,8
Aragoi	99,5	100	4,7	4,3	95,3	84,5	4	10,3	11,4	13,8
Asturias	100	100	0,3	3,3	86,3	61,5	29,4	39,6	28,1	9,9
Balear Uharteak	99,7	100	8,6	10,6	97,3	86,7	1,7	6,2	4,5	17,7
Ceuta	100	100	0	0	90,9	100	0	0	9,1	0
Errioxa	100	100	4,8	0	85,7	89,3	8,3	10,7	9,5	3,6
Euskadi	100	100	0	0	11,2	89	0	0	98,2	22,4
Extremadura	100	100	11,7	6,6	73,3	89,5	4,4	7,9	25	13,2
Galizia	100	99,6	0	2	72,9	80,2	25,3	19,4	1,7	2,8
Gaztela eta Leon	100	100	4,7	6,5	96,4	89,8	2,4	9,3	5,6	5,6
Gaztela-Mantxa	99,9	100	6,1	5,2	95,3	94,1	0	0	10,6	8,9
Kanariak	100	100	0,9	4,8	85	77,4	0,9	2,7	13	21,9
Kantabria	100	100	8,7	0	96,5	88,2	1,2	16,2	1,7	4,4
Katalunia	100	99,8	0,6	0,6	27,7	54,6	0,7	1,6	86,2	65,1
Madril	100	100	17,3	9,4	94,1	84,2	4,2	7,3	7,4	16,1
Melilla	100	100	0	0	94,7	75	10,5	50	0	0
Murtzia	100	100	4,3	4,4	95,1	84,4	0,6	8,9	1,2	12,6
Nafarroa	100	100	16,5	9	83	83,6	4,8	3	8,3	16,4
Valentziako E.	99,7	97,7	1,7	3,4	95,7	85,1	1,3	7,3	9,1	13,8

**Ikastetxe batek konexio-mota bat baino gehiago izaten ahal du.*
*** Euskadin ADSLaren zutabean beste konexio asimetriko mota batzuk ere sartzen dira: TB-Kablea, Kable-modema.*
Iturria: Hezkuntzaren zifrak Espainian. 2012-2013 ikasturtea (2015eko edizioa)

187. taula: WIFI konexioa duten ikastetxeen ehunekoa, autonomia-erkidegoaren eta ikastetxearen titulartasunaren/motaren arabera. 2014-2015

	Guztira	Ikastetxe publikoak Guztira	Ikastetxe publikoak Lehen Hezkuntzako ikastetxeak	Ikastetxe publikoak Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxeak	Ikastetxe pribatuak
GUZTIRA	86,8	85,7	84,4	89	90,1
Andaluzia	98	98,2	97,8	99,2	97,2
Aragoi*	89,6	89,1	86	97,3	91,4
Asturias	99,5	99,7	99,6	100	98,9
Balear Uharteak	90,5	90,3	87,7	97,4	91
Ceuta	82,1	90,9	87,5	100	50
Errioxa	91,1	91,7	91,7	91,7	89,3
Euskadi	98	97,6	98,2	96,3	98,9
Extremadura	72,2	72,6	68	85,8	69,7
Galizia	98,5	100	100	100	92,8
Gaztela eta Leon	86,2	86,2	85,3	89	86
Gaztela-Mantxa	88,3	88,1	86,3	93,4	89,6
Kanariak	58,1	53,1	54,7	48,3	85,6
Kantabria	79,7	77,4	75,2	84,6	86,4
Katalunia	94,5	95,2	95,7	94,4	93,3
Madril	78,2	75,2	69,9	87,5	83,3
Melilla	78,3	73,7	66,7	85,7	100
Murtzia	85,3	84,5	87,9	73,3	88,1
Nafarroa	54,2	50,4	44,7	66,7	67,2
Valentziako E.	77,2	71,5	69,9	74,7	90,6

** Aragoin 2014-2015 ikasturteko datu batzuk 2012-2013 ikasturteko datuekin estimatu dira.*
Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko Estatistikako Zuzendariordetza Nagusia

4.9.4 IKTak curriculumean txertatzea

Teknologiak bezainbesteko garrantzia dauka hura erabiltzeko gaitasunak, eta horregatik Hezkuntzako Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzua irakasleentzako prestakuntza-plan bat lantzen ari da, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan IKTak erabiltzeari buruzkoa. Horri esker, asmoa da irakasleak Nafarroako hezkuntzako aldaketa digitala ekarriko duen eragile bultzatzailea izatea.

Gaitasun digitala da edozein gaztek, bizitza helduan arrakastaz jarduteko eta bizitzan zehar etengabe ikasi ahal izateko, derrigorrezko hezkuntza amaitzerakoan menderatu behar duen funtsezko gaitasunetako bat, etengabeko ikaskuntzari buruz Europako Parlamentuak eman dituen jarraibideen arabera (2006/962/EE, Europako Parlamentuarena eta Batzordearena, 2006ko abenduaren 18koa, etengabeko ikaskuntzari buruzkoa, 2006ko abenduaren 30eko L 394 Aldizkari Ofizialean argitaratua).

Gaitasun digitalari esker txerta ditzakegu gure bizitzan hezkuntza-teknologiak, hots, ikaskuntzaren pertsonalizazioaren oinarrietako bat. Hari esker, metodologia aktiboak gara daitezke: Proiektukako ikaskuntza, Flipped classroom; horien bidez, ikaskuntza esanguratsuagoak lor daitezke. Hezkuntza-teknologiak aukera ematen du prestakuntzako ebaluazioa modu naturalean egiteko, laguntza ematen ahal zaio ikasleari ikaskuntza-prozesu guztian, interakzioak hobetuz eta zabalduz, eta hori guztia helburu inklusibo, integratzaile eta, askotan, konpentsatzaile batekin egiten da.

Lan-ildo nagusietako batek hezkuntzako prozesuetan eta ikasgeletako egunerokotasunean IKTak erabiltzearekin du zerikusia; horren bidez, jarraian deskribatzen diren ekimenak eta

jarduerak bultzatzen dira.

Ikastetxe publikoetara bideraturiko proiektuak bultzatu dira, eta haien ezaugarri nagusia izan da IKTen erabileran hezkuntzako ikerketa egitea eta IKT baliabideak berekin dituzten hezkuntza-materialak sortzea.

Alderdi hauek nabarmendu ditzakegu:

- Proiektu hauen garapenean oso garrantzitsua da ILZetako hezkuntzako teknologietako aholkulariek egindako ikuskapena eta, hala behar denean, emandako laguntza eta prestakuntza, Hezkuntza Teknologiaren Integrazio eta Ustiapen Atalak ezarritako irizpideen arabera emandakoa.
- Proiektuak garatu dira zenbait ikastetxetan, esperientzia pilotu moduan, eduki digitalen eta ekipamenduaren alorretan, ikasgela digitala hobeto definitzeko. Ikastetxeetan egindako esperientzia horiek orain arte ezagutzen ziren teknologia berrien proiektuak ordezkatu dituzte eta hedapen azkarra duten arlo tematikoen gaineko ezagutza handitzeko eta ezagutza hori modu eraginkorragoan trukatzeko beharrari erantzuten diote.

- Ikasgelan gailu mugikorrak erabiltzeko proiektu batean parte hartzen ari gara, INTEFekin elkarlanean eta Samsungen finantzaketarekin. Gaur egun, bi ikastetxe ari dira proiektu horretan lanean. Era berean, INTEFek antolatutako irakasleen gaitasun digitalaren inguruko txosten bat lantzen ari gara beste autonomia-erkidego batzuekin batera. Bertan, gaitasun hauek deskriptoreen esparru bat egin da, bai eta portfolio tresna bat ere (gaur egun, probatzeko fasean).

- 2017ko urtarrilean, Europa mailako CRISS proiektua martxan jarri zen. Horizon 2020 proiektuen esparruan kokatzen da, eta Hezkuntza Departamentua da bazkideetako bat. Proiektu honetan, ikasleen gaitasun digitalen ziurtagiri bat egitea da xedea. 2017-2018 ikasturtean barneko proba batzuk eginen dira, 2018-2019 ikasturtean abiarazi nahi den esperientzia pilotuaren aurretik.

- 2017-2018 ikasturtearen hasieran proiektu berri bat abiarazi da, Integratic proiektuaren jarraipen gisara, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak monitore interaktiboz hornitzeko. Proiektu horretan nabarmendu eginen da ikaskuntzarako teknologiak txertatu eta integratzeko beharra, bai eta metodologiak berritzekoa ere, ikasleen beren gaitasun digitalak garatu ditzaten. Ikastetxe horietako batzuetan, 2018ko lehen hiruhilekoan, 1-1 ereduaren esperientzia pilotua abiaraziko da (ikasle bat, gailu bat). Oraindik ere definizio-fasean dago.

Aldaketa hori gauzatu ahal izateko, irakasleen berek esperimentatu behar dute metodologia aktiboekin beren prestakuntza- eta eguneratze-prozesuetan, eta ikusi behar dute nola izan daitezkeen elkarren osagarri hezkuntzako teknologiak. 2018ko lehen hiruhilekoan Etorkizuneko Ikasgela bat egonen da erabilgarri, European Schoolnet eta INTEFen sustatu duten moduan.

4.10 Lanbide Heziketaren Plan estrategikoa

Europa 2020 Estrategiaren esparruan, hezkuntza- eta prestakuntza-politikak ardatz bat dira Europar Batasuneko hazkundea eta enplegua sustatzeko. Testuinguru orokor horretan garatzen da halaber Hezkuntza eta Prestakuntzaren 2020rako Esparru Estrategikoa (ET 2020). Horrek, Lanbide Heziketaren arloan, lehentasun espezifiko batzuk ezartzen ditu:

- Laneko ikaskuntzaren forma oro sustatzea.
- Lanbide Heziketarako sarbidea hobetzea guztiontzat, sartzeko aukera malguago eta errazagoak ezarrik, batik bat zerbitzu integratuak eskainiz eta orientazioko eta ikaskuntza formal zein informalaren egiaztapeneko zerbitzu eraginkorren bidez.

- Funtsezko gaitasunak indartzea Lanbide Heziketako ikasketa-planetan eta gaitasun horiek eskuratu edo garatzeko aukera eraginkorragoak eskaintzea, hasierako lanbide-prestakuntzarekin eta enplegurako lanbide-prestakuntzarekin.
- Hasierako garapen profesionaleko aukerak txertatzea Lanbide Heziketako irakasleentzat, prestatzaileentzat eta tutoreentzat, hala hezkuntzako testuinguruan nola lantokian.

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko 5/2002 Lege Organikoak bultzada handia eman zion Lanbide Heziketari, Kualifikazio Profesionalen Sistema Nazionala sortuta hura modernizatu eta hobetzeko helburuarekin. Sistema horrek, besteak beste, helburu bezala du bizitza osoan zehar egindako prestakuntza sustatzea, pertsonei gaikuntza emanez espektatiba eta behar pertsonalei zein lan-merkatuko eskakizunei erantzunen dien jardun profesional batean aritzeko. Horretarako, helburu horiek lortzeko aukera emanen duten tresna eta ekintza batzuk diseinatu dira. Asmo hori hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketara zabaldu zen Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren (maiatzaren 3ko 2/2006) bidez, Hezkuntzaren kalitatea Hobetzeko Lege Organikoak (abenduaren 9ko 8/2013) emandako idazkeraren arabera.

Alabaina, Lanbide Heziketa indartzeko apustu irmo hori gorabehera, sistema honen bidez prestatzen diren pertsonen kopurua oraindik ere oso baxua da, gure inguruko Europako herrialdeetako datuei erreparatuta.

Horrela, estatistikek adierazten duten ikasleen % 34 dagoela Lanbide Heziketan matrikulatuta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondorengo lehen urtean, Europako batezbestekoa % 48koa den bitartean, 2014ko azken datu ofizialen arabera. 2020ra arte Europan kualifikazio hauek izanen duten aurreikuspenen arabera, ordea, agerikoa da beharrezkoa izanen dela erdi eta goi mailako prestakuntza duten pertsonen kopurua handitzea, lan-merkatuaren eskakizunei erantzun ahal izateko.

Eta hori gure lan-ingurunean islatzen da: 2015ean, Lanbide Heziketa egindakoen enplegu-tasa % 73koa zen, izaera orokorreko goi mailako Bigarren Hezkuntzako tituludun berrien artean % 61,2koa baino ez zelarik tasa hori. Errealitate horren aurrean, eta Lanbide Heziketa egitea erabakitzen duten ikasleak gero eta gehiago diren arren, esan behar da ikasketa mota horiek gizartean duten onarpena prestakuntza orokorrarena baino txarragoa dela.

Nafarroako Lanbide Heziketako Plan Estrategikoa Lanbide Heziketaren Zerbitzuak landu eta koordinatu du 2016-2017 ikasturtean, eta haren xedea da gure autonomia-erkidegoko egoera orokorra hobetzea, horixe bera baita Nafarroako Espezializazio Adimendunaren Estrategian esplizituki landu beharreko erronketako bat.

Garapen ekonomikoaren eta ongizate eta kohesio sozialaren oinarria da, hein handi batean, herritarrek beharrezko prestakuntza eta kualifikazioa izatea beren garapen pertsonal eta profesionaleko espektatibak bete ahal izateko eta ekoizpen- eta zerbitzu-sektoreen beharrei erantzuna emateko.

Horretarako, garapen ekonomikoaren ikuspegitik, Nafarroan Espezializazio Adimendunaren Estrategiaren (S3) euskarri izan behar du Lanbide Heziketak, ezagutzan oinarritutako ekonomia bat eraikitzeko helburuari dagokionez. Horren helburu izanen da, besteak beste, erantzutea S3an identifikatutako puntu ahuletako bati, erdi eta goi mailako Lanbide Heziketako giza kapitalaren eskasiari, alegia.

Era berean, Nafarroako Lanbide Heziketaren modernizaziorako bidean prestakuntza duala sustatuko da, eta Lanbide Heziketako ikasketetan matrikulatuta dauden ikasleen tasa handitzen saiatuko, guztia enplegagarritasuna eta kohesio soziala hobetzeko helburuarekin.

Kalitatezko Lanbide Heziketa bermatzeari Nafarroako Gobernuak ematen dion garrantzia agerikoa da beste plan estrategikoen garapena ikusita (Nafarroako 2020rako Plan Industriala; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana, Nazioarteko Plana, Ekintzailetza Plana edo Gazteria Plana).

Azaldu dugun Lanbide Heziketari buruzko ikuspegi horrek indartu egiten du ekoizpen- eta zerbitzu-sektoreen beharrei modu egokian aurre egiteko konfiantza, ahaztu gabe Lanbide

Heziketaren gizartearen eta hezkuntzaren arloko osagaia eta egoera ahulean edo gizartetik baztertuta dauden kolektiboentzako arreta.

Lanbide Heziketako Plan Estrategikoak defendatzen du Lanbide Heziketak aukera hobeak sortu behar dituela, pertsonak lan-munduan errazago sartzeko eta bertan irauteko. Gainera, pertsona horiei balio handiagoa eman behar die laneko egonkortasuna bermatzeko eta, beharbada, esparru profesional zein pertsonalean aurrera egiteko. Horrela, zalantzarik gabe, langileen gaitasunak hobetzeak ekarriko du langile horiek lan egiten duten enpresen lehiakortasuna hobetzea eta, horren ondorioz, Nafarroako ekonomiarena. Eta horrek guztiak, azkenik, kohesio soziala hobetzen lagunduko du.

Horretarako, proposatuko plana hiru ardatz estrategikoren inguruan egituratuko da. Horien bidez, datorren ikasturteetako jarduketak zuzendu nahi dira:

- 1. ardatza: Lanbide Heziketak laguntza ematea *Navarra S3* espezializazio adimentsuaren estrategiari. Horrek esan nahi du harreman bat egon behar duela *Navarra S3* espezializazio adimentsuaren estrategian lehenetsitako ekoizpen-arloen beharren eta prestakuntzako eskaintzaren artean, eman beharreko moduluetatik metodologiaraino.
- 2. ardatza: Gure gizartearen kohesioa eta jasangarritasuna sendotzeari egindako ekarpena. Lagundu nahi dugun gure gizarteko lurralde-kohesioari eta pertsonen artekoari erreferentzia egiten dioten helburuak eta jarduteko neurriak biltzen dira hemen.
- 3. ardatza: Lanbide Heziketa indartu eta etengabe eguneratzea. Hainbat helburu eta jarduteko neurri batzuk proposatzen ditu, Nafarroako hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketa eman nahi den prestakuntzaren ondoriozko beharrei egokitzeko.

2016-2017 ikasturtean ekin zion Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketaren Zerbitzuak egiteko honi, eta jarraipena izan beharko luke ondorengo urteetan, duen garrantzi estrategiko ukaezinagatik. Horretarako, beharrezkoa izanen da Lanbide Heziketaren Sistema egokitu eta ezartzea.

188. taula: Lanbide Heziketako ikastetxe bateratuetako ikasleak. 2016-2017

Titulartasuna	Ikastetxe Bateratua	Ikasleak
Publikoa	"ETI" IBP	1.026
	Administrazioan, Merkataritzan eta Informatikan IB "María Ana Sanz"	826
	"Nafarroako Lanbide Eskola Tekniko Sanitarioa" IB	811
	"Donapea" IBP	697
	"Burlada FP" IB	591
	"Virgen del Camino" IBP	579
	Lizarrako Politeknikoa IB	536
	"Escuela de Educadores – Hezitzaile Eskola" IB	502
	"Tafalla" IBP	446
	"San Juan – Donibane" IB	364
	"Nekazaritza eta Basogintzako" IB	321
	Energia Berriztagarrien Goi mailako IB	188
	"FP Sakana LH" IBP	156
	"Elizondo Lanbide Eskola" IBP	106
	Ikasleak guztira Ikastetxe Bateratu Publikoetan	7.149
Pribatua	"Politécnico Salesianos" IB Pribatua	591
	"Cuatrovientos" IB Pribatua	484
	Ikasleak guztira Ikastetxe Bateratu Pribatuetan	1.075
Ikasleak guztira Ikastetxe Bateratuetan		8.224

Zifrek heziketa-zikloetan eta goi mailako zikloetarako sarbiderako ikastaroetan ikastaroa hasten duen ikasleei egiten diete erreferentzia, modalitate «presentzialean» eta «urruneko online»modalitatean eta «proba libreen» modalitatean.
Iturria: Lanbide Heziketaren Plangintza, Antolamendu eta Garapenerako Atala

Eskainitako titulazioak eta heziketa-zikloak eta horiek azken urteetan izan duten bilakaera ondoko taulan jasota dago.

189. taula: Eskainitako teknikari eta goi mailako teknikari tituluak. 2008-2017

Maila	Erdi-maila (Teknikari titulua)	Goi-maila (Goi-mailako teknikari titulua)	Guztira
2008/2009	31	46	77
2009/2010	32	46	78
2010/2011	34	48	82
2011/2012	32	47	79
2012/2013	32	48	80
2013/2014	34	51	85
2014/2015	37	51	88
2015/2016	38	52	90
2016/2017	42	51	93

Zifrek erreferentzia egiten diete Lanbide Heziketaren Zerbitzuaren eskumeneko teknikari eta goi mailako teknikarien tituluei: Lanbide Heziketako irakaskuntzak, Arte Plastiko eta Diseinuko irakaskuntzak eta Kiroletako irakaskuntzak.
Iturria: Lanbide Heziketaren Plangintza, Antolamendu eta Garapenerako Atala

4.11 Landa-eskola

2016-2017 ikasturtean, Nafarroako Eskola Kontseiluak berariaz landu du Nafarroako landa-eskolaren gaia. Parte hartu duten pertsona eta gizarte-eragileek egindako lanari esker, IDEA aldizkariaren ale bat eta papereko argitalpen bat egin dira. Jarraian jaso ditugu publikazio horietako edukietako batzuk.

Landatasuna terminoak komunitate batek eremu jakin batekin duen lotura definitzen du. Leku zehatz batean bizitzeaz haratago doan kontzeptua da, eta eremu horrekin identifikatzeko modu bat ere bada. Landa-eskolak ekarpen garrantzitsua egiten du presente dagoen udalerrietan zerbitzu-espazio bat eta komunitate bat sortzeko.

Landa-eskolak familien eta ikasleen kolektibo baten hezkuntza-eskakizunei erantzuna ematen die. Kolektibo hori txikia izaten da, oro har, eta horren ondorioz ezin dute maila guztiak dituen ikastetxe oso bat izan. Maila anitzeko eskolak erantzun bat ematen dio egoera horri, alde batetik adin desberdineko ikasleak ikasgela berean bilduz eta, bestetik, ikasle horiei aldi berean irakasten dien irakasle bakar bat edukiz.

Nafarroako eremu guztietan daude landa-eskolak. Horietan, ikasleak taldeetan banatzen dira, une bakoitzean duten adinaren arabera. Osatu gabeko landa-eskola esaten zaio Haur eta Lehen Hezkuntzako maila guztiak ez dituenari. Bertan, ikasleak une bakoitzean duten adinaren arabera banatzen dira taldeetan. Landa-eskola osatuak, aldiz, maila anitzeko ikasgelak izaten ditu, ikasle kopurua txikia baita. Haur eta Lehen Hezkuntzako maila guztiak eskaintzen ditu, baina ez du ikasgela bat maila bakoitzeko.

Landatasunaren eta biztanle-kolektibo horien beharrei erantzuten dien landa-eskolaren berezitasunen ondorioz, beharrezkoa da beste metodologia didaktiko bat erabiltzea, hirietan ohikoagoa den eskola mailakatuaren ordez.

Landatasunaren berezitasun horrek koordinazio- eta lankidetza-proiektuak sustatu ditu Nafarroako eremuen artean. Horiei esker, kasu batzuetan, ikastetxe arteko irakasle-taldeak sortu dira, heziketa-proiektu bera aurrera eramateko.

Nolanahi ere den, hirikoa ez den testuinguru batean kokatuta egotea bada landa-eskolaren definizioa, askotariko landa-eskolak aurkituko ditugu maila anitzekoak edo mailakatuak izateko aukeraren barruan. Eskolatzeari buruzko ikuspegi orokorrak eta eskolek udalerrien arabera duten banaketak argi eta garbi islatzen dute zein sakabanatuta dagoen. Horrela, Nafarroako 114 udalerritan eskola bakarra dago (beti da publikoa), eta kontrako kasua dugu Iruñean, bertan 44 ikastetxe baitaude, tipologia guztietakoak.

190. taula: Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuen kopurua Nafarroako udalerrietan. 2016

Ikastetxe kop.	Herriak
1	114 herri
2	Abartzuza, Zizur Txikia, Elizondo, Etxarri Aranatz, Fontellas, Lesaka, Irunberri, Mutiloa, Zangoza, Sarriguren, Viana
3	Altsasu, Bera, Berriozar, Lizarra, Lodosa, Orkoien, Tafalla, Zizur Nagusia
4	Barañain, Atarrabia
6	Burlata
7	Tutera
44	Iruña

Iturria: 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Atala

- ***Ezaugarriak***

Landa-eskolak ihes egiten die definizio zehatz eta itxiei; horren ordez, halako eskola guztiek hein handiagoan nahiz txikiagoan dituzten bereizgarrien zerrenda batetik abiatu gaitezke hura ezaugarritzeko. Horiek kontuan hartuta, esan liteke landa-eskola hezkuntza-modalitate bat dela, eta berau ezagutzeko aukera ematen duten bereizgarri batzuk dituela. Horrela:

- Orokorrean, herri txikien premia bereziei erantzuten dien eskola-mota bat da.
- Herri horien iragan ekonomikoa, oro har, nekazaritzako, abeltzaintzako, basogintzako eta horien ondoriozko jarduerekin lotuta dago. Gaur egun, aldiz, lausoagoak dira ezaugarri ekonomikoak; izan ere, zerbitzuekin eta turismoarekin lotutako jarduerak hazi dira.
- Helduak eta aurreko belaunaldiak ere landa-eskolan izan dira eskolatuak. Horregatik, gizarte-harreman zabal-biziak izaten ditu oinarri.
- Hezkuntza-komunitateko eta inguruneko kideek eskola laguntzen eta sustatzen dute.
- Landa-eskolak harreman estua izan ohi du udalarekin, azken horrek eskolarekin lankidetzan aritzeko joera izaten baitu, jarduerak egitea erraztuz, instalazioak utziz, laguntza ekonomikoa emanez, eta abar.
- Komunitateak, aldi berean, eskolaren instalazio eta zerbitzuak erabiltzen ditu. Landa-eskola herriari bizia ematen dion instituzio bat da.
- Herritarren artean zabaldua egoten da herria eskolarik gabe ulertu ezin delako ideia.

- Landa eskolako irakaslanak berariazko prestakuntza izatea eskatzen die profesionalei, haren ezaugarri bereziak direla eta.
- Landa-eskolako irakasleek ikasleen egoera, maila eta adin desberdinetara egokituz gauzatu behar dute beren irakaslana eta hezkuntza-lana.
- Landa-eskolak irakaskuntza jarduera eta ikasleen ikaskuntza ingurune hurbilarekin lotzera jotzen du.
- Moldakortasun hori tartean, erosoa izaten da esperimentazio hezigarria eta pedagogia aktiboen garapena.
- Landa-eskolaren inguruabarrak mesedegarriak dira ikasleen arteko lankidetza-jarrera eta ikaskuntza kooperatiboa lantzeko. Hainbatetan, gainera, litekeena da maila anitzetan taldekatuta egotea eta hori lagungarri suertatzen da.
- Ikasleen kopurua urria bada, zenbaitetan, baliteke gertuko beste ikastetxe batzuekin batera jarduerak egin beharra.
- Landa-eskola egokia da ikasle eta familia guztiek eta beste herritar batzuek parte hartzeko jarduerak antolatzeko.
- Zerbitzu osagarriak antolatzeko zailak dira, eta funtzionatzeko baliabide eta babes egokiak behar dituzte.

Kontuan izanik, lehen aipatu bezala, zaila dela landa-eskolaren kontzeptua definitzea, jarraian jaso ditugu landa-eskolatzat jo daitezkeen Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak.

191. taula: Landa-eskola* eremu geografikoaren arabera.

Ikastetxea	Herria	Eredua	Ikasleak 2015/16	Ikasleak 2016/17	Unitate kop.
Abartzuza	Abartzuzako HLHIP	A,G,D	33	32	4
Oibar	G. V. Casamayor HLHIP	G	41	35	3
Almandoz (Baztan)	Almandoz HLHIP	D	9	5	1
Allo	La Cruz HLHIP	A,G	51	58	5
Altsasu	Zelandi HLHIP	D			
Amaiur (Baztan)	Amaiur HLHIP	D	31	30	3
Antzin	San Fausto HLHIP	A,G	22	21	2
Añorbe	Añorbeko HLHIP	G - PAI	76	58	5
Arantza	Arantzako HLHIP	D (In + Fr)	62	73	6
Arbizu	Arbizuko HLHIP	D	30	37	3
Areso	Nazabal HLHIP	D	26	23	2
Arizkun (Baztan)	Arizkungo HLHIP	D	49	38	3
Arraioz (Baztan)	Arraiozko HLHIP	D	20	21	2
Arroitz	Arroitzeko HLHIP	A,G	59	62	6
Auritz	Auritzeko HLHIP	D	14	17	2
Aurizberri (Erro)	Auzperriko HLHIP	D	22	19	2
Azpilkueta (Baztan)	Azpilkueta HLHIP	D	7	7	1
Beintza-Labaien	Beintza-Labaien HLHIP	D	9	7	1
Beire	Beireko HLHIP	G - PAI	13	11	1
Bera	Ricardo Baroja HLHIP	D	205	200	13
Berbinzana	Río Arga HLHIP	A	32	33	3

Betelu	Beteluko HLHIP	D	103	120	10
Cárcar	Cárcarrreko HLHIP	A,G-PAI	62	71	5
Kaseda	F. J. Saenz de Oiza HLHIP	G	45	44	4
Deikaztelu	Virgen de Nievas HLHIP	A,G	35	35	3
Doneztebe	S. Miguel HLHIP	D			
Elizondo (Baztan)	S. F. Javier HLHIP	A			17
Erratzu (Baztan)	Erratzu HLHIP	D	38	35	3
Erro	S. Esteban HLHIP	D	23	19	2
Etxalar	Landagain HLHIP	D	77	79	8
Etxarri Aranatz	S. Donato HLHIP	D			
Figarol (Carcastillo)	Nª Sra. de Ujué HLHIP	G	8	8	1
Fontellas	Fontellas HLHIP	A,G,PAI	35	31	3
Garralda	Nª Sra. de Orreaga HLHIP	A	58	57	5
Gartzain (Baztan)	Gartzaingo HLHIP	D	17	13	1
Goizueta	Goizuetako HLHIP	D	73	70	6
Igantzi	Igantziko HLHIP	D	52	57	5
Irurita (Baztan)	Iruritako HLHIP	D	75	68	7
Ituren	Pulunpa HLHIP	D	66	67	6
Iturmendi	Arrano B. HLHIP	D	20	16	2
Jauntsarats (Basaburua)	Oihanzabal HLHIP	D	85	78	7
Lakuntza	L. Fuentes HLHIP	D	107	114	9
Legasa (Bertizarana)	Legasa HLHIP	D	27	31	3
Leitza	Erleta HLHIP	D	278	297	16
Lekaroz	Lekaroz HLHIP				1
Lesaka	Irain HLHIP	D	135	133	10
Lezaun	Lezaungo HLHIP	A,D	11	10	2
Irunberri	S. Juan HLHIP	A - PAI	45	51	5
Luzaide	Luzaideko HLHIP	D	12	14	1
Melida	Sta. Ana HLHIP	A	47	51	4
Mendigorría	J. M. Espinal Olcoz HLHIP	A	74	82	7
Miranda de Arga	S. Benito HLHIP	G	57	57	5
Monreal	Monrealgo HLHIP	A, G	43	44	4
Monteagudo	Monteagudoko HLHIP	A,G, PAI	61	62	6
Murillo el Fruto	R. Lanas HLHIP	G - PAI	32	30	3
Narbarte (Bertizarana)	Arotzenea HLHIP	D	24	24	2
Obanos	Obanosko HLHIP	G - PAI	54	51	4
Otsagabia	Otsagabiako HLHIP	A,D	66	58	6
Olazti	D. Bados HLHIP	A	114	115	10
Oronoz (Baztan)	Oronozko HLHIP	D	39	33	3
Oteiza	San Salvador HLHIP	A,G	58	59	5
Pitillas	Pitillasko HLHIP	A	22	19	2
Arrada (Murillo El Cuende)	Rada (Ximenez de) HLHIP	G - PAI	60	58	5
Erronkari	J. Gayarre HLHIP	A,G,D	66	61	6
Zare	S. Nicolás HLHIP	A	6	6	1

Saldias	Saldiasko HLHIP	D	8	8	1
Santakara	Nª S. de la Asunción HLHIP	G	48	46	5
Sartaguda	Sartaguda HLHIP	A,G, PAI	74	83	8
Sesma	Sesmako HLHIP	A,G	75	80	8
Sunbilla	Sunbillako HLHIP	D	93	87	8
Uharte Arakil	S. Miguel HLHIP	A	74	82	8
Uxue	Uxueko HLHIP	A	7	6	1
Urdiain	Urdiaingo HLHIP	D	52	51	5
Urroz-Hiria	Urrozko HLHIP	A	36	43	3
Villatuerta	San Veremundo HLHIP	A,G	93	96	8
Ziga (Baztan)	Ziga HLHIP	D	17	16	2
Zubiri (Esteribar)	Xabier Zubiri HLHIP	A			9
Zudairi	Zudairiko HLHIP	A,G,D	74	70	6
Zugarramurdi	Zugarramurdi/Urdazubiko HLHIP	D	57	54	6

** Taula honetako eskola batzuk (Altsasu, Doneztebe, Elizondo, etab.) ezin dira landa-eskola bezala sailkatu, baina taulan jaso ditugu eremuko landa-eskolekin duten harreman pedagogikoarengatik.*
Iturria: 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Atala

Aipatu dugunez, aniztasuna da landa-eskolen ezaugarrietako bat. Hori hala dela ikus daiteke taulan adierazitako hizkuntza-ereduei erreparatuz.

192. taula: Hizkuntza-ereduen araberako laburpena. 2016-2017

Hizkuntza ereduak	2013/2014		2014/2015		2015/2016		2016/2017	
	Ikasleak	Unitate kop.	Ikasleak	Unitate kop.	Ikasleak	Unitate kop.	Ikasleak	Unitate kop.
D eredua	1340	121	1374	126	1431	134	1400	130
PAI Programa	57	5	64	5	19	2	25	2
G/A eredua	1409	132	701	69	1087	106	1025	92
D eta G/A eredua	171	15	171	16	215	21	200	19
	59	7	51	6				
G/A eta PAI eredua	49	5	208	18	354	35	437	41
	-	-	520	46				
Guztira	3085	285	3089	286	3106	298	3087	284

Iturria: 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Atala

Landa-eskoletako taldekatzeak aldakorrak dira, eta ikasleen eta horiek duten adinaren araberakoak izaten dira. Errealitate hori jaso dugu taula honetan baina kontuan izan behar da aipatutako ikasturteari dagozkiola datuak, noski, eta hurrengo urteetan aldaketak izanen direla.

193. taula: Nafarroako landa-eskoletako taldekatzeak. 2016-2017

Zonaldea	Eskola osoak	Eskola osatugabeak
1. ZONALDEA BAZTAN	Amaiur (1.a, 2.a eta 3.a / eta 4.a, 5.a, 6.a) Oronoz-Mugairi (1.a eta 2.a / 3.a eta 4.a, 3.a eta 4.a / 5.a eta 6.a) Arizkun (1.a, 2.a eta 3.a / 4.a eta 5.a / eta 6.a bakarrik) Irurita (1.a bakarrik, 2.a bakarrik, 3.a bakarrik, 4.a eta 5.a batera eta 6.a bakarrik) Urdazubi/Zugarramurdi (1.a eta 2.a, 3.a eta 4.a, 5.a eta 6.a batera) Arraioz (1.a bakarrik; 2.a, 3.a, 4.a, 5.a eta 6.a batera) Ziga (1.a eta 2.a, 3.a, 4.a, 5.a eta 6.a batera)	Azpilkueta (5.a bakarrik) Erratzu (1.a eta 2.a batera eta 5.a eta 6.a batera) Gartzain (1º,2º,3º,4º y 6º juntos, 5º no hay) Almandotz (1.a eta 2.a ez dago, eta 3.a, 4.a eta 5.a batera, 6.a ez dago)
2. ZONALDEA MALERREKA	Narbarte (1.a bakarrik, 2.a, 3.a, 4.a, 5.a eta 6.a batera) Ituren (1.a bakarrik, 2.a eta 3.a batera, 4.a, 5.a eta 6.a batera) Sunbilla (1.a, 2.a, 3.a eta 4.a bakarrik; 5.a eta 6.a batera)	Beintza (1.a, 3.a eta 4.a ez dago, 5.a eta 6.a batera) Saldias (1.a, 3.a eta 6.a ez dago, 2.a, 4.a eta 5.a batera) Legasa (1.a bakarrik,2.a, 3.a, 4.a eta 5.a batera eta 6. ez dago) ,
3. ZONALDEA	Areso (1.a eta 2.a batera; 3.a, 4.a eta 5.a batera eta 6.a bakarrik) Goizueta (1.a bakarrik, 2.a eta 3.a batera; 4.a eta 5.a batera eta 6.a bakarrik) Betelu (maila bakoitza gela batean) Jauntsaras (1.a bakarrik, 2.a eta 3.a batera eta 4.a, 5.a eta 6.a bakarrik) Leitza (talde guztiak)	
4. ZONALDEA BORTZIRIAK	Arantza (1.a eta 2.a batera, 3.a eta 4.a batera, 5.a eta 6.a batera) Igantzi (1.a bakarrik, 2.a eta 3.a batera; 4.a eta 5.a batera eta 6.a bakarrik) Leitza (talde guztiak) Etxalar (1.a bakarrik, 2.a eta 3.a batera; 4.a, 5.a eta 6.a bakarrik) Bera (maila bakoitzean gela bat)	

5. ZONALDEA ERRONKARI/ RONCAL	Erronkari (1.a eta 2.a batera, 3.a eta 4.a batera, 5.a eta 6.a batera)	
6. ZONALDEA ZARAITZU/ SALAZAR	Otsagabia (1.a eta 2.a batera, 3.a eta 4.a batera, 5.a eta 6.a batera)	
7. ZONALDEA AEZKOA/ERRO ZUBIRI	Garralda (1.a bakarrik, 2.a eta 3.a batera eta 5.a eta 6.a batera) Erro (1.a eta 2.a batera, 3.a, 4.a, 5.a eta 6.a batera) Urroz (1.a bakarrik, 2.a, 3.a eta 4.a batera; 5.a eta 6.a batera) Zubiri (maila bakoitzean gela bat)	Auritz (1.a, 2.a, 3.a eta 4.a batera, 5.a eta 6.a ez dago) Luzaide (4.a ez dago; 1.a, 2.a, 3.a, 5.a eta 6.a batera)
8. ZONALDEA SAKANA/ BARRANCA	Etxarri (maila bakoitzean gela bat) Lakuntza (maila bakoitzean gela bat) Olazti (maila bakoitza gela batean) Urdiain (1.a eta 2.a batera, 3.a eta 4.a batera; 5.a bakarrik eta 6.a bakarrik) Uharte- Arakil (1.a bakarrik, 2.a eta 3.a batera, 4.a, 5.a eta 6.a batera)	Arbizu (1.a, 2.a eta 3.a batera, beste talderik ez dago) Iturmendi (1.a ez dago, 2.a bakarrik, 3.a, 4.a, 5.a eta 6.a batera)
9. ZONALDEA ZANGOTZA/ SANGÜESA	Kaseda (1.a bakarrik, 2.a, 3.a eta 4.a batera; 5.a eta 6.a batera) Irunberri (1.a bakarrik, 2.a eta 3.a batera; 4.a eta 5.a batera; 6.a bakarrik)	Zare (1.a, 2.a 3.a eta 4.a batera, 5.a eta 6.a batera) Aibar (1.a bakarrik, 2.a eta 3.a batera, 4.a ez dago, 5.a eta 6.a batera)
10. ZONALDEA	Añorbe (1.a bakarrik, 2.a eta 3.a batera, 4.a eta 5.a batera eta 6.a bakarrik) Barasoain (maila bakoitzean gela bat) Berbinzana (1.a eta 2.a batera eta 3.a, 4.a, 5.a eta 6.a batera) Mendigorria (1.a bakarrik, 2.a eta 3.a batera; 4.a, 5.a eta 6.a bakarrik) Miranda de Arga (1.a eta 2.a batera; 3.a eta 4.a batera; 5.a eta 6.a batera)	Obanos (1.a eta 2.a ez dago; 3.a eta 4.a batera; 5.a eta 6.a batera) Pitillas (1.a ez dago; 2.a, 3.a, 4.a, 5.a eta 6.a batera) Uxue (1.a eta 6.a ez dago; 2.a, 3.a, 4.a eta 5.a batera) Beire (1.a eta 2.a batera, beste talderik ez dago)

11. ZONALDEA	Figarol (1.a, 2.a, 3.a, 4.a, 5.a eta 6.a batera) Melida (1.a bakarrik, 2.a eta 3.a batera; 4.a, 5.a eta 6.a batera)	Murillo el Fruto (1.a eta 2.a ez dago, 3.a eta 4.a batera, 5.a eta 6.a batera Arrada (1.a ez dago, 2.a eta 3.a batera, 4.a bakarrik, 5.a eta 6.a batera) Santakara (1.a ez dago, 2.a eta 3.a batera, 4.a bakarrik, 5.a eta 6.a batera)
12. ZONALDEA	Abartzuza (1.a, 2.a eta 3.a batera eta 4.a, 5.a eta 6.a batera) Allo (1.a bakarrik; 2.a eta 3.a batera; 4.a bakarrik; 5.a eta 6.a batera) Arroitz (1.a bakarrik, 2.a eta 3.a batera; 4.a, 5.a eta 6.a batera) Deikaztelu (1a bakarrik, 2.a eta 3.a batera; 4.a, 5.a eta 6.a batera) Villatuerta (1.a bakarrik, 2.a eta 3.a batera; 4.a, 5.a eta 6.a batera) Cárcar (1.a bakarrik, 2.a eta 3.a batera; 4.a bakrrik; 5.a eta 6.a batera) Sartaguda (1º, 2º,3º y 4º solos; 5ºy6º juntos) Sesma (maila bakoitzean gela bat) Zudairi (1.a bakarrik, 2.a eta 3.a batera, 4.a bakarrik; 5.a eta 6.a batera)	Antzin (1.a eta 2.a batera, 4.a ez dago; 3.a,4.a eta 5.a batera) Lezaun (1.a eta 6.a bakarrik; 2.a, 3.a, 4.a eta 5.a bakarrik)

Iturria: 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Atala

Garrantzi handiko faktorea da landa-eskoletan inguruko beste ikastetxeekin egiten duten lan koordinatua. Gertakari hori esanguratsua da irakasleak eta baliabideak partekatzeari dagokionez, bai eta hezkuntza-proiektuak eta zerbitzu komunak garatu ahal izateko ere. Azken hamarkadan errealitate hori ordenatzeko hainbat mapa izan dira. Azken urteotan egonkorren mantendu dena eskaintzen dugu jarraian, aipatutakoaren adierazgarri.

194. taula: Landa-eskolen zonaldeak. Nafarroa. 2015-2016

Zonaldea	Eskola duten udalerriak
1. ZONALDEA BAZTAN	Almandotz, Amaiur, Arizkun, Arraioz, Azpilkueta, Erratzu, Gartzain, Irurita, Oronoz, Urdazubi/Zugarramurdi, Ziga
2. ZONALDEA MALERREKA	Beintza, Ituren, Legasa, Narbarte, Saldias, Sunbilla
3. ZONALDEA	Areso, Betelu, Goizueta, Jauntsaras, Leitza
4. ZONALDEA BORTZIRIAK	Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi, Lesaka

5. ZONALDEA ERRONKARI	Erronkari
6. ZONALDEA ZARAITZU	Otsagabia
7. ZONALDEA AEZKOA/ERRO/ZUBIRI	Auritz, Erro, Garralda, Luzaide, Urroz, Zubiri
8. ZONALDEA SAKANA	Altsatsu, Arbizu, Etxarri Aranatz, Irurtzun, Iturmendi, Lakuntza, Olazti, Uharte-Arakil, Urdiain*
9. ZONALDEA ZANGOTZA	Oibar, Kaseda, Irunberri, Zade
10. ZONALDEA	Añorbe, Barasoain, Beire, Berbintzana, Mendigorria, Miranda Arga, Obanos, Pitillas, Uxue
11. ZONALDEA	Figarol, Melida , Murillo el Fruto, Arrada, Santakara
12. ZONALDEA	Abartzuza, Allo, Antzin, Arroitz, Cárcar, Deikaztelu, Lezaun, Sartaguda, Sesma, Oteiza, Villatuerta, Zudairi**

**Altsasuko eta Irurtzungo eskolek jarduerak antolatzen dituzte inguruko gainerako ikastetxeekin*
***Ikastetxe hauek zonaldeen barnean dauden baina ez dira gainerakoekin koordinatzen: Cárcar, Jauntsarats, Sartaguda, Sesma, Urrotz, Zudaire*
Iturria: Guk geuk egina, Antolamenduko eta Aukera Berdintasuneko Zerbitzuaren datuekin

- ***Etorkizunerako proposamenak***

Nafarroako Eskola Kontseiluak antolatutako Jardunaldien testuinguruan zenbait neurri proposatu dira Nafarroako landa-eskolen Plan bat egiteko ekarpen bezala. Hainbat hamarkadaz egin diren ekimen partzialen ondoren, zalantzarik ez da egokia dela proposamenak hezkuntza-eremutik eta eremura begira zertuko dituen Plan bat egitea, betiere landa-ingurunean dauden eragile ugariekin zuzeneko harremanetan.

Jarraian jasotakoa, «Nafarroako Landa Eskola» argitalpenean bere osotasunean jasoa, proposamen-sorta bat da. Horren barnean dagoeneko martxan diren ekimen ugari aipatzen eta birformulatzen dira, edo aldatu beharreko beste batzuk proposatzen dira, adituen eta landa-eskolarekin lotutako zenbait erakunderen ordezkarien artean horiei buruz eztabaidatu ondoren.

- Landa-eskolak, beste egitura batzuekin batera, bizialdi osorako ulertutako hezkuntza-zerbitzuaren parte aktiboa izan behar du.

- Landa-eskola eskolatze-modalitate espezifiko batean kokatzen da, eta modu bereizian ulertu beharra dago. Horretarako, egokitutako hezkuntza-ibilbideak sortu behar dira, inguruneari lotutakoak eta ikuspegi unibertsala dutenak.

- Landa-inguruneak kultura-ondare ukigarri eta ukiezinaren funtsezko zati dira; hortaz, ezaugarri hori kontuan hartuko duten ekimenak egin behar dira, beste inguru batzuetako landa-eskoletan orokortzen ari den joerari jarraikiz. Landa-eskolak dituzten herrietako udalak eragile nagusi dira, eta izaten jarraitu behar dute, ongizatea eta komunitate osoari ematen zaion zerbitzuaren kalitatea modu mailakatuan hobetzeko.

- Ezinbestekoa da eskola-mapa bat egitea, funtsezko helburutzat Nafarroa egituratzea duena**.** Eskualdeak izan behar du hezkuntza-plangintzaren erreferente nagusia, baina ez bakarra; izan ere, eskualdez gaindiko zentro eta zerbitzuak egon daitezke.

- Eskualdekotzea edo zenbait eskolaren artean sareak eratzea lagungarria izan daiteke gizarte globalizatuaren eskari berriei egokitutako landa-eskola baten eginkizunean, eta bultzada eman diezaieke eskualde-izaera duten hezkuntza- eta kultura-proiektuei.

- Herriak bizirik mantentzeko aukera emanen duen zerbitzu publikoaren ikuspegia lehenetsi behar da. Landa-eskolaren finantzaketa ere berezia da.

- Landa-eskolak bere inguruabarrak interpretatzen dituzten eta beharrezko proiektuak gauzatzen laguntzen duten diskriminazio-politikak behar ditu. Ezinbesteko antolakuntza-neurrietako bat da koordinazio-organo egonkor bat eratzea Hezkuntza Departamentuaren barruan.

- Etorkizunera begirako ekimen bat izan daiteke landa-eskolaren behatoki bat sortzea, hausnartzeko eta proposamenak egiteko.

- Komeni da landa-inguruneko ikastetxeek bildu beharreko kalitate-eskakizunak zehaztea, edozein dela ere horien tamaina eta irakasten dituen mailak.

- Irakasleen eta gainerako langileen plantillaren definizioak beharren araberakoa behar du izan, eta aldi berean prestakuntza-taldeak indartu behar dira ikastetxeetan, bai eta hainbat ikastetxetako irakasle-taldeak ere, landa-eskoletako taldekatze espezifikoei zuzendutako materialak sortuko dituztenak.

- Ezinbesteko zeregina da irakasleei prestakuntza egokia ematea. Lehenik eta behin, hasierako eta etengabeko prestakuntzan, baina baita landa-eremuko eskola batera lehen aldiz bidaltzen dituzten irakasleentzat ere.

- Landa-eremuetako irakasleen ibilbide profesionala eta lan-baldintzak hobetzeko, pizgarriak proposatu, lanpostuak erakargarri bihurtu eta egonkortasuna bermatu behar da.

- Komunikazioak, familien mugikortasuna edo beste hizkuntza batzuk dituzten etorkinak gizartea eraldatzen ari dira; ondorioz, landa-eskoletara ere iristen dira aldaketa-faktore horiek guztiak. Testuinguru eleaniztun horiek erronka berriak dakartzate planteatu beharreko hizkuntzek kulturalki eta curriculumean izan behar duten antolamenduari buruz, eta ez dira zalantzarik gabeak.

- Nafarroako landa-eremu batzuk Frantziako mugaren inguruan daude, eta logikoa dirudi mugaz gaindiko proiektu partekatuak egitea. Dagoeneko martxan dira horietako batzuk.

- Landa-eskolek autonomia zabala hartu ahal eta behar dute beren gain, beren baliabideak antolatzeko, irakaste-ordutegia ezartzeko, curriculuma heziketa-proiektuetara egokitzeko, ekimen berritzaileak sustatzeko, ikasleen dibertsitaterako programak egiteko, hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea bultzatzeko edo kultura-jarduerak antolatzeko.

- Landa-eskolen taldeak koordinazio-sareak diseinatu behar ditu, eskualdeetan dauden baliabideak (hezkuntzakoak, ingurumenekoak, kulturalak eta sozialak) partekatu ahal izateko, jarduera horiek hezkuntzako proposamenetan txertatuz.

- Landa-eskolak hezkuntza-berriztapena indartzen jarraitu behar du, ikasleei beren ohiko bizilekuaren aldean bestelakoak diren inguruneak ekartzeko eta, hartara, haiek beste errealitate interesgarri batzuekin harremanetan jartzeko.

- Haur eta Lehen Hezkuntzako hezkuntza-zerbitzuen zonakatzea dagozkion Bigarren Hezkuntzako ikastetxeekin lotu behar da, etapen arteko jarraitutasuna ziurtatuta gera dadin.

- Ikastetxeek lotura iraunkorrak ezarri behar dituzte hezkuntzaren eta kulturaren arloko landa-eremuko beste instantzia batzuekin. Hezkuntza lan partekatua da, eta ez da ikastetxean soil-soilik garatzen.

- 0-3 urteko hezkuntza etapa behar-beharrezkoa da, nola hirian, hala herrian ere, elementu hezigarri eta gizarteratzailea baita. Beraz, administrazioei adorea eta laguntza eman behar zaie eskaintza publikoa ahal bezain zabala izan dadin.

- Hezkuntza-administrazioak ikastetxe arteko koordinazioa bultzatu behar du, mailakatuak nahiz maila anitzekoak izan. Kudeaketa, antolamendua eta administrazioko zereginak partekatzea bitarteko ona da isolamendua gainditu eta zerbitzua hobetzeko.

- Administrazioek beren gain hartu behar dute garraio- eta jantoki-zerbitzuen plangintza eta kudeaketa, eta kalitatea eta ahal den guztietan herrietan bertan txertatuta egotea uztartu.

4.12 Udalak eta hezkuntza

Nafarroako toki-erakundeek badituzte hezkuntzaren alorreko eskumen batzuk, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen legeak aitortutakoak. Aipatutako arau horren 25. artikuluak honako hau dio, besteak beste: «Nahitaezko eskolatzea betetzeko zaintzan parte hartzea, eta dagozkien hezkuntza-administrazioekin lankidetzan jardutea, ikastetxe berriak eraikitzeko beharrezkoak diren orubeak lortzeko. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza edo hezkuntza bereziko zentro publikoetara xedaturiko toki-titulartasuneko eraikinen kontserbazioa, mantenua eta zaintza».

Nafarroako udalak Lehen Hezkuntzako ikastetxeen titularrak dira, eta horien mantentze-lanez arduratzen dira. Ikastetxe horietan beste herri batzuetako ikasleei ere zerbitzua ematen bazaie, Nafarroako Gobernuak gastu horien zati bat ordaintzen laguntzen du. Bestalde, ohikoa da ere udalek beste ekarpen batzuk egitea ikastetxeei.

Haur Hezkuntzako lehen zikloaren (0-3 urte) garrantzia nabarmendu beharra dago. Mende honen hasieran asko hedatu zen Nafarroa guztian eta haren oinarria, hein handi batean, eredu hau da: udalak dira ikastetxearen eta zerbitzuaren titularrak, eta gastuen zati bat ordaintzen laguntzen dute gurasoek eta Nafarroako Gobernuak, dagokion hitzarmena sinatu eta gero.

Horren froga dira ikastetxe-kopurua eta eskaintzen diren eskola-plazak, datozen grafikoetan ikus daitekeen moduan.

148. grafikoa: Haur-eskolak. Nafarroa. 2016-2017



Iturria: Guk geuk egina, 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Ataleko datuekin

149. grafikoa: 0-3 urteko haurrentzako plazen eta ikastetxe publikoen igoera. 2011-2017



I

turria: Guk geuk egina, 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Ataleko datuekin

150. grafikoa: Udalekin lotutako irakaskuntza publikoan gauzatutako aurrekontuen bilakaera. 0-3 urte (milaka eurotan). 2000-2016



Iturria: Guk geuk egina, Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atalaren datuekin

4.13 Parte-hartzea

Nafarroako gizarteak interes handia erakutsi du hezkuntzarekin lotutako gaien inguruan. Horren ondorioz, jarduera eta dinamismo handia dago, alor ugaritan ikus daitekeena: Hezkuntzako Departamentuaren kudeaketan guztizko gardentasuna eskatzea; familien elkarteek, ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek edo sindikatuek erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko exijentzia, Nafarroako Parlamentuan landutako gaien garrantzia edo eragile askok antolatutako hedapen- edo eztabaida-jarduerak, besteak beste.

Urteko txosten honen bidez, hainbat ataletan, prozesu horien ildo nagusiak ezagutarazi nahi izan ditugu baina, onartu beharra dago, hori ez da posible izan kasu guztietan, partaidetza-organo batzuen berririk jaso ez dugulako. Beraz, adierazle batzuk bakarrik aurkeztu ditugu.

Aipatu beharrekoa da Nafarroako Gobernuaren Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko Herritarren Arretarako eta Partaidetzarako Zerbitzuak agindutako ikerlan bat egin dela, «Nafarroako Gobernuaren Kide Anitzeko Organoen Ebaluazioa». Horren xedea ezan da Nafarroako Gobernuaren politikekin lotutako Kide Anitzeko Organoen ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak egitea, Nafarroako herritarren parte-hartzea sustatzeko 2016-2019 aldirako planean definituta dagoen bezala.

Kide anitzeko ehundik gora organo daude, eta departamentuek horietako 44 hautatu dituzte ebaluaziorako, hain zuzen ere, gobernuaren jardunean herritarren parte-hartzea xede dutenak. 44 organoetatik, 30 Kontseiluak dira eta beste 14ak Organoak.

Ebaluazioaren oinarria izan da ezagutzea organoon funtzionamendua eta egindako lana, egitura eta osaera eta orain artean politika publikoetan izan duten eragina. Ebaluazio hori egin ostean, hobekuntza eta proposamen batzuk egin dira, Kide Anitzeko Organoak herritarren parte-hartzea sustatzeko tresna erabilgarria izan daitezen, eraginkortasunaren eta efizientziaren irizpideen barnean.

Ebaluazioaren laburpena honako hau da:

- Eragin txikia politika publikoetan, parte-hartzaileen arabera.
- Erakunde eta elkarteen parte-hartze aktibo gutxi.
- Erakundeetako oinarrizko kideen parte-hartze txikia.
- Administrazioaren ordezkarien papera ez da teknikoa edo aholkularitzakoa.
- Gizarteak ez ditu Organoen jarduerak ezagutzen.
- Ezagutza-falta horrek parte hartzeko interes-falta eragiten du.
- Ez dago definitua zer paper duten organoek gobernu irekia aplikatzean abiarazten den partaidetza-prozesuan.

Hezkuntza Departamentuaren kasuan, hauek dira ebaluatu diren Kide Anitzeko Organoak:

- Nafarroako Eskola Kontseilua
- Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseilua
- Nafarroako Foru Komunitateko Ikasleen Gurasoen Mahaia
- Eskolatze Batzordea

Kasu guztietan bildu dira Organoen idazkarien informazioak, eta inkesta bat egin zaio kide bakoitzari. Ondorioak txosten exekutibo batean eta Organo bakoitzari bidalitako gomendio zehatzetan jaso dira.

4.13.1 Nafarroako Eskola Kontseilua

Nafarroako Eskola Kontseilua hezkuntza-komunitatearen partaidetza-organo gorena da unibertsitatez kanpoko Nafarroako ikasketen plangintzari dagokionez. Bertan, hezkuntzarekin zerikusia duten sektore nagusiak daude ordezkatuta.

Nafarroako Eskola Kontseilua azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen bidez sortu zen. Haren eginkizunetako bat da Nafarroako Foru Komunitatean unibertsitatez kanpoko hezkuntza arautuko duten arauen egitasmoak aztertzea eta horien gainean eztabaidatzea, eta adostutako zuzenketak Hezkuntza Departamentuari jakinaraztea. Gainera, hezkuntzaren alderdi adierazgarriei buruzko ikerketak eta txostenak prestatzen ditu, hausnarketa eta jardunbide egokiei buruzko jardunaldiak antolatzen ditu eta Estatuko Eskola Kontseiluan parte hartzen du.

Hona hemen haren eginkizunak:

- Hezkuntza Departamentuak igortzen dituen arauen egitasmoak aztertzea eta horiei buruz eztabaidatzea, irakaskuntzaren programazio orokorreko alderdi ezberdinen gainean legez ezinbestekoak diren irizpenak prestatzeko. Hauen inguruko egitasmoak dira:
    - Hezkuntzarekin loturiko gaiei dagokienez, Nafarroako Gobernuak onetsi beharreko erregelamendu exekutibo orokorrentzako egitasmoak edo Foru Legeentzako aurreproiektuak.
    - Planifikazio orokorrerako printzipioak, oinarriak eta irizpideak, ikastetxeak sortu, aldatu, kendu eta lurraldean banatzeari dagokienez.
    - Ikastetxeen eta ikastetxeetako langile eta ekipamenduen ezaugarriei buruzko araudi orokorra.

- Ikastetxe publikoen eta ikastetxe pribatu itunduen eta diruz lagunduen finantzaketari buruzko irizpide orokorrak.
- Hizkuntza ereduen ezaugarriei eta ezarpenari buruzko xedapen orokorrak.
- Bekei eta ikasketetarako laguntzei buruzko printzipio orokorrak.
- Eskolaz kanpoko jarduerei eta zerbitzu osagarriei buruzko araudi orokorra.
- Hezkuntza gaietan Estatuarekin edo beste autonomia-erkidego batzuekin lankidetza-hitzarmenak edo -akordioak egiteko egitasmoak.
- Hezkuntzaren kalitatea hobetzea edo desberdintasun sozial eta indibidualak konpentsatzea helburu duten xedapenak.

- Txostenak egitea Hezkuntza Departamentuak eskatutako gaien gainean.
- Bere ekimenez ikerketak eta proposamenak egitea, irakaskuntzaren programazio orokorrarekin lotutako bestelako gaiei buruz, eta goragokoei igortzea.
- Urtero hau bezalako txosten bat prestatzea Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza-sistemaren egoerari buruz.
- Urtero Nafarroako Eskola Kontseiluaren jardueren memoria prestatzea.
- IDEA aldizkaria prestatzea eta kaleratzea.
- Eskola Kontseiluen topaketen jardunaldiak antolatzea.
- Parte hartzea Estatuko Eskola Kontseiluaren osoko bilkuraren eta erkidegoetako eskola kontseiluen partaidetza-batzordearen saioetan.

195. taula: 2016/2017 ikasturtean egindako jarduera garrantzitsuenak

Jarduera-mota	Kopurua edo deskribapena
Osoko bilkuraren saioak	8
Batzorde iraunkorraren saioak	10
Emandako irizpenak	16
Bere ekimenez egindako txostenak	• 0-6 Haur Hezkuntza (argitalpena eta hedapena) • Berrikuntza proiektuak 2015-2016 (argitalpena eta hedapena).
Argitaratutako IDEA aldizkariak	• Nº 46: “Berrikuntza proiektuak 2015-2016 / Proyectos de innovación 2015-2016” • Nº 47: “Nafarroako Landa eremuko eskola / Escuela Rural en Navarra”
Webgunea	Etengabeko egunerapena eta asteroko buletin bat bidaltzea Nafarroako ikastetxeei.
Jardunaldiak	• XVIII 0-6 Berrikuntza proiektuak 2015-2016 / Proyectos de innovación 2015-2016, azaroan Iruñean eta Tuteran. • XIX Nafarroako Landa eremuko eskola / Escuela Rural en Navarra, apirilan Iruñan.
Estatuko Erkidegoetako Eskola Kontseiluak	• Autonomien Parte-hartze Batzordearen bileretara eta Estatuaren Eskola Kontseiluaren bilkuretara joatea • Valentziako Erkidegoko Eskola Kontseiluaren Sinposioa, 343 ekintza erantzun.

	• Madrilgo Eskola Kontseiluak antolatutako Etxerako lanei buruzko jardunaldiak. • Eskola Kontseilu desberdinetako funtzionamienduari buruzko dokumentazio-trukea.
Parte-hartzea	• Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren Haur Hezkuntzako Batzordea • Hezkuntza Departamentuaren Formakuntza Plana • Iruñetako Haur Eskoletako Erakunde Autonomoa. Hezkuntza Proiektua • Hezkuntza Departamentuaren Berdintasun Plana • Nafarroako Parlamentua: NHSTren eta bestelako jardueren aurkezpena • Unibertsitate – Gizarte Fundazioak antolatutako lan-saioak, NUP • Nafarroako Parlamentuaren Hezkuntza Batzordearen bisita Iturengo eta Saliaseko HLHIPetara • FEDADI Biltzarra • NUP Gizarte Foroa: lidergoa eskola zuzendaritzan • Hezkuntza Departamentuaren Hezkidetza Plana • Hezkuntza Departamentuaren Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategikoa
Hedapena	Hezkuntzarekin lotutako albisteak jasotzea hemeroteka bat sortzeko, asteroko buletin bat bidaltzea Nafarroako ikastetxeei.

Iturria: Nafarroako Eskola Kontseilua

4.13.2 Ikastetxeetako eskola-kontseiluak

Ikastetxetako eskola-kontseiluetako hauteskunde-prozesua araudi honen arabera egiten da:

- 422/2016 EBAZPENA, urriaren 13koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Bigarren Hezkuntzako institutuetako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutuetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.

- 423/2016 EBAZPENA, urriaren 13koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako, Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoetako eta Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.

- 427/2016 EBAZPENA, urriaren 13koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Iruñeko eta Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialeko Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.

- 428/2016 EBAZPENA, urriaren 13koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, ikastetxe itunduetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko eta zuzendaria izendatzeko jarraibideak onesten dituena.

- 438/2016 EBAZPENA, urriaren 18koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Arte Irakaskuntzen ikastetxe publikoetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.

196. taula: Eskola-kontseiluetarako hauteskundeak ikastetxe publikoetan. 2016-2017

	Ikastetxe kop.	Irakasleak		Gurasoak		IkasleaK		AZLak	
		Bozketak							
		Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
Lehen Hezkuntza									
Eskola kontseilua berritu dute	141 [1] 118	69	49	29	77 [2]	8 [3]	3 [3]	10 [4]	37 [4]
Sektoreak osatu dituzten ikastetxeak, berritu beharrik ez badute ere	8								
Bigarren Hezkuntza									
Eskola kontseilua berritu dute	18 [5] 17	5	12	4	13	5	12	1	13 [4]
Sektoreak osatu dituzten ikastetxeak, berritu beharrik ez badute ere	3								
Helduen Hezkuntza									
Eskola kontseilua berritu dute	2 [6]	1	1	-	-	0	2	0	1 [4]
Arte Eskolak									
Eskola kontseilua berritu dute	1	0	1	0	1	0	1	0	1
Kontserbatorioak									
Eskola kontseilua berritu dute	2	0	2	0	2	1	1	0	1 [4]
Hezkuntza Berezia									
Eskola kontseilua berritu dute	1	0	1	0	1	-	-	0	1
Sektoreak osatu	1								
Hizkuntza Eskolak									
Eskola kontseilua berritu dute	2	1	1	-	-	1	1	2	0

[1] 141 ikastetxeko horietako 12 bat edo bi unitateko ikastetxeak dira, eta horietan ez da hauteskunderik egiten Eskola Kontseiluko kideek ez baitute hautagaitzarik aurkeztu behar, zuzenean izendatzen baitira ikastetxeko zuzendaria, hark izendatutako gurasoen elkarteko ordezkaria eta udaleko ordezkaria. Horietako 11 ikastetxetan ez da aktarik jaso edo ez da Eskola Kontseilua berritu. Analisia gainerako 118 ikastetxeak kontuan hartuta egin da (horietako 2k aurreneko aldiz hautatu dute Eskola Kontseilua).

[2] 2. erdia berritu duten ikastetxe horietako 12tan ez da bozketarik egin, 2 eta 5 unitate arteko ikastetxeetan gurasoen atala ez delako berritzen 2. erdi horretan

[3] HLHIPetan ikasleek ordezkariak izan ditzakete Eskola Kontseiluan, hitzarekin baina botorik gabe, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuak ezartzen dituen baldintzetan, baina oso gutxi dira Eskola Kontseiluan ikasleen ordezkariak dituzten HLHIPak.

[4] AZLen sektorea 2. erdia berritzen duten ikastetxeetan bakarrik berritzen da

[5] Eskola Kontseilua berritu behar zuten Bigarren Hezkuntzako 18 ikastetxe publikoetako bateko akta ez da jaso. Analisia, beraz, gainerako 17ak kontuan hartuz egin da; talde horretan BHIak eta DBHIak daude.

[6] Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoetan ikasleei dagokie HLHIPetan ikasleen gurasoei dagokien ordezkaritza

Iturria: Ikasketak Antolatzeko Atala

197. taula: Eskola-kontseiluetarako hauteskundeak ikastetxe itunduetan. 2016-2017

		Irakasleak		Gurasoak		Ikasleak		AZLak	
		Bozketak							
		Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
Eskola kontseilua berritu dute	37 [7] 34	9	25	8	26	16 [3]	5 [3]	9	25
Sektoreak osatu dituzten ikastetxeak, berritu beharrik ez badute ere	1								

[3] HLHIPetan ikasleek ordezkariak izan ditzakete Eskola Kontseiluan, hitzarekin baina botorik gabe, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuak ezartzen dituen baldintzetan, baina oso gutxi dira Eskola Kontseiluan ikasleen ordezkariak dituzten HLHIPak.

[7] Ez da jaso Eskola Kontseilua berritu behar zuten 37 ikastetxe itunduetako 3tako akta. Analisia gainerako 34 ikastetxeak kontuan hartuta egin da.

Iturria: Ikasketak Antolatzeko Atala

Ikastetxeetako Eskola Kontseiluak bi urtean behin erdika berritzen dira. Azken urteotako joera argia da:

- Eskola Kontseilua berritu behar duten ikastetxeen ehuneko handi batean ez da bozketarik egin aurkeztu diren hautagaitzen kopurua bete beharreko postuen bezainbestekoa edo txikiagoa izan delako.
- Bozketak egin diren tokietan, gurasoen sektorea da parte-hartzearen ehuneko txikiena izan duena.
- Eskola Kontseilua berritzera beharturik ez badaude ere, ikastetxe batzuetan diote Kontseiluaren osaera osoa mantendu nahi dutela eta, hartara, sektoreetako edozeinetan sortutako postu hutsak betetzeko prozedurari ekiten diote.

4.13.3 Unibertsitatez kanpoko irakasleen Mahai Sektoriala.

2016-2017 ikasturtean zehar Unibertsitatez kanpoko irakasleen mahai sektoriala 13 aldiz bildu da, eta gai hauek aztertu ditu:

- Irakasle espezialisten deialdiak.
- Zerrenda espezifikoak irekitzeko deialdiak, izangaiak aldian behin sartuta.
- Irakasleen lekualdatze-lehiaketa 2016-2017 (estatu osokoa).
- 2017ko EPEko gorputzak eta espezialitateak.

- 2017/2018 ikasturterako jarraibideak.
- Ikastetxeetako irakasleak eta irakasle ez diren langileak ordezkatzeko irizpide berriak.
- Lanpostu hutsak esleitzeko ekitaldiak.

Unibertsitatez kanpoko mahai sektorialaren osaera ondoko taulan dago jasota.

198. taula: Unibertsitatez kanpoko irakasleen Mahai Sektoriala. 2015-2016

Sindikatua	Ordezkariak	%	
LAB	11	24,44	
STEILAS	10	22,22	
AFAPNA	8	17,78	
CCOO	6	13,33	
ANPE	6	13,33	
ELA	4	8,89	Mahai Orokorrean dagoelako, ez ehunekoagatik
UGT	0	0,00	Mahai Orokorrean dagoelako, ez ehunekoagatik. Hitza bai baina botorik ez du.
Guztira	45	100	APS eta CSIF ez dira sartu ordezkaritzaren %10era iristen ez direlako eta ez daudelako Mahai Orokorrean.

Iturria: Giza Baliabideen Zerbitzua

4.13.4 Gurasoen Mahaia

Nafarroako Foru Komunitateko Ikasleen Gurasoen Mahaia Hezkuntzako kontseilariak maiatzaren 28an emandako 79/2008 Foru Aginduaren bidez sortu zen. Aurrerago, Foru Agindu hura otsailaren 4ko 14/2010 Foru Aginduaren bidez aldatu zen, ikasleen gurasoen elkarteak biltzen dituzten federazioen bitartez guraso elkarteen parte-hartzea hezkuntzaren esparruan indartzeko xedez.

Gurasoen Mahaiaren helburua da Nafarroako Foru Komunitatean hezkuntza-sisteman interes sozial berezikotzat harturiko gaietan ikasleen aita, ama edo legezko tutoreen elkarteen lankidetza eta parte-hartzea, horiek parte diren federazioen bitartez.

Honako hauek osatzen dute:

- Hezkuntzako kontseilaria, mahaiburu.
- Hezkuntza Departamentuko zuzendari nagusiak; horietako bat, Hezkuntzako kontseilariak izendatua, mahaiburuorde arituko da, mahaiburuaren eginkizunak betez hura falta denean.
- Hezkuntza Departamentuaren bi ordezkari, Hezkuntzako kontseilariak izendatuak landu beharreko gaien arabera.
- Nafarroako Foru Komunitatean familia gehien bazkideturik dituzten ikasleen gurasoen elkarteen federazioetako ordezkari bana, seira iritsi arte, betiere federazio horiek Hezkuntza Departamentuko Elkarteen eta Federazioen Erroldan egon behar dutelarik.
- Irakasleen elkarteak eta sindikatuak

2016-2017 ikasturtean Mahai horrek ez du bilerarik egin. Kide Anitzeko Organoen Ebaluazioko Txosten Exekutiboko iradokizunak ikusita, planteatu da Nafarroako Eskola Kontseiluko batzorde egonkor batek laguntza eman liezaiokeela. Ideia hori ez da eztabaidatu orain arte.

4.13.5 Ikasleen gurasoen elkarteak eta konfederazioak

2016-2017 ikasturtean ikasleen gurasoen elkarteek eta konfederazioek egin dituzten jarduerarik esanguratsuenak ondoko tauletan jaso dira.

199. taula: HERRIKOAk egindako jarduera nagusiak. 2016-2017

Jardueraren izena	Hartzaileak
1. Bere autoestimua hobetzen laguntzen 2. Bullyinga 3. Gatazkak kudeatzeko trebetasunak 4. Arreta arazoak 5. Enpatia garatzeko estrategiak 6. Dolua 7. Gezurren arrazoiak 8. Zer nahiko lukete zure seme-alaba nerabeek zuk jakitea? 9. Haurren beldurrak 10. Seme-alabak burujabetasunarekin laguntzen 11. Haurren beldurrak 12. Eskola jardunaldia 13. Zuzendaritza batzarraren funtzionamendua 14. Nire seme-alabak ez du jaten 15. Amorrua eta haserrea kudeatzen 16. Seme-alaben jarrerak hobetzen 17. Gaizki-ulertuak 18. Oinarrizko heziketa-sexuala 19. Zer nahiko lukete zure seme-alaba nerabeek zuk jakitea? 20. Hazteko denbora ematea 21. Gure seme-alaba nerabeekin lanpetuta eta arduratuta 22. Hezteko zailtasunak 23. Haurren arteko jeloskortasuna 24. Seme-alabei esan behar ez zaizkien esaldiak 25. Familia IKTak baino lehen 26. Emozioak kontrolatzeko semaforoa 27. Komunikazioak elkarbizitzan duen eragina 28. Heziketa emozionala 29. Zer nahi dut nire seme-alabek ikastea nerabezaroaren aurretik? 30. Eskola arrakasta sustatzen 31. Bullyinga II 32. Zergatik galtzen dugu pazientzia? 33. Eskola-familia harremana 34. Sentimenduei buruz hitzegitea 35. Gatazkak 36. Ardura garatzen 37. Seme-alabei esan behar ez zaizkien esaldiak 38. Taldearen presiori nola aurre egin 39. Komunikazio trebetasunak Aiton-amona hezitzaileak	Guraso elkarteen eta familien prestakuntza
Zenbat ikastetxetara joan den: 68 Zenbat saio eman diren: 136 Emandako gaiak: 40 Prestakuntzan parte hartu dutenak, guztira: 3.288 Prestakuntzako aurrez aurreko orduak: 204	
Jardueraren izenburua: HERRIKOAren parte-hartzea parte-hartze organoetan.	
Agerraldiak parlamentuan hezkuntza esparruarekin loturiko hainbat gaitarako.	HERRIKOAko zuzendaritza-batzordea
Beken batzordea, hezkuntza administrazioarekin.	HERRIKOAko zuzendaritza batzordeko kide 1
Hezkuntza itunen batzordea, hezkuntza administrazioarekin.	HERRIKOAko zuzendaritza batzordeko kide 1

Eskolatze Batzorde Nagusia - Iruña	HERRIKOAko zuzendaritza batzordeko kide 1
Tuterako Eskolatze Batzordea	HERRIKOAko zuzendaritza batzordeko kide 1
CEAPAren jardueretan parte hartzea	HERRIKOAko zuzendaritzako kideak
Nafarroako Eskola Kontseiluaren jardueretan parte hartzea	HERRIKOAko zuzendaritzako 2 kide
0-3 plataforma	HERRIKOAko zuzendaritzako kideak
Gurasoen Mahaia	HERRIKOAko zuzendaritzako 2 kide
Reuniones de Junta Directiva	HERRIKOAko zuzendaritzako kideak
HERRIKOAko kideen batzarra	Gurasoen elkarteak
Liburuen batzordea, testuliburuen doakotasuna	HERRIKOAko zuzendaritza batzordeko kide 1
Prentsa oharrak eta prentsaurrekoak, hezkuntza gaien gainekoak	Hedabideak

Iturria: Herrikoa

200. taula: SORTZENek egindako jarduera nagusiak. 2016-2017

Jardueraren izena	Hartzaileak
LOMCE eta Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailako kanpoko azterketak: hitzaldi informatiboak Iruñerriko 10 ikastetxe baino gehiagoko ordezkariekin.	Gurasoak, irakasleak eta ikasleak
Hezkuntza subiranotasunari buruzko mahai-ingurua	Gizartea, oro har
LOMCE, eta DBH eta Batxilergoan duen eragina	Gurasoak, irakasleak eta ikasleak
D ereduko aurrematrikulazio-kanpaina, eremu ez-euskaldunean: hitzaldiak, bideoak, proiekzioak...	Eremu ez-euskaldunean D ereduan interesa duten gurasoak
D ereduko aurrematrikulazio-kanpaina Sakanan	Gizartea, oro har
D ereduko aurrematrikulazio-kanpaina	Gizartea, oro har
Irakaskuntza-sindikatuekin batera egindako dinamika, euskarazko eskaintza Lanbide Heziketara ere zabaltzeko.	Gizartea, oro har
Jardunaldi jarraiari buruzko dinamika eta hausnarketa	Gurasoak, irakasleak eta ikasleak
“Haur eskolak euskaraz” dinamika	Gizartea, oro har, alderdi politikoak eta Nafarroako Gobernua
D ereduko Gurasoen elkarteen koordinazioa	D ereduko gurasoen elkarteak
Iruñerriko ikastetxe bazkideekin hileroko bilera	Guraso elkarteak eta irakasleak
Iruñeko Antoinutti parkean D ereduko eskolen aldeko jaia	Gizartea, oro har
Sakanako ikastetxeen topaketa Lakuntzan	Sakanako auzokideak
Eskola-jantokiari buruzko hausnarketa	Guraso elkarteak
Iruñerriko D ereduko ikasleen arteko esku-pilota txapelketa	D ereduko ikasleak
Etxerako lanei buruzko tailerra. Gaiari buruzko txostenaren argitalpena.	Gurasoak eta irakasleak
Gurasoen eskolen katalogoaren prestaketa	Gurasoak, irakasleak eta ikasleak
Ikasle Euskaldun Eleaniztunak proiektuaren jarraipena, D ereduko Uharteko eskolan eta Ultzaman hasiera.	Gurasoak, irakasleak, ikasleak eta gizartea oro har.

Iturria: SORTZEN

201. taula: FAPACENAk egindako jarduera nagusiak. 2016-2017

Título de la actividad	Destinatarios, Destinatarias
Familia-orientazioko ikastaroa: “Lehen urratsak”	Haur Hezkuntzako 1. mailako ikasleen gurasoak
Familia-orientazioko ikastaroa: “Lehen elkarrizketak”	Haur Hezkuntzako 2. eta 3. mailako ikasleen gurasoak
Familia-orientazioko ikastaroa: “Lehen letrak”	Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasleen gurasoak
Familia-orientazioko ikastaroa: “Nerabezaroaurrea”	DBH 1. mailako ikasleen gurasoak
Familia-orientazioko ikastaroa: “Nerabezaroa”	DBH 2. mailako ikasleen gurasoak
Ongintzako afaria eta zozketa Eguberritan	Ikasleen gurasoak
Haur txokolatada	Haur Hezkuntzako ikasleen gurasoak
Mintegia: “Guraso analogikoak, sema-alaba digitalak”	Ikasleen gurasoak eta Hezitzaileak
Familien jaia	Gurasoak eta ikasleak
Familiako boluntariotza Profesionales Solidarios fundazioarekin eta Caritasekin	Gurasoak eta ikasleak

Iturria: FAPACENA

202. taula: Nafarroako CONCAPAk egindako jarduera nagusiak. 2016-2017

Jardueraren izena	Norentzat
XXXIV. Familiaren festa. Iruña 2017ko ekainaren 4an	Familiak eta herritarrak, oro har
Estatuko eta erkidegoetako eskola kontseiluen XXV. topaketara joatea Pedro Baile Torrea federazioko presidentea eta Eduardo Mayor presidenteordea han izan ziren.	Estatu osoko Concapako presidenteak eta kideak. 2017ko apirila
AGEA NAFARROAK EMANDAKO HITZALDIAK, (Asociación Grupo de Estudios de Actualidad). 2017	
El Huerto ikastetxea, Iruña Pamplona Nagusitasuna eta askatasuna batera egin	Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko gurasoak. 2017ko urtarrila. Hizlaria: Sonia Rivas. Bertaratuak: 60
Teresianas ikastetxea, Iruña Nola hezi elikadura eta ohitura osasungarrietan	Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko gurasoak. 2017ko urtarrila. Hizlaria: Elena Gascón. Bertaratuak: 18

Santo Tomás ikastetxea, Iruña Modu positiboan hezteko hamar irizpide	Gurasoak, hezitzaileak eta formatzaileak. 2017ko urtarrila. Hizlaria: Alejandro Navas. Bertaratuak: 15
Mater Dei ikastetxea, Aiegi Modu positiboan hezteko hamar irizpide	Gurasoak eta hezitzaileak. 2017ko urtarrila. Hizlaria: Sebastián Cerro. Bertaratuak: 30
San Francisco Javier ikastetxea, Tutera Nerabezaroa eta eskola-arazoak	Gurasoak eta hezitzaileak. 2017ko martxoa. Hizlaria: Francisco Remón. Bertaratuak: 50
Sagrado Corazón ikastetxea, Bera Eskola-jazarpenari nola aurre egin	Gurasoak. 2017ko martxoa. Hizlaria: Marcos García. Bertaratuak: 12
Teresianas ikastetxea, Iruña Zailtasuna nerabeekin, arazoak nola konpondu	2017ko martxoa. Hizlaria: Pedro Zarauza. Bertaratuak: 25
BESTELAKO SAIOAK	
CONCAPAren Kontseilu Konfederala Madrilen. Nafarroako CONCAPAko batzordekideak bertaratu ziren.	Lehendakaria eta Lehendakariordea bertaratu ziren. 2017ko martxoan eta ekainan.
Bileretara bertaratzea: Eskola Kontseilua, Hezkuntzako Batzorde Orokorreko Komisioa, Gurasoen-mahaia eta Beken Komisioa.	Federazioko kideak. 2016ko urriaren eta 2017ko ekainaren artean.
CONCAPA-Nafarroaren lankidetza UpToYou hezkuntza-programaren eta ikerketa-ildoaren aurkezpenarekin. UpToYou programak, egoera emozionala kudeatzeko eta hazkunde pertsonalerako tresnak eskaintzen dizkie nerabeei. Hezitzaile-ikasle harremana hobetzen laguntzen du ere.	Foro Europeoan emana, maiatzako asteburuetan. 2017Ko maiatzatik ekainera. Hizlaria: José Víctor Orón Semper. Bertaratuak: 44

Iturria: Nafarroako CONCAPA

4.13.6 Eskolatze Batzorde Nagusia

Nafarroako Eskolatze Batzorde Nagusiaren osaera eta funtzioak maiatzaren 9ko 40/2011 Foru Dekretuak arautzen ditu (Nafarroako Eskolatze Batzorde Nagusia eta Tokiko Eskolatze Batzordeak sortu eta arautzen dituena).

Bere egitekoen artean dago ikastetxe-aldaketak eskatzeko ohiko eta ezohiko epeez kanpo egindako eskariak aztertzea. Kasu bakoitza banaka tratatzen da, eskariarekin batera aurkeztutako dokumentazioarekin batera, eta erabakitzen da eskaria onartu edo ez. Erabaki hori idatziz jakinarazten zaie ondoren interesdunei, egoki jotzen dituzten lege-erabakiak har ditzaten.

2016-2017 ikasturtean batzordea lau aldiz bildu da: Irailaren 16an, urtarrilaren 20an, otsailaren 24an eta ekainaren 23an.

Batzordeari onarpen-prozesua arautzen duen legeriari buruzko informazioa ematen zaio; horrela, urtarrilaren 20ko bileran Hezkuntzako kontseilariak emandako abenduaren 29ko 141/2016 Foru Aginduaren berri eman zen xehetasun osoz. Foru Agindu horrek aldatu egin

zituen otsailaren 4ko 8/2015 Foru Agindua eta martxoaren 17ko 28/2015 Foru Agindua (horien bidez, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasketak egin behar dituzten ikasleak ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan onartzeko prozedura arautzen duten oinarriak onesten dira).

Era berean, urtarrilaren 10ko 2/2017 Ebazpenari buruzko informazioa eman zitzaion (2/2017 Ebazpena, urtarrilaren 10ekoa, Hezkuntzaren zuzendari nagusiak emana, hurbiltasun linealaren irizpidea, balorazioa, aplikatu beharreko gehieneko distantzia eta zein udalerritan aplikatu behar den ezartzen dituena eta Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikasketak egin behar dituzten ikasleak ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan onartzeko prozeduraren jarraibideak, egutegia eta eskabide ereduak onesten dituena, 2017-2018 ikasturterako).

Batzordea arduratzen da hurrenkera alfabetikoa zehazteko zozketa egiteaz, onarpen-prozesuetan plazak esleitzeko beharrezkoa denean. 2017-2018 ikasturterako zozketa urtarrilaren 20ko bileran egin zen, eta Gil Navarro, Mario ikaslea atera zen.

Eskolatze-ikastetxea aldatzeko eskariak aztertu dira egin diren bilera guztietan: 20 eskari aztertu ziren iraileko bileran, 8 urtarrilekoan, 3 otsailekoan eta 23 ekainekoan. Aztertutako 54 kasu horietako 36tan onartu egin zen eskatutako aldaketa (% 66). Askotariko arrazoien bidez argudiatu dira aldaketa-eskaerak: sozioekonomikoak (negozioa ixtea, banatzea, langabezian geratzea...), familia-bizitzaren kontziliaziorako arazoak, epai judizialak, genero-indarkeria, gaixotasunak eta eskola-jazarpena.

Eskola-jazarpena izan da arrazoia 11 eskaritan (guztizkoaren % 20). Gaiaren garrantzia eta gizartean duen eragina ikusita, eskolako bizikidetzari buruzko bilera espezifiko bat egitea erabaki da.

Onartu ez diren kasuei dagokienez, horretarako kausa nagusiak izan dira eskatutako ikastetxean lekurik ez izatea (kasuen % 50etik gora) eta aldaketa eskatzeko arrazoiak dokumentuen bidez ez justifikatzea.

Etapa bakoitzaren eskolatzearen emaitzei dagokienez, otsailaren 24ko bileran Haur eta Lehen Hezkuntzako emaitzen berri eman zitzaion Batzordeari. Batzordeari bilera hartan bertan jakinarazi zitzaion Nafarroako Gobernua ikerlan bat egiten ari zela kide anitzeko organoen funtzionamenduari buruz, horien artean Batzordea bera zegoelarik. Bilera hartan erabaki zen ikasturte bakoitzeko funtzionamendua jasoko zuen memoria bat idatziko zela, eta Batzordea osatzen duten erakundeetako kideen parte-hartzea indartuko zela, erakunde horietan emakumeen parte-hartzea sustatuz.

Ekainaren 23ko bileran etapa guztietako eskolatzearen emaitzen berri eman zitzaion Batzordeari, bai eta 2016-2017 ikasturtearekiko konparazioa ere.

4.14 Europar Batasuneko hezkuntza-programak

Erasmus + 2014-2020 programa Europa 2020, Hezkuntza eta Prestakuntza 2020 eta Rethinking Education estrategien barnean kokatzen da, eta Hezkuntza, Prestakuntza, Gazteria eta Kirolaren gaineko ekimenak hartzen ditu barne. SEPIE (Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzua) arduratzen da Europako funtsak Espainian kudeatzeaz.

Hezkuntzaren alorrean, maila guztiak biltzen ditu: eskola, Lanbide Heziketa, goi mailako hezkuntza eta helduentzako prestakuntza. Erasmus + programak Etengabeko Ikaskuntzarako Programako eta Nazioarteko Goi Mailako Hezkuntzako programak uztartzen ditu: Mundus, Tempus, ALFA, Edulink eta aldebiko programak eta, orobat, Gazteak Martxan Programa.

Programa berri hau ikaskuntza formal eta ez-formalean zentratzen da, Europar Batasuneko mugetatik harago, nazioartekotze bokazio argi batekin, beste herrialde batzuetara irekiz pertsonen hezkuntza eta prestakuntza gaitasunak hobetzeko helburuarekin, ikasleen, irakasleen eta langileen enplegagarritasuna handitzeko.

Erasmus + programaren berritasun nagusietako bat da banakako ekimenak eta diru-laguntza desagertu egin direla, eta soilik izaera instituzionala izanen duela. Irakasleek ez dute dagoeneko prestakuntzarako europar laguntza banaka eskatuko. Aitzitik, ikastetxe edo erakunde bakoitzak eskatuko du europar diru-laguntza, modu instituzionalean, eta eskaera horretan prestakuntza jasotzeko egokitzat jotzen dituen bere ikastetxeko irakasleak sartuko ditu, betiere beharren arabera.

Gainera, Erasmus + programarekin dokumentazioa dagokion hezkuntza-administrazioan paperean aurkezteko nahitaezkotasuna amaitzen da eta, hartara, ez dauzkagu eskatzen diren datuetako batzuk.

203. taula: Erasmus + programa. 2016-2017

	EHPEAk onartutako Eskaera kop.	EHPEAk esleitutako zenbatekoa
ESKOLA IKASKETETAKO ETAPA		
Irakasleen mugikortasunerako eta prestakuntzarako KA1 proiektuak	1	10.836
KA2 elkarte estrategikoak	2	
HELDUEN HEZKUNTZAKO ETAPA		
Irakasleen mugikortasunerako eta prestakuntzarako KA1 proiektuak	0	
KA2 elkarte estrategikoak	0	
eTWINNING		
Online senidetzeko proiektuak, EBko ikastetxeen artean	53 proiektu onartuak	Programa honek ez du inolako gasturik eragiten. Proiektu birtualak dira eta online plataforma baten bidez egiten dira.

Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua.

Beste ekimen batzuk:

- Erasmus Mundus
- Tempus
- Europass
- Europako Kontseiluaren Pestalozzi programa
- Hizkuntzen Europako zigilua
- Hizkuntzen Europar Portfolioa
- Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua (IHP)
- Bolonian adituak (BET)
- European Shared Tresasure (EST)
- Erasmus+ Emaitzen Plataforma
- Kanpoko ebaluatzaileak eta adituak

204. taula: Lanbide Heziketako Europako programak: «Leonardo Da Vinci» eta «Erasmus»

Ikastaroak	2009/10	2010/11	2011/12	2012/13	2013/14	2014/15	2015/16
Ikasleak	98	149	120	90	100	221	133
Irakasleak	6	6	6	6	6	18	8
Bestelako proiektuak (kop.)	2	3	5	5	80	2	5
Ikasleak	56	70	70	32	16	35	X

Iturria: Berrikuntzaren, Enpresaren eta Lanbide Heziketa Nazioartekotzearen Atala

5. ESKOLA-SISTEMAREN EMAITZAK

5.1 Hezkuntza-sistemara heltzea

Eskolatzea edozein hezkuntza-sistemaren kalitatearen adierazleetan lehena da. Hezkuntzan txertatzea ezinbesteko baldintza da gizarteratzeko, eta eskolatze-prozesuaren emaitzak hasierako erreferentea dira egiaztatzeko ea baliabideak eta sisteman abiarazitako hezkuntzako erabakiak egokiak diren. Laburbilduz, eskolatze-prozesu egokiari esker, areagotu egiten da hezkuntza-sistemen kalitatea.

5.1.1 Eskolatze-prozesuaren emaitzak

- **Eskolatzearen bilakaera orokorra**

Autonomia-erkidego guztiak kontuan hartuta, sare publikoko araubide orokorreko irakaskuntzan eskolatutako ikasleen proportzioa % 67,6 da; gainera, handiagoa da Batxilergoan eta Lanbide Heziketan gainerako hezkuntza-etapetan baino, eta txikiagoa Haur Hezkuntzako 1. zikloan.

Edonola ere, autonomia-erkidegoen artean handiak dira desberdintasunak. Erkidego batzuetan, eskolatze publikoaren ehunekoa % 75 ingurukoa edo handiagoa da (Andaluzia, Kanariak, Gaztela-Mantxa, Extremadura), baina, beste batzuetan, % 65 ingurukoa edo txikiagoa (Katalunia, Nafarroa, Madril, Euskadi).

205. taula: Zentro publikoetan araubide orokorreko irakaskuntzan matrikulatutako ikasleen ehunekoa, autonomia-erkidegoaren eta hezkuntza motaren arabera. 2016-2017

	Guztira	Haur Hezkuntza, 1. zikloa	Haur Hezkuntza, 2. zikloa	Lehen Hezkuntza	DBH	Batxilergoa	LH HZ	LH HZ	LH Goi-maila	Beste hezkuntza-programa batzuk
Guztira	67,6	51,4	67,5	67,8	65,5	75,5	76,3	74,4	74,5	66,5
Andaluzia	74,5	41,3	76,9	77	75	84,6	77,9	69,9	74,3	100
Aragoi	68,2	54,8	67,8	68,7	65,5	76,2	69,3	75,4	75	63,7
Asturias	72,2	87,6	69,2	69,8	65,6	81,2	72	82,2	86	68,8
Balear Uharteak	65,3	76,4	63,7	63,3	60,5	71,9	82	82,5	87,5	25,4
Ceuta	79,7	69,3	76,9	77,4	74,9	94,5	89,6	100	100	6,7
Errioxa	66,1	51,9	65,6	65,8	60,2	79,7	57,6	73	87,2	41,9
Euskadi	50,9	52,8	51,9	51,7	46,4	49,5	28,6	62,9	55,6	0
Extremadura	80,3	90,1	78,5	78,1	76,1	87,8	99	87,9	90,6	61
Galizia	72,6	56,1	70	70,3	70	86,9	84,8	83,2	86,4	100
Gaztela eta Leon	67,9	67,3	66	66,4	63,7	79,3	68	71,8	77,5	0
Gaztela-Mantxa	81,1	64,2	80,3	80,8	79,6	90,6	87,8	83,9	91,8	72
Kanariak	76,2	30,8	72,3	74,2	75,3	83,4	95,4	94,8	86,9	95,5
Kantabria	70,6	79,5	69,5	68,1	67	85,5	58,5	74,4	76,1	41,7
Katalunia	65,7	62,8	66,8	66,9	62,6	66,7	0	74,3	64,4	67,3
Madril	54,3	43,6	54,6	53,9	51,9	62,2	64,4	63,5	64,9	75,2
Melilla	83,3	55,9	79,1	79,2	89,1	97,4	100	100	100	6,7
Murtzia	70,9	52	68,4	69,4	69	88,2	87,3	72,1	78,2	37,9
Nafarroa	64,3	79,4	62,9	63,5	59,5	64,9	65,7	78,4	79,2	38,9

Valentziako E.	66,5	39,8	66,5	67,1	64,1	72	88,7	72,6	80,2	100

** Batxilergoan eta erdi mailako zein goi mailako heziketa-zikloetan, sistema presentziala eta urrutikoa sartu ditugu*
Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa

- ***Eskolatze-prozesuaren arauketa***

Ikasleek hezkuntza-sistemara, harrera-prozesura eta eskolatzera heltzeko aukera izatea oso garrantzitsua da familientzat, bai eta hezkuntza-administrazioarentzat ere. Onartze-prozesua arau multzo batek erregulatzen du; arau horietan, prozedura, baldintzak eta epeak ezartzen dira, ikasleak hezkuntza-maila guztietan onartzeko: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan.

Era berean, zenbait ikastetxetan eskainitako plazak baino eskabide gehiago egon daitezkeela aurreikusi daitekeenez, araututa daude aplikatu behar diren eskolatzeko lehentasunezko irizpideak (baremazioa) eta eskolatze-batzordeen osaera eta eginkizunak.

Taula honetan jaso ditugu plazen eskaintza eta eskaria ebazteko indarrean dauden lehentasunezko irizpideak.

206. taula: Eskolatze-prozesuaren arauketa

Irizpideak	
Ikastetxean anai-arrebak matrikulaturik izatea edo guraso nahiz legezko tutoreren batek ikastetxean lan egitea.	Ikastetxean lehen anaia edo arreba: 4 puntu.
	Gainerako anaia edo arreba bakoitzarengatik: Puntu bat.
	Gurasoak edo legezko tutoreak: 4 puntu. (Irizpide hau aplika daiteke ikastetxean matrikulaturiko anai-arrebenaren ordez).
Gurasoren baten edo legezko tutoreen bizilekura edo lantokira hurbiltasuna.	Ikaslearen bizitokia ikastetxearen eragin eremuaren barnean baldin badago: 4 puntu.
	Ikaslearen bizitokia ikastetxearen eragin eremuaren mugatik hurbilekoa bada: 2 puntu.
	Ikaslea beste eremu batean bizi baldin bada: 0 puntu.
	Ikastetxeko eragin eremuan lan eginez gero: 4 puntu. (irizpide hau aplika daiteke, bizitokiarenaren ordez).
Familia unitatearen urteko errentak: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga Aitorpeneko likidazio oinarria(k)	Lanbide arteko gutxieneko soldataren parekoak edo hortik beherakoak: 1,5 puntu.
Familia ugariak: kalkulua egiteko berezitasunak aplikatzen dira.	Lanbide arteko gutxieneko soldatatik gorakoak eta soldata horren bikoitzaren parekoak edo hortik beherakoak: 0,5 puntu. Lanbide arteko gutxieneko soldataren bikoitzetik gorakoak: 0 puntu.
Matrikula egin duen pertsonak desgaitasunen bat izatea, edota bere guraso edo anai-arrebetako batek.	Ikaspostua eskatzen duen ikasleak desgaitasuna badu: 2 puntu.
	Guraso edo anai-arrebetako batek desgaitasuna badu: 0,5 puntu.
Familia ugariaren izaera aitortua	Familia ugariaren izaera aitortua: 1 puntu.

Ikaslearen ikasketa-espedientea (Batxilergoa eta erdi- eta goi-mailako Lanbide Heziketako heziketa-zikloak).	Batxilergoa eta Erdi Maila: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasitako arlo eta irakasgai guztietako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa.
	Goi-mailako heziketa-zikloetarako sarbidea: Batxilergoko kalifikazioak.
	Erdi- eta goi-mailarako sarbide-proba: sarbide-proban lortutako kalifikazioa.

Iturria: Ikuskaritza Zerbitzua

5.1.2 Araubide orokorreko ikasketetan eskolatutako ikasleak

- ***Eskolatzeari buruzko zifra orokorrak***

Nafarroako hezkuntza-sisteman, 2013-2014 eta 2016-2017 ikasturteen arteko aldian, araubide orokorreko ikasketetan eskolatutako ikasleak ugaritu egin dira. 2016-2017 ikasturtean, ikasleen kopuruak gora egin du apur bat; hala, aurreko ikasturtean 105.844 ikasle zeuden eta, gero, aldiz, 106.553 (709 pertsona gehiago).

151. grafikoa: Eskola-matrikularen bilakaera orokorra Nafarroan. 2013-2017



Iturria: Guk geuk egina, Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoaren datuekin

Ikasleen banaketak ez du gorabeherarik izan azken urteetan sare publikoan eta itunpeko pribatuan (% 64 eta % 36, hurrenez hurren).

152. grafikoa: Eskola-matrikularen bilakaera orokorra Nafarroan, ikastetxe motaren arabera. 2010-2017



2016-2017 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako 4. mailako matrikula, osotara, 6.850 ikaslekoa izan zen. Ikasle horiei zuzendu zaie ebaluazio diagnostikoa. Egokitzapen motaren bat behar duten lau kasu hartu dira aintzat. Ikastetxeari dagokio behar diren egokitzapenak eta laguntzak eskaintzea, proba egokituak egiteko behar direnak barne.

Ikastetxeek proba diagnostiko horiek errazago aplika ditzaten, bada ikasturte honetan berrikuntza bat: Ebaluazio eta Kalitate Atala –Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroarekin koordinaturik– harremanetan jarri da ikastetxeetako orientatzaileekin, baldin eta ikastetxe horietan Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak badaude, Educa programan mugimenduko, entzumeneko edo ikusmeneko desgaitasuna duten ikasle gisa ageri direnak. Helburua probetako egokitzapenak pertsonalizatzea izan da, kanpoko ebaluazio inklusiboagoa egiteko. Hurrengo taula honetan probetarako egin diren egokitzapenak ageri dira, hezkuntza-premia mota aintzat hartuta.

293. taula: Lehen Hezkuntzako 4. mailako ebaluazioan egindako egokitzapenak

Hezkuntza Premia mota	Egokitzapen mota	Ikastetxe kop.
Mugimenduko desgaitasuna	- Proba guztien formato digital interaktiboa (gaztelaniaz eta euskaraz) - Proba zatikatzea	4 ikastetxe
Entzumen desgaitasuna	- FMren erabilera	7 ikastetxe

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

294. taula: Lehen Hezkuntzako 4. mailako ebaluazioan matrikulatuen eta parte-hartzaileen datuak*

Datu orokorrak	Kop.	%
Matrikula, guztira	6.850*	100
Emaitzak EDUCAn dituzten ikasleak	6.628	96,76
Emaitzak EDUCAn ez dituzten ikasleak	222	3,24

** 2017ko martxoan matrikulatuta.*
Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

295. taula: Lehen Hezkuntzako 4. mailako ebaluazioko parte-hartzearen datuak, ereduaren arabera

Ereduka	A/G eredua		B/D eredua	
	Kop.	%	Kop.	%
Matrikula, guztira	5.108	100,00	1756	100,0
Proba egin duten ikasleak	4.928	96,48	1736	98,86

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

296. taula: Lehen Hezkuntzako 4. mailako gaitasunen araberako ebaluazioko parte-hartzearen datuak

Gaitasunen arabera	Proba egin dute Kop.
Gaztelaniazko hizkuntza-gaitasuna	6.586
Euskarazko hizkuntza-gaitasuna	1.699
Matematika-gaitasuna	6.598
Ingelesezko hizkuntza-gaitasuna	6.578

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

Gaztelaniazko hizkuntza-gaitasuna

Probak bi zati izan ditu: irakurtzeko eta testuak ekoizteko gaitasuna.

Irakurtzeko gaitasuneko proba hainbat testuk eta horiekin lotutako zenbait galderak osatu dute. Testuak ekoizteko gaitasunaren zatian idazlan libre bat idatzi behar izan dute, hainbat pertsona tartean diren istorio, abentura edo ipuin baten gainean.

Gaztelaniaz irakurtzeko gaitasuna

Probak lau testu edo estimulu zituen, eta horietatik irakurriaren ulermeneko galderak atera ziren. 21 itemei zegozkien atazek ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkatutako irakurketa-prozesuekin dute lotura.

Itemen zailtasuna ez da beti bera izan; batzuk oso errazak gertatu dira (% 94,96k erantzun ditu zuzen) eta beste batzuk zailak (ikasleen % 39,39k baino ez dituzte zuzen erantzun).

Gaztelaniazko ekoizpen idatzia

Idazlanean funtsezko hiru alderdi hauek baloratu dira: Aurkezpena eta ortografia, Istorioaren koherentzia eta Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna; denek munta bera izan dute puntuazio osoan (gehienez ere 3 puntu zati bakoitzak). Ondorengo tauletan, aplikatutako zuzenketa-irizpideak zehazten dira:

297. taula: Ekoizpen idatziaren puntuazioa

	0 puntuazioa	1 puntuazioa	2 puntuazioa	3 puntuazioa
Aurkezpena eta ortografia	Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. ikasmailarako. Idazkiaren aurkezpena txarra da eta akats ortografiko asko daude	0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia ziklorako) arteko maila du. 2 puntuazioko eskakizunetako hiru bete ditu.	Lehen Hezkuntzako 4.erako maila egokia du, honako eskakizun hauek betetzen dituelako: ▪ Txukun idatzita egotea (ez dago zirrimarrarik...) ▪ Letra argia, erregularra eta irakurterraza ▪ Ongi zehazturiko marjinak ▪ Ortografia: bost akats gehienez (huts egindako 5 tildeko akats 1 kontatzen da), testu laburrak direnean (10-15 lerro). Zortzi akats, gehienez, testuak luzeagoak direnean.	Lehen Hezkuntzako 4.eko curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera maila bikaina du. 2 puntuazioko lau eskakizunak bikain bete ditu; ortografia akats oso gutxi egin du.
Istorioaren koherentzia	Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. ikasmailarako. Koherentziarik eta egiturarik gabeko istorioa kontatu du. Edukiari dagokionez, jauziak eta justifikatu gabeko hutsuneak daude.	0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia ziklorako) arteko maila du. 2 puntuazioko eskakizunetako lau bete ditu.	Lehen Hezkuntzako 4.erako maila egokia du, honako eskakizun hauek betetzen dituelako: ▪ *Egitura* argia: aurkezpena, korapiloa eta amaiera ditu ▪ *Paragrafo* kopurua: gutxienez ere, hiru paragrafo ditu. ▪ *Bilakaera* tematikoa: ez da perpausa batzuetatik besteetara jauzirik antzeman, ezta justifikatu gabeko hutsunerik ere; istorioa erraz segitzen da. ▪ *Perpausak*: perpausek ideia osoak adierazten dituzte. ▪ *Esaldien* arteko loturak: perpaus batzuk besteekin ongi loturik daude (lokailuak, menderagailuak, puntuazioa). ▪ *Pertsonaien* ezaugarritzea: pertsonaiak eta haien ekintzak ongi zehazturik daude (nork zer egiten duen argi gelditzen da).	Lehen Hezkuntzako 4.eko curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera maila bikaina du. 2 puntuazioko lau eskakizunak bikain bete ditu. Horretaz gain, idazkiak ezaugarri hauek ditu: sormena, argitasuna, hiztegi aberastasuna, testua arintzen duten hizkuntza baliabideen erabilera (orduan; geroago; hala ere, etab.; ez da behar ez den errepikapenik; ez da erabat aurreikusteko modukoa); gainera, ez dago jauzirik edo hutsunerik eta bukaera ez da arrapaladakoa.

Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastauna	Nabarmen eskasa Lehen Hezkuntzako 4. ikasmailarako. Testua ez da egituratu perpaus argiro zehaztu eta bereizietan. Ez du kode idatzia ahozko kodetik bereizi: hitz egiten duen bezala idatzi du. Gramatika akats asko egin ditu.	0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia ziklorako) arteko maila du. 2 puntuazioko eskakizunetako hiru bete ditu.	Lehen Hezkuntzako 4.erako maila egokia du, honako eskakizun hauek betetzen dituelako: ▪ *Esaldien* sintaxia: sintaxi aldetik ongi eraturiko perpausekin egituratutako idazkia. ▪ *Aditz*-denborak: zuzen erabili ditu aditz-denborak. ▪ *Komunztadurak*: aditz komunztadura (subjektua-predikatua) errespetatu du. ▪ *Mendeko* perpausak: ongi eraturiko mendeko bi perpaus erabili ditu, gutxienez. ▪ *Hizkuntza* mota: argi eta garbi bazterrean utzi du lagunarteko eta ahozko hizkuntza. ▪ *Adjektiboak* eta adberbioak: pertsonei eta ekintzei buruzko informazio interesgarria ematen duten adjektiboak eta adberbioak erabili ditu.	Lehen Hezkuntzako 4.eko curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera maila bikaina du. 2 puntuazioko lau eskakizunak bikain bete ditu. Horretaz gain, idazkian ez da akats gramatikalik, hiztegia aberatsa da eta sintaxia menderatzen dela erakusten duten zenbait esamolde erabili ditu. Testuak oso ongi idatzita daude, kontuan izanik hau Lehen Hezkuntzako 4. ikasmaila dela.

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

Emaitza orokorrak

Hizkuntza-gaitasuneko puntuazio globala lortzeko, irakurriaren ulermeneko eta ekoizpen idatziko puntuazio osoak (gehieneko puntuazioa 32 puntukoa da) batu dira; irakurketaren puntuazioak % 71,875eko pisua du (23 puntu 32tik) eta idazketak % 28,125eko pisua (9 puntu 32tik).
Desbiderapen tipikoa 5,44 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 25,38), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun apala dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

298. taula: Hizkuntza-gaitasunean lortutako emaitza orokorrak

Matrikula, guztira	6.850
Gaitsaun-proben kopurua	6.586
Emakume kopurua	3.273
Gizon kopurua	3.313
Gutxieneko puntuazioa	1
Gehieneko puntuazioa	32
Batez besteko puntuazioa	21.43
Desbideratze tipikoa	5.44
Batezbestekoa emakumeetan	22.06
Batezbestekoa gizonetan	20.80
1 maila (%)	11.36
2 maila (%)	17.49
3 maila (%)	57.46
3 + maila (%)	13.70

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

Banaketa, mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun-maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrizanak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

181. grafikoa: Gaztelaniazko hizkuntza-gaitasuna



Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin

Alderdi azpimarragarriak

Hamar ikasletik zazpik (% 71,16) 3. maila edo 3.+ maila erdietsi dute; gai dira beraien eskolatze-mailari dagozkion irakurketa-prozesuak gauzatzeko. Zazpi ikasletik ia batek erdietsi du bikaintasun-maila.

Hamar ikasletik batek baino zertxobait gehiagok (% 11,36) neurri bereziak behar dituzte, behe-beheko mailan daudelako.

Sei ikasletik bat (% 17,49) tarteko egoeran daude, ikasmailari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

182. grafikoa: Gaztelaniaz irakurtzeko gaitasuna, sexuaren arabera

Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin

Neskek mutilek baino 1,26 puntu gehiago erdietsi dute batez beste. Alde hori arintzat har daiteke, desbiderapen tipikoaren laurdena baino txikiagoa baita (DT = 5,44).

Euskarazko hizkuntza-gaitasuna

Probak bi zati izan ditu: irakurtzeko eta testuak ekoizteko gaitasuna. Irakurriaren ulermenak bi estimulu edo testu izan ditu, eta horietatik ateratako 18 galdera egin dira. 18 galderei zegozkien atazak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkatutako irakurketa-prozesuekin daude loturik.

Testuak ekoizteko gaitasunaren zatian idazlan libre bat idatzi behar izan dute, hainbat pertsona tartean diren istorio, abentura edo ipuin baten gainean. Idazlanean funtsezko hiru alderdi hauek baloratu dira: Aurkezpena eta ortografia, Istorioaren koherentzia eta Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna; denek munta bera izan dute puntuazio osoan. Puntuazioak emateko ebaluazio-irizpideak ondoko hauek izan dira:

299. taula: Euskarazko ekoizpen idatziaren puntuazioa

	0 puntuazioa	1 puntuazioa	2 puntuazioa	3 puntuazioa
Aurkezpena eta ortografia	Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako. Idazkiaren aurkezpena txarra da eta akats ortografiko asko ditu.	0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia LHko 4. mailarako) arteko maila du. 2 puntuazioko eskakizunetako hiru bete ditu.	Lehen Hezkuntzako 4.erako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako: ▪ *Txukun idatzita dago* (ez dago zirrimarrarik...). ▪ *Letra* argia eta irakurterraza. ▪ *Marjinak* ongi zehazturik daude. ▪ *Ortografia*: testu laburrak direnean (10-15 lerro), bost akats, gehienez (tz/ts/tx/z/s/x gaizki idatziz gero, horietako 5 akats bakartzat hartuko dira); zortzi akats, gehienez, testuak luzeagoak direnean.	Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du. 2 puntuazioko lau eskakizunak bikain bete ditu; ortografia akats gutxi egin du.
Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako. Koherentziarik eta egiturarik gabeko kontakizuna egin du. Edukiari dagokionez, jauziak eta justifikatu gabeko hutsuneak daude.	0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia LHko 4. mailarako) arteko maila du. 2 puntuazioko eskakizunetako lau bete ditu.	Lehen Hezkuntzako 4.erako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako: ▪ *Egitura argia:* gertaerak kronologikoki kontatu ditu, ongi deskribatu ditu tokiak eta sentipenak (ipuinaren kasuan: aurkezpena, korapiloa eta bukaera bereizi ditu). ▪ *Paragrafo kopurua*: hiru paragrafotan, gutxienez, banatu du testua paragrafoetan. ▪ *Bilakaera tematikoa*: ez da perpaus batzuetatik besterako jauzirik antzeman, ezta justifikatu gabeko hutsunerik ere; kontakizuna erraz segitzen da. ▪ *Perpausak:* perpausek ideia osoak adierazten dituzte. ▪ *Joskera:* paragrafoak zein perpausak ongi loturik daude (lokailuak, menderagailuak, puntuazioa). ▪ *Pertsonaien ezaugarritzea:* pertsonaiak eta beren ekintzak ongi zehazturik daude (nork zer egiten duen argi gelditzen da).	Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du. 2 puntuazioko eskakizun guztiak bikain bete ditu. Horretaz gainera, idazlanak ezaugarri hauek ditu: argitasuna, hiztegi aberastasuna, testua arintzen duten hizkuntza baliabideak erabiltzea (*orduan; geroago; hala ere*, etab.; ez dago alferrikako errepikapenik; ez da erabat aurreikusteko modukoa), ez dago jauzirik edo hutsunerik.

Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	Nabarmen eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako. Perpausak ez dira zuzenak. Ez ditu bereizi kode idatzia eta ahozkoa: hitz egiten duen bezala idatzi du. Gramatika akats dezente egin ditu.	0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia LHko 4. mailarako) arteko maila du. 2 puntuazioko eskakizunetako lau bete ditu.	Lehen Hezkuntzako 4.erako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako: ▪ *Sintaxia:* idazlanean erabilitako sintaxi egiturak zuzenak dira. Ongi eraturiko mendeko bi perpaus erabili ditu, gutxienez. ▪ *Aditzak:* oro har, zuzen erabili ditu (denbora eta aspektua). ▪ *Komunztadura* akats batzuk egin ditu (ergatiboa, pluralgilea...). ▪ *Deklinabidea:* kasu markak ongi erabili ditu, oro har. ▪ *Erregistroa:* argi eta garbi bazterrean utzi ditu lagunarteko eta ahozko hizkuntza. ▪ *Lexiko* egokia erabili du (adjektiboak, adberbioak, hitz eratorriak, hitz elkartuak…). Pertsonaiei eta ekintzei buruzko informazio garrantzitsua ematen dute erabilitako hitzek.	Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du. 2 puntuazioko eskakizun guztiak bikain bete ditu. Horretaz gainera, ez du gramatika akatsik egin, lexiko aberatsa baliatu du eta sintaxia menderatzen duela erakusten duten zenbait esamolde erabili ditu. Testua oso ongi idatzita dago, kontuan izanik Lehen Hezkuntzako 4.mailan gaudela.

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

Emaitza orokorrak

Hizkuntza-gaitasuneko puntuazio globala lortzeko, irakurriaren ulermeneko eta ekoizpen idatziko puntuazio osoak (gehieneko puntuazioa 29 puntukoa da) batu dira; irakurketaren puntuazioak % 68,966ko pisua du (20 puntu 29tik) eta idazketak % 31,034ko pisua (9 puntu 29tik).

300. taula: Euskarazko hizkuntza-gaitasuna

Matrikula, guztira	6.850
Gaitsaun-proben kopurua	1.699
Emakume kopurua	840
Gizon kopurua	859
Gutxieneko puntuazioa	1
Gehieneko puntuazioa	29
Batez besteko puntuazioa	18,76
Desbideratze tipikoa	5,14
Batezbestekoa emakumeetan	19,48
Batezbestekoa gizonetan	18,06
1 maila (%)	12,54
2 maila (%)	13,54

3 maila (%)	61,04
3 + maila (%)	12,89

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

Banaketa, mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun-maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrizanak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

183. grafikoa: Euskaraz irakurtzeko gaitasuna



Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin

Alderdi azpimarragarriak

Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 1 izan da eta handiena 29 puntu.

Desbiderapen tipikoa 5,14 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 27,40), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun apala dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

Ia lau ikasletik hiruk (% 73,93) 3. maila edo 3.+ maila erdietsi dute; gai dira beraien eskolatze mailari-dagozkion irakurketa-prozesuak gauzatzeko. Zazpi ikasletik batek erdietsi dute bikaintasun-maila.

Zazpi ikasletik batek (% 12,54) neurri bereziak behar dituzte, behe-beheko mailan daudelako.

Zazpi ikasletik bat baino gehixeago (% 13,54) tarteko egoeran daude, ikasmailari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

184. grafikoa: Batez besteko puntuazioa euskaraz irakurtzeko gaitasunari dagokionez, sexuaren arabera



Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin

Neskek mutilek baino 1,42 puntu gehiago erdietsi dute batez beste. Alde hori arintzat har daiteke, desbiderapen tipikoaren laurdenaren eta herenaren artean baitago (DT = 5,14).

Matematika-gaitasuna

18 itemei zegozkien atazek ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkatutako matematikako prozesuekin dute lotura.

Emaitza orokorrak

Emaitza orokorrak taula honetan ageri dira.

301. taula: Matematika-gaitasuna

Matrikula, guztira	6.850
Gaitsaun-proben kopurua	6.598
Emakume kopurua	3.279
Gizon kopurua	3.319
Gutxieneko puntuazioa	1
Gehieneko puntuazioa	23
Batez besteko puntuazioa	14,95
Desbideratze tipikoa	4,64
Batezbestekoa emakumeetan	14,63
Batezbestekoa gizonetan	15,28
1 maila (%)	10,84
2 maila (%)	17,98
3 maila (%)	60,76

3 + maila (%)	10,43

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 1 izan da eta handiena 23 puntu.
Desbiderapen tipikoa 4,64 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 31,04), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun apala dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

Banaketa, mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun-maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrizanak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

185. grafikoa: Ehunekoak, mailaka



Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin

Alderdi azpimarragarriak

Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 1 izan da eta handiena 23 puntu. Desbiderapen tipikoa 4,64 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 31,04), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun apala dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

Hamar ikasletik zazpik baino zertxobait gehiagok (% 71,19) 3. maila edo 3.+ maila erdietsi dute; gai dira beraien eskolatze-mailari dagozkion prozesu matematikoak gauzatzeko. Hamar ikasletik batek erdietsi dute bikaintasun-maila.

Hamar ikasletik batek (% 10,84) neurri bereziak behar dituzte, behe-beheko mailan daudelako.

Hamar ikasletik ia bi (% 17,98) tarteko egoeran daude, eskola-mailari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

Mutilek neskek baino 0,65 puntu gehiago erdietsi dituzte, batez beste. Alde hori arintzat har daiteke, desbiderapen tipikoaren laurdena baino txikiagoa baita (DT = 4,64).

186. grafikoa: Batez besteko puntuazioa, sexuaren arabera

Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin

Ingelesezko hizkuntza-gaitasuna

Probak hiru trebetasunetako galderak izan ditu: ahozkoaren ulermena (Listening), 9 galderarekin; idatziaren ulermena (Reading), 15 galderarekin, eta idatzizko adierazpena (Writing), eta lana testu txiki bat idaztea izan da, jarraibide batzuei jarraituz.

Hizkuntza-trebetasun horiek pisu desberdina dute puntuazio osoaren barruan; hona taula honetan puntuazio horiek:

302. taula: Ingelesezko hizkuntza-gaitasuna. Ebaluatutako trebetasunak eta horien pisua puntuazio osoan

Trebetasuna	Puntuazioa	Puntuazio osoaren %
Ahozkoaren ulermena	9	25
Irakurriaren ulermena	15	42
Ekoizpen idatzia	12	33
Guztira	36	100

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

25 galderei zegozkien atazak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkatutako prozesuekin daude loturik.

Emaitza orokorrak

303. taula: Ingeles-gaitasuna

Matrikula, guztira	6.850
Gaitsaun-proben kopurua	6.578
Emakume kopurua	3.269
Gizon kopurua	3.309
Gutxieneko puntuazioa	2
Gehieneko puntuazioa	36
Batez besteko puntuazioa	22,93
Desbideratze tipikoa	6,61
Batezbestekoa emakumeetan	23,81
Batezbestekoa gizonetan	22,06
1 maila (%)	11,34
2 maila (%)	15,17
3 maila (%)	59,55
3 + maila (%)	13,94

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

Banaketa, mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun-maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrizanak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

187. grafikoa: Ingelesez irakurtzeko gaitasunaren araberako ehunekoa



Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin

Alderdi azpimarragarriak

Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 2 izan da eta handiena 36 puntu.
Desbiderapen tipikoa 6,61 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 28,83), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun apala dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

Ia lau ikasletik hiruk (% 73,49) 3. maila edo 3.+ maila erdietsi dute; gai dira beraien eskolatze mailari-dagozkion matematika prozesuak gauzatzeko. Zazpi ikasletik ia batek erdietsi du bikaintasun-maila.

Hamar ikasletik batek baino zertxobait gehiagok (% 11,34) neurri bereziak behar dituzte, behe-beheko mailan daudelako.

188. grafikoa: Irakurtzeko gaitasunaren batez besteko puntuazioa, sexuaren arabera



Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin

Aldagai sozioekonomiko eta kulturala (ISEK)

Aurtengo edizioan, ikasleei aldagai sozioekonomiko eta kulturalei buruzko galdetegi bat eman zaie, informazioa bildu eta indize sozioekonomiko eta kulturala (ISEK) kalkulatzeko.

ISEK indizea

Galdetegiaren xede nagusia informazioa biltzea zen, indize sozioekonomiko eta kulturala (ISEK) osatzeko. Indize horrek kontuan hartzen ditu nazioarteko PISA proiektuan erabilitako aldagai berberak, eta Hezkuntza Ebaluazioaren Espainiako Institutuak autonomia-erkidegoekin elkarlanean egindako diagnostiko-ebaluazio orokorretakoak.

Indizea prestatzeko aldagaiak hauek dira:

- Gurasoen ikasketa-maila (maila handienekoa hartzen da aintzat).
- Gurasoen lanbidea (kategoria handienekoa hartzen da aintzat).
- Etxean elementu jakin batzuk egotea. Lau hauek hartu dira kontuan: ordenagailu eramangarria, mahaiko ordenagailua, entziklopediak, ikasketetan laguntzeko kontsulta-liburuak eta aldizkari espezializatuak (informatika, natura, literatura, etab.).
- Etxeko liburu kopurua.

Lau aldagaiak berdin haztatu dira, eta puntuazioak banaketa normal baten eran eman dira: batezbestekoa=0 eta desbideratze tipikoa=1. Hala, Nafarroako batez bestekoa 0 da.

Ikastetxe bakoitzari ISEK balio bat esleitu zaio; hots, ikastetxe horretako ikasleen puntuazioen batez bestekoa. Ikastetxeek -1,69 eta +1,05 arteko ISEK balioak dituzte; horrek agerian uzten du ikastetxeen batez besteko baldintza sozioekonomikoak askotarikoak direla.

Ebaluazio-azterlan guztietan egiaztatzen ari da ikasleek probetan duten errendimenduaren eta haien maila soziokulturalaren arteko korrelazioa neurrizkoa dela. Txosten honetan ematen dira ikastetxeetako batez besteko puntuazioen eta batez besteko ISEK balioen arteko korrelazioak, gaitasun bakoitzaren arabera banatuta, eta aldagai horien arteko erregresio-grafikoak. Erregresio-grafikoak aztertuta, jarraian azalduko ditugun emaitza orokor hauek lortu dira.

304. taula: ISEKaren eta gaitasunen arteko korrelazio indizea

Gaitasuna	Korrelazio indizea
Hizkuntza gaitasuna gaztelaniaz	0,514
Hizkuntza gaitasuna euskaraz	0,134
Matematika	0,436
Hizkuntza gaitasuna ingelesez	0,532

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

ISEK-errendimendua izeneko erregresio-zuzenek malda positiboa dute; horrek esan nahi du ISEKa handitu ahala batez besteko errendimenduak ere gora egiten duela. Esperotako eraginaren intentsitatea gaitasun batetik bestera aldatzen da: 500 puntuko eskalan ISEKaren balioa igotzen den unitate bakoitza lotuta dago, kasuan kasuko gaitasunerako, ikastetxearen batez besteko puntuazioaren igoerarekin, maldak adierazten duen neurrian. Adibidez, matematika gaitasunean ISEKa desbideratze tipikoa adina handitzen bada, aurreikus daiteke gaitasun horretan 34,90 puntuko igoera izanen dela.

305. taula: Erregresio-zuzenaren malda - Gaitasuna

Gaitasuna	Erregresio-zuzenaren malda (Gradientea, puntu/ISEK unitatea)
Hizkuntza gaitasuna gaztelaniaz	43,39
Hizkuntza gaitasuna euskaraz	15,04
Matematika	36,88
Hizkuntza gaitasuna ingelesez	51,37

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

ISEKak ikastetxeen batez bestekoen arteko bariantzaren edo aldeen parte bat azaltzen du. Ondoko biderkadura honek ematen du bariantza azalduaren ehunekoa: 100 * R^2, non R^2 erregresio-grafikoetan ageri den determinazio-koefizientea den; biderkadura hori gaitasunaren arabera aldatzen da.

306. taula: Esplikatutako bariantza %-a - R2 - Gaitasuna

Gaitasuna	Esplikatutako bariantza %-a $100*R^2$
Hizkuntza gaitasuna gaztelaniaz	26,06
Hizkuntza gaitasuna euskaraz	0,55
Matematika	18,63
Hizkuntza gaitasuna ingelesez	27,97

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

ISEK indizea aldagai iragarle modura erabiltzen da; hau da, ikastetxeei puntuazioak eman dakizkieke beren ISEKaren arabera, eta, gero, ikastetxeak lortutako balio hori benetan lortutako emaitzarekin konparatu. Ikastetxeetako txostenetan ikastetxeko puntuazioa errendimenduaren eta ISEKaren arteko erregresio-grafikoan irudikatu da eta, horri esker, lortutako puntuazioa ISEK balioaren arabera iragarritakoarekin erka dezakegu. Grafiko horretan ikastetxeek duten posizioari dagokionez, 3 kasu desberdin ditugu:

- Erregresio-zuzena baino gorago dauden ikastetxeak: horien maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) arabera iragarritakoa baino batez besteko handiagoa lortu dutenak.

- Erregresio-zuzena baino beherago dauden ikastetxeak: horien maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) arabera iragarritakoa baino batez besteko txikiagoa lortu dutenak.

- Erregresio-zuzenean dauden ikastetxeak: iragarritako puntuazioa lortu dutenak.

Grafiko hauetako informazioak ikastetxeen emaitza globalak testuinguruan kokatzen ditu, ikastetxeko ikasleen batez besteko ezaugarri soziokulturalen arabera, eta haien emaitzak Nafarroako batez bestekoarekin modu justuagoan erkatzeko aukera ematen du: ISEKa 0 baino handiagoa duen ikastetxe batek batez besteko puntuazioa (500 puntu) baino puntuazio handiagoa lortu beharko luke eta ISEKa 0 baino baxuagoa duen ikastetxe batek 500 puntutik beherako batez besteko puntuazioa lortzea espero izatekoa da. Baina ez da beti iragarpen generiko hori betetzen, eskolako errendimenduan izaten baitira beste aldagai batzuk, hala nola, norberaren lana, ikasteko estrategiak, familiako itxaropenak, irakasleen itxaropenak, etab.

Ikastetxe bakoitzak dituen ISEK balioa eta erregresio-zuzenarekiko kokapena gorabehera, guztietan hobetu daiteke lortutako emaitza, bi aldagai horien arteko erlazioa ez baita determinista edo funtzionala; izan badira ikasleen errendimenduan eragiten duten beste aldagai batzuk. Ondorio hori atera daiteke erregresio-grafikoei erreparatuta, ISEK berdina duten ikastetxeek emaitza desberdinak lortzen dituzte eta; ekitate edo gaitasun desberdina dute hasierako desabantailak konpentsatzeko, ikasleen maila sozioekonomiko eta kultural txikiagoaren ondorioz.
Ikastetxeko zer aldagaik eragiten duten modu batera edo bestera ikertzea interesgarria da ikastetxean bertan hobekuntza-neurriak hartzeko, horrek hezkuntza-sistema osoari ekarriko bailioke onura.

Grafikoan irudikatzen dira ikastetxeko ISEK balioak. Ikastetxeak 4 taldetan sailkatu dira (ISEK-Q1, ISEK-Q2, ISEK-Q3 eta ISEK-Q4), ikastetxeen ISEKaren maiztasun banaketaren kuartilak bereizten dituzten 3 atalaseen arabera (inkesta egindako ikasleen laurdena hartzen du talde bakoitzak).
Sailkapen horretan, 66 ikastetxek dituzte lehen kuartileko ISEK balioak (beheko maila); 59 ikastetxek, bigarren kuartileko ISEK balioak (maila ertain-behekoa); 50 ikastetxek, hirugarren kuartilekoak (maila ertain-goikoa), eta 32 ikastetxek, goiko kuartilekoak (goiko maila).





Erregresio-zuzenak

Ikastetxeen tamaina askotarikoa denez, erregresio-zuzenaren koefizienteak lortu dira ikastetxe bakoitzaren datuak haztatuz, ikastetxe horietako bakoitzean ebaluatutako ikasmailan probak egin dituzten ikasleen kopuruaren arabera. Haztapen horrek grafikoetan azaldutako koefizienteak adierazgarriago egiten ditu eta, beraz, ondorio fidagarriak ateratzen laguntzen du.

Jarraian azaltzen dira gaitasun bakoitzerako grafikoak. Ardatz horizontalean irudikatu dira ikastetxeko ISEKak eta ardatz bertikalean, berriz, ikastetxe bakoitzaren batez besteko puntuazio normalizatua, gaitasun bakoitzerako. Puntu bakoitzak ikastetxe bat irudikatzen du eta erdiko puntua (ISEK = 0, puntuazio normalizatua = 500) Nafarroako batezbestekoari dagokio.

189. grafikoa eta taula: Gaztelaniazko hizkuntza-gaitasunaren eta ikastetxearen ISEKaren arteko erregresioa



R2 determinazio-koefizientea	0,2606
Esplikatutako bariantza %-a 100*R^2	26,06
Gradientea	43,39 puntu/ISEK unitatea
R korrelazio-koefizientea	0,514

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

Gaztelaniazko hizkuntza-gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 316,53 puntukoa da.

190. grafikoa eta taula: Euskarazko hizkuntza-gaitasunaren eta ikastetxearen ISEKaren arteko erregresioa



R2 determinazio-koefizientea	0,0055
Esplikatutako bariantza %-a 100*R^2	0,55
Gradientea	15,04 puntu/ISEK unitatea
R korrelazio-koefizientea	0,134

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

Euskarazko hizkuntza-gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 285,35 puntukoa da.

Gráfico y tabla nº 191: Matematika-gaitasunaren eta ikastetxearen ISEKaren arteko erregresioa



R2 determinazio-koefizientea	0,1863
Esplikatutako bariantza %-a 100*R^2	18,63
Gradientea	36,88 puntu/ISEK unitatea
R korrelazio-koefizientea	0,436

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

Matematika gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 303,78 puntukoa da.

Gráfico y tabla nº 192: Ingelesezko hizkuntza-gaitasunaren eta ikastetxearen ISEKaren arteko erregresioa



R2 determinazio-koefizientea	0,2797
Esplikatutako bariantza %-a 100*R^2	27,97
Gradientea	51,37 puntu/ISEK unitatea
R korrelazio-koefizientea	0,532

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

Ingelesezko hizkuntza-gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 285,07 puntukoa da.

Ondoko gaitasun hauek ebaluatu gabe geratu dira: gaitasun digitala, Ikasten ikasi, Gaitasun sozial eta zibikoak, ekimen sena eta ekintzailetza, Kultura-kontzientzia eta adierazpena.

5.3.3 Lehen Hezkuntzako 6. mailaren amaierako ebaluazioa

2016-2017 ikasturteko Lehen Hezkuntzako 6. mailako etapa-amaierako ebaluazioa honako alderdi hauetan oinarritu da: irakas-hizkuntzen gaineko hizkuntza-gaitasuna, hizkuntza-ereduaren arabera; gaitasun matematikoa; eta ingelesezko hizkuntza-gaitasuna.

Errendimendu probak Ebaluazio eta Kalitate Atalak prestatu ditu, irakasleek taldeka egindako lanetik abiatuta. Beraz, kanpokoak izan dira ikastetxeentzako. Kanpotik aplikatu dira (irakaskuntzako titulazioa duten kanpoko enpresa bateko langileek), maiatzeko azken bi asteetan, ikastetxe guztietan, eta aurretik ezarritako irizpideen arabera zuzendu dira.

Laginean oinarritutako ebaluazioa

2016-2017 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 6. ikasmailako matrikula, osotara, 6.494 ikaslekoa izan zen. Horietatik, 1.384 ikasle etapa-amaierako ebaluazioan parte hartzeko hautatutako laginaren parte dira.

Lagina bi etapatan hartu da:

- 1. etapa: ikastetxeak hautatzea
  - Bi estratu ezarri dira: ikastetxe publikoak eta itunpeko ikastetxeak
  - Ikastetxearen tamainarekiko proportzionala den ausazko hautespen sistematikoa
- 2. etapa: ikastetxe bakoitzeko ikasleak aukeratzea
  - Ausazko hautespen sinplea, generoaren araberako estratifikazioa
  - Gehienez ere 30 ikasle ikastetxe bakoitzeko

307. taula: Lehen Hezkuntzako 6. mailako ebaluazioan parte hartu duten ikastetxeak, titulartasunaren arabera

Datu orokorrak	Kop.	%
Lagina, guztira	50	100
Ikastetxe publikoak	30	60
Itunpenko ikastetxeak	20	40

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

308. taula: Lehen Hezkuntzako 6. mailako ebaluazioan parte hartu duten ikastetxeen zerrenda

Ikastetxea	Herria	Titulartasuna
Virgen de la Cerca HLHIP	Andosilla	Publikoa
Ezkaba HLHIP	Antsoain	Publikoa
S. Miguel HLHIP	Agoitz	Publikoa
Luis Amigó ikastetxea	Aranguren (Mutiloa Beiti)	Itundua
San Pedro HLHIP	Aranguren (Mutiloa)	Publikoa
Mater Dei	Aiegi	Itundua
Alaiz HLHIP	Barañain	Publikoa
Los Sauces HLHIP	Barañain	Publikoa
Baztan ikastola	Baztan	Itundua
Labiaga ikastola	Bera	Itundua
Mendialdea I HLHIP	Berriozar	Publikoa
Irabia ikastetxea	Burlata	Itundua
Regina Pacis	Burlata	Itundua
Ermitaberri HLHIP	Burlata	Publikoa
Virgen de la Oliva HLHIP	Zarrakaztelu	Publikoa
2 de Mayo HLHIP	Castejón	Publikoa
Miravalles-El Redín, sede Miravalles	Zizur	Itundua
Gloria Larrainzar Eugi HLHIP	Esteribar (Zubiri)	Publikoa
Andra Mari ikastola	Etxarri Aranatz	Itundua
Dª Álvara Álvarez HLHIP	Faltzes	Publikoa
San Francisco Javier HLHIP	Mendabia	Publikoa
Nª Sra. del Patrocinio HLHIP	Milagro	Publikoa
Auzalar HLHIP	Orkoien	Publikoa
Miravalles-El Redín, sede El Redín	Iruña	Itundua
Esclavas del Sagrado Corazón	Iruña	Itundua
Hijas de Jesús ikastetxea	Iruña	Itundua
Santísimo Sacramento ikastetxea	Iruña	Itundua
San Ignacio ikastetxea	Iruña	Itundua
Santo Tomás ikastetxea	Iruña	Itundua
Sagrado Corazón ikastetxea	Iruña	Itundua
Vedruna ikastetxea	Iruña	Itundua
Patxi Larrainzar HLHIP	Iruña	Publikoa
Cardenal Ilundáin HLHIP	Iruña	Publikoa
El Lago Mendillorri HLHIP	Iruña	Publikoa
Mendillorri HLHIP	Iruña	Publikoa
San Francisco HLHIP	Iruña	Publikoa
San Juan de la Cadena HLHIP	Iruña	Publikoa
Jaso ikastola	Iruña	Itundua
Puente la Reina-Gares HLHIP	Gares	Publikoa
Luis Gil HLHIP	Zangotza	Publikoa
Marqués de la Real Defensa HLHIP	Tafalla	Publikoa
Garcés Fayos ikastola	Tafalla	Itundua
Anunciata ikastetxea	Tutera	Itundua
Compañía de María ikastetxea	Tutera	Itundua

Elvira España HLHIP	Tutera	Publikoa
Griseras HLHIP	Tutera	Publikoa
Monte San Julián HLHIP	Tutera	Publikoa
Obispo Irurita HLHIP	Ultzama (Larraintzar)	Publikoa
Urroz HLHIP	Urrotz-hiria	Publikoa
Lorenzo Goicoa HLHIP	Atarrabia	Publikoa

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

309. taula: Lehen Hezkuntzako 6. mailako ebaluazioan lagineko matrikulatuen eta parte-hartzaileen datuak*

Datu orokorrak	Kop.	%
Matrikula, guztira	6.494	100
Lagina	1.384	21

** 2017ko apirilean matrikulatuta*
Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

310. taula: Lehen Hezkuntzako 6. mailako ebaluazioan lagineko parte-hartzaileen datuak, titulartasunaren arabera*

Datu orokorrak	Kop.	%
Lagina, guztira	1.384	100
Ikastetxe publikoak	814	59
Itunpenko ikastetxeak	570	41

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

311. taula: Lehen Hezkuntzako 6. mailako ebaluazioan lagineko parte-hartzaileen datuak, generoaren arabera*

Datu orokorrak	Kop.	%
Lagina, guztira	1.384	100
Emakumeak	672	49
Gizonak	712	51

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

Proben ezaugarriak

Lehen Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumari dagozkion eduki-blokeekin zerikusia duten itemak Nafarroako Foru Komunitatean (60/2014 Foru Dekretua); hainbat zeregin edo prozesu izanen dituzte:

312. taula: Lehen Hezkuntzako 6. mailako ebaluazioko proben ezaugarriak

Gaitasun zientifikoa	Irakurtzeko gaitasuna	Matematiko gaitasuna
Gai zientifikoak identifikatu	Informazioa bilatu eta lortu	Ezagutu eta errepikatu
Fenomenoak zientifikoki azaldu	Barneratu (ulermen orokorra) eta interpretatu	Aplikatu eta aztertu
Froga zientifikoak erabili	Hausnarketa eta balioztapena	Arrazoitu eta hausnartu

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

313. taula: Lehen Hezkuntzako 6. mailako ebaluazioko item motak*

Item motak
Aukera anitzeko galderak: hautatzeko lau aukera izango dituzte (A, B, C edo D), bat zuzena izango da (gakoa) eta beste hiruak okerrak (distraktoreak).
Galdera erdi-itxiak: erantzun zehatz bakarra, buruketaren erantzuna (zenbakia) edo esaldian hutsuneak bete (hitza).
Galdera irekiak: ikasleak eraiki beharreko esaldiak, erantzun zuzen zehatzik gabe (prozedurak garatu eta emaitzak lortu, besteak beste).

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

Gaztelaniaz edo euskaraz irakurtzeko gaitasuna

Probak hiru testu edo estimulu izan ditu, eta horietatik irakurriaren ulermeneko galderak atera ziren. 23 itemei zegozkien atazek etapa bukaerako ebaluazioaren esparruan finkatutako irakurketa-prozesuekin dute lotura.

Matematika-gaitasuna

24 itemei zegozkien atazek etapa-amaierako ebaluazioaren esparruan finkatutako matematika-prozesuekin dute lotura.

Zientziarako gaitasuna

38 itemei zegozkien atazek etapa-amaierako ebaluazioaren esparruan finkatutako prozesuekin dute lotura.

Ingelesezko hizkuntza-gaitasuna

Probak hiru trebetasunetako galderak izan ditu: ahozkoaren ulermena (Listening), 10 galderarekin; idatziaren ulermena (Reading), 21 galderarekin, eta idatzizko adierazpena (Writing), eta lana testu txiki bat idaztea izan da, jarraibide batzuei jarraituz. 32 itemei zegozkien atazek etapa-amaierako ebaluazioaren esparruan finkatutako prozesuekin dute lotura.

Emaitzen azterketa

Lehen Hezkuntzako 6. mailako etapa-amaierako kanpo-ebaluazioaren emaitzen txostena 2017ko azken hiruhilabetekoan eginen da, planifikatuta zegoen moduan.

5.3.4 IIP programaren ebaluazioa Lehen Hezkuntzako 6. mailan

2016-2017 ikasturtean 6.mailan Ingelesa Ikasteko Programa (IIP) egin duten ikasleek ingeles-proba egin dute programa horren barnean. Hezkuntza Departamentuko Ebaluazio eta Kalitate Atala arduratu da ebaluazioaz. Ebaluazio hori ingelesa ikasteko programen ebaluazio-azterketaren bigarren fasea da, hain zuzen ere, aurreko ikasturtean (2015-2016) egindako azterketaren jarraipena.

Azterketaren helburu nagusia da Lehen Hezkuntza amaitzean ingelesa ikasteko programak dituzten ikastetxeetako ikasleek duten ingelesezko hizkuntza-gaitasunari buruzko informazioa ematea, gaitasun horren garapen-mailari buruzko adierazle bat ezartzeko xedez. Erabilitako erreferentzia-mailak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko erreferentzia-mailen egokitzapena dira.

Zehazki, azterketaren bigarren fase honetarako, hau lortu nahi da:

- Jakitea IIP programa duten ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzako 6. mailan matrikulatuta dauden ikasle guztiek zer maila duten ingelesezko ahozkoaren ulermenean (*listening*), idatziaren ulermenean (*reading*), idatzizko adierazpenean (*writing*) eta ahozko adierazpenean (*speaking*); horretarako, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko erreferentzia-mailak egokitu dira.
- Ikastetxeei kanpoko diagnostiko-tresna bat eskaintzea, haien barne-ebaluazioaren osagarria izanen dena, eta hobekuntza-planak ezartzen lagunduko diena.

Azterketaren ondorengo faseetan, ez da baztertzen beste gaitasun garrantzitsu batzuk ebaluatzeko aukera, edo Britishi/IIP programan ikasten ez duten ikasleekin eragin-faktoreei buruzko azterketa konparatiboak egitea.

Ikasleen hautaketa

Ingelesa Ikasteko Programa emateko baimena duten zortzi ikastetxeek Haur Hezkuntzako hirugarren zikloan eta Lehen Hezkuntzako sei mailatan zuten programa ezarrita 2016-2017 ikasturtean; ikastetxe horietan Lehen Hezkuntzako 6. mailan matrikulatuta zeuden ikasle guztiak aukeratu ziren. Hautaketa exhaustiboa edo zentsala da, azterketa egin zeneko 399 ikaslez osatua.

Taula honetan jaso da ikasleen banaketa, ikastetxeen arabera:

314. taula: Lehen Hezkuntzako 6. mailako IIP programaren ebaluazioko ikasleen banaketa

Ikastetxea	Hizkuntza-eredua/programa	Talde kop.	Ikasle kop.
Beriaingo* HLHIP	AG-PAI	1	22
Burlatako Hilarión Eslava* HLHIP	AG-PAI	2	34 (16 + 18)
Cintruénigoko Otero de Navascués* HLHIP	AG-PAI	4	86 (22 + 21 + 21 + 22)
Lizarrako Remontival* HLHIP	AG-PAI	2	43 (23 + 20)
Noaingo S. Miguel* HLHIP	AG-PAI	2	36 (16 + 20)
Iruñeko Doña Mayor HLHIP	AG-PAI	3	69 (22 + 23 + 24)
Zizurko Camino de Santiago HLHIP	AG-PAI	2	43 (22 + 21)
Zizurko Catalina de Foix HLHIP	G-PAI	3	66 (22 + 22 + 22)
Guztira	8 ikastetxea	19	399

** Itaundutako ikasleen % 55 etapa IIP programan amaitu duen lehenengo promoziokoak dira.*
Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

Ebaluazio eta Kalitate Atalak, halaber, aukera eman zien berariazko ingelesezko hizkuntza-gaitasuneko probak egiteko Lehen Hezkuntzako seigarren mailako 257 ikasleri; ikasleok Nafarroako Foru Komunitateko British programa zuten sei ikastetxeetan ikasten zuten (Añorbe HLHIP, Iruñeko Azpilagaña HLHIP, Iruñeko Cardenal Ilundáin HLHIP, Iruñeko José María Huarte HLHIP, Atarrabiako Lorenzo Goicoa CPEIP Vill. Lorenzo Goicoa eta Tuterako Elvira España CPEIP Tud. Elvira España). Guztiek eskaintza baztertu zuten. Gogoratu behar da Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta British Council delakoaren arteko Ituneko curriculum integratuari jarraitzen dioten ikastetxe horietako ikasleek proba batzuk egin behar dituztela ekainean, Lehen Hezkuntzako azken maila amaitzeko.

399 ikasleko hasierako plangintzari egokitzapen hauek egin zitzaizkion: 4k ikastetxea utzi zuten, 25 salbuetsita geratu ziren, 13 ez ziren agertu eta 4k ez zituzten proba guztiak egin. Azken buruan, aurreikusitako 399 ikasletik 353ra jaitsi zen. Hau da, salbuespenik ez zuten eta proba guztiak erantzun zituzten 353 ikasle egon ziren. Jaitsiera horrek planifikatuaren aldean

lortu gabeko % 11,5eko ehunekoa dakar (% 1 beste ikastetxe batera joan zirelako, % 6,3 salbuetsita zeudelako, % 3,2 ez zirelako agertu eta % 1 ez zirelako guztiz ebaluatu).

Ondorengo taula hauetan salbuespenen banaketa adierazten da, motaren arabera, bai eta salbuespen mota bakoitzaren deskribapena ere. Salbuespen gehienak B motakoak dira (IIP programara berandu sartutako ikasleak, programan ikasturte bat baino gutxiago daramatenak), eta salbuespen guztien % 64 dira.

315. taula: Lehen Hezkuntzako 6. mailako IIP programaren ebaluazioko salbuespen motak

Salbuespen motak	Salbuetsitako kop.	Salbuetsitako %
A mota	2	8
B mota	16	64
C mota	0	0
D mota	4	16
E mota	3	12
Guztira	25	100

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

316. taula: Lehen Hezkuntzako 6. mailako IIP programaren ebaluazioko salbuespenen deskribapena

Salbuespen mota	Deskribapena
A mota	Hezkuntza sisteman sartu berriak izanik (duela ikastetxe bat baino gutxiago), gaztelania (edo kasuan kasu, euskara ez ezagutzea).
B mota	PAI programan sartu berriak (duela ikastetxe bat baino gutxiago programan).
C mota	Proba egitea galarazten duen inguruabar iragankorra (esate baterako, igeltsatutako besoa, ikusmen urria…)
D mota	Curriculumeko atzerapena duten Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak, LHko 4. edo beheragoko mailetako Matematika eta Hizkuntza arloei dagozkien ikaskuntzak gainditzeko errekuperazio planak egiten ari direnak. Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak, LHko 5.eko Matematika edo/eta Hizkuntza arloei dagozkien ikaskuntzak gainditzeko errekuperazio planak (EP5) egiten ari direnak. Ikasle hauek probak normaltasunez eginen dituzte eta emaitzak modu normalizatuan sartuko dira Educa aplikazioan.
E mota	Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak. Educa kudeaketa programan erregistratua eta egokitzapen curricular esanguratsuarekin. Erregistratua edo erroldatua egotea ez da aski arrazoi salbuespena izateko.

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

Probaren ezaugarriak

Landa-lana 2017ko martxoaren 27tik apirilaren 3ra egin zen, eta maila anitzetako proba bat erabili zen ingelesezko hizkuntza-gaitasuneko trebetasun bakoitza berariaz neurtzeko. Probak ikastetxeetatik kanpo aplikatu dira.

Probak diseinatzeko eta gauzatzeko eskumena Hezkuntza Departamentuak dauka; beraz, ikastetxeetatik kanpo dago. Parte hartu duten ikastetxeek maiatzean jaso zituzten ebaluatutako ikasle bakoitzak trebetasun bakoitzerako izandako emaitzak.

Ingelesezko hizkuntza-gaitasuneko trebetasunen probek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko erreferentzia-mailak dituzte erreferentzia, zeinak ikerketa-objektuaren hezkuntza-mailara egokitu diren; probak, Hezkuntza Departamentuko Atzerriko Hizkuntzen Atalak prestatu ditu. Proba guztiak aurretik ezarritako, homogeneizatutako eta estandarizatutako irizpideen arabera zuzendu dira.

Zehazkiago, ingelesezko hizkuntza-gaitasuna berariaz ebaluatzeko maila anitzeko probak lau trebetasun barne hartzen ditu, eta, beraz, lau azpiprobak osatzen dituzte: ahozkoaren ulermena (*listening*), idatziaren ulermena (*reading*), idatzizko adierazpena (*writing*) eta ahozko adierazpena (*speaking*). Ingelesezko hizkuntza-gaitasunaren mailak ezaugarritzeko Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratua erabili da.

Ingelesezko hizkuntza-gaitasuneko proben emaitzak

- Ingelesezko ahozkoaren ulermena (Listening)

Ondorengo grafiko honetan *ingelesezko ahozkoaren ulermenerako (Listening)* ezarritako erreferentzia-maila komunetako bakoitzean kokatutako ikasleen ehunekoa adierazten da.

193. grafikoa: Ingelesezko ahozkoaren ulermeneko (Listening) erreferentzia-mailak



Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin egina

Ahozko ulermenean, IIP programan ikasten duten ikasleen % 30,3k Pre-A1 eta A1 mailak lortzen dituzte, eta % 69,7 A2 eta B1 mailetara heltzen dira.

- Ingelesezko idatzizko ulermena *(Reading)*

Ondorengo grafiko honetan *ingelesezko idatzizko ulermenerako (Reading)* ezarritako erreferentzia-maila komunetako bakoitzean kokatutako ikasleen ehunekoa adierazten da.

194. grafikoa: Ingelesezko idatziaren ulermeneko (Listening) erreferentzia-mailak



Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin egina

Idatzizko ulermenean, IIP programan ikasten duten ikasleen % 22,4k Pre-A1 eta A1 mailak lortzen dituzte, eta % 77,6 A2 eta B1 mailetara heltzen dira.

- **Ingelesezko idatzizko adierazpena *(Writing)***

Ondorengo grafiko honetan *ingelesezko idatzizko adierazpenerako (Writing)* ezarritako erreferentzia-maila komunetako bakoitzean kokatutako ikasleen ehunekoa adierazten da.

Idatzizko adierazpenean, IIP programan ikasten duten ikasleen % 68,3k Pre-A1 eta A1 mailak lortzen dituzte, eta % 31,7 A2 eta B1 mailetara heltzen dira.

195. grafikoa: Ingelesezko idatzizko adierazpeneko (Writing) erreferentzia-mailak



Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin egina

- Ingelesezko ahozko adierazpena *(Speaking)*

Ondorengo grafiko honetan *ingelesezko ahozko adierazpenerako (Speaking)* ezarritako erreferentzia-maila komunetako bakoitzean kokatutako ikasleen ehunekoa adierazten da.

Ahozko adierazpenean, IIP programan ikasten duten ikasleen % 48,7k Pre-A1 eta A1 mailak lortzen dituzte, eta % 51,3 A2 eta B1 mailetara heltzen dira.

196. grafikoa: Ingelesezko ahozko adierazpeneko (Speaking) erreferentzia-mailak



Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin egina

Emaitzen laburpena

Ehunekoen banaketak adierazten dituen ondorengo taula honetan, IIP programan ikasten duten ikasleek lortutako emaitzen laburpena agertzen da, ingelesezko hizkuntza-gaitasuneko lau trebetasunetan.

317. taula: Erakutsitako trebetasunen ehunekoak

Erakutsitako trebetasunak, lortutako emaitzen arabera	MCERLra egokitutako erreferentziazko mailak			
	Pre-A1	A1	A2	B1
Ingelesezko idatzizko ulermena (Reading)	2,5	19,8	25,5	52,1
			77,6 (A2+B1)	
Ingelesezko ahozko ulermena (Listening)	15	15,3	37,4	32,3
			69,7 (A2+B1)	
Ingelesezko ahozko adierazpena (Speaking)	1,7	47	34,8	16,4

			51,3 (A2+B1)	
Ingelesezko idatzizko adierazpena (Writing)	11	57,2	21,5	10,2
			31,7 (A2+B1)	

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

IIP programan ikasten dutenek emaitza hobeak dituzte ulermeneko trebetasunetan adierazpenekoetan baino, hurrenkera honetan: lehenbizi, idatzizko ulermena, bigarrenik, ahozko ulermena, hirugarrenik, ahozko adierazpena eta, azkenik, idatzizko adierazpena.

Bestalde, IIP programako ikasleen ia bostetik lauk A1 baino maila hobea lortzen dute idatzizko ulermenean, bi heren baino gehixeagok A1 baino maila hobea lortzen dute ahozko ulermenean, erdia baino gehixeagok A1 baino maila handiagoa lortzen dute ahozko adierazpenean, eta ia herenak A1 baino maila handiagoa lortzen dute idatzizko adierazpenean. Betiere, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren egokitutako erreferentzia-mailak erreferentziatzat hartuta.

5.3.5 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ebaluazioa

Hezkuntzako Zuzendari Nagusiaren uztailaren 6ko 273/2016 Ebazpenean adierazten denez, DBHko 2. maila amaitzean, ikastetxe guztiek ordura arte eskuratu diren oinarrizko gaitasunen diagnostiko-ebaluazio bat egin behar dute. Ebaluazio horrek ondoko ezaugarri hauek izanen ditu:

- Zentsala da, ikasle guztiek egin beharrekoa.
- Oinarrizko gaitasunei buruzkoa.
- Informatiboa, ikasleentzako eta familientzako.
- Prestakuntzakoa, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan laguntzeko.

2016-2017ko ebaluazio diagnostiko zentsalean landu dira irakas-hizkuntzetako irakurtzeko gaitasuna, matematika-gaitasuna, zientzia-gaitasuna eta ingelesezko hizkuntza-gaitasuna.

Errendimendu probak Ebaluazio eta Kalitate Atalak prestatu ditu, irakasleek taldeka egindako lanetik abiaturik. Beraz, kanpokoak izan dira ikastetxeentzako, eta ikastetxe guztietan egun beretan aplikatu dira eta aurrez finkatutako irizpideen arabera zuzendu dira.

Ekainaren hasieran, ikastetxeek ikasleen emaitzak jaso zituzten, banako txostenak egin zitzaten, eta familiei eman zitzaizkien ikasturtea amaitu ondoren.

Egun beretan, ikastetxeek, Educa aplikazioaren bitartez, estatistikoen txosten osoa eskuratu zuten. Hartan, honako hauek agertzen dira: batez besteko puntuazioa, desbideratze tipikoa, gaitasun-mailaren araberako ikasleen banaketa, itemetan zuzen erantzundakoen ehunekoak, ikastalde bakoitzeko batez besteko puntuazioa eta errendimenduaren eta ISEK indizearen (aldagai sozioekonomikoa) arteko erregresioaren informazioa. Ebaluatutako gaitasunaren araberako informazioa tauletan eta grafikoetan eman zen.

Txosten horrek aurretik emandako informazioa osatzen du. Ikuspegi orokorragoa ematen dio, ikasle guztiak eta proben ezaugarriak ardatz gisa harturik. Txosten horretan, garrantzi handikoak dira gaitasun-mailen esanahia, itemak gaitasun-mailei atxikitzea (mailaketa) eta ebaluatutako prozesua item bakoitzarekin identifikatzea.

Ikastetxearen batez besteko errendimenduaren eta ISEKaren batez besteko balioaren arteko korrelazioa aztertu da beste atal batean. Gaitasun bakoitzari dagokion erregresio-zuzena irudikatzen da eta horri esker ikus daiteke zenbateko inpaktua edo eragina duen aldagai sozioekonomiko eta kulturalak ikastetxeen batez besteko errendimenduan.

Izaera zentsala eta salbuespenak

2016-2017 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako 2. mailako matrikula, osotara, 7.036 ikaslekoa izan zen. Kopuru oso horretan Curriculum Egokituko Programan (CEP) ari diren pertsonak ere sartuta daude, eta ikasle horien artean bi egoera daude: eskolak ikastetxeetan hartzen dituztenak eta irabazi asmorik gabeko erakundeetan eskolatuak daudenak. CEPeko 142 ikasleak salbuetsitzat jotzen dira ebaluazioaren emaitza estatistiko globalak kalkulatzerakoan.

Ebaluazio guztietan bezala, ikasle batzuek ezintasun teknikoak dituzte probak baldintza egokietan egin ahal izateko. Hori dela eta, hiru salbuespen-arrazoi ezarri ziren:

- probaren hizkuntza ez ezagutzea, hasiberria izateagatik (urtebete baino gutxiago),
- proba egitea galarazten duen inguruabar iragankorra (esate baterako, igeltsatutako besoa, ikusmen urria...),
- desgaitasun psikikoa, intelektuala, motorikoa edo sentsoriala, Educa kudeaketa-programan erregistratua, eta irakasgai gehienetan bi maila baino gehiagoko curriculum-desfasea.

Irizpide horiek aplikatuta, 137 ikasle salbuetsi ziren. Horrenbestez, guztira, 6.757 ikaslek egin dituzte probak.

Ikastetxeek proba diagnostiko horiek errazago aplika ditzaten, bada ikasturte honetan berrikuntza bat: Ebaluazio eta Kalitate Atala –Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroarekin koordinaturik– harremanetan jarri da ikastetxeetako orientatzaileekin, baldin eta ikastetxe horietan Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak badaude, Educa programan mugimenduko, entzumeneko edo ikusmeneko desgaitasuna duten ikasle gisa ageri direnak. Helburua probetako egokitzapenak pertsonalizatzea izan da, kanpoko ebaluazio inklusiboagoa egiteko. Hurrengo taula honetan probetarako egin diren egokitzapenak ageri dira, hezkuntza-premia mota aintzat hartuta.

318. taula: Egindako proben egokitzapenak, hezkuntza-premia motaren arabera. 2017

Hezkuntza Premia mota	Egokitzapen mota	Ikastetxe kop.
Mugimenduko desgaitasuna	- Proba guztien formato digital interaktiboa (gaztelaniaz eta euskaraz) - Proba zatikatzea Proba zatikatzea	4 ikastetxe
Entzumeneko desgaitasuna	- FMren erabilera	6 ikastetxe
Ikusmeneko desgaitasuna	- Proba egiteko espazioaren hautaketa - ebaluazioaren lehenengo saioan NHBBZko profesionala bertaratuko da - Proba guztiak Braillera egokitu	2 ikastetxe

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

Ikasturte honetan, lehen aldiz, ebaluazio diagnostikoan sartu dira Ikaskuntza eta Errendimendua Hobetzeko Programako (IEHP) 2. maila egiten ari diren ikasleak.

Matrikularen eta parte-hartzearen datuak

Ondoko taulan azaltzen dira izaera zentsala eta egindako ebaluazioaren munta ikusarazten duten datuak:

319. taula: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako matrikularen eta parte-hartzearen datuak. 2017

	Kopurua	%
Matrikula, guztira	7.036	100
CEPeko ikasleak	142	2,02
Salbuetsitako ikasleak	137	1,95
Guztira (2. DBH + 2 IEHP)	6.757 (6.461 + 296)	96,03
- Bertaratu ez diren ikasleak	90 (80 + 10)	1,33
- Proba egin duten ikasleak	6.667 (6.381 + 286)	94,76

Oharrak: 2017ko martxoan matrikulatuta.
CEPeko ikasleak salbuetsi modura agertzen dira, aplikazio-protokoloan ezarritako irizpideen arabera, eta aukera du probak egiteko edo ez egiteko.
Matrikulazio osoaren arabera kalkulatutako ehunekoak
Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

320. taula: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako matrikularen eta parte-hartzearen datuak, hizkuntza-ereduaren arabera. 2017

	A/G eredua		B/D eredua	
	Kop.	%	Kop.	%
Matrikula, guztira	5.322	100	1.714	100
CEPeko ikasleak	135	2,54	7	0,41
Salbuetsitako ikasleak	119	2,24	18	1,05
Guztira (2. DBH + 2 IEHP)	5.068 (4.787 + 281)	95,23	1.689 (1.674 + 15)	98,54
Bertaratu ez diren ikasleak	81 (71 + 10)	1,60	9 (9 + 0)	0,53
Proba egin duten ikasleak	4.987 (4.716 + 271)	93,71	1.680 (1665 + 15)	98,02

Oharrak: 2017ko martxoan matrikulatuta.
CEPeko ikasleak salbuetsi modura agertzen dira, aplikazio-protokoloan ezarritako irizpideen arabera, eta aukera du probak egiteko edo ez egiteko.
Matrikulazio osoaren arabera kalkulatutako ehunekoak
Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

321. taula: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako matrikularen eta parte-hartzearen datuak, gaitasunen arabera

Gaitasuna	Proba egin dute		
	Kop.	% (Matrikulatuako guztien gainekoa)	% (Matrikulatuako guztien gainekoa)
Gaztelaniazko irakurmena	6.590	93,66	97,53
Euskarazko irakurmena	1.675	23,81	24,79
Gaitasun matematikoa	6.630	94,26	98,15
Zientzia gaitasuna	6.623	94,13	98,02

Ingeles gaitasuna	6.532	92,84	96,67

Oharrak: 2017ko martxoan matrikulatuta.
CEPeko ikasleak salbuetsi modura agertzen dira, aplikazio-protokoloan ezarritako irizpideen arabera, eta aukera du probak egiteko edo ez egiteko.
Matrikulazio osoaren arabera kalkulatutako ehunekoak
Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

Txosten honetan emandako emaitza orokorretan ez dira kontuan izan salbuetsitako ikasleak, ezta epez kanpo aurkeztu direnak ere.

Irakurtzeko gaitasuna Gaztelania irakasgaian

Ikasleek zuzen erantzundako itemetatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Gaitasuna maila hauetan banatu da:

322. taula: Irakurtzeko gaitasuna Gaztelania irakasgaian, mailen esanahia:

1. maila	2. maila	3. maila (3+ maila barne)
Maila horretako ikaslea gai da testuen informazio zehatza hitzez hitz ulertzeko, izan narratiboak zein azalpenezkoak, baldin eta testuan bertan erraz topatzeko moduan badago. Ez du zailtasunik testuko esaldi eta esamolde zehatzak ulertzeko; esanahia argi ulertzen du, testuaren ideia nagusia hautematen du, baita xedea ere, baldin eta oso agerikoak badira. Ekintzen asmoa ere ulertzeko gai dira, agerikoa denean.	Maila honetako ikasleak, 1. mailako atazak arrakastaz burutzeaz gainera, gai dira alderdi horietan harago joateko; bai informazioa bilatzea eskatzen duten lanen ulermenean (ez dute hainbeste aztarnarik behar eta gai dira ulertzeko, nahiz eta informazioa aurkitzea hain erraza edo hain agerikoa ez izan), bai testuaren erabateko ulermena eskatzen duten atazetan (aurreko mailan baino pixka bat inplizituagoa).	Maila horretako ikasleak, aurreko mailetako egitekoak ondo egiteko gai izateaz gain, gai dira testuaren zati jakin batean egon ordez bi zati desberdinetan dagoen informazioa bilatzeko. Era berean, gai dira iritzi bat justifikatzeko arrazoiak emateko. Zati baten edukia interpretatzen dute testuaren testuinguru zabalagoa kontuan izanda. Testutik eratortzen diren ikuspuntu eta jarrerak ulertzen dituzte. Era berean, ulermen orokor ona dute eta testuaren zentzuaz eta tesiaz jabetzen dira.

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

Lortutako emaitza orokorrak:

323. taula: Irakurtzeko gaitasuna Gaztelania irakasgaian

Kopuru osoa	7.036
Gaitasun-proben kopurua	6.590
Emakume kopurua	3.278
Gizon kopurua	3.312
Gutxieneko puntuazioa	2
Gehieneko puntuazioa	32
Batez besteko puntuazioa	18,91
Desbideratze tipikoa	5.30
Batezbestekoa emakumeetan	19,44

Batezbestekoa gizonetan	18,39
1. maila (%)	9,26
1. maila (%)	16,48
3. maila (%)	63,82
3+ maila (%)	10,44

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

Banaketa, mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun-maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrizanak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

197. grafikoa: Irakurtzeko gaitasuna Gaztelania irakasgaian



Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin

Alderdi azpimarragarriak

Lau ikasletik hiruk (% 74,26) 3. maila edo 3.+ maila erdietsi dute; gai dira beren eskolatze-mailari dagozkion irakurketa-prozesuak gauzatzeko. Hamar ikasletik batek baino zertxobait gehiagok bikaintasun-maila erdietsi dute.

Hamar ikasletik ia batek (% 9,26) neurri bereziak behar ditu, maila apalenean dagoelako.

Sei ikasletik bat (% 16,48) tarteko egoeran daude, ikasmailari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

Neskek mutilek baino 1,05 puntu gehiago erdietsi dute batez beste. Alde hori arintzat har daiteke, desbiderapen tipikoaren laurdena baino txikiagoa baita (DT = 5,30).

198. grafikoa: Irakurtzeko gaitasuna Gaztelania irakasgaian, sexuaren arabera



Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin

Irakurtzeko gaitasuna Euskara irakasgaian

Gaitasuna mailaka banatu da, honela:

324. taula: Irakurtzeko gaitasuna Euskara irakasgaian, mailen esanahia:

1. maila	2. maila	3. maila (3+ maila barne)
Maila honetako ikasleak gai dira narrazio eta azalpen testuetako informazio puntuala hitzez hitz ulertzeko. Baita testuan ageri diren esaldiak eta esamoldeak interpretatzeko ere: haien esanahia zein den arazorik gabe ulertzen dute (hala ere, esaldi eta esamolde horiek ulertzeak ez du esan nahi testua orokorrean ulertzen denik edo testuaren funtsezko egitura zein den ulertzen denik). Gai dira testuan baldintza bat betetzen duen informazioa bilatzeko, betiere testu horrek ageriko egitura badu (epigrafedun atalak, etab.) eta, orobat, gai dira ondorioztapen errazak egiteko. Narrazio testu baten ideia nagusia zein den antzematen dute, testuaren bilbea oso ageriko gai baten ingurukoa bada. Azalpen testu batean badakite zein den gaia.	Maila honetako ikasleak, 1. mailako atazak arrakastaz burutzeaz gainera, gai dira alderdi horietan harago joateko; bai informazioa bilatzea eskatzen duten lanen ulermenean (ez dute hainbeste aztarnarik behar eta gai dira ulertzeko, nahiz eta informazioa aurkitzea hain erraza edo hain agerikoa ez izan), bai testuaren erabateko ulermena eskatzen duten atazetan (aurreko mailan baino pixka bat inplizituagoa).	Maila honetako ikasleak, aurreko mailetako lanak egiteko gai izateaz gainera, gai dira testuaren zati batean ardazturik ez dagoen informazioa bilatzea eskatzen duten atazak ebazteko (informazio hori testu horretako bi zati desberdinetan dago). Gai dira iritzi bat justifikatzeko balio duten arrazoiak bilatzeko. Zati baten edukia interpretatzen dute testuaren testuinguru zabalagoa kontuan izanda. Testutik eratortzen diren ikuspuntu eta jarrerak ulertzen dituzte. Era berean, ulermen orokor ona dute eta testuaren zentzuaz eta tesiaz jabetzen dira.

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

Emaitza orokorrak

325. taula: Euskaraz irakurtzeko gaitasuna

Kopuru osoa	7.036
Gaitasun-proben kopurua	1.675
Emakume kopurua	838
Gizon kopurua	837
Gutxieneko puntuazioa	1
Gehieneko puntuazioa	24
Batez besteko puntuazioa	14,98
Desbideratze tipikoa	3,56
Batezbestekoa emakumeetan	15,70
Batezbestekoa gizonetan	14,26
1. maila (%)	7,28
1. maila (%)	15,40
3. maila (%)	66,78
3+ maila (%)	8,54

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

Banaketa, mailaz maila

Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 1 izan da eta handiena 24 puntu.

Desbiderapen tipikoa 3,56 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 23,77), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun apala dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

199. grafikoa: Irakurtzeko gaitasuna Euskara irakasgaian



Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin

Alderdi azpimarragarriak

Lau ikasletik hiru baino gehixeagok (% 77,32) 3. maila edo 3.+ maila erdietsi dute; gai dira beraien eskolatze-mailari dagozkion irakurketa-prozesuak gauzatzeko. Hamar ikasletik batek baino zertxobait gutxiagok bikaintasun-maila erdietsi dute.

Hamalau ikasletik batek (% 7,28) neurri bereziak behar dituzte, maila apalenean daudelako.

Zazpi ikasletik bat (% 15,40) tarteko egoeran daude, ikasmailari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

Neskek mutilek baino 1,44 puntu gehiago erdietsi dute batez beste. Alde hori handitzat har daiteke, desbiderapen tipikoaren herena baino handiagoa baita (DT = 3,56).

200. grafikoa: Irakurtzeko gaitasuna Euskara irakasgaian, sexuaren arabera



Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin

Matematika-gaitasuna

Gaitasuna mailaka banatu da, honela:

326. taula: Matematika-gaitasuna, mailen esanahia:

1. maila	2. maila	3. maila	3+ maila
Maila horretako ikasleek matematika-gaitasun txikia dute. Oso galdera gutxiri erantzuten diote zuzen. Gai dira jarraian bi urrats edo eragiketa sekuentziatuz problema aritmetikoak ebazteko.	Maila honetako ikasleak gai dira galdera xumeei erantzuteko; galdera horiek gaitasunaren garapenaren oinarrizko maila dira. Soluzioa emateko bi urrats baino gehiago egin beharreko	Maila honetako ikasleek gaitasuna menderatzen dute ikasmaila honetan menderatzea espero den moduan. Aurreko mailetako atazak ebazten jakiteaz gainera, ikasle hauek	Ez da aurrekoaz bestelako maila bat, baizik eta maila berdinaren barnean koska bat gorago dagoen gaitasun-maila. Maila horretako ikasleek aurreko mailetako

Plano edo grafiko batetik begien bistako informazioa atera dezakete, baita datuak barra-grafikoetan irudikatu ere. Alabaina, zailtasunak dituzte emandako egoerak geometriarekin zerikusia duenean edo informazioa hain agerikoa ez delako zenbait datu erlazionatu behar dituztenean.	problema aritmetikoak planteatu eta ebazten dituzte. Gai dira oinarrizko galderak ebazteko informazioa grafikoetan edo plano batean ematen bada. Azaleraren kontzeptua zer den ulertzen badute ere, zailtasunak dituzte egoera praktikoetan baliatu behar denean. Era berean, zatikizko zenbakietan adierazitako datuak erabiltzeko zailtasunak dituzte.	gai dira testuinguru errealei dagozkien egoerak eta galderak ebazteko orduan ezagutza jakin batzuk aplikatzeko. Soluzioa emateko urrats batzuk egin beharreko problema aritmetikoak ebazten dituzte, azaleraren kontzeptua menderatzen dute eta azalerari buruzko problemak ebazten dituzte. Informazio grafikoa zuzen interpretatzen dute eta gai dira benetako bizitzako askotariko egoerak ebazteko. Arrazoibide matematikoa erabiltzen dute azalpenak eta argudioak emateko, dela berek prestatutako lanetan, dela alderdi orokorretan.	egitekoak menderatzen dituzte. Aipatzeko moduko berezitasun bat dute: zehaztasunez aipatzen dituzte geometriako kontzeptuak, informazioa grafikoetan edo tauletan emanda dagoen problema konplexuagoak ebazten dituzte eta burujabeak dira geometria eta aritmetika uztartzen dituzten problemak ebazteko.

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

Lortutako emaitza orokorrak

Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 1 izan da eta handiena 26 puntu. Desbiderapen tipikoa 4,42 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 32,89), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun apala dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

327. taula: Matematika-gaitasuna

Kopuru osoa	7.036
Gaitasun-proben kopurua	6.632
Emakume kopurua	3.297
Gizon kopurua	3.335
Gutxieneko puntuazioa	1
Gehieneko puntuazioa	26
Batez besteko puntuazioa	13,44
Desbideratze tipikoa	4,42
Batezbestekoa emakumeetan	13,19
Batezbestekoa gizonetan	13,68
1. maila (%)	9,15
1. maila (%)	18,21
3. maila (%)	63,45
3+ maila (%)	9,18

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

201. grafikoa: Matematika-gaitasuna



Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin

Alderdi azpimarragarriak

Hamar ikasletik zazpi baino zertxobait gehiagok (% 72,63) 3. maila edo 3.+ maila erdietsi dute; gai dira beren eskolatze-mailari dagozkion irakurketa-prozesuak gauzatzeko. Hamar ikasletik batek baino zertxobait gutxiagok bikaintasun-maila erdietsi dute.

Hamar ikasletik batek (% 9,15) neurri bereziak behar dituzte, maila apalenean daudelako. Hamar ikasletik bi (% 18,21) tarteko egoeran daude, ikasmailari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

Mutilek neskek baino 0,49 puntu gehiago erdietsi dituzte, batez beste. Alde hori arintzat har daiteke, desbiderapen tipikoaren laurdena baino txikiagoa baita (DT = 4,42).

202. grafikoa: Matematika-gaitasuna, sexuaren arabera

Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin

Zientzia-gaitasuna

Gaitasuna mailaka banatu da, honela:

328.taula: Zientzia-gaitasuna, mailen esanahia:

1. maila	2. maila	3. maila	3+ maila
Maila horretako ikasleek zientziagaitasun txikia dute. Oso galdera gutxiri erantzuten diote zuzen. Gai dira testu batetik informazio zientifikoa ateratzeko, agerikoa bada, baina zaila gertatzen zaie informazioa interpretatzea testuak taulak edo grafikoak baldin baditu. Zailtasunak dituzte zientzia-esperimentu baten helburua identifikatzeko eta esperimentuaren emaitzetatik ondorioak ateratzeko. Ez dituzte eraginkortasunez	Maila honetako ikasleak gai dira galdera xumeei erantzuteko; galdera horiek gaitasunaren garapenaren oinarrizko maila dira. Maila horretako ikasleak gai dira histogramen bidezko adierazpen grafikoak egiteko, ezagutza zientifikoei loturiko egoera errazak ulertzen dituzte liburuak irakurrita; esperimentu bat irudikatzen duen egoera baten aurrean, ulertzen dute hasierako egoera eta ondorio errazak atera ditzakete, baina	Maila honetako ikasleek gaitasuna menderatzen dute ikasmaila honetan menderatzea espero den moduan. Aurreko mailetako atazak ebazten jakiteaz gainera, ikasle hauek gai dira testuinguru errealei dagozkien egoerak eta galderak ebazteko orduan ezagutza jakin batzuk aplikatzeko. Gai dira taulak edo grafikoak dituzten testuetatik informazioa ateratzeko, egindako galderei erantzuteko eta herritarren interesekoak diren askotariko gaietan	Ez da aurrekoaz bestelako maila bat, baizik eta maila berdinaren barnean koska bat gorago dagoen gaitasunmaila. Maila horretako ikasleek 1., 2. eta 3. mailetako egitekoak menderatzen dituzte. Aipatzeko moduko berezitasun bat dute: emaitza kuantitatiboak lortu ditzakete egoera konplexuetan, ezagutzen dute metodo zientifikoa, metodo horretako faseen hurrenkera zehatza bezala, eta gai dira testu deskriptibo batean Azaldutako

egiten emaitza kualitatiboak lortu ahal izateko behar diren planteamenduak.	zailtasunak dituzte esperimentua osorik ulertzeko.	ondorio orokorrak ateratzeko. Maila horretako ikasleek hasierako egoera ulertzen dute eta metodo zientifikoaren gaineko ulermen orokorra dute. Era berean, bere kasa egin ditzakete emaitza kualitatiboak ebazteko eta lortzeko behar diren planteamenduak.	esperimentu baten emaitzetatik ondorioak ateratzeko.

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

Lortutako emaitza orokorrak

Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 3 izan da eta handiena 36 puntu.
Desbiderapen tipikoa 5,45 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 25,51), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun apala dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

329. taula: Zientzia-gaitasuna

Kopuru osoa	7.036
Gaitasun-proben kopurua	6.623
Emakume kopurua	3.296
Gizon kopurua	3.327
Gutxieneko puntuazioa	3
Gehieneko puntuazioa	36
Batez besteko puntuazioa	21,36
Desbideratze tipikoa	5,45
Batezbestekoa emakumeetan	21,59
Batezbestekoa gizonetan	21,13
1. maila (%)	11,23
1. maila (%)	13,20
3. maila (%)	66,27
3+ maila (%)	9,30

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

203. grafikoa: Zientzia-gaitasuna



Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin

Alderdi azpimarragarriak

Lau ikasletik ia hiruk (% 72,57) lortzen dute 3. edo 3+ maila, eta gai dira adinari dagozkion irakurketa-prozesuak gauzatzeko. Hamar ikasletik batek neurri bereziak behar dituzte, beheko mailan daudelako. Ikasleen % 18,68 daude tarteko egoeran, eta eskolatze-mailari dagozkion egitekoetatik batzuk egiten dituzte.

Neskek mutilek baino 0,46 puntu gehiago erdietsi dute batez beste. Alde hori arintzat har daiteke, desbiderapen tipikoaren laurdena baino txikiagoa baita (DT = 5,45).

204. grafikoa: Zientzia-gaitasuna, sexuaren arabera

Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin

Ingelesezko hizkuntza-gaitasuna

Gaitasuna mailaka banatu da, honela:

330. taula: Ingelesezko hizkuntza-gaitasuna, mailen esanahia:

1. maila	2. maila	3. maila	3+ maila
Maila honetako ikasleak gai dira narrazio eta azalpen testuetan hitzez hitzeko informazio idatzia ulertzeko. Hala ere, zailtasunak dituzte interpretazioa, ulermen orokorra, hausnarketa eta balorazioa eskatzen duten galderei erantzuteko. Zailtasun handiak dituzte entzunezko mezuak ulertzeko eta proposatutako gaiaren inguruko esaldi osagaberen bat baino ezin dezakete idatzi.	Maila honetako ikasleek zuzen erantzuten diete 1.mailako galderei, hots, narrazio edo azalpen testuetako hitzez hitzeko informazioa ulertzea eskatzen uten galderei. Testuaren ulermenmaila Handiagoko galderak (informazioa bilatzekoak) ebazendituzte. Hori hala izanik ere, arazoak dituzte ulermen orokorrerako, interpretaziorako eta testuak baloratzeko. Ez dira gai inferentzia Konplexuagoak egiteko, hurrenez hurreneko bi paragrafotan dauden hiru ekintza kontatzeko edo pertsonaien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak interpretatzeko. Gai dira audio mezu batzuk ulertzeko eta planteatutako gaiaren inguruko esaldiren bat idazteko.	Maila horretako ikasleek zuzen erantzuten diete informazioa bilatu behar den galderei, hitzez hitzekoa izan nahiz ez. Testua globalki ulertzen dute eta gai dira istorio baten sekuentzia emandako esaldiekin berregiteko. Maila onargarria dute, edukiaren gaineko hausnarketari dagokionez. Gainera, jarraitutasunik gabeko testu batean, Informazioaren banaketa ulertzen dute, baita non bilatu informazio jakin bat ere.	Maila honetako ikasleek, 3. mailako atazak egoki betetzeaz gainera, Konplexuagoak direnak ere ebazten dituzte. Ongi ebazten dituzte Entzundako audioaren gaineko galderak eta gai dira proposatutako gai bati buruzko mezu idatzi bat modu koherente eta zuzenean idazteko. Laburbilduz, ebaluatutako hiru trebetasunetan gai dira.

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

Lortutako emaitza orokorrak

Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 1 izan da eta handiena 42 puntu.

Desbiderapen tipikoa 10,28 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 43,58), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun handia dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

331. taula: Ingeles-gaitasuna

Kopuru osoa	7.036
Gaitasun-proben kopurua	6.532
Emakume kopurua	3.241
Gizon kopurua	3.291
Gutxieneko puntuazioa	1
Gehieneko puntuazioa	42

Batez besteko puntuazioa	23,59
Desbideratze tipikoa	10,28
Batezbestekoa emakumeetan	24,74
Batezbestekoa gizonetan	22,46
1. maila (%)	10,58
1. maila (%)	17,97
3. maila (%)	61,83
3+ maila (%)	9,61

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

205. grafikoa: Ingeles-gaitasuna



Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin

Alderdi azpimarragarriak

Hamar ikasletik zazpik (% 71,44) lortzen dute 3. edo 3+ maila, eta gai dira adinari dagozkion matematika-prozesuak gauzatzeko. Hamar ikasletik batek baino zertxobait gehiagok (% 10,58) neurri bereziak behar dituzte, behe-beheko mailan daudelako. Hamar ikasletik ia bi (% 17,97) daude tarteko egoeran, eta eskolatze-mailari dagozkion egitekoetatik batzuk egiten dituzte.

Emakumeek gizonezkoek baino 2,28 puntu gehiago erdietsi dute. Alde hori arintzat har daiteke, desbiderapen tipikoaren laurdena baino txikiagoa baita (DT = 10,28).

206. grafikoa: Ingeles-gaitasuna, sexuaren arabera



Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin

Informazio sozioekonomikoa eta kulturala

Edizio honetan ikasleek aldagai soziokultural eta ekonomikoen gaineko galdera-sorta bete dute eta hartatik atera da ISEK indize sozioekonomiko eta kulturala kalkulatzeko informazioa.

Galdetegiaren xede nagusia informazioa biltzea zen, indize sozioekonomiko eta kulturala (ISEK) osatzeko. Indize honek kontuan hartzen ditu nazioarteko azterlanetan (PISA proiektua) eta Hezkuntza Ebaluazioaren Institutu Nazionalak autonomia erkidegoekin elkarlanean egindako diagnostiko-ebaluazio orokorretan erabilitako aldagai berak.

Indizearen ezaugarriak eta erregresio-zuzenenak dagoeneko zehaztu dira lehen hezkuntzako 6. mailako ebaluazio diagnostikoak aurkeztean, eta atal honetan ez dugu errepikatuko.

Erregresio-zuzenak

Ikastetxeen tamaina askotarikoa denez, erregresio-zuzenaren koefizienteak lortu dira ikastetxe bakoitzaren datuak haztatuz, ikastetxe horietako bakoitzean ebaluatutako ikasmailan matrikulatuta dituzten ikasleen kopuruaren arabera. Haztatuta, adierazgarritasuna eskuratzen dute grafikoetan adierazitako koefizienteek, eta ondorio fidagarriagoak ateratzea errazten dute.

Jarraian azaltzen dira gaitasun bakoitzerako grafikoak. Ardatz horizontalean irudikatu dira ikastetxeko ISEKak eta ardatz bertikalean, berriz, ikastetxe bakoitzaren batez besteko puntuazio normalizatua, gaitasun bakoitzerako. Puntu bakoitzak ikastetxe bat irudikatzen du eta erdiko puntua (ISEK = 0, puntuazio normalizatua = 500) Nafarroako batezbestekoari dagokio.

207. grafikoa eta taula: Erregresioa: gaztelaniazko irakurketaren batez bestekoa - ISEK, zentroen arabera



Ikastetxeen batezbestekoen artean, Gaztelania irakasgaian irakurtzeko gaitasunaren alderik handiena 226,13 puntukoa da.

R2 determinazio-koefizientea	0,5294
Azaldutako bariantzaren (100*R2) ehunekoa (%)	52,94
Gradientea	53,72 puntu/ISEK unitatea
R korrelazio-koefizientea	0,731

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

208. grafikoa eta taula: Erregresioa: euskarazko irakurketaren batez bestekoa - ISEK, zentroen arabera



Ikastetxeen batezbestekoen artean, Euskara irakasgaian irakurtzeko gaitasunaren alderik handiena 125,56 puntukoa da.

R2 determinazio-koefizientea	0,0520
Azaldutako bariantzaren (100*R2) ehunekoa (%)	5,20
Gradientea	27,46 puntu/ISEK unitatea
R korrelazio-koefizientea	0,281

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

209. grafikoa eta taula: Erregresioa: matematikako batez bestekoa - ISEK, zentroen arabera



Ikastetxeen batezbestekoen artean, matematika-gaitasunaren alderik handiena 250,30 puntukoa da.

R2 determinazio-koefizientea	0,5051
Azaldutako bariantzaren (100*R2) ehunekoa (%)	50,51
Gradientea	58,99 puntu/ISEK unitatea
R korrelazio-koefizientea	0,715

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

210. grafikoa eta taula: Erregresioa: zientzietako batez bestekoa - ISEK, zentroen arabera



Zientzia-gaitasunean, ikastetxeen artean, 177 puntukoa da alderik handiena; ISEKen kasuan, 2,16koa.

R2 determinazio-koefizientea	0,27
Azaldutako bariantzaren (100*R2) ehunekoa (%)	27
Gradientea	43,80 puntu/ISEK unitatea
R korrelazio-koefizientea	0,443

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

211. grafikoa eta taula: Erregresioa: ingelesezko batez bestekoa - ISEK, zentroen arabera



Ingeles-gaitasunean, ikastetxeen artean, 202 puntukoa da alderik handiena; ISEKen kasuan, 2,16koa.

R2 determinazio-koefizientea	0,530
Azaldutako bariantzaren (100*R2) ehunekoa (%)	53
Gradientea	73,05 puntu/ISEK unitatea
R korrelazio-koefizientea	0,646

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

5.3.6 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako etapa-amaierako ebaluazioa

2016-2017 ikasturteko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako etapa-amaierako ebaluazioa honako alderdi hauetan oinarritu da: irakas-hizkuntzen gaineko hizkuntza-gaitasuna, hizkuntza-ereduaren arabera; gaitasun matematikoa; eta ingelesezko hizkuntza-gaitasuna.

Errendimendu probak Hezkuntza Ebaluazioaren Institutu Nazionalak egin ditu; beraz, kanpokoak izan dira ikastetxeentzat. Kanpotik aplikatu dira (irakaskuntzako titulazioa duten 2E Estudios, Evaluaciones e Investigaciones S.L enpresako langileek), maiatzaren 8tik 15era, ikastetxe guztietan, eta aurretik ezarritako irizpideen arabera zuzendu dira.

Laginean oinarritutako ebaluazioa

2016-2017 ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako matrikula, osotara, 5919 ikaslekoa izan zen (4693 akademikoak, 1226 aplikatuak). Horietatik, 1245 ikasle (984 akademikoak, 261 aplikatuak) etapa-amaierako ebaluazioan parte hartzeko hautatutako laginaren parte dira.

Lagina bi etapatan hartu da (laginketa bikoitza):

- 1. etapa: ikastetxeak hautatzea
  - Estratuak ezarri dira, titulartasunaren (ikastetxe publikoak eta itunpeko ikastetxeak) eta hautatutako aukeraren (irakaskuntza akademikoak edo aplikatuak) arabera.
  - Ikastetxearen tamainarekiko proportzionala den ausazko hautespen sistematikoa
- 2. etapa: ikastetxe bakoitzeko ikasleak aukeratzea
  - Ausazko hautespen sinplea, generoaren araberako estratifikazioa
  - Gehienez ere 42 ikasle ikastetxe bakoitzeko

332. taula: DBHko 4. mailako ebaluazioan parte hartu duten ikastetxeak, titulartasunaren arabera

Datu orokorrak	Kop.	%
Lagina, guztira	30	100
Ikastetxe publikoak	17	57
Ikastetxe itunduak	13	43

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

333. taula: : DBHko 4. mailako ebaluazioan parte hartu duten ikastetxeak

Ikastetxea	Herria	Titularitatea
Altsasu BHI	Altsasu	Publikoa
Barañain BHI	Barañain	Publikoa
toki-Ona BHI	Bera	Publikoa
La Paz DBHI	Cintruénigo	Publikoa
San Fermín Ikastola	Zizur	Itundua
Mater Dei - Puy Anderaz ikastetxea	Lizarra	Itundua
Lizarra Ikastola	Lizarra	Itundua
Pablo Sarasate BHI	Lodosa	Publikoa
Marqués de Villena BHI	Martzilla	Publikoa
Joaquín Romera DBHI	Mendabia	Publikoa
Claret Larraona ikastetxea	Iruña	Itundua
La Compasión Escolapios ikastetxea	Iruña	Itundua
Liceo Monjardín	Iruña	Itundua
Nuestra Señora del Huerto ikastetxea	Iruña	Itundua
San Cernin ikastetxea	Iruña	Itundua
Santa Teresa de Jesús ikastetxea	Iruña	Itundua
Basoko BHI	Iruña	Publikoa
Mendillorri BHI	Iruña	Publikoa
Navarro Villoslada BHI	Iruña	Publikoa
Plaza de la Cruz BHI	Iruña	Publikoa
Iñaki Ochoa de Olza DBHI	Iruña	Publikoa
Sancho III el Mayor BHI	Tafalla	Publikoa
Colegio San Francisco Ikastetxea	Tutera	Itundua

Benjamín de Tudela BHI	Tutera	Publikoa
Valle del Ebro BHI	Tutera	Publikoa
Santa María la Real ikastetxea	Eguesibar	Itundua
La Presentación - Notre Dame ikastetxea	Atarrabia	Itundua
Paz de Ziganda Ikastola	Atarrabia	Itundua
Pedro de Atarrabia DBHI	Atarrabia	Publikoa
Zizur BHI	Zizur Nagusia	Publikoa

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

334. taula: DBHko 4. mailako ebaluazioan lagineko matrikulatuen eta parte-hartzaileen datuak*

Datur orokorrak	Kop.	%
Matrikula, guztira	5.919 (4.693 akademikoak y 1.226 aplikatuak)	100
Ikastetxe publikoak	2.474 (2.157 akademikoak y 317 aplikatuak)	42
Ikastetxe itunduak	3.445 (2.536 akademikoak y 909 aplikatuak)	58
Lagina	1.245 (984 akademikoak y 261 aplikatuak)	21

** 2017ko apirilean matrikulatuta*
Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

335. taula: DBHko 4. mailako ebaluazioan lagineko parte-hartzaileen datuak, titulartasunaren arabera*

Datur orokorrak	Kop.	%
Lagina, guztira	1.245	100
Ikastetxe publikoak	825	66
Ikastetxe itunduak	420	34

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

336. taula: DBHko 4. mailako ebaluazioan lagineko parte-hartzaileen datuak, generoaren arabera*

Datur orokorrak	Kop.	%
Lagina, guztira	1.245	100
Emakumeak	643	52
Gizonak	602	48

Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala

Proben ezaugarriak

Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumari dagozkion eduki-blokeekin zerikusia duten itemak Nafarroako Foru Komunitatean (24/2015 Foru Dekretua).

Item motak:

- Aukera anitzeko galderak: lau aukera izanen dituzte (A, B, C edo D); horietako bat egiazkoa izanen da (gakoa) eta beste hirurak gezurrezkoak (distraigarriak).
- Galdera erdi-irekiak: zalantzarik gabe zuzena den erantzun laburra (matematikako problema bat erantzuten duen zenbakia edo esaldi bat osatzen duen hitza).
- Galdera irekiak: ikasleak eraikitzea eskatzen duten galderak; ez dute zalantzarik gabeko erantzun zuzen bakarra (prozedurak garatzea eta emaitzak lortzea, besteak beste).

Gaztelaniazko hizkuntza-gaitasuna

Probak hiru testu edo estimulu izan ditu, eta horietatik irakurriaren ulermeneko galderak atera ziren. 22 itemei zegozkien atazek etapa-amaierako ebaluazioaren esparruan finkatutako prozesuekin dute lotura.

Matematika gaitasuna (Matematika akademikoak)

20 itemei zegozkien atazek etapa-amaierako ebaluazioaren esparruan finkatutako matematika-prozesuekin dute lotura.

Matematika gaitasuna (Matematika aplikatuak)

17 itemei zegozkien atazek etapa-amaierako ebaluazioaren esparruan finkatutako matematika-prozesuekin dute lotura.

Ingelesezko hizkuntza-gaitasuna

Probak hiru trebetasunetako galderak izan ditu: ahozkoaren ulermena (Listening), 12 galderarekin; idatziaren ulermena (Reading), 12 galderarekin, eta idatzizko adierazpena (Writing), eta lana testu txiki bat idaztea izan da, jarraibide batzuei jarraituz.

27 itemei zegozkien atazek etapa-amaierako ebaluazioaren esparruan finkatutako prozesuekin dute lotura.

Emaitzen azterketa

DBHko 4. mailako etapa-amaierako kanpo-ebaluazioaren emaitzen txostena 2017ko azken hiruhilabetekoan eginen da, planifikatuta zegoen moduan.

5.3.7 Ikastetxeak eta ISEK

Aurreko idazpuruetan zehatz-mehatz adierazi da zer garrantzi duen ISEKak hainbat hezkuntza-faktoreren analisirako aldagai modura. ISEK analisirako tresna bihurtu da eta, beste zenbaitekin batera, hezkuntza-errealitatea zehatzago ezagutzea ahalbidetzen du. Hala, azken urteotan ohikoa izan den moduan, txosten honetan gaitasunen hainbat ebaluazio aztertu dira, aldagai horrekin lotuta.

Horregatik, hezkuntza-sistemaren emaitzei buruzko kapitulu honetan, komenigarria dirudi hezkuntza-sistemaren ezaugarriak erakustea, ISEKarekin loturan. Beraz, ondorengo taula honetan, ikastetxeen banaketa adierazten da, ISEKaren eta ikastetxearen titulartasunaren arabera.

- ***ISEKen banaketa, titulartasunaren arabera***

ISEK indize txikiena duten ikastetxeen % 92 titulartasun publikokoak dira, eta % 8 itunpekoak. Beste muturrean, ISEK indize handiagoa duten guztiak itunpeko ikastetxeak dira.

212. grafikoa: Ikastetxearen ISEKaren banaketa, 2015eko PISAn zuten titulartasunaren arabera



Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin. Ebaluazio diagnostiko zentsala 2016-2017

- ***Errepikapenen ehunekoa, banakako ISEK mailaren arabera***

2016-2017 ikasturteko datuak erabiliz, hiru aldagai aztertzen dira jarraian, Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako banakako ISEK mailaren arabera. Hauek dira hiru aldagaiak: errepikapenen, immigrazioaren eta titulartasunaren ehunekoak.

Datuek erakusten dutenez, ISEK mailarik txikienean, ikasleen % 34k errepikatu dute, LHko 4. maila arte hartuta. Emaitza horrek talka egiten du maila altuenarekin: % 1,46k soilik errepikatu dute. Horrenbestez, ISEK indizea LHko 4. maila arteko errepikapenen ehunekoarekin lotutako faktorea da.

213. grafikoa: Errepikapenen ehunekoa, banakako ISEK mailaren arabera Lehen Hezkuntzako 4. maila



Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin. Ebaluazio diagnostiko zentsala 2016-2017

ISEK mailarik txikiena duten ikasleen erdiak errepikatu egin du, DBHko 2. mailara heldu baino lehen edo maila horretan. Emaitza horrek talka egiten du maila altuenarekin: % 5ek soilik errepikatu dute.

Mailarik txikienean, LHko 4. mailara arte ehunekoa % 34 zen; DBHko 2. mailan, aldiz, % 50 arte igotzen da. Aurreko kasuan egiaztatu den moduan, berriz ere ISEK indizea DBHko 2. maila arteko errepikapenen ehunekoarekin lotutako faktorea da.

214. grafikoa: Errepikapenen ehunekoa, banakako ISEK mailaren arabera DBHko 2. maila



Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin. Ebaluazio diagnostiko zentsala 2016-2017

- ***Migrazioen ehunekoa, banakako ISEK mailaren arabera***

Aztertzen den ISEK indizearekin lotutako bigarren aldagaia migrazioen ehunekoa da eta, aurrekoan bezala, LHko 4. mailako eta DBHko 2. mailako datuei buruzkoa da.

LHko 4. mailan eta DBHko 2. mailan eskolatutako jatorri migratzaileko ikasleen erdia ISEK mailarik txikienean daude; aldiz, % 5 baino gutxiago daude banakako ISEK mailarik handienean. Hau da, jatorri migratzaileko ikasleen erdia baino gehiago egoera sozioekonomiko ahulagoan daude; kontrara, jatorri ez-migratzaileko ikasleen % 95 banakako ISEK maila handienean daude.

215. grafikoa: Biztanleria migratzailearen ehunekoa, banakako ISEK mailaren arabera (LH 4)



Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin. Ebaluazio diagnostiko zentsala 2016-2017

Ehunekoak antzekoak dira DBHko 2. mailan, jarraian aurkezten den taula honen arabera.

216. grafikoa: Biztanleria migratzailearen ehunekoa, banakako ISEK mailaren arabera (DBH 2)



Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin. Ebaluazio diagnostiko zentsala 2016-2017

- ***Ikastetxearen titulartasuna, banakako ISEK mailaren arabera***

Jarraian, errepikapenen eta migrazioen ehunekoei buruzko datuak aurkeztu eta gero, banakako ISEK mailari buruzko hirugarren aldagaia landuko dugu, hots, ikastetxearen titulartasuna.

LHko 4. mailan, banakako ISEK mailarik txikienaren ia % 84 sare publikoan daude; aldiz, % 16 itunpeko sarean. ISEK handienari dagokionez, ehunekoak alderantzizkatzen dira, baina aldea ez da horren handia: ISEK handieneko ikasleen % 58,16 itunpeko sarean daude, eta % 42 sare publikoan.

DBHko 2. mailan, ehunekoak antzekoak dira. Beraz, ISEK maila txikieneko ikasleen ehunekoa sare publikoan biltzen da.

217. grafikoa: Ikastetxearen titulartasuna, banakako ISEK mailaren arabera (Lehen Hezkuntzako 4. maila)



Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin. Ebaluazio diagnostiko zentsala 2016-2017

218. grafikoa: Titulartasunaren ehunekoa, banakako ISEK mailaren arabera (DBH 2)



Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin. Ebaluazio diagnostiko zentsala 2016-2017

Banakako ISEK mailarekin lotutako errepikapen-, migrazio- eta titulartasun-ehunekoen aldagaien azterketatik ondorioztatu denez, esan daiteke indize horren mailarik txikienetan

errepikatzen duten ikasleen eta jatorri migratzaileko ikasleen ehuneko handiagoa dagoela, eta ikasle horiek sare publikoko ikastetxeetan biltzen direla.

Agerikoa denez, eskola inklusibo bateko hezkuntza-agente guztiek ezartzen eta partekatzen duten helburuak lehentasun bereziko zeregina du kontraste handiko egoera horretan; izan ere, hezkuntza-sistemarako ekitate handiagoa bilatuko duten politikak egin eta bultzatu beharko dira.

5.4 Hezkuntza-sistemaren emaitza konparatiboak

Kapitulu hau amaitzeko, hezkuntza-sisteman bereziki garrantzitsuak diren zenbait elementu konparatibo aurkeztuko ditugu, aurreko txostenetan egin izan den moduan.

- ***Egokitasun-tasa***

Egokitasun-tasak adierazten du zenbat ikaslek egiten duten aurrera erritmo egokian derrigorrezko eskolatze-aldian, adinaren arabera egokitzen zaien maila eginez.

Egokitasun-tasek behera egiten dute ikasleak adinean gora doazen heinean. Espainian, 2014-2015 ikasturtean, 8 urteko ikasleen % 93,7 LHko 3. mailan zeuden matrikulatuta, hots, adinerako zegokien mailan; 10 urterekin, berriz, LHko 5. mailako tasa % 89,5ekoa zen. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapari dagozkion adinei dagokienez, 12 urteko ikasleen % 85,3 etapa horretako 1. mailan zegoen; 14 urtekoen % 71,7 3. mailan; eta 15 urtekoen % 63,9 4. mailan.

Emakumeek gizonek baino egokitasun-tasa handiagoak dituzte, eta aldea are handiagoa da adinean aurrera egin ahala. Zehazki, 2014-2015 ikasturtean, 8 urtekoen artean aldea 1,6 puntukoa zen; 10 urtekoetan, 2,8 puntukoa; 12 urtekoetan, 4,4 puntukoa; 14 urtekoetan, 8,4 puntukoa; eta 15 urtekoetan, 10,1 puntukoa.

2004-2014 artean, gizonek emakumeekiko aldea murriztu zuten; hala, 4,5 puntu igo dira 14 urtekoen artean (emakumeetan 1,2), eta 6,8 puntu 15 urtekoen artean (emakumeetan 4,2).

Autonomia-erkidegoei begiratzen badiegu, teorikoki Lehen Hezkuntza amaitutakoan, 12 urtekoen egokitasun-tasak altuagoak dira Katalunian (% 92,2), Kantabrian (% 88,6), Euskadin (% 87,3), Errioxan (% 87,2) eta Asturiasen (% 87,2).

15 urterekin, teorikoki DBHko laugarren eta azken mailara heltzean, egoera oso antzekoa da: altuenak Katalunian (% 76,6), Euskadin (% 72,7), Nafarroan (% 71,2) eta Asturiasen (% 68,5) daude.

219. grafikoa: Egokitasun-tasa 10, 12, 14, eta 15 urteko ikasleetan, autonomia-erkidegoaren arabera. 2015-16



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren datuekin

- ***Errepikapen-tasa***

Derrigorrezko irakaskuntzan mailaz errepikatzen duten ikasleen ehunekoa adierazten du errepikapen-tasak. Errepikapenen ehunekorik txikiena duten erkidegoetako bat da Nafarroa, 15 urtekoen artean.

Grafikoa Espainiako errepikapen-tasei dagokiena da, mailaren eta sexuaren arabera aztertuta. Bistan denez, emakumeek gizonek baino gutxiago errepikatzen dute derrigorrezko irakaskuntza osoan, eta DBHko tasak lehen hezkuntzakoak baino nabarmen handiagoak dira. Lehen Hezkuntzan gertatzen den bezala, DBHn gizonezkoen errepikapenaren ehunekoa emakumezkoena baino handiagoa da ia autonomia erkidego eta ikasmaila guztietan.

2014-2015 ikasturtean, derrigorrezko irakaskuntzan errepikatzen duten ikasleen ehunekorik handiena DBHko 1. mailan dago. Lehen Hezkuntzan, errepikatzen duten ikasleen ehunekoa % 4,5 da 2. mailan, % 3,7 4. mailan eta % 4,0 6. mailan.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ere ehunekoak desberdinak dira mailaren arabera; hala, 1. mailako ikasleen % 12,3k errepikatzen dute, 2. mailako % 10,7k, 3. mailako % 11,0k eta 4. mailako % 9,5ek.

Errepikapenen ehunekoak handiagoak dira mutilen artean nesken artean baino, derrigorrezko hezkuntza osoan, eta alderik handiena DBHko 1. mailan dago: 4,3 puntukoa.

Titulartasun publikoko ikastetxeetan ikastetxe pribatuetan baino errepikapen-ehuneko handiagoa dago. Lehen Hezkuntzan, errepikatzen duten ikasleen ehunekoa 2. mailako % 5,5etik 6. mailako % 4,4ra aldatzen da ikastetxe publikoetan; pribatuetan, berriz, 2. mailako % 2,1tik 6. mailako % 3,1ra. DBHri dagokionez, errepikatzen duten ikasleen ehunekoa % 15,1 da 1. mailan eta % 11,5 4. mailan; pribatuetan, aldiz, % 6,5 eta % 5,8, maila berberetan.

Bai lehen Hezkuntzan bai DBHn, mailaz igo ahala, ikastetxe publikoen eta pribatuen errepikapen-tasen arteko aldea murriztu egiten da, DBHko 3. mailan izan ezik.

Lehen Hezkuntzan, autonomia-erkidego gehienetan joera bera dago: lehenengo zikloan dago errepikatzen duten ikasleen ehunekorik handiena. Ceutan, Murtzian, Melillan eta Aragoin hiru zikloetako errepikapenen batezbesteko handiena dute. Batezbesteko txikiena Katalunian, Nafarroan eta Errioxan dago. Joera nagusiari jarraikiz, ia erkidego guztietan eta ziklo guztietan, mutilen errepikapenen ehunekoa emakumeena baino handiagoa da.

DBHn, ia autonomia-erkidego guztietan, errepikapenen ehunekorik handienak 1. mailan daude, eta Andaluziak eta Gaztela-Mantxak dituzte ehunekorik handienak, ia maila guztietan. Katalunia eta Euskadi dira errepikapenen ehunekorik txikienak dituztenak, DBHko maila guztietan. Lehen Hezkuntzan gertatzen den bezala, DBHn gizonezkoen errepikapenaren ehunekoa emakumezkoena baino handiagoa da ia autonomia-erkidego eta maila guztietan.

220. grafikoa: 181: Errepikatu duten ikasleen ehunekoa Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, sexuaren arabera. 2014-15



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza Adierazleen Estatuko Sistemaren datuekin. 2017ko argitalpena. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa

Ondorengo taula honetan, errepikapen-datuak adierazten dira, mailaren eta sexuaren arabera, autonomia-erkidegoka. Nafarroako ehunekoak Estatukoen batez bestekoak baino askoz ere txikiagoak dira.

337. taula: Errepikatu duten ikasleen ehunekoa Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, autonomia-erkidegoaren arabera. 2014-15

	Lehen Hezkuntza									Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza											
	2. maila			4. maila			6. maila			1.maila			2. maila			3. maila			4. maila		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Guztira	4,5	3,9	3,7	4,2	3,3	4	4,6	3,3	12,3	14,3	10	10,7	12,4	9	11	12,5	9,4	9,5	11,2	7,7	5
Andaluzia	5,5	4,6	4,1	4,7	3,6	4,3	5	3,6	15,2	17,5	12,7	17,9	20,7	14,8	15,6	17,8	13,3	15,2	18,1	12,3	6,3
Aragoi	6,5	6,3	5,4	5,6	5,2	5	5,3	4,6	12,9	15,6	10	9,9	11,2	8,4	10,5	11,3	9,7	7,2	8,3	6,1	6,7
Asturias	4,1	6,5	2,8	3,2	2,4	3,5	4,1	3	10,9	12,4	9,1	8,2	9,1	7,2	6,9	7,7	6	6,1	7,1	5	4,7
Balear Uharteak	5,9	5,5	5,2	5,4	4,9	4,7	5,6	3,6	13,3	15,5	10,9	10,6	12,1	9	12,6	15,4	9,8	9,8	12	7,6	6,3
Ceuta	6,8	5,5	5,4	5,1	5,8	6,2	7,3	5,1	17,7	19,5	15,5	13,7	12,9	14,6	12,8	11,9	13,5	9,2	11,4	7,3	8,2
Errioxa	3,4	3,2	3,1	3,8	2,3	3,8	4,3	3,4	15,2	17	13,3	9,6	11,1	8	8,8	9,4	8,1	8,3	10,1	6,4	3,5
Euskadi	4,4	3,7	3,4	3,8	2,9	2,8	3,2	2,4	8,1	9,9	6	6,9	8,1	5,6	6,5	7,7	5,2	4,7	5,7	3,6	5
Extremadura	5,2	4,7	4,6	5,1	4	4,4	5,2	3,4	14,5	16,8	11,6	11,9	12,7	10,9	8,9	10,7	7,1	8,5	10,1	6,9	5,6
Galizia	4	3,3	3,9	4,6	3,2	3,7	4,7	2,6	12	14,5	9,2	10,5	12,1	8,7	9	10,8	7,2	8	10	6	4,7
Gaztela eta Leon	5,6	4,8	4,7	5,2	4,2	5,7	6,4	4,9	13,4	15,6	11	8,8	10,2	7,3	10,9	12,1	9,8	7,5	8,7	6,3	6,4
Gaztela-Mantxa	6,2	5,5	4,9	5,5	4,3	5,3	6,3	4,3	16,5	18,9	13,7	10,9	11,9	9,7	13,5	15	12	10,8	13	8,8	6,9
Kanariak	5,3	4,4	5,2	6	4,4	5,1	5,7	4,5	15,8	18,4	12,9	10,2	11,7	8,6	10,3	12,1	8,5	8	9,5	6,5	6,2
Kantabria	4,2	4,2	3,6	3,9	3,2	3,6	4,4	2,8	8,6	10,2	6,8	8	8,4	7,5	11,7	13	10,4	6,7	8	5,3	4,1
Katalunia	1,5	1,3	1,1	1,1	1,1	0,9	1,1	0,7	5,1	6,2	3,9	6,1	7,3	4,8	6,2	7,3	5	6,2	7,2	5,1	1,6
Madril	4,6	4,2	3,9	4,3	3,5	4,5	4,9	4	11,2	12,7	9,5	7,8	9	6,6	10,6	11,8	9,5	9,1	10,8	7,3	5
Melilla	5,4	4,3	5	5,9	4,2	6,9	8,4	5,4	46,7	19,2	13,7	13,6	14,6	12,4	11,8	14,3	9,6	10,3	13,1	7,6	6,5
Murtzia	5,3	4,5	5,5	6,3	4,6	6,8	7,8	5,8	15,9	18,2	13,4	9,6	10,6	8,6	10,9	12,5	9,2	10,1	11,7	8,4	5,9
Nafarroa	4,4	4,2	2,9	3,3	2,4	2,6	3,2	1,9	9	11,1	6,7	7,5	8,6	6,2	7,9	9,7	6,1	8,3	9,4	7,2	4,6
Valentziako E.	4,4	3,8	4,2	4,7	3,6	4,9	5,7	4	14,2	16,8	11,3	11	12,7	9,2	13,3	15	11,6	9,4	11,6	7,4	5

Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza Adierazleen Estatuko Sistemaren 2017ko datuekin. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.

Autonomia Erkidegoaren arabera, Lehen Hezkuntzan, 2009-2010 ikasturtetik 2014-2015 ikasturte arteko aldian, ikus daiteke errepikapenen ehunekoak txikitu egin direla erkidego gehienetan, bereziki 4. eta 6. mailetan. Errepikapenen ehunekoa gehien txikitu den erkidegoak hauek dira, mailaren arabera: 1. eta 4. mailan, Ceuta (5,3 eta 4,1 puntu jaitsi da, hurrenez hurren) eta Katalunia (3,5 eta 3,3 hurrenez hurren); 2. mailan, Andaluzia (4,0) eta Ceuta (3,7); eta 3. mailan, Galizia (5,2) eta Kanariak (4,6).

- ***Eskola-uzte goiztiarraren tasa***

Eskola-uzte goiztiarraren tasa honela zehazten da: hezkuntza goiz utzi duten 18 eta 24 urte arteko pertsonen ehunekoa; hau da, hezkuntza-maila gorena derrigorrezko hezkuntza dutenak.

Eskola-uzte goiztiarraren tasa oinarrizko adierazlea da; horregatik, 2020rako % 10 jaistea planteatu da Europar Batasunean. Europar Batasuneko egungo batez bestekoa % 10,9 da; emakumezkoena % 9,5 eta gizonezkoena % 12,3. Espainiakoa eta Maltakoa dira batezbestekorik handienak (% 20); txikienak berriz, % 7tik beherakoak, Austria, Kroazia, Zipre, Eslovenia, Irlanda, Polonia, Eslovakia, Txekiar Errepublika eta Suedia dira.

221. grafikoa: Hezkuntza eta prestakuntza goiz utzi duten 18 eta 24 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, sexuaren arabera, Europar Batasuneko herrialdeetan. 2016



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Espainian, 18-24 urte bitarteko herritarren eskola-uzte goiztiarraren tasa % 24 da gizonezkoetan eta % 15,8 emakumezkoetan. Autonomia-erkidegoetan, Extremadura (% 35,6), Balear Uharteak (% 26,4) eta Andaluzia (% 24,9) dira tasa handienak dituztenak. Ehuneko txikienak, aldiz, Euskadikoa (% 9,7), Kantabriakoa (% 10,3) eta Nafarroakoa (% 10,8) dira.

Europar Batasunean, Espainia da tasarik handiena duen herrialdea; hala, hezkuntza-sistemaren arazo nagusietako bat da. Nabarmentzekoa da eskola-uzteen tasa nabarmen handiagoa dela gizonezkoetan, emakumezkoetan baino.

222. grafikoa: Hezkuntza eta prestakuntza goiz utzi duten 18tik 24 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, sexuaren arabera. 2016



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren estatistika-datuekin

- ***DBHko graduatze-tasa***

DBHko graduatze-tasa gordina honela zehazten da: derrigorrezko bigarren hezkuntzan gradua lortu duten pertsonen kopurua, adina edozein dela ere, hezkuntza-maila horren azken ikasmailari ekiteko «adin teorikoa» duen biztanleriaren aldean.

2014-2015 ikasturtean, DBHko graduatze-tasa gordina Estatuko batezbestekoa (% 77,6) baino handiagoa zuten autonomia-erkidegoak hauek ziren: Asturias, Kantabria, Gaztela eta Leon, Katalunia, Extremadura, Galizia, Madril, Nafarroa eta Euskadi. Nafarroan, graduatze-tasa % 82,9 da, emakumeetan nabarmen handiagoa (% 88,5) gizonetan baino (% 77,8).

223. grafikoa: DBHko graduatze-tasa gordina, autonomia-erkidegoaren eta sexuaren arabera. 2014-15



Iturria: guk geuk egina, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren estatistika-datuekin

Derrigorrezko eskolatzea arrakastaz osatzeari dagokionez, emakumezkoak gehiago dira gizonezkoak baino, oraindik ere.

Datu horien arabera, beraz, agerikoa da gizonezkoen titulazio gutxitasun horri aurre egiteko hezkuntza-politikak ezarri beharra dagoela, egun, eskola-porrotak profil maskulinoa duelako.

224. grafikoa: DBHn gradua erdiesten duen biztanleria-tasa gordinaren bilakaera. 2004-2015



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza Adierazleen Estatuko Sistemaren 2017ko datuekin. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa

- ***Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako graduatze-tasa***

Bigarren hezkuntzako bigarren etapako graduatze-tasa gordina honela zehazten da: bigarren hezkuntzako bigarren etapako ikasketetan gradua lortu duten pertsonen kopurua, hezkuntza-maila horren azken ikasmailari ekiteko «adin teorikoa» duen biztanleriaren aldean.

Adierazle horrek bi irakaskuntza mota hartzen ditu kontuan: Batxilergoa eta Erdi Mailako Lanbide Heziketa, batxiler eta teknikari tituluak ematen dituztenak, hurrenez hurren. Bi ikasketa horiek bukatzeko adin teorikoa 18 urtekoa da.

Autonomia-erkidegoetan, batxilergo-gradua lortzen duten emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aldea % 14,4 da (emakumezkoen % 62,2k lortzen dute gradua, eta gizonezkoen % 47,8k). Nafarroan, aldea apur bat handiagoa da (% 15,1).

Erdi mailako Lanbide Heziketari dagokionez, datuak zertxobait hobeak dira gizonezkoen kasuan (% 1,3). Nafarroan, aldea handiagoa da, % 6 (gizonezkoen % 22,7k eta emakumezkoen % 16,7k).

225. grafikoa eta taula: Bigarren Hezkuntzako bigarren etapan (Batxilergoan eta Erdi Mailako Lanbide Heziketan) titulua lortzen dutenen tasa gordina, autonomia-erkidegoaren eta sexuaren arabera. 2014-15



	Batxilergoa				Teknikoa			
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Aldea	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Aldea
Espainia	55,0	47,9	62,6	14,7	24,7	25,5	23,8	1,7
Andaluzia	52,6	45,7	59,9	14,2	22,4	22,0	22,7	0,7
Aragoi	54,3	47,0	61,9	14,9	27,4	30,5	24,1	6,4
Asturias	64,4	58,5	70,8	12,3	34,2	33,7	34,8	1,1
Balear Uharteak	41,0	33,8	48,8	15,0	20,5	21,1	19,9	1,2
Ceuta	37,2	35,3	39,2	3,9	20,3	21,7	19,0	2,7
Errioxa	52,7	44,0	61,6	17,6	28,0	27,9	28,0	0,1
Euskadi	69,0	60,9	77,7	16,8	27,0	32,3	21,3	11,0
Extremadura	55,1	46,9	64,0	17,1	26,7	26,5	26,8	0,3

Galizia	60,0	51,2	69,4	18,2	31,9	32,8	31,0	1,8
Gaztela eta Leon	60,0	52,5	67,8	15,3	26,1	27,3	24,9	2,4
Gaztela-Mantxa	52,4	44,3	60,8	16,5	23,3	23,5	23,2	0,3
Kanariak	55,1	48,3	61,6	13,3	28,3	28,7	27,8	0,9
Kantabria	58,9	53,0	65,5	12,5	34,6	33,9	35,4	1,5
Katalunia	51,7	44,8	59,2	14,4	25,1	26,3	23,7	2,6
Madril	62,2	56,0	68,8	12,8	18,5	20,7	16,3	4,4
Melilla	40,7	35,2	46,9	11,7	18,4	18,3	18,5	0,2
Murtzia	52,6	48,1	57,4	9,3	22,0	23,3	20,7	2,6
Nafarroa	56,4	48,5	64,6	16,1	19,7	22,3	17,0	5,3
Valentziako E.	50,0	42,0	58,6	16,6	28,9	28,1	29,7	1,6

Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren estatistika-datuekin

Autonomia-erkidegoetan, gazteen artean, batez besteko graduatze-tasa % 40,9 da; emakumezkoena % 47,1 eta gizonezkoena % 34,8. Ehuneko handienak dituzten autonomia-erkidegoak hauek dira: Euskadi (% 54,2), Asturias (% 52,9), Madril (% 50,8) eta Nafarroa (% 47,9). Ehuneko txikienak dituztenak, berriz, Balear Uharteak (% 29,1) eta Andaluzia (% 32,3) dira.

Nafarroan, adin horretako mutilen % 37,1ek besterik ez daukate goi mailako titulazioa (goi mailako Lanbide Heziketa, diploma, lizentzia edo gradua), eta Estatuko batez bestekotik gora dago. Nesken kasuan, % 58,7 dira goi mailako titulua dutenak; alegia, Estatuko batez bestekoa baino 11 puntu handiagoa da.

Egoera horren ondorioak hurrengo grafiko honetan ageri dira; bertan adierazi da goi mailako hezkuntza-maila duten 30etik 34 urte bitarteko biztanleen ehunekoa, adinaren eta sexuaren arabera.

226. grafikoa: Goi mailako hezkuntza duten 30 eta 34 urte arteko biztanleen ehunekoa, autonomia-erkidegoaren eta sexuaren arabera. 2016



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza Adierazleen Estatuko Sistemaren 2016ko datuekin. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa

5.5 Sariak eta sari bereziak

Ortografiako Hispanoamerikar Lehiaketa

2000. urtetik hona, Hezkuntza Ministerioak Ortografiako Hispanoamerikar Lehiaketaren fase nazionalerako deialdiak egin ditu, ortografiaren garrantzia azpimarratzeko ekimen moduan, ortografia gaztelaniazko idazketa zuzenaren oinarritzat hartuz. Dagokion ebazpeneko laugarren puntuan ezarritakoaren arabera, lehiaketak hiru fase ditu elkarren jarraian:

- Lehenengoa: ikastetxean.
- Bigarrena: autonomia erkidegoan, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko Zuzendaritza Probintzialean edo atzerriko Hezkuntza Kontseilaritzan.
- Hirugarrena: estatuan.

Lehiaketa batxilergoko 2. mailan matrikulatutako ikasleei zuzentzen zaie. Probak epaimahai autonomikoak lehiakideei adierazitako jarraibideen arabera eginen dira, hitzak diktatzean ortografiaren zailtasun-maila igoz joaten delarik. Epaimahaiak ezarritako hitz kopurua egoki idazten duten lehiakideak hurrengo txandara igoko dira, irabazle bakarra gertatu arte. Esan denez, lehenengo postua erdiesten duen lehiakideak ordezkatuko du Nafarroako Foru Komunitatea lehiaketaren fase nazionalean.

Azken hiru ikasturteetan, hamar parte-hartzaile egon dira batez beste, Nafarroa osoko hainbat ikastetxe publiko eta itunpeko pribatutatik etorrita. Hauek izan dira azken hiru urteotako irabazleak:

2014-2015 ikasturtean, honako hau izan zen irabazlea:
- Jon Liberal Huarte, Burlatako Ibaialde BHIkoa.

2015-2016 ikasturtean, honako hau izan zen irabazlea:
- Javier Jiménez Gonzalo, Iruñeko Monjardín Lizeokoa.

2016-2017 ikasturtean, honako hau izan zen irabazlea:
- Andrea Aldanondo Jiménez, Peraltako Ribera del Arga BHIkoa.

Lanbide Heziketa eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide-ikasketak

Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako ikasketei eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide-ikasketei dagozkien sari bereziak arautzen ditu Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 4ko 29/2013 Foru Aginduak. Heziketa-zikloa 2015-2016 ikasturtean amaitu zuten ikasleentzako sarien deialdia egin da 2016-2017 ikasturtean, Hezkuntzako zuzendari orokorraren abenduaren 20ko 560/2016 Ebazpenaren bidez.

Hezkuntzako zuzendari nagusiaren apirilaren 7ko 115/2017 Ebazpena, Nafarroako Foru Komunitatean heziketa-zikloa 2015-2016 ikasturtean bukatu duten ikasleei hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako ikasketen eta arte plastikoetako eta diseinuko lanbide-ikasketen sari bereziak emateko deialdia egiten duena.

- ***Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak.***

Bi sari esleitu zitzaizkien ondoko ikasleei:

- Yessenia Maribel Quimbiambo Solarte, Administrazio Zerbitzuetako oinarrizko lanbide-teknikaria, Administrazioa eta Kudeaketa lanbide-arlokoa, Elizondoko Elizondo Lanbide Eskola IIPko ikaslea.
- Bárbara María Arratel Condez, Estetika eta Edertasuneko oinarrizko lanbide-teknikaria, Irudi Pertsonala lanbide-arlokoa, Burlatako Burlada FP IIko ikaslea.

- ***Erdi mailako heziketa-zikloak***

Hamaika sari esleitu zitzaizkien ondoko ikasleei:

- Josué Arzoz Ibañez, Ibilgailu automobilen elektromekanikako teknikaria, Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-lanak lanbide-arlokoa, Iruñeko Donapea IIPko ikaslea.
- Mikel Donázar Leache, Natur ingurunean gorputz eta kirol jarduerak gidatzeko teknikaria, Gorputz eta Kirol Jarduerak lanbide-arlokoa, Lekarozeko Lekaroz BHIko ikaslea.
- Javier Fernández Hierro, Sistema mikroinformatikoetako eta sareetako teknikaria, Informatika eta komunikazioak lanbide-arlokoa, Tuterako ETI IIPko ikaslea.
- Esteban López Mangado, Nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpeneko teknikaria, Nekazaritza lanbide-arlokoa, Iruñeko Nekazaritza eta Basogintzako IIko ikaslea.
- Carolina Marcos Ruiz, Sukaldaritza eta Gastronomiako teknikaria, Ostalaritza eta Turismoa lanbide-arlokoa, Burlatako Burlada FP IIko ikaslea.
- Javier Montero Moreno, Instalazio elektriko eta automatikoetako teknikaria, Elektrizitatea eta elektronika lanbide-arlokoa, Iruñeko Salesianos Politekniko pribatuko IIko ikaslea.
- Mª Begoña Pinillos Gómez, Mendekotasun egoeran dauden pertsonei arreta egiteko teknikaria, Gizarte- eta Kultur-zerbitzuak eta Komunitatearentzako Zerbitzuak lanbide-arlokoa, Iruñeko María Inmaculada FP Ikastetxe Pribatuko ikaslea.
- Johanna Maribel Rivera Guaman, Ile-apainketako eta ilearen kosmetikako teknikaria, Irudi Pertsonala lanbide-arlokoa, Burlatako Burlada FP IIko ikaslea.
- Miguel Ángel San Martín Ibañez, Elektromekanikako mantentze-lanetako teknikaria, Instalazioa eta Mantentze-lanak lanbide-arlokoa, Iruñeko Vírgen del Camino IIPko ikaslea.
- Adrián Senis Azkona, Administrazio-kudeaketako teknikaria, Administrazioa eta Kudeaketa lanbide-arlokoa, Iruñeko María Inmaculada FP Ikastetxe Pribatuko ikaslea.
- Maika Zubieta Mendiondo, Erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikaria, Osasuna lanbide-arlokoa, Iruñeko María Inmaculada FP Ikastetxe Pribatuko ikaslea.

- ***Goi mailako heziketa-zikloak***

Hamasei sari esleitu zitzaizkien ondoko ikasleei:

- Taíni Cazzato Mariño, Idazkaritzako goi mailako teknikaria, Administrazioa eta kudeaketa lanbide-arlokoa, Tuterako ETI IIPko ikaslea.
- Iñaki Sánchez Zufiaurre, Mekatronika industrialeko goi mailako teknikaria, Instalazioa eta Mantentze-lanak lanbide-arlokoa, Lizarrako Politeknikoa IIko ikaslea.
- Miguel Eraso Díaz de Cerio, Abeltzaintzako eta abere-osasunari laguntzeko goi mailako teknikaria, Nekazaritza lanbide-arlokoa, Iruñeko Nekazaritza eta Basogintzako IIko ikaslea.
- Mª Soledad García Ruiz, Garraioko eta logistikako goi mailako teknikaria, Merkataritza eta Marketina lanbide-arlokoa, Iruñeko Cuatrovientos II pribatuko ikaslea.
- Mª Pilar Urroz Echeverría, Estetika integraleko eta ongizateko goi mailako teknikaria, Irudi Pertsonala lanbide-arlokoa, Burlatako Burlada FP IIko ikaslea.
- Álvaro Moreno Yerro, Energia eraginkortasuneko eta eguzki energia termikoko goi mailako teknikaria, Energia eta Ura lanbide-arlokoa, Imarkoaineko Energia Berriztagarrien goi mailako IIko ikaslea.
- Edurne Ojer Bardaji, Analisien eta kalitate-kontrolaren laborategiko goi mailako teknikaria, Kimika lanbide-arlokoa, Iruñeko Donapea IIPko ikaslea.
- Maider Garayo Urabayen, Grabaketa eta estanpazio-tekniketako goi mailako teknikaria, Arte Plastikoak eta Diseinua lanbide-arlokoa, Iruñeko Arte Eskolako ikaslea.
- Margot Mercedes Sanz Chung, Aho-hortzetako higieneko goi mailako teknikaria, Osasuna lanbide-arlokoa, Iruñeko Nafarroako Lanbide Eskola Tekniko Sanitarioa IIko ikaslea.

- María Castrillejo Iglesias, Haur Hezkuntzako goi mailako teknikaria, Gizarte eta Kultur Zerbitzuak lanbide-arlokoa, Iruñeko Carlos III FP Ikastetxe Pribatuko ikaslea.
- Iñaki Bujan Sagastibelza, Informatika Aplikazioen Garapeneko goi mailako teknikaria, Informatika lanbide-arlokoa, Iruñeko María Ana Sanz Administrazio, Merkataritza eta Informatika IIko ikaslea.
- Nerea Larrea Larraza, Sukalde zuzendaritzako goi mailako teknikaria, Ostalaritza eta Turismoa lanbide-arlokoa, Burlatako Burlada FP IIko ikaslea.
- Naiara León Villanueva, Elikagaien Industriako Prozesuetako eta Kalitateko goi mailako teknikaria, Elikagaien Industriak lanbide-arlokoa, San Adriango Ega BHIko ikaslea.
- Jorge Celay Iriarte, Gorputz eta kirol jardueren animazioko goi mailako teknikaria, Gorputz eta Kirol Jarduerak lanbide-arlokoa, Irunberriko Lumbier FP IIko ikaslea.
- Edwin Alcivar Campaña Izurieta, Telekomunikazio eta informatika sistemetako goi mailako teknikaria, Elektrizitatea eta elektronika lanbide-arlokoa, Iruñeko Donapea IIPko ikaslea.
- Iñaki Escudero Ojuel, Fabrikazio mekanikoaren diseinuko goi mailako teknikaria, Fabrikazio mekanikoa lanbide-arlokoa, Tafallako IIPko ikaslea.

Batxilergoko sari bereziak

Hezkuntza Ministerioaren uztailaren 13ko 2058/2010 Aginduaren bitartez Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako Batxilergoko Sari Nazionalak arautu ziren eta hartan ezartzen da haietan lehia daitezkeela ikasketa horiek bukatu dituzten eta Hezkuntza Administrazioaren esparruan Batxilergoko Sari Berezia lortu duten ikasleak. Horregatik, Hezkuntza Departamentuak urtero deitzen ditu Batxilergoko Sari Bereziak. Batxilergoko bi ikasturteetan batez besteko nota 8,75 puntu edo gehiagokoa lortu duten Foru komunitateko ikasleei zuzenduta dago.

Aipatutako ministerioko aginduko 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskumena duten hezkuntza-administrazioek Batxilergoko Sari Berezi bat eman dezakete mila matrikulako edo bostehundik gorako zatiki bakoitzeko, deialdia egiten den ikasturtean, Batxilergoko bigarren mailan. Hala, Foru Komunitateak lau sari berezi eman ditzake, gehienez ere.

2016-2017 ikasturteko deialdian (183/2017 Ebazpena) 30 ikastetxe publiko eta itundutako 84 ikasle lehiatu dira. Deialdian ezarritako azterketak egin ondoren, 2016-2016 ikasturtean Batxilergoko Sari Berezia lortu duten ikasleak honakoak dira, 309/2017 Ebazpenaren arabera:

- Naila Sebastian Esandi, Iruñeko San Cernin ikastetxekoa.
- Jimena Martinicorena Zaratiegui , Iruñeko Arte Eskolakoa.
- Rebeca Aldaz Martínez, Iruñeko Padre Moret-Irubide BHIkoa.
- Javier Goñi Lara, Iruñeko Nuestra Señora del Huerto ikastetxekoa.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako sari bereziak

Hezkuntza Ministerioaren uztailaren 29ko ECD/1611/2015 Aginduan (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Arteko lanbide-ikasketetako ikasleek Musika, Dantza eta Arte Plastikoak eta Diseinuak arloetan duten errendimendu akademikoren sari nazionalak sortzen eta arautzen dituena) ezarritakoari jarraikiz, eta abuztuaren 31ko 1070/1990 Errege Dekretuan ezarritakoaren babesean, Hezkuntza Departamentuak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako sari bereziak iragar ditzake Nafarroako Foru Komunitatean, ikasketa horiek amaitu dituzten ikasleentzat.

327/2017 Ebazpenaren bidez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako sari berezien deialdia egin da, DBHko ikasketak Nafarroan eta 2016-2017 ikasturtean amaitu dituzten ikasleentzat.

Uneotan, deialdia garapen-fasean dago. Probak urriaren 3an eginen dira, Iruñeko Basoko BHIan.

2016-2017 ikasturteko sarituen izenak hauek dira:

- Santiago Illa Criado, Iruñeko Miravalles-El Redín ikastetxe pribatuko ikaslea.
- Miguel Ángel Armendáriz Armenteros, Burlatako Irabia-Izaga ikastetxe pribatuko ikaslea.
- Nicolás De Villalonga Zornoza, Iruñeko Miravalles-El Redín ikastetxe pribatuko ikaslea.

Florencio de Ansoleaga saria

Florencio de Ansoleaga saria 1917an sortu zuen izen bereko iruindar arkitekto eta arkeologoak (1846-1916); hark agindu zuen bere izena daraman fundazioaren errentetatik 200 pezetako sari bana eman ziezaietela Maisutza Eskola Normaleko (gaur egungo Nafarroako Unibertsitate Publikoko Maisu-maistra diploma) ikasketa-espedienterik onena duten tituludun gizonezkoari eta emakumezkoari, eta garai hartan Iruñean zegoen institutu bakarrean (Gurutze plazakoan) Batxilergoko ikasketa espedienterik onena duen ikasleari.

Berrehun pezetako saria ez da aldatu 1917tik hona, eta garai batean ekonomikoki garrantzitsua zen saria denborarekin aipatutako ikastetxeetako ikaslerik onenak publikoki aitortzeko modua izan da (2 euroko sari sinbolikoa bilakatu da).

Hezkuntza Departamentuak saria gorde du eta gaur egungo 2 euroko sari sinboliko hori 200 euroko material bibliografikoko lotearekin osatu du. Saria eratu zuenaren espiritua berreskuratzeko, Departamentuak Maisutza Eskola Normalean espedienterik onena izan duten bi tituludunei bi sariak ematea berretsi du nahiz eta jakin garai hartan Iruñeko Eskola Normalean bi atal zeudela, bata mutilena eta bestea neskena. Hartara, eta NUPen iradokizuna kontuan hartuz, bi sari horiek honelaxe emanen dira: bata, Haur Hezkuntzako Graduko espedienterik onenari, eta bestea, Lehen Hezkuntzako Graduko espedienterik onenari, sexu bereizketarik egin gabe.

Hala bada, 2015-2016 ikasturtean, Florencio Ansoleaga saria jaso dute honako hauek:

- Estibaliz Iturralde Salvador, ikasketa-espediente onena NUPeko Haur-hezkuntzako Irakasle graduan.
- Elisa González Franco, ikasketa-espediente onena NUPeko Haur-hezkuntzako Irakasle graduan.
- Violeta Ukar Arana, ikasketa-espediente onena Plaza de la Cruz BHIn.

Olinpiadak

«Olinpiadak» ikasleen interesa pizteko hezkuntza-proposamenak dira. Batxilergoko hainbat diziplina akademikotan deitzen dira, ezagutza, aplikazioa eta asmamena neurtzeko proba lehiakorren bidez.

Nafarroan, gehienbat unibertsitateek antolatzen eta sustatzen dituzte (NUP eta NU), unibertsitatearen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeen arteko harremanak hobetzearren. Dena den, kimikakoak Colegio de Químicos de Aragón y Navarra elkargoak antolatzen ditu. Bestalde, TORNAMIRA Matematikako Irakasleen Elkarteak DBHko ikasleentzako Matematika Olinpiada antolatzen du. Era berean, Izpiritu sortzailea - Espíritu creativo irabazi-asmorik gabeko erakundeak Sormenezko Marrazketa Olinpiada antolatzen du. 2016-2017 ikasturtean, Elizabarrutiko Irakaskuntza Idazkaritzak I. Erlijioko Olinpiadak antolatu ditu.

Hezkuntza Departamentuak olinpiada horien guztien garapena babestu eta hedatzen du eta, orobat, irabazleei sariak emateko ekitaldi instituzionala antolatzen du. Hala, ekitaldi instituzional

honek biltzen ditu hezkuntzako agintariak eta Batxilergoko espezialitate bakoitzean hoberenak direla erakutsi duten ikasleak, haien senitartekoak, irakasleak, unibertsitateetako eta entitate antolatzaileetako ordezkariak eta agintariak. Ikasturte honetan Nafarroako Jauregiko Tronuaren Aretoan egin da lehen aldiz.

- ***Fisikako Olinpiada***
  - Álvaro Cía Mina, Garesko Padres Reparadores Apaizgaitegi-Ikastetxekoa.
  - Alejandro Ruberte Sanz, Tuterako Benjamín de Tudela BHIkoa.
  - Miguel Ángel Satrústegui Gallego, Zizur Nagusiko Zizur BHIkoa.

- ***Matematikako Olinpiada***
  - Jon Liberal Huarte, Burlatako Ibaialde BHIkoa.
  - Álvaro Cía Mina, Garesko Padres Reparadores Apaizgaitegi-Ikastetxekoa.
  - Sergio David Cía, Iruñeko Calasanz ikastetxekoa.

- ***Biologiako Olinpiada***
  - Marta Chivite Lacabe, Tuterako Benjamín de Tudela BHIkoa.
  - Alberto Pezonaga Torres, Iruñeko Monjardín Lizeokoa.
  - Pablo Larraona Barásoain, Iruñeko Irabia-Izaga Ikastetxekoa.

- ***Kimikako Olinpiada***
  - Álvaro Iribarren Zabalegui, Iruñeko Santa Teresa Ikastetxekoa.
  - Peio Ardáiz Galé, Iruñeko Basoko BHIkoa.
  - David Bronte Ciriza, Iruñeko Navarro Villoslada BHIkoa.

- ***Geografiako Olinpiada***
  - Mario González Padilla, Iruñeko San Cernin Ikastetxekoa.
  - Ignacio Urbasos Arbeloa, Iruñeko San Ignacio Ikastetxekoa.
  - Nerea Bonafonte Días, Iruñeko Plaza de la Cruz BHIkoa.

- ***Filosofiako Olinpiada***

  Saiakeraren kategoria
  - Ariana Juguera Jiménez, Martzillako Marqués de Villena BHIkoa.
  - Alberto Pezonaga Torres, Iruñeko Monjardín Lizeokoa.
  - Ana García Pérez, Iruñeko Plaza de la Cruz BHIkoa.

  Argazkilaritza Filosofikoaren kategoria
  - Sara López García, Iruñeko Calasanz Ikastetxekoa.
  - Nikola Hristov Kalamov, Zizur Nagusiko Zizur BHIkoa.
  - Miguel Andía Díez, Iruñeko Irabia-Izaga Ikastetxekoa.

- ***Marrazketa Teknikoko Olinpiada***
  - Álvaro Leciñana Soldevilla, Logroñoko Santa María Batxilergoko Institutukoa.
  - Luis Arturo Saz Laguna, Zaragozako Escuelas Pías Ikastetxekoa.
  - Rubén Tellechea Zamanillo, Iruñeko Calasanz Ikastetxekoa.

- ***Sormenezko Marrazketaren Olinpiada***
  - Javier Fernández Roncal, Iruñeko San Cernin Ikastetxekoa.
  - Maite Burgos Casado, Corellako Arte Eskolakoa.
  - Maite Aláez Guergué, Iruñeko Plaza de la Cruz BHIkoa.

- ***Historiako Olinpiada***
  - Marcos Gómez García, Iruñeko Hijas de Jesús Ikastetxekoa.
  - Andrea Muro Iribarren, Iruñeko Nuestra Señora del Huerto Ikastetxekoa.
  - Javier Viñeta García, Iruñeko El Redín Ikastetxekoa.

- ***Erlijioko Olinpiada***

- Itziar Olagüe Barberena, Larraintzarko DBHIkoa.
- Uxue Beunza Arano, Larraintzarko DBHIkoa.
- Ex-aequo, Carla Ruiz Escribano, Tuterako Valle del Ebro BHIkoa eta María Jaurrieta Manresa, Zizur Txikiko Miravalles Ikastetxekoa.

Proba horien erkidego-mailako irabazle guztiak igaroko dira azken fasera; fase hori Espainiako hainbat hiritan jokatzen da urtero.

«Qué es un Rey para ti»

Fundación Institucional Española (FIES) fundazioak deitzen du, Orange Fundazioaren babesarekin. Lehiaketara eskulanak aurkezten ahal dira: eskulturak, muralak, marrazkiak, etab. Hauek har dezakete parte: Lehen Hezkuntzako 3., 4. 5. eta 6.eko ikasleek, DBHko 1. eta 2.ko ikasleek eta Hezkuntza Bereziko ikasleek, 18 urte bete arte. 19 ikastetxetako 268 ikasle aurkeztu dira.

2.4.2 Hezkuntzaren interesa alor instituzionalean

- ***Nafarroako Parlamentua***

Parlamentuko osoko bilkuran azterturiko gaiak

Foru-legeak

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 16 foru-lege onetsi zituen, eta horietatik bat da hezkuntzari buruzkoa:

Ebazpenak

Onartutako ebazpenetatik, 31 hezkuntzaren alorrekoak dira:

- Ebazpena, Nafarroako Gobernuari eskatzeko Ingeleseko Ikaskuntzako Programa (IIP) ezar dezala, hezkuntza-eskaintza zabal dezala eta eraikin berri bat eraiki dezala Cintruenigoko La Paz institutuan. 2016ko irailaren 29an.

- Ebazpena, Nafarroako Gobernuari eskatzeko hasieran aurreikusitako eskolatze-eskaintza manten dezala, hau da, Lodosako Pablo Sarasate BHIko aurretiko izen-ematea baino lehen aurreikusitakoa. 2016ko irailaren 29an.

- Ebazpena, Hezkuntza Departamentuari eskatzeko irakasleen aurkako erasoei eta gai hori jorratzeko neurriei buruzko analisia aurkez dezala. 2016ko irailaren 29an.

- Ebazpena, Nafarroako Gobernuari eskatzeko ez dezala inola ere aplikatu 310/2016 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko amaierako ebaluazioak erregulatzen dituena. 2016ko azaroaren 15ean.

- Ebazpena, Nafarroako Gobernuari eskatzeko hezkuntza-programa bat egin dezala, terrorismoaren aurrean bizikidetza baketsu eta demokratikorako balioak jaso eta islatzeko. 2016ko azaroaren 15ean.

- Ebazpena, Nafarroako Gobernuari eskatzeko lotura sor dezala ikasleen, ikastetxeen, auzoen eta Nafarroako Foru Komunitatearen beharren eta Hezkuntza Departamentuaren giza baliabideak eta baliabide materialak eta ekonomikoak finkatzeko eta banatzeko behar den politikaren artean. 2016ko azaroaren 15ean.

- Ebazpena, Nafarroako Gobernuari eskatzeko legegintzan eta antolakuntzan duen autonomia erabil dezala LOMCEren aplikazioaren eragin negatiboak murrizteko Nafarroako Hezkuntza Publikoan, ikasleengan, irakasleengan eta familiengan. 2016ko azaroaren 23an.

- Ebazpena, Nafarroako Gobernuari eskatzeko beka eta laguntzen deialdi orokorreko irizpide eta arau berriak manten ditzala, ikasle guztien ekitaterako eta aukera-berdintasunerako printzipioak bermatze aldera. 2016ko azaroaren 23an.

- Ebazpena, Hezkuntza Departamentuari eskatzeko zentro publikoetan Ingeleseko Ikaskuntzako Programa (IIP) aukera-berdintasunean ezartzen eta garatzen dela berma dezala. 2016ko abenduaren 14an.

- Ebazpena, Nafarroako Gobernuari eskatzeko irtenbide bat zehaztu dezala Noaingo Elortzibar DBHIren beharrentzat. Urtarrilaren 20an.

- Ebazpena, Espainiako Gobernuari eskatzeko uztailaren 29ko 310/2016 Errege Dekretua ken dezala, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko amaierako ebaluazioak arautzen dituena. 2017ko urtarrilaren 25ean.

- Ebazpena, Nafarroako Gobernuari eskatzeko irakaskuntza ez-unibertsitarioko hezkuntza-etapetako curriculuma ezartzen duen dekretuak eta Estatuko araudian oinarrizko izaerarekin erregulatzen den erlijio-irakaskuntzaren ordu-karga legeak ezarritako gutxienekora murrizteko lanaldi eta ordutegiak ezartzen dituzten dekretuak alda ditzala. 2017ko urtarrilaren 25ean.

- Ebazpena, Nafarroako Gobernuari eskatzeko prozedura bat egin dezala gelako metodologiari laguntzeko, dislexia duten ikasle guztien ikasketa errazte aldera. 2017ko otsailaren 13an.

- Ebazpena, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari eskatzeko eskola-orientazioari ordu gehiago eslei diezazkiola Nafarroako Lanbide Heziketako ikastetxeetan. 2017ko otsailaren 13an.

- Ebazpena, familiak seme-alabak Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eskolatu ditzaten animatzeko. 2017ko otsailaren 23an.

- Ebazpena, familiak seme-alabak Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eskolatu ditzaten animatzeko.

- Ebazpena, Nafarroako Gobernuari eskatzeko hezkuntza digitalera igarotzeko estrategia bat egin dezala, Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako zentro, ikastetxe, institutu, Lanbide Heziketako ikastetxe eta unibertsitate guztiak garai berrietara egokitzeko. 2017ko martxoaren 22an.

- Ebazpena, Hezkuntza Departamentuari eskatzeko irakaskuntza publikoaren garapena indartu eta sustatu dezala. 2017ko martxoaren 22an.

- Ebazpena, Hezkuntza Departamentuari eskatzeko Tuterako ETI ikastetxe bateratu politeknikoak eta Corellako Arte eta Goi Mailako Diseinuko Eskolak hezkuntza-eskaintza handitu dezatela, eta Nafarroako Gobernuari eskatzeko Nafarroako Erriberan Lanbide Heziketa bultzatzeko eta garatzeko plan bat diseina dezala. 2017ko martxoaren 28an.

- Ebazpena, Hezkuntza Departamentuari eskatzeko neurriak har ditzala lanaldi jarraitua ezarri behar duten ikastetxe guztiek ikasleei eskaintzen zaizkien jardueren kalitate-irizpideak betetzen dituztela bermatzeko. 2017ko martxoaren 31n.

- Ebazpena, Hezkuntza Departamentuari eskatzeko hizkuntza-eskoletan plaza-kopurua handitu dezala, eskatzaile-kopuruak eskaintza gainditzen duen hizkuntzetarako. 2017ko martxoaren 31n.

- Ebazpena, Hezkuntza Departamentuari eskatzeko planifikazio-neurriak har ditzala. 2017ko apirilaren 5ean.

- Ebazpena, Hezkuntza Departamentuari eskatzeko neurriak har ditzala lanaldi jarraitua ezarri behar duten ikastetxe guztiek ikasleei eskaintzen zaizkien jardueren kalitate-irizpideak betetzen dituztela bermatzeko. 2017ko maiatzaren 11n.

- Ebazpena, Hezkuntza Departamentuari eskatzeko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu bat eraiki dezala Cabanillas, Fustiñana eta Ribaforadako hezkuntza-beharrei batera erantzuteko. Maiatzaren 12an.

- Ebazpena, Nafarroako Gobernuari eskatzeko Estrategia Plan bat landu dezala Nafarroako Foru Komunitateko Eskola Publikorako. 2017ko maiatzaren 23an.

- Ebazpena, Hezkuntza Departamentuari eskatzeko giza baliabideak eta baliabide materialak areagotu ditzala aniztasunarekiko arreta sustatzen jarraitzeko. 2017ko ekainaren 21ean.

- Ebazpena, Hezkuntza Departamentuari eskatzeko azterketa bat egin dezala Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Lanbide Heziketaren arteko erlazioak argitzeko. 2017ko ekainaren 21ean.

- Ebazpena, Nafarroako Gobernuari eskatzeko ijitoen herriaren historia eta kultura sar ditzala Nafarroako hezkuntza-curriculumean eta Espainiako Gobernuari eskatzeko, berriz, bere eskumenen esparruan jaso ditzala. 2017ko ekainaren 21ean.

- Ebazpena, Hezkuntza Departamentuari eskatzeko hizkuntza-eskoletan plaza-kopurua handitu dezala, eskatzaile-kopuruak eskaintza gainditzen duen hizkuntzetarako. 2017ko ekainaren 26an.

- Ebazpena, Nafarroako Gobernuari eskatzeko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren 1081/2017 Ebazpena alda dezala. 2017ko ekainaren 26an.

- Ebazpena, Nafarroako Gobernuari eskatzeko eskola-garraioa Berriozarreko Mendialdea I eta II ikastetxe publikoetara itzul dezala. 2017ko ekainaren 26an.

Erakunde-mailako adierazpenak

Onetsitako adierazpen instituzionaletatik, ondoko hauek hezkuntzari buruzkoak dira:

Adierazpena, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko Lege Organikoa eta horren garapen guztiak ukatzen dituela berresteko. Eledunen Batzarrak onetsia. 2016ko urriaren 28an.

- Adierazpena, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak plazak ezeztatzeko eman duen epaiak kaltetzen dituen irakasleei babesa agertzeko. 2016ko azaroaren 18an.

- Adierazpena, Hezkuntza Departamentuari atzerriko hizkuntzak ikasteko programak erregulatzeko Foru Aginduaren zirriborroa kentzeko beharra agertzeko. 2016ko abenduaren 16an.

- Adierazpena, gizarte-hezkuntzari babesa agertzeko. 2017ko ekainaren 21ean.

340. taula: Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak hezkuntzaren inguruan tratatu duen gai-kopurua

Ekimen mota	Kopurua
Foru-legea	
Onetsitako ebazpenak	31
Erakunde-mailako adierazpenak	4

Hezkuntza batzordeak landutako gaiak

Agerraldiak

Honako hauen agerraldiak izan dira, bertan adierazitakoek eskaturik:

Irailaren 14an:

- Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia, Carlos Gimeno Gurpegui jaunak eskaturik, Hezkuntza Departamentuko bi zuzendari orokorren kargu-uztearen arrazoiak azaltzeko.

- Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia, Alberto Catalán Higueras jaunak eskaturik, bere departamentuko kargu-uzteen arrazoiak azaltzeko.

Urriaren 5ean:

- Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia, María Esther Korres Bengoetxea andreak eskaturik, eskola-jazarpenaren prebentziorako eta esku-hartzerako LAGUNTZA proiektuaren berri emateko eta hori azaltzeko.

Urriaren 11an:

- Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia, Javier García Jiménez jaunak eskaturik, uztailaren 5eko 82/2016 Foru Aginduaren berri emateko, zeinaren bidez hainbat foru-agindu ondorerik gabe uzten baitira.

- Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia, Alberto Catalán Higueras jaunak eskaturik, martxoaren 4ko 37/2010 Foru Agindua, ekainaren 18ko 103/2010 Foru Agindua, abuztuaren 31ko 146/2010 Foru Agindua eta irailaren 22ko 88/2014 Foru Agindua ondorerik gabe uzten dituen Foru Aginduaren berri emateko.

Urriaren 25ean:

- Hezkuntzako kontseilariaren eta Hezkuntzako zuzendari nagusiaren agerraldia, haiek hala eskaturik, Ingeleseko Ikaskuntzako Programaren ebaluazioaren emaitzen berri eta atzerriko hizkuntzetan emandako irakaskuntzaren ondorengo planifikazioaren berri emateko.

- Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia, Alberto Catalán Higueras jaunak eskaturik, Ingeleseko Ikaskuntzako Programaren ebaluazioaren emaitzen berri eta atzerriko hizkuntzetan emandako irakaskuntzaren etorkizuneko planifikazioaren berri emateko.

- Hezkuntzako Kontseilariaren agerraldia, Javier García Jiménez jaunak eskaturik, bere Departamentuarentzat irailaren 5eko prentsaurrekoan iragarri zituen planen berri emateko.

Azaroaren 18an:

- Hezkuntzako Kontseilariaren agerraldia, Carlos Gimeno Gurpegui jaunak eskaturik, 2016-2017 ikasturterako unibertsitateko ikasketak eta derrigorrezko ikasketen ondoko unibertsitatez kanpoko ikasketak egiten dituzten ikasleentzako beken deialdi orokorraren atzerapenaren eta edukiaren berri emateko.

- Hezkuntzako Kontseilariaren agerraldia, Alberto Catalán Higueras jaunak eskaturik, 2016-2017 ikasturtean unibertsitateko ikasketak eta derrigorrezko ikasketen ondoko unibertsitatez kanpoko ikasketak egin behar dituzten ikasleentzako beken deialdi orokorraren atzerapenaren eta edukiaren berri emateko.

Azaroaren 22an:

- Hezkuntzako Kontseilariaren agerraldia, Alberto Catalán Higueras jaunak eskaturik, Nafarroako Unibertsitate Publikoko ordezkarien proposamenen berri emateko, urte anitzeko finantzaketa-planaren ezarpenari dagokionez.

Azaroaren 30ean:

- Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia, María Teresa Sáez Barrao andreak eskaturik, Nafarroako Gobernuaren aurreikuspenen berri emateko, Nafarroako Gobernuari atxikitako haur-eskolen kudeaketari dagokionez, horien hezkuntza-izaera aitor dadin.

Urtarrilaren 10ean:

- Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia, Bakartxo Ruiz Jaso andreak eskaturik, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Medikuntza Gradua ezartzeko aukeraren berri emateko.

- Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia, Alberto Catalán Higueras jaunak eskaturik, Nafarroako sare kontzertatuko irakasleei ezarri nahi dizkien lan-baldintzen berri emateko.

Urtarrilaren 18an:

- Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia, Alberto Catalán Higuerasek eskaturik, Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiaren eta horren ondorioen berri emateko, zeinaren bidez euskarazko 100 plazarako deialdia ezeztatzen baita.

Otsailaren 7an:

- Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia, Geroa Bai, Podemos-Ahal Dugu eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerra foru-parlamentarien elkarteak eskaturik, Tuterako Fernando Remacha kontserbatorioaren egungo egoera errealaren berri emateko.

Otsailaren 8an:

- Nafarroako Eskola Kontseilua-Hezkuntza Batzorde Nagusiko presidentearen agerraldia, hark eta Alberto Catalán Higueras jaunak eskaturik, Nafarroako Hezkuntza Sistemaren 2015-2016 ikasturterako txostena aurkezteko.

Otsailaren 15ean:

- Hezkuntzako Kontseilariaren agerraldia, María Teresa Sáez Barrao andreak eskaturik, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea garatzeko ekintza-plana bere departamentuan zer neurritan betetzen ari den azaltzeko.

Otsailaren 22an:

- Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia, Javier García Jiménez jaunak eskaturik, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako aurretiko izen-ematean ikastetxe publikoak sustatzeko publizitate kanpaina azaltzeko, baita eremu ez-euskalduneko D ereduaren ezarpena ere.

Martxoaren 7an:

- Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia, Alberto Catalán Higueras jaunak eskaturik, Nafarroako Kontseiluaren irizpenaren berri emateko, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren 2/2017 Ebazpenari, horren ondorioei eta departamentuak hartuko dituen ekimenei dagokienez.

Martxoaren 14an:

- Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia, Alberto Catalán Higueras jaunak eskaturik, 2016-2017 eta ondorengo ikasturteetako unibertsitate-ikasketetarako laguntzen deialdiaren berritasunen berri emateko.

Martxoaren 28an:

- Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia, María Esther Korres Bengoetxea andreak eskaturik, euskarazko eskaintza akademikoarekin lotutako hainbat konturen berri emateko eta horiek azaltzeko.

Martxoaren 29an:

- Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia, Izquierda-Ezkerra foru-parlamentarien elkarteak eta Geroa Bai, Podemos-Ahal Dugu eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eskaturik, 2017-2018 ikasturterako aurretiko izen-ematearen datuak azaltzeko.

Maiatzaren 3an:

- Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia, hark, Nafarroako Alderdi Popularreko foru-parlamentarien elkarteak eta Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak eskaturik, departamenturako aurreikusita dituen planak eta jardun-lerroak azaltzeko.

- Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia, Alberto Catalán Higueras jaunak eskaturik, ebatzi gabeko deialdiei aurre egiteko proposamenaren berri emateko, baita, departamentuaren lehenagoko arduradunaren kudeaketari dagokionez, zer aldaketa egin nahi dituen azaltzeko.

Maiatzaren 9an:

- Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia, María Teresa Sáez Barraok eskaturik, Gobernuaren jarrera azaltzeko Egues Ibarreko Udalaren eskaeraren aurrean, zeinaren bidez Sarrigurenen haur-eskola publiko berri bat eskatzen baita.

- Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia, María Teresa Sáez Barraok eskaturik, Nafarroako Gobernuari irakaskuntza ez-unibertsitarioko hezkuntza-etapetako curriculuma ezartzen duten dekretuak eta, Estatuko araudian oinarrizko izaerarekin erregulatzen den erlijio-irakaskuntzaren ordu-karga legeak ezarritako gutxienekora murrizte aldera, lanaldi eta ordutegiak ezartzen dituzten dekretuak alda ditzala eskatzen dion ebazpeneko 1. puntua nola garatzen eta gauzatzen ari den azaltzeko.

Maiatzaren 23an:

- Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia, hark hala eskaturik, irakasleen eta gainontzeko langileen aurkako kanpo-erasoen inguruko txostena azaltzeko.

Ekainaren 20an:

- Hezkuntzako kontseilariaren eta Hezkuntzako zuzendari nagusiaren agerraldia, Javier García Jiménez jaunak eskaturik, Nafarroako hezkuntzako eskola-uzte goiztiarraren areagotzea azaltzeko.

- Hezkuntzako kontseilariaren eta Hezkuntzako zuzendari nagusiaren agerraldia, María Teresa Sáez Barrao andreak eskaturik, hezkuntzako eskola-uzte goiztiarraren areagotzea azaltzeko, diziplina anitzeko faktoreen ikuspuntutik.

Ekainaren 28an:

- Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia, hark hala eskaturik, prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren egiaztatzeko eskakizunaren emaitzaren berri emateko.

Lan-saioak

Hainbat lan-saio egin dira, zehazki, gai hauek jorratzeko:

Urriaren 11an:

- Lan-saioa, Nafarroako Dislexiaren Elkarteko ordezkariek ikastetxeetan dislexiaren inguruan hitz egiteko.

- Lan-saioa, Pitillaseko ikastetxe publikoko gurasoen elkarteko eta Udaleko ordezkaritza banak zentro horretako hezkuntza-errealitatea azaltzeko.

Urriaren 18an:

- Lan-saioa, Nafarroako Autismoaren Elkarteko ordezkaritzak autismoa duten pertsonek eskola-garaitik kanpo eskola bat izateko beharra azal dezan.

Abenduaren 2an:

- Lan-saioa, Elena Lasheras eta Ana Artázcoz andreek euren hezkuntza-proiektuaren berri emateko.

- Lan-saioa, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Elkarteak Gurasoen Babeserako Legearen berri emateko.

Abenduaren 16an:

- Lan-saioa, Nafarroako CONCAPAren ordezkariek Nafarroako Gobernuak hizkuntzak erregulatzeko onetsi nahi duen araudia balioetsi dezaten.

Abenduaren 19an:

- Lan-saioa, HERRIKOA federazioko kideek euren iritzia azaldu dezaten egungo Ingeleseko Ikaskuntzako Programa erregulatzeko araudiaren inguruan.

- Lan-saioa, Nafarroako British IIP ikastetxeetako guraso elkarteen federazioko ordezkariek Nafarroako Gobernuak hizkuntzak erregulatzeko onetsi nahi duen araudia balioetsi dezaten.

- Lan-saioa, Nafarroako British IIP ikastetxeetako gurasoen elkarteek Nafarroako Gobernuak egungo Ingeleseko Ikaskuntzako Programa (IIP) erregulatzeko egin dituen proposamena eta araudia azter dezaten.

Urtarrilaren 10ean:

- Lan-saioa, Cintruenigoko Bigarren Hezkuntzako Institutuko gurasoen elkarteko eta zuzendaritzako ordezkariek eta alkatetzako ordezkariek herriko hezkuntza-azpiegiturak eta hezkuntza-eskaintza handitzeko beharraren berri eman dezaten.

Urtarrilaren 13an:

Lan-saioa, Nafarroako Unibertsitateko Delegatuak eta ikasleen ordezkaritzak Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiaren 725/2016 Ebazpenaren ondorioen berri emateko. Ebazpen horren bidez unibertsitateko ikasketak eta derrigorrezko ikasketen ondoko unibertsitatez kanpoko ikasketak egiten dituzten ikasleentzako beken deialdi orokorra onesten da, 2016-2017 ikasturterako.

Lan-saioa, Educación, Esfuerzo y Excelencia 3E elkarteko ordezkaritzak Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen Zuzendari Nagusiaren 725/2016 Ebazpenaren ondorioen berri emateko. Ebazpen horren bidez unibertsitateko ikasketak eta derrigorrezko ikasketen ondoko unibertsitatez kanpoko ikasketak egiten dituzten ikasleentzako beken deialdi orokorra onesten da, 2016-2017 ikasturterako.

- Lan-saioa, Cabanillas, Fustiñana eta Ribaforadako gurasoen elkarteek Bigarren Hezkuntzako institutu bat eraikitzeko egin duten eskaera azaltzeko.

Martxoaren 17an:

- Lan-saioa, Nafarroako Adopzio Familien Elkarteko ordezkaritzak ikastetxeetarako funtsezko jardun-gida eta familiaren eta eskolaren arteko lankidetzarako jarraibideak azal ditzan.

Martxoaren 22an:

- Lan-saioa, Tuterako Compañía de María ikastetxean seme-alabak eskolatu ezin izan dituzten gurasoen ordezkariek euren egoera azaltzeko.

Maiatzaren 10ean:

- Lan-saioa, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko lehen kurtsoko aurretiko izen-ematean kaltetuak izan diren gurasoen ordezkariek euren egoeraren berri emateko.

Maiatzaren 17an:

- Lan-saioa, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluko, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikasleen Kontseiluko, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ortzadar GLBT Elkarteko eta Nafarroako Eskola Kontseiluko ikasleen ordezkariek Nafarroako Ikasgeletako Bizikidetzarako Proiektua aurkez dezaten.

Maiatzaren 24an:

- Lan-saioa, Berriozarreko Udaleko eta herriko ikastetxeen hezkuntza-komunitateetako ordezkaritzak eskola-garraioaren egoeraren berri eman dezan.

Ekainaren 21ean:

- Lan-saioa, Hezkuntza Berriztatzeko Nafar Ekimenaren ordezkaritzak Foru Komunitateko hezkuntza-proiektu berritzaileen esperientziaren berri emateko.

- Lan-saioa, Barillas eta Tulebrasko gurasoen ordezkaritzak lanaldi jarraituak hurrengo ikasturtean Cascanteko Santa Vicenta María ikastetxe publikoan zer eragin izanen dituen azaltzeko.

- Lan-saioa, Tuterako Compañía ikastetxean onartuak izan ez diren ikasleen gurasoen ordezkaritzak iritzia azal dezan Nafarroako Arartekoak egindako txostenaren inguruan.

- Lan-saioa, Nafarroako Afapna sindikatuak Hezkuntza Departamentuaren erabakia balioetsi dezan, prestakuntza pedagogiko eta didaktikorik aurkeztu ez duten bitarteko irakasleei moratoriarik ez ematearen inguruan.

- Lan-saioa, Nafarroako Administrazio Publikoetako Funtzionarioen Elkarteak (Afapna) iritzia azal dezan Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren 1081/2017 Ebazpenaren argitalpenaren eta ondorioen inguruan, zeinaren bidez, bitarteko irakasleei prestakuntza pedagogiko eta didaktikorako egiaztagiria eskatzen baitzaie 2017-2018 ikasturtetik aurrera.

- Lan-saioa, Fontellasko gurasoen ordezkaritzak Tuterako Monte San Julián ikastetxean lanaldi jarraituaren ondorioak zeintzuk izanen diren azal dezan.

Ekainaren 28an:

- Lan-saioa,STEE-EILAS sindikatuko ordezkaritzak iritzia azal dezan Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzura zuzendariaren 1081/2017 Ebazpenaren inguruan, zeinaren bidez bitarteko irakasleei prestakuntza pedagogiko eta didaktikorako egiaztagiria eskatzen baitzaie 2017-2018 ikasturtetik aurrera.

Mozioak

Hainbat mozio onetsi dira; zehazki, hauek:

Uztailaren 1ean:

- Mozioa, Nafarroako Gobernuari neurri egokiak har ditzala eskatzeko, San Adriango Alfonso X el Sabio ikastetxe publikoko Haur Hezkuntzako eraikina handitzeko proposamena aurkeztu eta eztabaida dadin hezkuntza-komunitatean.

- Alberto Catalán Higueras jaunak aurkeztutako mozioa, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari eskatzeko eskola-orientazioari ordu gehiago eslei diezazkiola Nafarroako Lanbide Heziketako ikastetxeetan.

Irailaren 16an:

- Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioak eta Izquierda-Ezkerra foru-parlamentarien elkarteak aurkeztutako mozioa, Espainiako Gobernuari eskatzeko uztailaren 29ko 310/2016 Errege Dekretua ken dezala, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko amaierako ebaluazioak arautzen dituena.

- Izquierda-Ezkerra foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako mozioa, Nafarroako Gobernuari eskatzeko legegintzan eta antolakuntzan duen autonomia erabil dezala LOMCEren aplikazioaren eragin negatiboak txikiagotu ditzala Nafarroako Hezkuntza Publikoan, ikasleengan, irakasleengan eta familiengan.

Irailaren 21ean:

- Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako mozioa, Nafarroako Gobernuari eskatzeko Ingeleseko Ikaskuntzako Programa (IIP) ezar dezala, hezkuntza-eskaintza handitu dezala eta eraikin berri bat eraiki dezala Cintruenigoko La Paz institutuan.

- María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako mozioa, Nafarroako Gobernuari eskatzeko hasieran aurreikusitako eskolatze-eskaintza manten dezala, hau da, Lodosako Pablo Sarasate BHIko aurretiko izen-ematea baino lehen aurreikusitakoa.

- Alberto Catalán Higueras jaunak aurkeztutako mozioa, Hezkuntza Departamentuari eskatzeko irakasleen aurkako erasoei buruzko analisia eta gai hori jorratzeko neurriak aurkez ditzala.

Irailaren 22an:

- Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerra foru-parlamentarien elkarteak aurkeztutako mozioa, Nafarroako Gobernuari eta Espainiakoari eskatzeko, beren eskumenen eremuan, eraso-plan bat aplika dezatela eskola-porrota, segregazio goiztiarra eta ikasleen kanporatzea geldiarazteko, ikastetxeetan demokrazia itzultzeko, ekitatea hobetzeko eta unibertsitateko irakasleen kidegoetan sartzeko akreditazio-prozedura arautzen duen Errege Dekretua geldiarazteko.

Irailaren 30ean:

- Alberto Catalán Higueras jaunak aurkeztutako mozioa, Nafarroako Gobernuari eskatzeko Hezkuntzako kontseilariaren uztailaren 5eko 82/2016 Foru Agindua indargabetu dezala.

- Miren Aranoa Astigarragak aurkeztutako mozioa, Nafarroako Gobernuari eskatzeko beka eta laguntzen deialdi orokorreko irizpide eta arau berriak manten ditzala, ikasle guztien ekitaterako eta aukera-berdintasunerako printzipioak bermatze aldera.

Urriaren 14an:

